


Juan Garmendia Larrañaga, Xabier Mendiguren Bereziartu Juan Garmendia Larrañagaren Hiztegi etnografikoa



55

Juan Garmendia Larrañaga Bilduma



1987. Léxico etnográfico vasco = Euskal Lexiko etnografikoa / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia-San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones = Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea ; Servicio Editorial Universidad del País Vasco = Argitarapen Zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987

1998. Léxico etnográfico vasco = Euskal Lexiko etnografikoa / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Medicina popular. Ritos funerarios. Léxico etnográfico vasco* (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 6). – Donostia : Haranburu Editor, 1998

2009

Juan Garmendia Larrañagaren Hiztegi etnografikoa / Juan Garmendia Larrañaga; Xabier Mendiguren Bereziartu ; azala Nestor Basterretxea; irudiak Dani Fano. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2009. – 256 : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 55). – ISBN: 978-84-8419-121-6. – Juan Garmendia Larrañagaren emaztea, María Juanita eta bilobari, Iker, eta Xabier Mendiguren Bereziarturen emaztea, Marian, eta seme-alabei, Oihana eta Haritz, eskainitako edizioa

Azala

Nestor Basterretxea

Irudiak

Dani Fano



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotocomposición: Michelena artes gráficas. Astigarraga

Léxico etnográfico **Juan Garmendia Larrañagaren** **Hiztegi etnografikoa**

Juan Garmendia Larrañaga
Xabier Mendiguren Bereziartu

Orria

Kredituak

Hitzaurrea. Iñaki Lekuona	5
Sarrera. Xabier Mendiguren Bereziartu	9

Hiztegi	11
----------------------	-----------

Monografiak:

Burdigintza	189
Heriotza eta heriotzari buruzko ohitura batzuk	197
Herri-medikuntza	203
Inauteriak: Tolosa, Lantz eta Zaldueño	209
Jentilen istorioak	217
Neguko festak	225
Sorgin-kontuak	237
Udako solstizioa, San Joan bezpera	247
Xisteragintza	253

...Hizkuntza egoera larri baten ez ezik, mendez mende metatu den tradizioaren, behin betiko desagertzeko zorian edo jada guztiz desagertu diren usadio eta ohituren azken ordezkariengandik jaso du lexikoa. Egoera agoniako hori hautemateko halako senti-beratasuna erakusteagatik Juan Garmendia Larrañaga nire aspaldiko adiskide maiteari, lehengoz gainera, meritu hau eman behar zaio.

Julio Caro Baroja

Nork eta zer. Juan Garmendia Larrañaga tolosar adiskidea... Ba ote da gure artean egi-lea ezagutzen ez duenik? Ez, alajaina, gure lehengo eta oraingo gauzen kezka darabilenik. Etnografia dela eta, ez baita segur aski izan eta izango bera bezain langile saiaturik...

Koldo Mitxelena

...Izakien edo gauzen azaleko ikuspegia agertzea ez du aski izan Juan Garmendia Larrañaga nire adiskideak; bakoitzaren egintzak eta bere inguruan dituen arremanak ere maiz adierazten dizkigu... Egileak mundu bat ezagutu du eta argitara eman: liburu au bete duten itzak adierazten diguten mundua. Garrantzitsua au dena: bai ikasgai asko, liburu ontan bildurik, ageri diralako; baita irakaspede bera, euskal ezikeraren edo kulturaren ikerlarientzat lanabes egokia delako ere...

Joxemiel Barandiaran

Pena bakarra dut: Iparraldean ez dugula Garmendia doktore bat, iparraldean galzorian dauden ohiturak eta tradizioak gordetzen lagunduko duena, baita Euskal Herria bere osotasunean ezagutzen ere, iparraldea eta hegoaldea. Pau eta Aturriko lurraldeko unibertsitatearen izenean, Baionako fakultate diziplinanzaren izenean ere –batik bat Biarritzen izenean, Iparraldean– Eusko Ikaskuntzaren eta neure izenean ere, jaso ezazu, jaun estimagarria, gure eskerrik onena eta gure miresmena. Zorionak eta mila esker.

Maité Lafourcade

...Garmendia maisuak, bere espezialitatea eta bere bokazioa den Antropologia Filosofiakoaren bidez, zinez erakutsi du bere herria maite duen gizona dela; dibulgaziorako konpromisoa duen gizona da eta berak oso ondo esan duen bezala, “zorrotasunean oinarriturik, nire konpromisoa ezagutzak neureganatzea da, egunez egun ikasten dudana ondorengo belaunaldiei jakinarazi ahal izateko”.

Izan ere, herri baten gaur egungo izaera bere iraganak eta etorkizunerako asmoak ezartzen dute. Garmendia doktorearen moduko pertsonak izan garena ezagutzen lagundu, gure izana sendotu eta izaten jarraitzeko kemena ematen digute, indar berrituta, etorkizuneko eta aurrera begiratzen duen gizarate batean.

Jesus Laguna

Juan Garmendiari eskerrak jakingo dute ondorengo belaunaldiek, kultura, lanabes eta tekniken eta euskarazko izen askoren berri. Hor daude euskal eskulangintzari, inauteriei, burdinolei, festei eta abarri buruzko bere liburuak eta idazlanak. Eta hor bere hitzaldi, mahai-inguru eta irratsaioetan eskainitako argibideak. Izan ere, folkloreak, etnografiak, zenbait festa eta ohiturak zerbait idatzi edo hitz egin nahi duen kazetariak, eskuera du, beti, Juan Garmendia, nornahirekin elkarrizketa gozoan jarduteko.

Juan Jose Ibarretxe

Hitzaurrea

Juan Garmendia Larrañagak bere bizitza osoa pasatu du euskal altxor etnografikoa biltzen eta jasotzen. Etxeko lantegian argizari-geruzarekin metxa inguratuz kandelak egiten ari ziren bitartean, kandela bila zetozen bezeroen ahotik hasi zen ipuin, esaera zahar, abesti, landare eta tresna-izen eta beste gauza asko entzuten eta entzundakoak paperean jasotzen. Antzinako usadio eta zera asko galbidean zihoazen, eta horrek guztiak gogotik kezkatzen zuen Juan Garmendia Larrañaga artean mutil gaztea. Kezkak sakonki eragin zion Juanen barrenari, eta beste gabe, aiton-amonek eta bestek gordean zituzten altxor balio handikoak liburuetan-eta jasotzea erabaki zuen.

Belarriak zabalik zituen eta begiak erne bezeroek ziotena entzuteko ez ezik, liburuetan euskal usadio zaharrez esaten zena arretaz irakurri, arakatu eta jasotzeko. Kandela artean entzun eta liburuetan irakurtzen zuenarekin, ordea, ez zuen aski, eta habiatik atera berri den arranoak adarrez adar lehenik eta koskortuxe denean hegaldi bizkorrez muga guztien gaindi gero egiten duen bezala, Juan Garmendia Larrañagak ere hegoak astindu eta Euskal Herriko zoko guztietara egin zuen korri. Lehenik Tolosaldean, gero Gipuzkoan eta hurrena Euskal Herri osoan, asteburuero ibili da, inoiz huts egin gabe, hogeita hamarren bat urterekin hasi eta oraintsu arte, honi galde, hari entzun eta paperean jaso, ondo-ondoan, beti, bere emazte maitagarri Maria Juanita Galardi Orbegozo zuela.

“Juan Garmendia Larrañagaren Hiztegi Etnografikoa” deritza CD-ROMean eta liburuan datorren edukiari. Halaxe da: egileak han eta hemen zuzenean ikusi, entzun eta irakurri duena dator liburuan jasota, ez, maiz, irakurleak entzun edo ikusi gogo lukeena. Harako herri hartako festaburuetan dantza hura begi kliska batean iruditu zitzaion bezalaxe dator jasota, landare baten izena Ultzamako baserritar bati entzun zion bezalaxe... Landare edota tresna mota baten izena askotara heldu da, mintzatzeko moduak ere askotarikoak baitira; halaber dantza mota bataren eta bestearen aldaerak, ez baitute gure gazteek oinetako hautsa denetan berdin astintzen.

Lan luze eta iraunkor horren emaitza zinez oparoa eta joria da: liburu sorta handia, artikulua, hitzaldiak eta abar. Lan aberats horren ordainez eman zioten, hain zuzen, 2001eko *Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutzaren Humanitateak eta Gizarte Zientziak VII*. Saria.

Juan Garmendia Larrañagak eta Xabier Mendiguren Bereziartuk, ordu arte lehenbizikoak argitaratutako liburu guztiak banan-banan miatu eta hiztegi etnografikoa osatzeari ekin zioten. Bestalde, urte eta neke askoren buruan jasotako ondasuna al bait ondoen hornitzeko asmoz, Azkueren Euskal Herriaren Yakintzan eta J.M. Barandiaranen *Mitología Vascan* heldu diren hitzak sartzea eta adiera berriz osatzea komeni zela iritzi zioten. Ez gara, beraz, Juan Garmendia Larrañagaren orain arteko lanen bildumaz edo eranskin soil batez ari. Xabier Mendiguren Bereziartu etnografo adituak eta Juan Garmendia Larrañagak, honek bere idazlanetan argitaraturik dituen euskal hitz guztiak bildu, sailkatu eta, hurrenkera jakin batean, hiztegi honetan argitaratu dituzte.

Neurri egokiak hartzen ez badira belaunaldi bakar batean betiko desagertzeko zorian da gure kultur ondasuna. Kezka horrek eraginda hartu du Ikastolen Elkarteak bere gain Euskal Etnografia Hiztegia argitaratzeko erantzunbeharra; hori da bere buruari egin dion erronka. Hiztegiaren berezitasunak kontuan izan dira. Hori dela eta, proiektua taxuz burutzearren, sistemarik egokiena bilatzen saiatu da Ikastolen Elkarteak, eta aldekoak eta kontrakoak zorrotz haztatu ondoren, *Hiztegi Etnografikoaren* euskarririk egokiena CD-ROM multimedia dela uste izan du. Aldi berean, paperezko euskarrian, tirada bat egitea erabaki du.

Ikastolen Elkartearen esku utzi zen hiztegia doitzea, moldatzea eta biribilteza. Horrenbestez, Juan Garmendia Larrañagak eta Xabier Mendiguren Bereziartuk 2.500 sarreraz osatutako testua berraztertu, aberastu eta doitu egin da, sarrerak sistematikoki antolatu dira, eta jendartearen ausarki zabaldu nahi denez gero eta zer den eta zenbat balio duen erakutsiz gazteen gogobeteko gerta dadin, testuak arretaz egokitu dira. Era berean, irudikatze grafikoa landu nahian, euskal altxor etnografikoa gordeta dagoen museo nagusiak arakatu ditu Ikastolen Elkarteak, hala Euskal Herrian nola kanpoan.

Proiektu honen bi euskarriak, edukiaren eta hizkuntzaren mailari dagokionez, –hizkuntzarena Xalbador Garmendiak egindako lanari eskerrak batik bat– goren-gorengoak direlakoan gaude. Beste horrenbeste esan daiteke CD-ROMaren maila teknikoaz. Marrazketa eta estetikan alorra ere oso kontuan izan da: Nestor Basterretxeak lan honetarako berariaz sortu duen azalen karatula hor dago diogunaren lekuko.

Ikastolak, ikastetxeak, liburutegiak eta kulturuneak zapaltzen dituztenek eta etnografia eta, oro har, euskal kulturarekin kidesun estua dutenek, Hiztegi Etnografiko honetan datozen ipuin, usadio, dantza, sorgin-kontu, esaera zahar, haur-jolas, kantu eta abarrekin badukete, zernahi kontsultatzeko ez ezik, zernahiz gozatzeko aukera bikaina.

Gure esker ona erakutsi nahi diegu Tolosako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuari. Juan Garmendia Larrañagaren Etnografia Hiztegia aintzat hartu eta berori garatzeko eta gauzatzeko eskaini duten laguntza benetan estimatzen eta eskertzen dugu.

2003ko ekaina

Iñaki Lekuona,
Ikasmaterialgintzaren arduraduna

Sarrera

Hiztegi Etnografiko honen jatorria, duela mende erdi bat baino gehiago, Juan Garmendia Larrañagak Euskal Herrian zehar egiten hasi zen ikerketetan dago. Ordu luzeak eman zituen Tolosako etnografoak, ezin zenbatu ahala lekukorekin, era asko eta desberdinetako gaiei buruz lekukotasunak jasozten. Urtez urte liburuak mamituz eta argitaratuz joan zen Juan Garmendia Larrañaga. Nik neuk Juan ezagutu eta elkarren adiskide bihurtu ginenerako orain 8 liburukitan argitaratu den lan horren parterik handiena burutua zegoen. Hala ere, geroztik ere ia urtero izenburu bat edo beste irakurleei eskaintzeari ez dio uko egin eta oraindik ez dirudi atsedena hartzeko asmorik duenik.

Dena dela, orain zenbait urte, bere doktorego-tesia *Léxico Etnográfico Vasco* argitaratu eta irakurri nuenean, eta bertan Juanek urteetan zehar bildutako hizkuntzazko eta etnografiako altxorraz jabetzean, ezinbestekoa iruditu zitzaidan ordu arte argitaratutako liburuetan agertzen ziren euskal hitz eta izenen bilketa egin, alfabetoaren arabera ordenatu eta azalpenez hornitzea.

Juani berari eman nion ideiare berri eta pozik onartu zuen proposamena, eta lehenbailehen ekin niezaiola lanari eskatu zidan.

Horrela, ordu arte argitaratutako liburu guztiak banan-banan miatu eta hiztegi etnografikoa osatzeari ekin nion, lehenik, eta azalpen laburrak idazteari gero, Juanen beraren ohar eta iradokizunak kontuan hartuz.

Hasieran, batez ere hizkuntza balioari begira hasi nuen bilketa hura, pixkanaka gero eta balio etnografiko handiagoa hartzen hasi zen; horregatik, oso antzekoak ziren aldaerak baztertuz joan nintzen eta sinonimoen arteko erlazioak ezarritz.

Irakurleari begira interes handiagoa izan zezan, ehuneko handi batean Juanen bilketa-lanean oinarrituriko altxor horri Azkuek *Euskal Herriaren Yakintza* eta J. M. Barandiaranek bere *Mitología Vasca* obretan aipaturiko zenbait hitz berri sartzeari, eta aurrez zeudenak kontzeptu berriz osatzeari komenigarri irizti nion, eta halaxe egin nuen.

Bestalde azken fasean Ikastolen Elkartek bere lantalde eta adituen bitartez egindako ohar, zuzenketa eta osatze-lanek, nola hitzezkoek hala irudi eta soinuak, nabarmen aberastu eta bizitu dute Juan eta bion lan hau eta haiei guztiei eskerrikeri beroenak emateko baliatu nahi dut aukera hau, izan ere arreta eta gogo biziz landu eta aberastu baitute argitalpen hau hilabete luzetako lan saiatuan.

Une honetan eskaintzen dugun bertsioan hizkuntza eta etnografiaren arteko oreka lortu dugulakoan gaude eta hori dena liburuak, eta bereziki, CD euskarriak ematen dituen aukera ugari eta aberasgarriez horniturik. Plazartzen dugun modu honetan, irakaskuntzan ez ezik dibulgazio mailan ere erabilpena izango duen materiala prestatu dugu, eta merkatuan gaur egun dagoen hutsunea betetzera datorrela esango nuke.

Joanen inurri-lan luze eta egonarritsuak metatu duen ondare horrek izendatzen duen mundu hori guztia, neurri handi batean, desagertu egin da edo erabat desagertzeko zorian dago. Hemen eskaintzen duguna notario-lan bat da eta iraganetik oraindik gordetzen ditugun zenbait hitz eta errealtateen berri belaunaldi gazteei ematea da gure helburua, nondik gatozen ikusirik nora joan gaitezkeen suma eta asma dezaten.

Hiru mailako testuak aurkituko ditu irakurleak: 23 artikulua nagusi, kontzeptu eta azalpen zerrendak eta sinonimoak.

Bestalde, argazki, marrazki, bideo eta soinuak bizitasuna emateaz gainera lagungarri dira hitzez azaldutako kontzeptuak hobeki irudikatu eta ulertzeko. Hizkuntzari dagokionez ahalegin berezia egin dugu hainbeste urtetan zehar eta euskalki desberdinetan jasotako altxorra euskara batuz ematen, eta hitz askoren definizioa emateko orduan bereziki lagungarri gertatu zaigu Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*.

Egileek badakite liburuak azkengabeki luzatzeko adina informazio, kontaktuzun, ipuin eta elezahar dagoela, baina gu etnografiak detektatu duen mundu horren gaineko lorea edo bitsa ematen saiatu gara, ahalik eta erarik atsegin eta ulerterrazenean. Gai horiek beroriek gehiago sakontzeko eta beste liburu batzuetara jotzeko gogoak piztea lortu badugu, duela zenbait urte geure buruari izendatu genion helmuga eta asmoa aise gaituztat joko genituzke.

Xabier Mendiguren Bereziartu

Hiztegia

Aa

abao *Ik.* abaraska (Bizkaia) / *Ik.* abar sorta.

abar sorta Pago edo haritz-adarrezko azao edo bilduma. Adibidez, Aramaioko azken errementariak zortzi abar sorta erabiltzen zituen bere lan-ekintzan behar zuen sua pizteko (Aramaio).

abaraska 1. Erleek, ezta gordetzeko, erlauntzaren barnean argizariz prestatzen dituzten hexagono formako zulotxoen multzoa. 2. Erleak mitologia aberatsa du euskal tradizioan: etxeko jauna edo andrea hiltzen zenean horren berri ematen zitzaien abaraskako erleei. → *erle*.

abarka 1. Euskal Herrian erabili ohi den ondu edo zurratu gabeko larruzko edo gomazko oinetako lokarriduna. Abarka-begia deitutik barrena sartzen dira lokarri edo kordelak. 2. Abarka-neurriak zenbakiz izendatu izan dira. → *abarka begi*.

abarka-begi Abarkaren azalean ageri diren pinporta beltzak.

abarkadun Abarkak erabiltzen dituen, baserritarra, gehienetan gizarte-klasetzat hartua, gutxiesgarria.

abarkagile Abarkak egiten dituen.



abarkagile

abarkero *Ik.* abarkadun / *Ik.* abarkagile.

abarketa *Ik.* espartin.

abarketa sorta Haur-jolas honetan neska eta mutilen artean ibiltzen dira jolasean, eta parte-hartzaileak, korroan, lurrean eserita daudela ematen zaio hasiera. Batek “Neu jarriko naiz” esaten zuen eta korroaren erdialdean jartzen zen. Korroan jarritako neska-mutikoeak abarketa bat izaten zuten eta elkarri pasatzen zioten hankazpitik. Halako batean, korroan zegoen batek abarketa jartzeko lepoan erdikoa, hark ikusi gabe, eta ondoren gorde egiten zuen abarketa. Erdikoak abarketa aurkitu behar zuten zutik jarri gabe, eta aurkitutakoan, haren jabe zena, erdira pasatzen zen eta, erdikoa, korrora (Zornotza).

abatz Gaztagintzan eta esnearen gatzaketan erabiltzen den zurezko ontzia, bi euskarri dituena, kaikua eta goporra baino handiagoa.

abemariak Arratseko ordu zehaztugabea, arratsalde aurreratu eta gauaren hasiera bitartekoa, iluntzen hasten zuenean neska-mutil gazteei jartzen zitzairen etxeratzeko ordua. Ordu horretan jo eta erreferentziatzat hartzen zen elizkanpaiari “abemarietakoa” esaten zitzaiolako du izen hori.

abere 1. Azkuek bere *Euskalerrriaren Yakintza*-n adierazten duenez, garai hartan eta oraindik ere bai noizean behin abere hitza erdarazko animal esateko erabiltzen da. Hala ere, aurretik Nafarroa Garaian, Bizkaian eta Gipuzkoan hitz hori zaldiaren gisako animaliak izendatzeko erabili izan da: behiaren gisakoei, berriz, abelgorri deitu izan zaie eta ardiaren gisakoei abere xehe. 2. Herri albaitaritzaren arabera, abereak eta abelgorriak gaitzetik libratzeko ukuilua ongi garbitu, ahotza barra-barra zabaldu eta su ematea gomendatzen zen; bitartean bost argizari edo ezko puxka erretzen ziren Jesukristoren bost zaurien oroitzapenean. 3. Ereinotz bedeinkatua, ur bedeinkatua eta argizari bedeinkatua erabiltzea aski hedaturik egon da abereak gaitzetik jago teko.

abere mintzalari 1. Herri-ipuinetan, hizketan agertzen diren animaliak, besteak beste, ardia, astoa, otsoa edota belea. 2. Goroldioa eta altzariak mutu: gauza eta animalia guztiek hitz egiten zekiten garaietan, horiek ahaleginak egin omen zituzten goroldioari eta etxeko altzariei hitz egiten irakasteko, baina irakatsi beharrean denei ahaztu egin zitzairen. 3. Ardi mintzalariak: ardiek hitz egiten zuten garaian, artzain batek ataka ireki eta artaldea belardi batean sartu zuen, baina ardiek ez zuten belarririk jaten:

“Aurrean goxo, aurrean goxo” esanez aurrerago joaten ziren, eta egun hartan belarririk jan gabe goseak geratu ziren. Hurrengo egunean artzainak ataka berriz ireki eta artaldea belardian sartu zuen: oraingoan, ordea, ardiak “Bertan goxo, bertan goxo” esanez, belarra jaten hasi ziren.

abere-azazkal Aberearen aztapala edo kaskoa.

abes Laneko zenbait tresnak eta itzainen orgek luzetara izaten duten zura.

abia Kostaldeko zurginek erabiltzen duten prentsa edo torlojua.

adar 1. Zenbait animaliak kopeta aldean dituzten luzakin gogorak. 2. Gehienetan behi edo idiadarrez egindako soinu-tresna. Puntaren muturra moztu eta luzetara zulo bat egiten zaio berez duen barruko tuturaino. Ezpainak bibratzeko, zuloari kanpoaldetik kono-enbor formako errebailea egiten zaio tron-



adarra

peta arrunten aho-pita gisan. Adarrek ez dute tonu-aldaketarako zulorik izaten eta, oso musikalak ez badira ere, dei egitea izan da tresna honek izan duen eginkizun nagusia. Nafarroako herri batzuetan, adibidez, egunero biltzen zituzten etxeetako idi, behi, mando, ahuntz... ordaindutako abeltzainak larrera eraman zitzaizkion. Honek, egu-

nero, abiatzeko orduan, adarra jozen zuen, abere guztiak atera zitezten eta etxeetatik biltoki jakin horretara joan zitezten. Txalaparta-joldi bakoitzaren aurretik ere, adar handi batekin dei gisako joldia egiten zuten. Antzina, txalapartaldi haietan, adar-jotzaile bat baino gehiago inguratzen zen. Sinonimoak: Turuta, Korneta. 3. Adar hustua, ontzi bezala erabiltzen dena. 4. Segapotoa.

adar-ikatz Zuhaitz-abarrez egindako egur-ikatz.

adarkutz Uztarriaren muinoiak edo hedeak tinkatzeko dituen irtenguneak.

adartoki *Ik.* adarkutz.

adin 1. Norbaiti buruz jaio denetik igaro den denbora. 2. Zaharrek ez omen dute adinik esan behar laster hil nahi ez badute. Azkuek dioenez, Alemanian ere bada uste hori.

afixu *Ik.* ahabia.

agerpen Tradizioz datozen kontakizunetan era askotako agerpenen berri ematen da; hona hemen kasu batzuen zerrenda: Hildakoak, arimak: Garbitokiko armak artzainari. / Garbitokiko arima danborra jotzen ari zen zoroari. / Hildakoa arrebei. / Hildakoa meza eskertzeko senideei. / Elizan meza eskatzeko. / San Migelen bildotsa emateko eskatuz. / Hildako ama-alaba. / Hildako eskribaua. / Hildako zaldizkoa. / Hildakoa Aralarko San Migelen bildotsa eskaintzea eskatuz. / Hildakoa arrebari hileta-ospakizun eske. / Hildakoa irule bati. / Hildakoa meza eske. / Hildakoa meza eskertuz. / Hildakoa "Purgatorioko Korreo". / Hildakoa senideei altxorra erakusteko. / Hildakoa zoro danborjole bati. / Hildako usteldu gabea meza eske. / Mugarria ezkutuka aldatu zuenaren arima. / Abereak: Bi idi zin-

tzarridun./ Fenomenoak: Sugarra./ Deabrua: Irule bati. / Emakume gaixo bati. / Ikazkin bati. / Emakume biluziari. / Hiru apaizi.

agillando-agillando Adituen arabera latinezko hoc in annotik dator. Hitz horiekin hasten den kanta asko da euskaraz: "Agillando-agillando / Bizkaian Durango; / aingeruak gara / zerutik gatoz... / Una limosnita / por amor de Dios".

agoa Olako sutegian batera urtzen zen burdin zatia. Zeharroletan hamabosten bat arroako agoak egiten ziren.

agoaburrika *Ik.* agoagorrika.

agoagorrika Oletan erabili izan diren burdinazko matxardak.



agoagorrikak

agoapalanka Oletan agoarekin erabiltzen zen burdinazko haga luzea.

agoaporrika *Ik.* agoagorrika.

agoni ezkila Hilzorian dagoen norbaiten agonia adierazten duen kanpaihotsa (Intza).

agonia Hil aurreko uneak, biziaren eta herioaren arteko azken borroka.

agot 1. Nafarroa garaiko iparraldean bizi den jatorri ezezaguneko arraza bateko kidea; ile hori, larru zuri eta begi nabarrekoak izan ohi dira. Era guztietako bizioen jabe egin izan dira agotak: lapur, doilor, biziotsu eta kirastuntzat eduki izan dituzte. Judu, sarrazeno, heretiko eta belarrian gingilik gabeak zirela esan ohi zen, horregatik ez zegoen apaizgorako agotik onartzerik. 2. Agotek ez omen dute mukirik. Elizan, meza nagusi-koan, ez ziren ofertorioan aldarera joaten. Meza ostean, apaiza eliz atarira joaten zen agoten eskaintza hartzera; horregatik agotak eta odol garbiko euskaldunak ez ziren elkarren artean nahasten eta elizan sartzeko ere ate desberdinez baliatzen ziren. Azkueren eta beste zenbaiten ustez, agotak Erdi Aroko legenardunen ondorengoak ziren. 3. Agotak eta mairuak: Garai batean Ezkurran baziren agotak, Arizkungo Bozate auzotik etorriak. Ezkurrago agotak mezatara joaten ziren, baina elizara sartzeko beren atea eta urbedeinkatu-ontzia zituzten. Beste ezkurrrak bezala artzaintza eta nekazaritzatik bizi ziren. Agotei antzematen zitzaizen belarriak aurpegiaren erantsiak zituztelako. Bi agot ezkontzen baziren, haien haurrari mairu deitzen zitzaion.

agote *Ik. agot.*



agotea

ahabia Txilarraren antzeko zuhaixka fruitu mamitsu beltzaxkak eta jateko onak ematen dituena. San Joan sendorrek afixuak edo ahabiak izaten zituen: (*Vaccinium myrtillus*).

ahaide hurbil Familiartekoa, senide hurkoa, gorpuaren laguntzaileen artean eta ondoren elizako hiletan leku berezia izan ohi dutena. Aspaldi, hileta-bazkarietan gehiegikeria ugari egiten zen. Gorosabelek zioenez “hildakoa izaten zen biziaren lurperatzaile”, nahiz horien aurka probintzia eta udalerrri mailako arau asko eman zen. Hala ere, ahaide hurbilei harrera ona egiten zieten arau horiek.

ahari 1. Ardiaren arra, adar birbilkatuak dituena. Ahari talka edo topekarako zaletasun handia izan da ia Euskal Herri osoan. 2. Esaera zaharra: “Ahariaren grisolak (barra-bilak) maiatzean dira onak”.

ahoko soinu *Ik. ezpain-soinu.*

aho-korapilo Euskaraz, beste hizkuntzetan bezala, badira hitz egiteko erraztasuna neurtzen duten zenbait esaldi, batez ere bizkor esateko zail gertatzen direnak. Horien artean aski ezagunak dira honako hauek: Alkipean kapa, kaka alkipean (hamar aldiz huts egin gabe esatea izaten da dema). Akerrak adarrak okerrak ditu, adarrak akerrak okerrak ditu, okerrak adarrak adarrak ditu. Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zahi, zohi, bele, arma, xixpa, tiro, pun. Olagarroaren erro errea larre errean gora.

aho-soinu Zurezko euskarria duen soinu-tresna. Itxura eta sendotasuna emateko eta mihiak babesteko, kanpotik metalezko txapaz forratuak izaten dira. Jotzean hai-zea ahotik kanpoaldera edo barnealdera joaten da, posizio berarekin bi tonu ezberdinak emanez. Soinu-tresna hau oso zabaldurik egon da gure artean. Jotzaileak ez dira profesionalak izan, baina kasu askotan oso maila altua lortu dute. Etxetako sukaldeetan, ostatuatan eta toki itxietan jo da kantu eta dantzarako. Baita elizkizunen ondoren gazteek dantza egin zezaten,

atari aurretan uda aldeko eguraldi onarekin, barruan neguan.

ahuntz-erdara *Ik.* zapo erdara.

aide gaixto San Joan goizean etxeko sarreran elorri zuria ezartzen zen aire gaiztoa edo tximista urruntzeko (Auritz).

aide txar *Ik.* erreuma (Gaztelu-Gipuzkoa).

aidekan *Ik.* aideketan.

aideketan Haur-jolas honetan, parte-hartzaileak lasterka abiatzen dira aulkian, harrian edo zuhaitzean... esertzera, eta bitartean hau diote: "Aideketan azkena jartzen dena". Toki egokia aurkitzen ez duena zain-tzaile modura gelditzen da eta horren eginbeharra lagunetakoren bat tokiz aldatzen denean eskuaz ukitzea da. Jokoa ari direnak behartuta daude maiz samar tokiz aldatzera, eta batetik besterako lasterraldian harrapatutakoa izaten da hurrengo harrapatzailea. Halaxe jarraitzen da nekatu edo aspertu arte (Berastegi).

aideko *Ik.* aireko.

aihen zuri Herri-medikuntzak ekzema sendatzeko gomendatzen duen landarea: (Clematis vitalba, clemátide, nueza, clématite des haies, traveller's joy).

aihotz Sasiak eta sastrakak ebakitzeko erabiltzen den burdinazko igitai gisakoa, aho edo sorbatzaz kontrako aldean mihi edo irtengune bat duena.



aihotza

aimari ezkila *Ik.* abemariak.

ainbiriketa 1. Jolas hau herriko plazan edo eskolako atsedendian jolasten zuten neska-mutilek. Korroan jarri eta batek zenbakia esaten zuen oihuka eta zenbakia egokitzen zitzaiona kanpoan gelditzen zen, eta hala jarraitzen zen bakarra geratu arte; azken horri atxi deitzen zitzaion. Atxi izenekoa lagunak atzetik abiatzen zen eta bitartean hau abesten zuen: "Ain-bira, maingira, harrapatu arte segi". Harrapatzen zuena horma edo zuhaitz baten kontra jartzen zuen. Berria harrapatutakoan, aurrekoari eskua emanda "katean" uzten zuen. Jolasean ari zirenetako batek atxiari ihes egin eta kateko norbait ukitzen bazuen, guztiak libre gelditzen ziren. Baina atxi horrek denak harrapatzen bazituen, bere lekuan beste atxi bat jartzen zuen (Aia). 2. Aldaketa gutxi batzuekin balebaleka, balea, balean, balera izeneko jokoak ere funts bera du.

aingerua hil Haurtxoa hil.

aingeru-entierro Haurtxoari egiten zaizkion hileta-elizkizun eta ehorz-keta.

aingeru-kanpai Haurtxo bat hiltzean jotzen den kanpaia.

aingura Itsasontziak itsas zolari tinkatzeko erabiltzen den burdinazko tresna mutur-zorrotza, bi beso dituena. Bola, ardatz, atzetur edo atza-zal, gurutze eta kankamoa bezalako zatiak bereizten zaizkio.

ainguragile Aingurak egiten dituena.

aintzur *Ik.* aitzur.

aiortz *Ik.* aihotz.

aire gaizto *Ik.* ekaitz (Donamaria).

aireko 1. Antzinakoen artean oso zabaldua zegoen munduaren ikus-

pegi animista, dena sakratua zen. Gerora, dibinitateetara jo gabe izadiko fenomenoak era berriz azaltzen hasten direnean, profanoa sartzten da jokoan, izaki eta gertakarien artean bikoiztasuna sortuz: batzuk jeinuen, airekoen mundu-koak dira; beste batzuk, aldiz, naturalak, berezkoak. → *berezko*. 2. Aireko jeinua gaizkilea da, inguma bezala, eta gaixotasunak sorrarazten ditu.

airetikako *Ik.* aireko.

aita ponteko Haurren bataioan jaioberria besoetan hartu behar duen gizonezkoa, ama pontekoarekin batera. Ponte hitzak bataiarri esan nahi du, hain zuzen bataio-uraz isurtzean ur hori hartzen duen harrizko ontzia, eta hortik dator izena, nahiz eta zenbait herritan "puntako" bihurtu den.

Aitezarko.

Aitor A. Xaho zuberotarrak asmatu-riko euskaldunon alegiazko aitalehenaren izena, aita-orotik omen datorrena, Navarro Villosladaren *Amaia o los vascos en el siglo VIII* eleberritari eskerrak bereziki zabaldua.

Aittixarko *Ik.* aitezarko.

Aittun Haundi Arbizuko lote-pertsonaia. Kinkuagesima igandean hasten ziren jaiak, arratsaldeko bezperen ostean. Txatarrak edo txatarjantziak irtetzen ziren. Mutilak neska-jantzian ere ibiltzen ziren, eta igande arratsaldean, eseki ondoren, Amiñ Txikirekin batera erretzen zuten.

aitzina-pika Zuberoako maskaradan egiten den dantzetako bat, moneiak eta baskaleta izenekoekin batera.

aitzur Lurra higituz zuloak egin, edo hura lantzeko erabiltzen den burdi-

nazko lanabes kirtenduna. Aitzurak zurezko kirtena sartzeko izaten duen zuloari aitzur-begia deitzen zaio. Aitzurra forjatzean puntu egokia ematen zaio eta hori egiteari tenplatu esaten zaio.

aitzurra tenplatu Aitzurra forjan mailuaz-edo landu, puntu egokia eman uretan hoztuz.

aitzur-sarde Bi hortz dituen aitzurra, horz-biko edo hozpiko ere deitua.

aizkolgile Aizkorak egiten dituen.

aizkolto Aizkora txikia (Latasa).



aizkoltoa

aizkondo *Ik.* aizkora (Astiz).

aizkora 1. Zura eta kidekoak ebakitzeko erabiltzen den lanabesa, burdinazko xafla laua, aho-zorrotza eta begiduna dauka, eta begi edo zulo horretan finkatzen den zurezko kirten batez osatzen da. Aizkoraren atal nagusiak hauek dira: ahoa, begia, burua eta kirtena. Aizkoragintzan zera desberdin asko burutzen ziren: ahoa berdindu, haziburdina edo hazigarria sartu, begia zuzendu eta apaindu, betondoko, sakamakila, tarteko edo ziria sartu, aizkora tiratu, txukundu, eta akastu eta gero zuritu, hau da, geztera edo zorroztarrian zorrotzu. Aizkora mota nagusiak hauek dira: arotz-aizkora, basaizkora, enbor-aizkora, labra-aizkora, leunketarako aizkora, aizkora mehar, aizkora motz, aizkora aho-

borobil, ilargi handiko, aizkora aho-handiko, aizkora zabal, uztargin-tzarako aizkora. 2. Mitologian. Tximistak bere ahoa nora zuzendu behar duen adierazteko (zeraunia edo harrizko aizkoratzat jotzen zen) eta horrela etxearen gainera eror ez zedin, ekaitza zen bitartean, aizkora bat ateratzen zen atarira ahoz gora (Laudio, Nafarrete, Elduain, Ataun...). Ohitura hau Europako beste zenbait herrialdetan ere bada. 3. Aizkora apustua edo aizkol apustua: aizkolari biren edo gehiagoren artean nork enborra lehe-nago ebaki egiten den dema.

aizkoragile *Ik. aizkolgile.*



aizkoragile

aiztur *Ik. artazi (Zubieta / Nafarroa).*

aker Ahuntzaren arra. Abere osasuntsu eta osasungarritzat hartzen da; horregatik zenbait herritan esan ohi da akerra ukuiluan edukitzeak aziendaren osasuna bermatzen duela.

Akerbeltz Mari lurpeko jainua ordezkaten duenetako bat da, animaliak sendatzeko ahalmena duena, eta horregatik zenbait etxetan aker beltz bat izaten dute. XVI. eta XVII. mendeetako sorgin-epaiketetan sarri egiten dira Akerbeltz eta Akelarrerri buruzko aipamenak.

Horietan bildutakoek ogia, arrautzak eta dirua eskaintzen zizkioten. Akelarre edo sorginen biltokiei izen bat baino gehiago eman izan zaie: Zugarramurdi, Jaizkibel, Irantzi, Pullegi, Ameztoiko Mairubaratza, Ataungo Mandabiitta, Mañari, Garai-gorta, Petralandako Akelarreak, Eperlanda, Akerlanda, Abadelaueta...

akordeoi Zurezko bi kaxa dira: bat doinua emateko botoi edo teklekin, eskuinarekin jotzen dena eta bestea, laguntzeko nota baxuak eta akordeak ematen dituena eta ezkerrekin jotzen dena. Bien artean, hauspoa. Akordeoi diatonikoaren ondoren azaldu zen. Bi eratakoak ziren: bata, eskuin-botoizkoa, eta kromatikoa deitzen zena, eta bestea, teklazkoa edo pianozkoa izenez ezagutzen dena. Akordeoilariak, trikitilariak bezalaxe, herriz herri aritu dira mota guztietako herri-festa eta ospakizunetan parte hartuz. Akordeoiak, diatonikoak baino baliabide musikal gehiago dituzenez, hasieran trikitia baztertu egin zuen, baina gero, ez dakigun zein arrazoirengatik, herri-musikaren munduan indarra galdu eta trikitia nagusitu zaio. Askotan, trikitilariak akordeoilarien musika, pieza eta dantza berririk hartu dute beren erreperitorioak zabaltzeko eta oso nabarmena da, azkenaldian trikitiarekin entzun ditugun fandango, arinarin eta martxa berriak ere, akordeoilariak ikasiak edo eskatuak izatea.

akordeoi diatoniko *Ik. soinu.*

akuilu 1. Makila luze eta buru-etzenduna, gurdi-abereei eragiteko erabiltzen dena. 2. Ezkongaiaren arreoaren zeraman gurdiari tira egiten zion ganaduak akuilu eztengabea izaten zuen, horrela festagiara hobeki aditzera emateko.

al higi egin Inauterietako haur- eta gazte-jolasa. Txantxoek makilatxo

bat hartu, muturrean soka lotu eta hartatik piku lehorra zintzilikatzen zuten. Haurrek ahoaz hartu behar zuten pikua eta hori zailtzeko astindu egiten zuten makilatxoak.

Alarabi *Ik.* Tartalo.

alarde Jai-giroan egiten den desfilea.

alatxari San Joan bezpera-arratsaldean Ingurutxoak dantzatzen zuten neska koskorrek buruan erabiltzen zuten zapi zuria (Leitza).

albada San Joan egunean txistulari eta danbolinteroekin egiten zen kalejira edo erronda; alkateak bildoskia egiten zien opari albadakoei (Saldias).

albo Lanabesen saihetseko zura.

albo-draga Gurdia balaztatzeko erabiltzen den haga.

alboka Mihi bateko klarinete bikoitza motako soinu-tresna dugu alboka. Mihi batekoa, hots sortzaile diren fitak mihi batekoak direlako, eta bikoitza, bi soinu-tresna direla batean edo erantsita. Hainbat zati ditu albokak: bi fita (bere mihiaren bibrazioaren eraginez sortzen da hotsa), 13 cm-ko bi kanabera (tonu aldaketarako), adar txikia (ahoskatzekoaren zeregina duena), belarri gisako zuloak eta ertzaren bueltan zerra hotzen moduko bukaera duen adar handia (soinua handiagotzeko) eta albokaren euskarria den eta zati guztiak lotu eta gorpuzten dituen uztarria eta katea. Alboka jo-



alboka

tzean haizea etengabe bota behar da, isildu gabe. Baina albokak ez du haize-erreserba gordetzeko zaku edo poltsarik eta albokariak haizeari buelta ematea teknikaren bidez lortzen da, hau da, haizea hartzen du botatzen duen bitartean. Teknika hori ikasteko, urez betetako baso batean lasto edo kanabera fin baten muturra sartu eta beste muturretik putz egiten da, uretan etengabe burbuilak ateratzen direlarik.

alborada Egunsentian eta leku agerian egiten den musika-saioa. Tolosa, adibidez, Asteartita goizean txistulariak aritzen dira horretan.

alboroke Zenbait gertaera (salmenta, etxea amaitzea, talde lana...) ospatzeko egiten den otordu arina.

albotiko Beheko suan ezker-eskuin ezartzen ziren egur iharrak (Oñati-Arantzazu).

aldabar 1. Boga tinkatzen duen burdina. 2. Burkoetan boga tinkatzeko ohol edo zurak, zirien bitartez finkatzen zirenak.

Aldapeko Maria Tolosako Asteartitan herriko txistulariek Alboradan jotzen duten piezetako bat.

aldar 1. Tortoloxen ertz leuna. 2. Erronkariko emakumeek gona barrenean zeramaten zerrenda zabal gorria.

aldare-oihal Etxekoandrea hiltzean ardi-izterra, hiru botila ardo, hiruzpalau ogirekin batera, elizan eskaintzen zen oiuala.

alde-etxe 1. Alperra izeneko harri zilindrikoaren zurajea, zurezko egitura. 2. Baserri urrutikoetatik zekarten gorpuari harrera egiten zion elizatik hurbil samar zegoen etxea.

alera *Ik.* Iera.

Alikote Inauterietako panpina (Urdiain).

almariatxu *Ik.* ainbiriketa (Latas).

alminte 1. Alguazila, amabia. 2. San Joan bezpera arratsaldean, udalbata eta apaizak, Lizarrako gaiteroekin eta almintearekin batera, San Joan elizatxoan kantatzen ziren bezperetara joan ohi ziren (Arbizu).

almorrana Herri-medikuntzaren araberak, odoluzki edo almorranak sendatzeko ur hotza edan eta linazi, malba eta lo-belarrez eginiko enplastuak ezarri behar dira, eta, ondoren, labatiba ur epelarekin hartu behar da, baita gardulatz-uraren lurrina ere.

almuera *Ik.* burko.

almute *Ik.* laka.

alogereko *Ik.* maizter.

alper Lur gogorra zapaldu eta xehatzeko nekazariak erabiltzen duen lanabesa; trunko, bonbil eta trinko ere esaten zaio. Zilindroa zurezkoa nahiz harrizkoa izaten da, baita porlanezkoa ere moderno antzekoa bada. Alperrak bi zulo izaten ditu alde banatan eta horietan sartzen da ardatza eta honek zurezko bastidoreari eusten dio; erditik lau bat metro luzeko pertika bat irteten da. Armazoa edo etxea (80 x 120-150) ez zen beti era berekoa izaten.



alperra

alper-harri *Ik.* alper.

alper-mailu *Ik.* alper.

alper-zesto Hazia erain aurretik lur xehea prestatzeko tresna (Mallabia).

altxaketa Neskak bakarrik aritzen ziren jolas honetan, urteko ia igande guztietan. Gordeketa-jolasa da eta nork bete behar zuen jakiteko taldean elkartu eta neska batek hau esaten zuen: "Ruxe - muxe - errote -kabe -lore -biene -kox". Azkeneko "kox" hori egokitzen zitzaiona korrotik kanpo ateratzen zen bakarria gelditu arte. Azken hori, alde aurretik seinaltutako lekuan, lagunei bizkarra emanaz jartzen zen begiak estalita, besoa zuhaitz edo hormaren kontra zuela, gordelekuren batetik egindako "kuk" oihua entzun arte. Orduan lagunak bilatzeari ekiten zion eta horiek aurkitu ahala eskuaz pareta edo zuhaitza ukitzen zuten "Alafrantzie" esanez. Adibidez, ikusitako neskaren izena Miren bazen, aurkitutakoan "Miren, Alafrantzie" esaten zuen hormakoak.

altxarrin *Ik.* txingo (Aia).

altzairatu Laiak eta beste zenbait erremintak erabilaldi baten ondoren hurrengo lanerako prestatzeko eskatzen zuten eragiketara.

altzairu Ikazkai (% 1,5 baino gutxiago) eta burdinazko nahastura.

Ama Birjinaren linoak Andre Mariarentzako maindireak eta aldareko estalkiak egiteko serorak etxez etxe biltzen zuten lihoa.

ama zahar 1. Amona, amandrea. 2. San Joan sua makaltzen zenean etxe bakoitzeko ama zahar edo amonek salto egiten zuten haren gainetik (Lizarraga / Ergoien).

Amandizarko Izaban Inaute festetan ateratzen zuten erraldoia.

amantal Olagizonek aurrealdean erabiltzen zuten larruzko babesgarria.

amelute Iruteko beharrezkoak ziren artile-malutak.

amets Haurrek, aurreko gauean amets egin dutela oroitzean, Santa Inesi otoitz labur bat egiten diote, eta gutxi gorabehera honelatsukoa da: "Amandre Santa Ines, bart egin dut amets, onez bada bion partez, txarra bada, doala bere bidez".

amezkil Ik. abemariak.

Amiñ Txiki Arbizuko Inauterietako pertsonaia. Kinkuagesima igandean hasten ziren jaiak, arratsaldeko bezperak kantatu eta gero. Txatarrak edo txatarjantziak irteten ziren. Mutilak neska jantzita ere ibiltzen ziren. Eta igande arratsaldean, zintzilik dilindan jarri ondoren, Aittun Haundiarekin batera erre egiten zuten.

amodio 1. Bi pertsona maitemindurik dauden ala ez jakiteko, muiloarekin, hau da, iztuparekin pilota itxurako bola egin, su eman eta tximinian gora bidaltzen zen hau esanez: "Halakok eta halakok amodiorik baldin badute, muiloa gora igo dadila". Gora igoz gero maitemindurik daude, bestela ez. Hau Nafarroa Garaiko ohitura da. 2. Amodio-belarra sartzen da norbaiten sakelan, norbaitek beste baten maitasuna bereganatu nahi duenean. Halaber, emaztegaiak senargaiaren maitasuna galdu duela uste duenean, ijito edo buhameengana jotzen du amodio-belarraren bila. Hau Nafarroa Behereko ohitura da.

amu Arrainak ahotik harrapatzeko metalezko pieza txiki puntaduna (Arantza).

amurrain-gorgoil Saski txiki tapaduna, ibaiko arrantzaleek arraina gordetzeko eramaten dutena (Arantza).

amugile Amuak egiten dituenak.



amugileak

Anbotoko Señoria Ik. Mari.

andabide 1. Hildakoak elizara eramateko bidea. Beste izen hauek ere baditu: gorpuzbide, elizbide, herribide, auzotegiko bide, defuntuen bide eta abar. Legezkoa zen eta ohiturazkoa andabide ondoan etxerik ez egitea eta lurra ez mugarritzea. Gorpuak ez dira beste bide batetik eraman behar, nahiz eta bestea laburragoa eta erosoagoa izan. 2. Bidegurutze bakoitzean apaizak errespontsua esaten zuen hildakoaren arimaren alde.

andailu Area izeneko laborantza-tresnaren heldulekua.

andaitz Ik. endaitz.

andere Zuberoako maskaradan esku hartzen duen neska gaztea.

Andrekunde Ik. Emakunde.

andre-salto Jolas honen abiapuntua honela zen: bi neska edo mutil lurreen esertzen ziren, elkarren ondoan, zangoak apur bat luzatuta eta oinak tente, zertxobait makurtuta zituztela, bataren eskuinak bestearen ezkerrean ukitzen zuela.

Gainerako jolaslagunak salto egin eta bi horien gainetik pasatzen ziren; hori guztiek egin ondoren, bigarren itzulian, bata bestearen gainean oinak tente zirela pasatu behar zuten. Proba hori gainditzean, hirugarren saltoa egiteko, bi oinen gainean beren ukabilak jartzzen zituzten, elkarren ondoan. Traba horiek pasatuz gero, ukabil baten gainean bestea jartzzen zuten. Ukitu gabe pasatuz gero, eskua "arran" edo zabalik eta tente jartzzen zuten, hatz txikia edo txirkanda bakoitzak goiko oinaren gainean jarriz. Salto egiten zutenek ongi pasatzen bazuten hatz lodia edo erpurua aurreko txirkandaren gainean jartzzen zuten. Jokoan zehar inork huts egiten bazuen salto egitean, lurrean esertzen zen ukitutakoaren ordez (Ihaben).

anezka Ehundegietan haria daraman tresna, bilbearen hariak irazkiaren gainetik eta azpitik, alde batetik bestera, zeharka pasatzeko erabiltzen dena.



anezka

angiloi Gurdiaren alboetan luzetara dauden zurezko ohol bakoitzaren erdian dagoen zirkuluerdiko formako zurezko zatia, gurtzila edo ardatza tinkatzeko erabiltzen dena.

angina 1. Herri-medikuntzaren arabera orno, eskürantza eta samako edo eztarriko min ere esaten zaion gaixotasun hau, beheko suko txingarren gainera intsusa-lorea bota, aurpegia oihal batez estali eta lurrina hartzen zen. 2. Eztarriko

mina kentzeko zahi errea galtzerdi batean sartu eta hoztu arte lepoan edukitzen da. 3. Larre-belarrak egosi eta horien ura ona da hoztu ondoren barrua biguntzeko. Ahoa leuntzeko limoi-ura azukreztatu eta lau bat katilukada asun-ur edan eta gero gargarak egin mamukio-ur, ezti eta ozpinarekin. 4. Enara-habia oliotan egosarazi eta enplastu gisara ezartzen da zintzurtean. 5. Suge-larrua txiki-txiki egin eta zahiaz nahasita eman behar zaio eztarriko mina duenari.

animalia Euskal mitologian garrantzi handikoak dira animali itxura hartzen duten jeinuak, batez ere zezengorri-, behigorri-, ahari-, ardi-, aker-, ahuntz-, txerri- eta txakur-itxura dutenak. Zuloetan bizi dira eta ez diote inori hurbiltzen uzten. Bartzuetan madarikaziopean dauden gazteak bahitzen dituzte. Erromatarren garaian sineste hori hedaturik zegoen nonbait, zeren Isturitz, Santimamiñe, Sagastigorri eta Kobairadako kobazuloetan erromatar txanponak agertu baitira, garai hartan leizeetako jeinuei jaurtiak.

anis-belar Ik. mihilu.

anpor-ikatz Zuhaitzen enborrekin egindako ikatza.

antapara Olaren kanpoaldean zegoen ubide txikia, ura olara eramaten zuena, eta ataka, bi txinbo, hau da, ura erregulatzeke tapoiak zituena. Urak errobadei edo karramei eragiten zien, eta hauek bi ardatzen dendal edo mazukarien bitartez gabiarri eta bi hauspori eragiten zieten.

antrax Herri-medikuntzaren arabera, larruazaleko zaldar gainean zapo bizia jarri zapi batekin lotuta, eta akabatu arte eduki; gutxi gorabehera astebete barru hilko da zapoa eta antraxa sendatuta geldituko da.

antruejo Ik. inauteria (Larramendi).

antxika Bereziki mutiko-jolasa. Bik hartzen zuten parte marra baten atzean bata besteagandik bost bat metrora jarrita. Antxikako makilarekin, hau da, makila kakodunarekin pilota jo eta bestearen lekura pasatzen saiatzen zen; honek, aldiz, ahaleginak egiten zituen makilaz pilotari pasatzen ez uzteko.

antzabil Zama-soka estutzeko zurezko lakioa.



antzabilak

Antzar egun 1. Zenbait herritan egiten den jokoa: antzara biziari edo hilari lepoa eskuaz moztu behar zaio. 2. Markinan Kinkuagesima hurrengo asteartean jokutzen da. Martisen karnabal Lekeition ere jokutzen da.

antzara-jate Antzara-jokoaren ondoren, egun berean edo biharamunean, parte-hartzaileek eta lagunek antzara jateko egiten duten bilera.

antzara-joko Nafarroako zenbait herritan (Uitzi, Uztegi, Gaintza, Intza, Azkarate, Betelu...) loteetan antzarajokoa antolatzen zen; Zigan, aldiz, oilar-jokoa.

Anxo Ik. Tartalo.

Apalazio Garai batean Errege-bezperak izan zuen izena, latinezko apparitiotik datorrena.

apatz Ik. abatz.

apo 1. Soroan lurrean sartuta makila batean apo akabatu bat loturik edukitzen da hantxe harik eta lehortu arte, norberari edo lurrari pozoirik ez kutsatzeko eta gainerrako apoak hiltzeko. 2. Apoak klinklon kantatzen badu, biharamunean eguraldi ona egingo duen seinalea.

apobelar Biriketako gaitzen aurka eta batek sinusitis duenean gomendatzen den belarra: (Verbascum thapsus, gordolobo, bouillon-blanc, Aaron's rod).

aramaittako Ik. abemariak (Aramaio).

arao Izadiaren gainean indarra eta ondorioa omen dituen esaldia. → *Konjuru*. 1. Ezponda eta araoa: Behinola, Perurena izeneko egoitzan Ezponda izeneko gizon bat bizi zen, gizon aginduzale eta beldurgarria. Hil zen Ezponda, baina noizik behin presente egiten zen, bere zaldiaren ferra hotsaren bitartez, hodei ilun eta mehatxugarrian ezkutatuturik. Horrelakoetan arao edo konjuru egiten zen kalte-uxagarri. Horrelako batean, araoak indarrak ez eta apaizak ezkerreko zapata erantzi eta bota behar izan zuen hodeiaren alderantz, eta bat-batean oskarbitu zuen. Beste batean gurutzeaz baliaturik Mandoegiko leizezulara bidali zuen. Beste batean, apaizaren lagun batek, leizezularen ahoan, arroa erdi linazi barreiatu zuen eta apaizak aldi berean esan zuen "Ale adina urteko!", denbora hori guztia Ezpondak zigorturik eman zezala adieraziz. Baina orduan Ezpondaren ahotsa entzun zen "Nik horiek ere beteko". Harrezkero leize horri Ezponda deitzen zaio, eta ekaitzaldian, goizuetarrek esan ohi dute: "Ezponda mogitu duk orain ere!". 2. Murumendiko dama eta araoa: Murumendiko Dama, izar baten antzera, airean itsaso aldera pasatzen bazen eta uretan sartu, trumoi-hotsa sortzen zen eta egun

batzuetarako eguraldi txarra ekarri ohi zuen. Santakutzetatik.

arasa 1. Alasa, altzari apalduna. 2. Nekazaritzako lanabesek luzetara izaten duten zuretako bat.

Aratiste *Ik.* inauteri.

Aratiste egun Kinkuagesima (Oñati).

Aratozte *Ik.* inauteri.

Aratuste *Ik.* inauteri.

Aratuste domeka *Ik.* Aratiste egun.

Aratuzte martitzena Kinkuagesima ondoko asteartea.

aratxe-muturreko Burdinazko tresna hiru-hortzekoa, txekor edo aratxearen kopetan ezartzen dena, behiaren errapera hurbil ez dadin.

arbalda Abereentzako txalma, neurrira ongi egokitu behar dena; arbalda-ren burualdea eta itsatsaldea larruz sendotzen dira.

arbaldagile Arbaldak egiten dituen.

ardatz 1. Dolare-urkatxuaren harian bira egiten duen ardatz edo torlojua da. Ardatzaren goialdea bi uztaurrikoek eratzen duten hutsunetik pasatzen da eta behealdea pitoi batzuek ferratzen dute; bira egitean giltzak tinkatzen dituen zeharkako bat estutzen dute eta pieza horien bitartez sagarra zapaltzen eta zanpatzen da. Zeharkakoaren muturrei trabeskakoak deitzen zaie eta zutikako bakoitzak daukan koskan sartzen dira. 2. Iruteko tresna. 3. Gabia biraka erabiltzen duena.

ardazle *Ik.* gorulari.

ardi 1. Abere xehetako bat, ugaztun hausnarkaria, iletsua, eskuarki talde handietan zaintzen dena, ematen duen esne, okela eta ilea-rengatik estimatua. 2. Oletako


zepoak tinkatzen zituzten zurak. Solairupean egoten ziren, gaina zoruaren parean zutela.

ardi-mozte Ardiei ilea moztea.

ardo handi Hildakoaren etxera gaubel-lan etortzen zenari ematen zitzaion ardo goxoa.

ardo-emate Festgiroan bertaratuei dohainik ardoa banatzea.

are Hazia eroin aurretik lurra prestatzeko erabiltzen den lanabes horzduna, aurrealdetik itxiagoa; armazoa lauzpabost zurek eratzen dute luzetara eta bi zeharkakok. Kanpoaldeko zurak, gainerakoak baino luzeagoak, aurrealdetik burdinaga batez elkartuta daude, tira egiteko katearentzako argoilarekin; alderantzizko alderdian helduleku kakotua dauka. Are txikiaren neurriak hauek dira: 115 x 85-90 zentimetro; eta handiarenak 115 / 140 x 76 / 86 zentimetro alde-alde. Burdinazko hortzak, 35 bat zentimetrokoak, behealdean kakotua dira eta aurrekoak ahodunak izan litezke. Luzetarako zurei abes, erdiko, zur eta sumil deitu izan zaie eta bertan kokaturik dauden hortzak 26 izan litezke txikian eta 30 bat handian. Zeharretako zurei para deitu izan zaie. Heldulekuari kirten, andailu edo besate deitu izan zaio. Barra argoiladunari makera ere esaten zitzaion.



area

area-kurrilo *Ik. besabe.*

areburdina Abereek arrastaka eramateko areak izaten duen burdinazko barra.

are-kirten Area izeneko lanabesak duen helduleku kakotua.

arenarri Errementariak zorrozketarako erabiltzen zuen harria. Kaikugileak ere barrenatzea bukatu ondoren, arenarri edo hondarrarria erabiltzen du.



arenarria

aresa *Ik. arasa.*

aresku *Ik. andailu.*

areskute *Ik. andailu.*

aresubil Areak luzetara dituen zuretako bat.

aresumil *Ik. aresubil.*

aresupil *Ik. aresubil.*

aretxe Are izeneko lanabesaren zurezko bastidorea.

argi Sukaldean bi argi piztuta daudenean honelakoak esaten dira: 1. "Katuak ezkontzera doaz". 2. "Katuak txisa egiten hasiko dira". 3. "Bigarren argi hori arimentzat izan dadila". 4. "Bi argi horiek zer-

tarako dira? Bata onentzat, bestea gaizki esaten ari direnentzat" → *gerixeti.*

argi-ogi Ofrendako bildumena edo kandela eta erroska, mezakoan eskaintzen direnak.

argizaiol Itxura antropomorfoa duen zurezko argimutilla, 30-50 bat zentimetrokoa. Bi aldeetatik landurik egoten da, argizariarentzako gunean izan ezik. Gerora agertuzen argizaiola ez da hain landua. Ohol lauki-formakoa da eta lau hankaren gainean iroztua egoten da.

argizari *Ik. ezko.*

argizarigin Argizarizko kandelak egiten dituen.

arima herratu Hildakoen arima, ustez, toki desberdinetan eta asmo desberdinekin bizidunei agertzen omen zitzaiena. -argizari eske / - eta eskribaua / - eta esku dei-egilea / - eta jabeari lapurtua itzuli beharra / - eta kapa bedeinkatua / - eta mugarraren tokialdaketa / - eta oilarren kukurrukua / - esku ur bedeinkatu-emaile itxuran.

arima-aulki Elizako hilobi gainean, etxe bakoitzeko zuziarekin, hildakoren elizkizunetan jartzen dena (Larraul).

arin-arin Euskal fandango mota bati ematen zaion izena.

Arizkungo harpa Inauterietarako hotsa ateratzen duten tresna bereziak prestatzen dira. Halako tramankulu bitxiak Arizkungo harpan erabiltzen dira, kantu eta dantzei laguntzeko, zarata ateratzeko eta txantxetarako. Makila luze batean, bi muturretan lotuta eta oso tenkatu-rik alanbre bat jartzen da. Behealdean, makilari josia, alanbre eta makila artean latazko bidoi bat. Bidoi honek aurrealdean zulo batzuk izaten ditu erresonantzi kaxa

gisa funtziona dezan. Goiko makilaren puntan latazko puska batzuk ditu panderoen txindak moduan.

arkakarats Arrosa basa.

arkera Abereak ferratzeko ezarlekua edo astoa.

arku *Ik.* andailu.

arkütxa Gurdi motza.

arlatz Zorrozteko harria.



arlatza

arotz 1. Edozein gai lantzen duen pertsona. 2. Metalak, burdina batez ere lantzen duen pertsona. 3. Zura lantzen duen pertsona.

arotz-aizkora Arotz edo zurginak erabiltzen duen aizkora.

arotz-burdina goritu Arotz edo errementariaren denbora-pasetako bat zen; ingude gainean burdina zati bat hotzean mailukatu eta aurrena nork goritzen zuen ikustea izaten zen jokoa. Minutu bat behar izaten zuten hori lortzen (Baigorriko Doneztebe).

arotz-mailu Arotzak erabiltzen duen mailua.

arotz-mailu joko Errementaritzako jokoa zen eta parte-hartzaileek mailu astun bati heltzen zioten kirtenetik eta zut-zutik zeudela alde-rantzira jasotzen saiatzen ziren, errementariaren burua sudurrak nork jotzen zuen ikusteko.

aroztegi 1. Errementariaren lantegia (Iparraldea). 2. Zurginaren lantokia.

arpaketan *Ik.* harrapaketan (Itsaso / Basaburua).

arpan Bi helduleku dituen eta bi pertsonaren artean erabiltzen den zerra.

arpiko *Ik.* aingura.

arpiku *Ik.* aingura (Deba).

arpil *Ik.* eskuare.

arpoi Arrain handiak eta bereziki baleak harrapatzeko tresna; zurezko gider luze eta burdinazko punta kakodun batez osatzen da. Begia, asta eta punta izaten ditu.

arra Zabalduriko eskuko hatz lodienaren eta txikiaren arteko bitartea, luzera-neurri gisa erabilia izan dena.

arrabita Biolinaren antzekoa da. Itxura ezberdina duen erresonantzi kaxa eta kirtena zurezkoak izaten ditu. Arruntek, zurdazko bi soka izaten dituzte. Gaur egun biolinarekin nahasten bada ere, bi soinu-tresna desberdinak dira. Arrabita-jotzaileak XIX. mende arteko dokumentu zahar askotan agertzen dira ia gure lurralde guztietan eta garbi dago soinu-tresna hau oso erabilia izan zela, bakarka, panderoarekin edo askotan agertzen den bezala, "tamborin", edo "salterio"arekin taldea osaturik. Dirudenez, geroago biolinak hartu zuen soinu-tresna zahar honek zeukan funtzioa eta hortik etor daiteke geroago bi tresna hauek izendatzerakoan sortutako izen-nahasketa.

arrabota *Ik.* marrusketa.

arragoa 1. Labearen behealdeko barrunbea, burdin urtua biltzen duena. 2. Ontzi aho-zabala, urrea, zilarra eta abar. Oso temperatura garaietan urtzeko eta garbitzeko erabiltzen dena. 3. Karea egiteko labea, karobia (Urkizu / Tolosa).

arragoe Mineral-meta.

arrain-otarre *Ik.* arrain-saski.

arrain-saski Arraina garraiatzeko saskia.

arraitz 1. Seg a zorrozteko harria. 2. Geztera ez bezala higigaitza den zorrotzarria.

arraka 1. Intxaurrekin egiten den joko, bata bestetik arrabetera hurbiltzean datzana. 2. Txalupan ezartzen den haga haizeak bela jaso ez dezan.

arraki *Ik.* xelari.

arrankazi Arpoia, lau garranga dituen.

arrankazi-uztarri Arrankaziaren zeharretakoa.

arranparrila Matxardak, sugrilla.



arranparrila

arrasta *Ik.* albo-draga.

arrasteli *Ik.* eskuare.

arrastelu *Ik.* eskuare.

arrastilu *Ik.* eskuare.

arrasto Behar bezala laiatutako lurreen erabiltzen den lanabesa (Ormaiztegi).

arrautza-biltze Inauterietan baserriz baserri egiten zen eskea, ondoren herriko gazteek otordua egiteko.

arraxkileta *Ik.* besabe (Uztaritze).

arre *Ik.* are.

arrebeseate *Ik.* andailu.

arrebilan ondo gordeka Neska-mutilen joko honetan, parte-hartzaileak bi taldetan banatzen dira eta zirkulu bana osatzen dute lurreen eserita. Baina bi taldeetako neska edo mutil bana zutik geratzen da. Horiek, eskuan harri bat ezkutaturik dakartela, taldekideengana hurbiltzen dira banan-banan "Arrebilan ondo gorde" esanez. Eseritakoa mutila bada, eskua praken sakelan sartzen dio, eta neska bada, berriz, azpiko gona eta soinekoaren artean. Behin agurra egin eta gero, talde batean zutik dagoen ordezkariak asmatu egin behar du beste taldean eseritakoaren artean nor daukan harria gordeta. Asmatzen badu, harria daukana joko z kanpo geratzen da eta taldetik atera egin behar izaten du. Asmatu ezean, berriz, harria kendu eta atzera hasten dira jokoan. Gauza bera egiten da beste taldearekin, zutik daudenak bakarrik geratu arte (Muxika).

arrenaketa Joko honetan hasteko, aurrena zotz egiten da begiak itxita hormaren kontra nork jarri behar duen jakiteko, eta, gero, hogeita hamar edo berrogei arte zenbatu behar da jolaskideek nor bere gor-

delekua bilatzeko astia izan dezaten. Gero lagunak bilatzeari ekiten dio, baina kontuz ibili behar du norbaitek horma ukitu eta pallo edo mamikorte egin ez dezan (Belauntza, Berastegi).

arreo Dotea, ezkongaiak ezkontzara eramaten dituen ondasunak.

arrestel *Ik.* eskuare.

arrestelatu Eskuaretu, eskuarea erabiliz belarra bildu.

arresumil *Ik.* aresubil.

arribada Festa-giroan ibili ondoren, bideko leku jakinean ospakizunari ematen zaion amaiera.

arri-hortz Harria izeneko lanabesaren burdinazko ziriak; hortz horien kopurua ez da beti bera izaten.

arritxongo *Ik.* txingo (Elduain).

arropa Mozorrotzeko erabiltzen den jantzia.

arrosa 1. Landarea, lore gorrikoa eta usain emekoa: (Rosa, rosa, rose, rose). Arrosa basari arkakarats deitzen zaio. Herri-medikuntza. 2. Bronkitisa, erreuma, disipula, zingiria, sarna, flemoia eta konjuntibitisa sendatzeko gomendatzen da. 3. Arrosa gaitza, herpesa: azaleko gaitz hau sendatzeko gaixoak egunero bira bat egin behar du arrosondo baten inguruan, aldi berean "Arrosa arrosa(re)kin" formula esanez (Andoain). 4. Bermeoko Santa Eufemia parrokian dagoen Arrosa-aren Ama Birjinari bisita egitera eramaten ziren haur asko, bertan zapi batez gaixoaren gorputz-atalari zegokion imajinako gunea ukitzeko.

arta-are *Ik.* are.

artaburu 1. Artoaren burua. 2. Euskal Herriko nekazari-munduan eskaleari

artaburu emateko ohitura izan da.
→ *artazuriketa*.

artalandare Artoa, San Joan belar ize-
nez ezagutzen zirenen arteko bat,
flemoia eta handitua sendatzeko
gomendatua (Zea mays, maíz,
mais, corn).

artalautako 1. Honela abesten zuten
Aretxabaletako San Joanetan: "San
Juen dala, San Juen dala, artalau-
tako goizien, aguretxue, aguretxue,
nagarrez. Arrautza bat kolkuen,
beste bat altzuen. Aupa San
Juen!". 2. Legutioko biribilketaren
izena.

artamixa *Ik.* asentsio-belar.

artazi Ardiari ilea mozteko guraize
edo aitzurrak.



artaziak

artazuriketa Artozuritzea, artaburuari
hostoak kentzea, artozuritzea,
ondoren egiten zen jai eta otordua-
rekin. Orixeren Euskaldunak poe-
man aski zehatz birsortzen da
artazuriketako giroa.

arte Pagoaren familiako zuhaitz ez
oso garaia, hosto iraunkor eta
enbor sendokoa, haritzak bezala
ezkurrak ematen dituena; zura erre-
gai bezala eta ikatza egiteko erabil-
tzen da: (Quercus ilex, encina,
chêne vert, holm oak).

artesi 1. Gauzetan gertatzen edo egiten den tarte edo irekidura sakona. 2. San Joan goizean elorri zuriaren abar bati artesia egiten zaio eta bertan erramu bedeinkatua sartzen da zeharretara, ondoren baserriko sarrerako atean ezartzeko.

arto 1. Arto azala jan eta begiak edertzen omen dira. 2. Aste Santuz kanpaiak isilik diren bitartean aletutako artoa izaten da onena ereiteko. 3. Arto sartzeko makina: izen hau izan arren, erremolatxa eta indaba bezalakoak ereiteko ere erabiltzen da. Saihetsetan alde-bazterrak edo abesak ditu, 100 x 7 zentimetrokoak, 80 zentimetroko bi zeharretakoz elkartuak. Makinak zurezko ardatza du, 80 bat zentimetrokoa eta erdian 32ko diametroa duen gurpil horzdun bat ezartzen zaio. Hortzak hamabi izaten dira, lerro koniko eta zur ferratuzkoak. Ardatzaren muturrek, haziarentzako kutxatila bakoitzaren barruan zenbait metalezko txapaz bereiziriko zirrikitu bat dute. Horiek, errota-ziozko mugimenduan, lurreraino helaraziko dute ontzietako hazia ereiteko. Aurreko bi argoilatatik tira egiten dute abereek eta atzealdean bi helduleku daude abesei erantsita.

artoa berezi Artoa aletu (Sunbilla).

arto-bizar 1. Artaburuak izaten duen ilea, hasieran zuri-berdexka eta gerora ilunkara. 2. Zenbait gaixotasun sendatzeko bizar horiek egosi eta ura hartzea gomendatzen da.

arto-sale Artoaren orria (Urkizu / Tolosa).

artzain 1. Ardiak zaintzen dituen pertsona. 2. Zuberoako maskaradako pertsonaia, garai batean agertzen zena eta gaur egun desagertua dena. Arkume zuriz jantzitako bi hurrek osatzen zuten artaldea eta soka lepotik zutela eramaten zituen artzainak. Zenbaiten iritzi, ar-

tzainak makila zerabilen eskuan eta ez zuen dantza egiten. 3. - eta San Donato / - eta sugea / - eta Zozomikoteak / - mehatxupean.

artzaintsa Ardiak zaintzen dituen emakumezkoa (Iparraldea).

artzan-khotxe Zurezko ontzia, atzealdean heldulekua duena eta ardiak jezteko erabili izan dena (Larrañe. Baigorri).

arxalu Zurezko oholtxo pareak dira. Garai batean harri-xaflak ere erabiltzen ziren. Bi oholtxoak, eskuaren behatz tartetan heldurik, kriskitinen gisa jotzen dira. Tokian tokiko itxura izaten dituzte. Oraindik arxaluak erabiltzen dira Bizkaiko zenbait tokitan, fandango, arin-arin eta martxa doinuak laguntzeko. Durangaldean "paluek" deitzen diete eta behatzekin hobeto heltzeko forma berezia izaten dute.

arzaia-palanka Oletan erabiltzen zen burdinazko haga.

asentadore 1. Suila eta kuela ontzien oholak tinkatzeko erabiltzen den erreminta. 2. Errementariak burdina beroturik daukala mailukatuz nahi duen lodiera emateko erabiltzen duen ingude modukoa.

asentsio-belar Herri-medikuntzaren arabera, dispula eta flemoia sendatzeko gomendatzen zen landareetako bat: (Artemisia absinthium, ajenjo, absinthe, wormwood).



asentsio-belarra

aska 1. Abereei jana jartzten zaien kuxa moduko ontzia, gehienetan zurezkoa. 2. Uraska, abereei edaten emateko ontzi mota. 3. Sute-gietan burdina hozteko erabiltzen zen ur-ontzia.



aska

asma 1. Herri-medikuntzaren arabera, asma edo txurruena duenak huntzorri egosien ura beste edaririk ez du hartu behar intusaren gun apur batekin nahastuta, egunean bi koi-larakada. 2. Asma kentzeko ezarria, bularra eta eskumuturrak askatu, eta ehun zati batekin lehenik ur hotzaz igurtzi, eta gero zerbait beroago den batez egiten da; azkenik, ohe epelean sarrarazi eta mamukio-ura eman edateko.

aspoi-iltze Gurpilaren kanpotik gelditzen den ardatzaren zatia; gurpilaren sendogarri gisa saihets bakoitzean iltze buru-handi bana darama.

aspoi-zulo Gurdiak ardatzarentzat daukan zuloa.

astalubal *Ik. tarre.*

astalubel *Ik. tarre.*

Aste Santu 1. Ostegun eta Ostiral Santu gauean, jainkoa preso zegoe-lako, deabru guztiak kanpoan ibiltzen zirela eta haurrak iluna baino lehen etxera behar zirela esan ohi zen. 2. Gipuzkoako Matxinbentan, Ostiral Santu egunean familiako

guztiek argizari bedeinkatua eta kandela mehe bana hartu eta bost tanto ezartzen zituzten gurutzetajuan, gizonen txapelean, emakumeen gorantzian eta txitatako arrautzian, oiloaren azpian jarri baino lehen. 3. Lekeition idi eta behiak eliz aurrera ekarri eta bertan edukitzen zituzten Pasioa kantatzen zen bitartean. 4. Ostegun eta Ostiralez abereak ez dira uztarrarian lotzen. 5. Diote Ostiral Santu egunean orantza, legamia ez dela harrotzen, eta errotak geldi egoten dira eta orduantxe aletzen da ereiteko artoa. 6. Jesukristo preso dagoelako kantazaleak isilik egoten ziren eta txistua jotzea ere gaizki ikusita zegoen.

Astearteiote Inauterietako asteartea.

Astearteñabete *Ik. Astearteiote.*

Asteartita Kinkuagesima ondoko asteartea eta Inauterietako hirugarren eguna.

astegun Asteko egunen inguruan debeku eta sineste ugari izan da tradizioz Euskal Herrian. 1. Astearte eta ostiraletan ez da ebaki behar josi beharreko gauzarik, ez lan berririk egiten hasi ere. 2. Astearte eta ostiralak sorgin-egunak izaten dira. 3. Ostiralean jaiotzea zorte txarreko zat hartzen da; ezbeharrak dituenaz hau esan ohi da: "Horrek ostiralean (barikuan) jaioa izan behar du". 4. Astearte eta ostiraletan ez da ilerik ez azazkalik moztu behar, ezta oiloa txitatako ezarri, ezkondu, animaliak lekuz aldatu ere. 5. Ostiralean hasten den hilabetea euritsua izaten da. 6. Asteazkeneko ilargi berriak giro gaiztoa ekartzen du. 7. Larraunen hautsen eguna (asteazkena) jai egiten dute, lehenbiziko eguna tristura eguna delako. Zeanurin diote egun horretan txakurrek eta katuek ere barau egiten dutela. Beste zenbait tokitan bazkaria ematen zaie, baina afaririk ez. 8. Garizuma aurreko

hiru ostegunak askari batekin ospatzen dira Nafarroako zenbait haranetan; aitakunde, gizakunde, emakunde, neskakunde eta orakunde izenak hartu izan dituzte egun horiek. Bizkaian ospatzen den hirugarren ostegunari eguen zuri eta sasi koipatsu deitzen zaio.

Astelenita Kinkuagesima ondoko lehen astelehena eta Inauterietako bigarren eguna.

astingailu Astintzeko edo inarrosteko tresna.

astingailu-buru Astringailuaren paleta.

asto 1. Zama-aberea, zaldiaren antzekoa baina hura baino txikiagoa, belarri-luze eta larru-latza (Equus asinus). Euskal tradizioan oso erabilia eta aipatua. 2. Saskigilearen eserlekua (Astigarraga). 3. Ihia lantzeko tresna. Zorutik atera eta hanka biko bastidore batean babesten da; neurri desberdineko bi zulo izaten ditu eta saihetsean ebaki bat (Segura) 4. Perzgileak zankalatraka esertzeko zeukan zurajea: bi hankakoa izaten zen eta hirurogeita hamar cm-ko goibehea izaten zuen. 5. Kaikugileak bere lanean erabiltzen duen zura.

asto-ferra Astoa ferratzeko erabiltzen den ferra berezia.

astontzi Arpilera, xarpa, kuela eta lixiba-ontziaren ondoan txotxak ipintzen ziren, horien gainean zapiak zabaltzeko; arropa hori garbitzeko astontzi izeneko sutako hautsez zabaldutako arpilera garbigarbiz estaltzen zen.

asto-otarre Zaldiei eta antzeko animaliei bizkarrean ezartzen zaien otarre mota berezia.

astopasta Ik. basta.

asto-saski Abereen gainean ezartzen den eta, bereziki, simaur edo onga-

ria sorora garraiatzeko erabiltzen den otarre mota. Ordia, asto-zare, simaur-saski eta ongarri-saski ere esaten zitzaion.

asto-sila Ik. kako.



asto-sila

Astotxo egun Lazkaoko ospakizun honek hiru atal ditu: a) Parrokiako gazteek obleak saltzen dituzte, b) Mojen monasterioan meza ematen da, eta jendaurrean estalpea jartzen da bertan gordetzen den Familia Santuarekin, c) Egiptora ihes egitea antzetzten da. Astotxoak protagonismo berezia izaten du ikuskizun honetan.

asto-zare Ik. asto-saski.

asun Herri-medikuntzaren arabera, zauriak eta kolpeak sendatzeko gomendatzen da: (Urtica, ortiga, ortie, nettle).

atabal 1. Altuera baino zabalera handiagoko zurezko kaxa zilindrikoa. Bi ahoak antxume-larruaz itxen dira. Izen batekin edo bestearekin, aspaldidanik ikusi dira soinu-tresna hauek txistulari eta xirularien doinuei laguntza erritmikoa emanez. Txistu-taldeko atabalariek, trebetasun handiz jotzen dute, konplexutasun handiko erredoble eta joko erritmikoek txistularien musika apaindu eta aberastu egiten dutelarik. Xirulariak, ttuntuna sokazko danburiarekin markatzen duen erritmoari laguntzeko, atabal-jotzailea (Zuberoan "tabala") izaten du

gehienetan bere ondoan. Atabal hau handi samarra izaten da, metalzko kaxa duelarik. Jotzerakoan, goiko partxea koloretako zapi batekin estaltzen dute. 2. Elizako diruontzia.

atabalari Atabal-jotzailea.

atabalero *Ik.* atabalari.

ataka 1. Haitzuloetako sarrera estua, harresietan egiten den irekidura eta, oro har, edozein igarobide mehar. 2. Ate txikia, adibidez, hesitu, artegi, txabola, erlauntza, labe eta ola-ubideetako. 3. San Joan goizean elorri zuria ezartzen zen etxearen sarrerako bi aldeetan, landako ataketan eta belagiaren izkinetan (Arraioz). 4. Saskigilearen labearena.

atalautako Neska eta mutilak elkarri eskuak emanda San Joan suaren inguruan saltoka ibiltzeari atalautakoan ibiltzea esaten zaio (Legutio).

atarri *Ik.* tarre.

ataute Zerraldoa, hilkutxa.

ateka *Ik.* ateka.

Atixarko *Ik.* aitezarko.

atorra Alkandora, gizonezko zein emakumezkoarena.

atsagure *Ik.* txantxo.

atsaguretu Txantxotu, txantxo erara jantzi edo mozorrotu.

atsolor *Ik.* atsolorreta.

atsolorreta Martopilak izeneko opariak eramanez emakumeek erdiberririari egiten zioten ikustaldia. → *martogí*.

atsotitz Esaera zaharra. Euskal tradizioakoak biltzen dituen bilduma bat baino gehiago dago, esate bate-

rako, Garibai, Oihenart, Azkue eta abarrenak. Errefrau, esaera zahar, supita, erranairu etab. ere esaten zaio atsotitzari.

atxa Kilo bat baino gehiagoko zuzia. Prozesioetan-eta santuei eta Ama Birjinari mesedeak eskatu eta eskertzeko eramaten da, eta batez ere hiletetan eta, oro har, hildakoen kultuan izan du betekizun nagusia, eliz barruan eta kanpoan.


atxamaxteka
Ik. atzemaiteka.

atxaure *Ik.* mozorro.

atxauretu *Ik.* mozorrotu.

atxero Elizan zuziak jartzeko bastidorea.

atxo *Ik.* mozorrotu.



atxeroa

Atxonzarko

Arakil-Irañe-tako bailaran Inauterietan erretzen zuten panpina. Asteartean prestatzen zuten panpina gero sutan erretzeko, festa bukatu zela adieraztearren. Praka, alkandora eta jaka zahar batez janzten zuten. Lastoz betetzen zuten, eta zapi bat hartu eta belarrez beteaz egiten zioten burua, eta ondoren txapela jartzen zaitzaion. Moxorroek herrian zehar ibili eta gero, erre egiten zuten.

Atxotatupin Luzaideko Inauterietako ikuskizuna: Axetatupin ere deitzen denez, badirudi 'axeri' eta 'tupin' hitzetatik datorrela izendapena. Inauterietako igande arratsaldean, herriko gazte bat emakumez jantzita eta buruan elorritz eginiko koroa ezarritik, herrian zehar zebilen eskuan

soka bat zeramala artilezko bola bati lotuta. Bola horri zarpila esaten zioten. Horrekin batera beste lagun bat zihoan, baina hau ardi-laruz jantzita. Buruan koroa eta eskuan zarpila zeramatzan. Biekin batera beste pertsonaia bat zihoan, "gorri" delakoa. Honek aurreko biak defendatzearren eskuan zurezko ezpata zeraman. Lehenengo horiek ezker-eskua elkarri emanda herrian zehar zebiltzan, eta jendea horiei mozorroa kentzen saiatzen zen. Behin mozorroa galdu eta gero ikuskizuna amaitu egiten zen.

atxozar *Ik. txantxo.*

atxur *Ik. aitzur.*

atzazal *Ik. azazkal.*

atzemaiteka "Bukanas-joko" ere esaten zaion joko honetan, hasiera nork emango dion jakiteko zotz egiten da. Hiru jarleku daude eta neska edo mutila jokoaren erdian kokatzen da "zigortuta", beste batzuek korroa osatzen duten bitartean; azkeneko bat korroaz kanpo jartzen da. Kanpoko hori zirkulua osatzen dutenen inguruan biraka ibiltzen da, zapia eskuan duela. Olerkiak edo abestiak dirauen bitartean, korroko norbaitek sakelan edo bere atzealdean lurrean utzi behar du zapia. "Zigortuak" zapia aurkitzen badu, korroaren kanpoaldera pasatzen da eta kanpoan dagoena, berriz, korroa, eta zapia daukana edo hurbilen daukana korroaren erdira. Eta aurrera jarraitzen dute jokoan. "Zigortuak" ez badu zapia non dagoen asmatzen, jokoan jarraitzen du bakoitzak bere lekuan.



aulkia

aulki 1. Eserlekua. 2. Zurgintzan eta hainbat eskulanetan, lantzen den atala jartzeko mahai berezia.

auntegi *Ik. ehundegi.*

auntzale *Ik. ehule.*

aurremantal Zumezko saskigintzan aritzen ziren emakumeek zakatorrak, gehiago behar ez zituztenean, aurremantalean uzten zituzten.

aurren-dantzari Dantzari-taldean aurreneko ilaran ibiltzen zirenak.

auresku 1. Zortzi zati dituen euskal dantza ezaguna, gizonezkoentzako, txistu eta danbolinaz laguntzen dena; dantza horren hirugarren zatia. 2. San Joan arratsaldean dantzatzen zen (Arbizu). → *dantzasoka*.

aurrogi Hildakoaren emakume auzoak hartzen zuen izena, otarre batean buru gainean eta bertan bi kiloko ogia zuela gorpua elizara eramaten zuen segizioaren buru joaten zenak. Otarrea biribila izaten zen eta mantu beltz eta zuria izaten zituen gainean; ogia eta mantuak sepultura gainean ezartzen ziren eta elizkizuna amaitzean serorak jasotzen zituen.

autx Erronkariarrek Zuberoako edo Frantziako herritarrei jarri zieten ezizena.

auzolan Baserritarren artean aldizka lauzpabost etxetako langileak elkarren soroetara joaten ziren lanak batera egiteko. Antzina hirietan ere ezagunak ziren lan horiek. Urtean birritan herriko guztiak bideak konpondu behar izaten dituzte, eta gorpua hilerrira daramatenean, bidea elurrez zurituri badago, auzolanean kentzen da elur hori.

auzolangile Auzolanean aritzen dena.

axa *Ik. ardatz.*

axalki Saskigilearen eserlekua (Astitz).



axalkia

axkenka *Ik.* ainbiriketa.

axuri 1. Arkumea, batez ere Nafarroan eta Zuberoan. 2. San Joan sua itzali ondoren plazan axuri errea izaten zuten afaltzeko (Leitza).

aza Otarregintzako marraza kurbatu samarra, zurezko giderra duena, kaikuak eta antzekoak egiteko erabiltzen dena.

azauketa Gari sortak egitea (Azpeitia-Loiola).

azazkal 1. Adanek eta Ebak, bekatu egin aurretik, azazkalezko jantzia omen zeukaten; gero, oroitzapentzat hatzetan omen daramatzagu azal horiek, beraz, jatorrizko janzkiak dira azazkalak. 2. Astelehenean azazkalak mozten dituenak ez omen du haginako minik izaten; igandeetan mozten dituenak, aldiz, atzbizar edo ezkardak izaten ditu. 3. Ostiraletan azazkalak moztuz gero, Jainkoa negarrez eta deabrua horiekin gurdi-gurpilak egiten ari- izaten omen da. 4. Azazkalak moztean zatiak lapikora eroriz gero, horiek jaten dituenak erotu egiten da. 5. Haurren azazkalak ez dituzte urtea bete arte mozten, eta orduan ere ez guraizeekin, lotan daudela eta hortzekin baizik.

azeribuztan 1. Herri-medikuntzak pixa eginarazteko bereziki gomendatzen

den belarra: (Equisetum, cola de caballo, prüle, horsetail). 2. Azeribuztanak erabiltzen ziren San Joan sua pizteko (Ziga).

azeri-dantza Inauterietako astelehenari azeri egun deitu izan diote zenbait tokitan, oilakunderen ordez, egun horretan eskean biltzen diren hegaztien etsaia gogoratuz. Orixeren Euskaldunak poeman ageri denez, etxez etxe egiten den eskean kantatu eta dantzatzen da.

azkendari 1. Dantzari ilaran azkena doana. 2. Antzara-jokoan azkena doana.

azkonar 1. Azkonarraren erpe bat lepotik zintzilik jartzen zitzaion haurrari begizkorik inork ezin egin ahal izateko. Antza denez, herrialde anglosaxoietan eta hegoaldekoetan ere izan du indarrak sineste horrek. 2. Itzainek idi-uztarriak estaltzeko ere erabili izan zituzten garai batean, baina gerora ardi edo txakur-larraz ordeztu zituzten, agian merkeagoak zirelako.

azkordin *Ik.* ospel.

azmantar, azpantar *Ik.* mantar.

azpigarri Orbel, garo eta abarrekin aziendarentzat prestatzen den etzalekua, etzauntza edo ohea.


azpiiltze Gurdi-ardatzak mutur bakoitzean dituen lau iltzetako bat.

azpil Plater gisako ontzi handia, esku-langileak buztina prestatzeko, iltzeak lehortzen uzteko eta abarretarako erabiltzen zuena.

azpil-zulo *Ik.* aspoi-zulo.

azpizumil 1. Dolarearen oinaldeari eusten dioten oholak; dolarearen tamainaren arabera bat, bi, hiru edo gehiago izaten dira. 2. Gurdi-barrikan sagardo-upela, kulunka ez

zedin, tinkatzeko jartzen ziren zur edo enbor borobilak.



azpizumilak

azteria 1. Azteria edo atza kentzeko goizaldean, eguna zabaldu baino lehen, zelaietako ihintzetan biluzik itzulika ibiltzea gomendatzen da. 2. Azteriarik ez izateko maiatzaren lehen egunean esnea eta koipe-tsua hartzen dira, bestela baratxuri-orriz eginiko tortilla. 3. Azteria kentzeko azbelarsustraiak birrindu eta gatz eta pixara bota eta horrekin haragia igurtzi oheratu aurretik; sufre eta asun-uraz egunean bi aldiz garbitu. 4. Sugea egosi eta egunean ur horretatik bi katilukada hartu, edo lapa-belarra egosi eta esnearekin hartu.

azti Ezkutua dena ezagutzeko, etorki-zuna asmatzeko ohikoez gaineko ahalmenak omen dituen pertsona, asmagina. → *sorgin*.

aztiatu Azti-lanez asmatu. Igarri.

aztikeria Azti-lanezko asmaketa edo egitea, gaitzesgarritzat hartua.

azuzena Ik. zitori.

Bb

baba beltz Eskuarki ikazkinen bazkaria osatzen zuen lekaduna.

babarrun zuri 1. Hazi zuria duen babarrun mota. 2. San Joan egunean, arratsaldean, babarrun zuria ereiten zen (Legutio).

babarrun-landare 1. Urteroko barazkia, fruitutzat giltzurrun antzeko haziak dituen lekak ematen dituen: (*Phaseolus vulgaris*, alubia, judía, haricot, bean). 2. Herri-medikuntzaren arabera, flemoia sendatzeko gomendatzen diren landareetako bat. 3. San Joan sorta edo erramiletearen barruan babarrun-landarea ezartzen zen.

babazorro Arabarren goitizena.

baia Ik. galbahe.

bailarta Ik. kako.

bakarrinketa Gordeketa-jokoa, udaldean ez ezik urte guztian jolasten zena (Erratzu).

bala Uzta sorta lotua.



bala

balantxin Abereak tira egiteko trilu izeneko lanabesaren zurezko pieza.

balarta Ik. kakoak (Apatamonasterio).

Balbe Heriotzaren pertsonifikazioa. "Balbeak jo dau, Balbeak joko al dau" esapideak erabili izan dira Bizkaian.

baldar Sagarra dolarean jotzean erabiltzen den zurezko eskuare edo arrastelua.

balea *Ik.* ainbiriketa (Leitza).

bale-baleka *Ik.* ainbiriketa (Etxalar).

balotzare Ehulearen harilkai irazkigiletik iragaten den hariarentzako saski edo otarre biribila.

bals Tolosako Inauterietan herriko musika-bandak jotzen dituen bi piezaren izena.

baltsamo Herri-medikuntzan era askotako baltsamo edo ukenduak erabili izan dira. Horietao bat Azkuek Zeanurin jasotakoa da eta gomen-dagarri da hamalau gaitz sendatzeko. Arto eta garagarrari ateratako alkohola azunbre eta erdi, "oleos zukotrino" (sic) 150 gramo, intsentsua 50 gramo, mirra 50 gramo, zarbi-belarra 50 gramo eta larre-lirioa 12 gramo; hori guztia txiki-txiki egin eta ardotan nahastuko dira botila handi batean. Ekainean egin eta abuztura arte noizean behin astinduz eduki. Zauri guztiak sendatzen ditu, baita ondorengo gaitz hauek ere: erefistula, larruzaleko gaitzak, pozoia eta txakur amorratuen hozkadak, almorranak, belarriko eta hagineko minak, ahoko zauriak, erreuma, begietako min guztiak, pleuresia, eta urdailari lagundu, pixa lodia mehetu eta zizareak hiltzeko ere balio du; azkenik, baita buruko minak kentzeko ere baldokiak bustiz eta odoljarriok geldiarazteko ere harizko txaplata bat bustita ezarriz gero.

baltsamo-belar Zornea ateratzeko eta berezkoa sendatzeko erabiltzen den belarra.

banazta Saskia (Bergara-San Joan).

banda 1. Taldea. 2. Haize- eta perkusio-instrumentuak jotzen dituen

musikarien taldea. 3. Aldea. 4. Zerrenda, xingola.

banderai Lapurdiko maskaradako pertsonaia.

banderari Luzaideko Inauterietako pertsonaia. Herriko bandera erakusten zuena.

bandurria Udare itxura duen erresonantzi kaxa, kirten edo gidera afinatzeko larako-etxearekin, eta sei sokapare dituen soinu-tresna. Gaur egun ia erabat galdua bada ere, garai batean garrantzizkoa izan zen. Informazio gutxi badugu ere, garbi dago "errondailak", "estudiantinak" eta antzeko sokataldeak, XIX. mendeko Euskal Herriko herri askotan ezagutzen zirela. Oraindik ere, ikus eta entzun ditzakegu halako talde gutxi batzuk gure herrietan. Bereziki, Bizkaiko kostaldeko (Lekeitio, Mundaka...) eta Nafarroako Erribera aldean.

Baratzako pikuk Tolosako Inauterietan jotzen den musika-pieza.

bare 1. Saihetseko barea goratzen denean hiru harri jarri behar dira bata bestearen gainean eta hiru bira ematen dira hiru harrien inguruan. 2. Bareak heltzen duenean hiru harri listuz busti eta atzera lehengo lekuan utzi behar dira. 3. Barea itzultzen denean behiaren bekorotz bero-beroz enplastua egin eta gainean ezartzen zaio.

barizela Herri-medikuntzaren arabera, haurra maindire handi batean bildu behar da, gero maindirea kendu eta zerriak lo egiten duen tokian haurra



barizela

pixka bat jirabiraka erabili txerriaren kamainako zabor pixka batez pikorra igurtziz. Ondoren maindire berean berriz bildu eta biharamu-nera arte eduki, eta orduan garbitu haurra.

barreno Harrian bereziki zuloa egiteko burdin ziri bihurria; eskuarki eraztun izeneko tankateko bat izaten zuen barrenolaria busti ez zedin. Barrenoaren aho zorrotzari entrama deitzen zaio. Barrenolaria burdin pieza horiek forjatzen dituen zain barrenoak irekitzen dituen izan daiteke.

barreta Arta-arearen behe aldeari ezartzen zitzaion zurezko bastido-rea.

barride Bi etxe hurbilenekoei ematen zaien izena; gainerakoei auzoko deitzen zaie (Elizondo- Beartzun).

barrikota Upel txikia (Larrañe).

Basajaun Oihaneke jauna, baso sakonean edota jaikigunetan bizi den jainua da. Giza itxura du eta gorputza ilez estalia. Adats luzea aurreal-detik belauetaraino iristen zaio, aurpegia, bularra eta sabela estaliz. Zango estu, mehe eta gorriak ditu. Artaldean jeinu babeslea da eta bizkarrean ahari joalduna duela ibiltzen da, atzetik artaldea darrakiola. Mendietatik oihu egiten die artzainei ekaitzen bat edo otsoa datorrenean, artaldea babesera eramanean dezaten. Beste batzuetan izaki beldurgarri gisa, indar handiko eta zalutasun apartekotzat agertzen dute; lehen nekazari, labore-hazitzaile, errementari eta errotari izan zen, eta horri lapurtu zizkion gizakiak zerra, errota-ardatza eta metalak urtzeko sekretuak.

basalore Flemoia edo handitua sendatzeko erabiltzen den lorea.

baserri-gurdi Bereziki baserriko lanetarako erabiltzen den gurdi mota.

baskaleta Zuberoako maskaradan egiten den dantzetako bat, aitzinapika eta moneiak izenekoekin batera.

basta Astoari eta kidekoei zama garraiatzeko ezartzen zaien tresna, txalma baino sendoagoa, lur malkarretan lan egiteko bereziki erabilia. → *pasta*.



basta

bastrel Kostaldeko zurginak erabiltzen duen kutxila.

basur *Ik.* ihintz.

basurde-patata *Ik.* aihen zuri.

bataio-bazkari *Ik.* atsolorreta (Elizondo).

batea Gantxo bukaeran duen burdina, zumitzezko besaulkiaren atze-hanken era angulatua lortzeko erabiltzen dena.

batel Arraun-ontzi txikia, bereziki lau arraunlarik eta lemazainak eramaten dutena. Estropadetan erabiltzen den itsasontzia.

batelari Bateleko arraunlaria.

bateltzain Batel-patroia.

batian-bikoa Jolas honetan neskek edo mutilak sokari eragiten zion

goitik, bakarka; sokak indarra hartzen zuen neurrian, salto bakoitzean bi bider hankazpitik eta beste bitan buru gainetik pasatzen zuen.

Tolosan, saltatzean, hau kantatzen zen: *"Txantxibiri kamino / ez dauka dirurik / hiru alaba dauzka / ezkondu gaberik. / Eta seme txiki bat / kapote zaharrakin / konejua dirudi / bere bizarrakin"*. Joan zen mendean izena aldatu eta txantxibiris deitu izan zaio (Tolosa).

baton Zumea zuritzeko makila.

batutako Puska-biltzean jasotako jakiak.

Bazaratoste Gernikako Aratozteak Kinkuagesima aurreko igandean hasten ziren eta egun horri Bazaratoste izena ematen zitzaion. Gernikarrek landara irten eta txorizoa, arrautzak eta urdaia jaten zituzten, erromeria alaia eratuz. Aratozte domekan, hurrengo igandean, mozorrotu edo marrotu egiten ziren eta marro jantzita ibiltzen ziren. Aurrekua eta oilar-jokoa egiteko ohitura zegoen Gernikan Astearte Inauterian.

bazter-arrantza Kosta inguruan egiten den arrantza.

bazterretxe Baserria, basetxea.

be(e)larri Burdinazko kirten edo esku-lekua.

bedana Ik. aihotz.

begiko min 1. Herri-medikuntzaren arabera, San Joan egunean bedeinkatutako arrosak irakin, zapitxo bat hartan busti eta begia garbitu, batez ere goizean. 2. Haurrei begiak sendatzeko baraurik dagoenaren listua. 3. Larranbilo ura irakin eta hartaz begia garbitu. Ama baten titiko esnea begira bota. 4. Intsusa- eta arrosa-hostoak egosi eta urez igurtzi. 5. Betazala handituta daukanak sugandilaren buztana orraztokian gorde behar du; hori ihartzean begia osatu egiten da. 6. Begiko mina kentzeko galtzerdia zangotik kendu eta alderan-

tzitara begien aurrean jarri eta hantxe eduki behar da biharamun goiza arte. 7. Ezkerreko begia keinuka ari bada, norbait gaizki esaten ari da; eskuinekoa ari bada, berriz, ongi esaten.

begitxindor 1. Bekatxo, beltxor, be-txarro eta pettor ere deitzen den hori kentzeko, emazte alargun baten eraztuna pasatu behar da begian bederatzi aldiz. 2. Alargunak ezkontzeko begiz jo duen neskari begitxindorra ateratzen zaio eta hura kentzeko ateko giltza begian bederatzi aldiz erabili behar da. 3. Zikoitz eta gezurtiei ateratzen omen zaie begitxindorra.

begizko 1. Pertsona batzuek begira-daren bidez eta aztikeriaz, batez ere umeengan, eragiten omen duten kaltea. Begizkorik ez egiteko haurrari azkonarraren erpea, kutunak eta abar ipintzen zitzaizkion, Gabon gaberako ikuskizuna obran



begizko

esaten denez: *Azkonarraren atzapartxoa / ekarriko dot menditi / begizkorik eztegiuzen / bulartxorean isegi*. 2. Norbait hiltzen denean, begiak zabalik badauzka, itxi egin behar zaizkio besteren bati begizkoa egin ez diezaion. 3. Gauez hamaiketarik ordu batera bitartean egiten dute kaltea begizkodunek. 4. Begizkotik norbait babesteko Goierri eskumuturretik zilarrezko atzapar bat jartzen zuten zintzilik. Bizkaian triku edo kirikinoaren haginak ipintzen ziren lehen, geroago kutuna. Galtzerdia alderantziz jantzeko ohitura ere bazegoen eta begizkoa zuen umea aitaren alandoran biltzekoa ere bai. 5. Zenbait herritan kutun bat esekitzen zen ikatz, txanpon bat, haur baten zil

zati bat eta apioarekin; beste batzuetan kutun horrek ogi bedeinkatua eta oilo-zirina ere izaten zituen. 6. Bizkaian salutarengana eramane ohi zuten begizkoak jotako haurra. Zenbait herritan abereari adarra zulatu eta hartan argizaria sartzen zuten, eta aniletan nahas-turiko ura ere ematen zitzaion. 7. Begizkoa kentzeko beste bitarteko bat ebanjelioak ateratzea da. San Pelaio arratsaldean Allira toki asko-tatik eramaten dituzte haur negarti begizkodunak ebanjelioak aterat-za. Apaizak liburu batetik zerbait irakurri eta hiru aldiz zeinatu eta gero, pater noster errezatuz, erlikia hurbiltzen dio mindunari muin egiteko. Ebanjelioa atera eta gero kutun bana ematen die apaizak, bi errealean truke. Kutun horretan idatziriko paper bat izaten du barruan. 8. "Ze ume ederra!" esaten duenak begizkoa egiten dio haurrari eta begizkoa kentzeko "Jainkoak bedeinka dezala" esan behar du han dagoenen batek. Norberak nahi ez duela ere egiten omen da begizkoa. 9. Ataunen eskale-ogia ematen zitzaion haurrari azettoa zelako. 10. Abere begizkodun bati San Antoniok gorde dezala esaten zaio eta jabeak Jainkoak pagatu diezazula erantzuten du orduan. 11. Zenbaitek izan du "Nire begiak gaitzik ez dagiala" edo "Nire begiak ez dio gaitzik egin" bezalako esapi-deak esateko ohitura; Mundakan "Ez dot ikusi" esateak balio bera izan du.

begizkodun Begizkoak jotako per-tsona. Begizkoa egiten zuenari eskuak eta aurpegia garbierazi eta ur hura begizkodunari ematen omen zitzaion hartatik jaregiteko.

beherako 1. Arroz-ura eta gero uretan linazi-zahia, malbak eta arto-azal batzuk nahasten dira. Ur hori egosi eta labatiba erara hartzen da. 2. Arrautza-zuringoa ardo zuritan irabiatu eta hori edan.

behigorri Euskal mitologiako aberea, eskuarki zuloetan bizi dena eta horien zaindari izaten dena.

behi-marka Behiak tiraturik soroan ildoak egiteko erabiltzen den lana-besa.

behor-saski Simaur edo ongarrria sorora eramateko erabiltzen zen saskia (lgantzi).



behor-saskia

beila 1. Santutegi batera debozioak bultzaturik egiten den bidaldia. 2. Gaubeila: inork lo egiteko orduetan iratzarrik ematen duen denbora. 3. Gualdia: gaua banatzen zen lau zatietako bakoitza. 4. Gorpuaren aurrean egiten den gualdia.

beilari Beilatzen duena. Erromesa.

bekaineko 1. Logura (Mari -). 2. Begi gaineko kolpea.

bekatxo Ik. begitxindor.

belagi Ik. belaza.

belagile Ik. sorgin.

belagile-solas Ik. zapo-erdara.

belaiki 1. Ikatza-eta biltzeko pala modukoa, ohol batez eta hari zut erdian itsasten zaion gider luze batez osatua. 2. Tomatearen familiako landare pozoitsua, kanpai gisako lore gorriak dituena (Atropa Belladonna, balladonna, belladone, belladonna).

belar on San Joan egunean bedeinkatutako landareak bronkitisa sendatzeko gomendatzen dira. San Joan belar ere deitu diren horiek hildakorearen gorputza garbitzeko eta gaixo dagoen aberea sendatzeko ere erabili izan dira. → *San Joan belar*.

belar ondu Metatzeko prestatzen den belar ihartu edo lehortua (Astitz).

belar txabal *Ik.* plantain ertain.

belar-arrastalu *Ik.* eskuare.

belarbeltz Herri-medikuntzaren arabera, pikorra lehtarazi eta pasmoa sendatzeko enplastuan erabiltzeko gomendatzen den landarea: (*Scrophularia nodosa*, *escrofularia*, *scrofullaire*, *figwort*).

belar-hazi Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa sendatzeko belar-hazia egosi eta hartzea gomendatzen da.

belarri 1. Norbaitek belarriak bero dituen bat edo bat hartaz gaizki esaka ari dela esan ohi da. 2. Eskuineko belarria bero badago, arimak otoitz-eskean ari dira. 3. Eskuineko belarria soinuka ari bada, arrotz edo gutunen bat etxera datorrela esaten da. 4. Belarria soinuka ari denean belarriko harra egarri den seinalea. Elorrion esnea sartzen da belarri barrura harrak edan dezan. Mundaka, Dima eta Baztanen, aldiz, ur bedeinkatu tantak ematen zaizkio, eta Arroan olio epel tantak.

belarriko min 1. Herri-medikuntzaren arabera, belarriko mina kentzeko esnea irakiten jartzen da, ondoren kareharria goritu eta hartara bota, eta lurruna belarrian sartu. 2. Olioia epeldu eta zapi txuri txiki batekin bi tanta sartu belarri-zulo minduan eta zapitxoa bertan utzi. 3. Zenbait tokitan ur bedeinkatu tantak, lanpara-olioa eta abar ezartzen dira. 4. Arrakadak edo belarritakoak lehen

aldiz ezartzean ez zoltzeko baraurik dagoenaren listuaz igurtzitzen dira belarriak.

belar-sega Belarra ebakitzeko erabiltzen den sega, tamaina handienekoa.

belatxinga Bukaeran forma erdi-elipsoidala eta barne-aho zorrotza duen burdin pieza. Zurezko heldulekua izaten du.

belaun 1. Aztala izterrari biltzen zaion giltzaren aurreko aldea. 2. Belaun biluzien gainean egiten den birao edo madarikazioak indar handiagoa izaten du.

belauneko min San Joan belar-eskutada bat egosi eta mina duena aulki batean eserarazi manta batez estalirik lurrunak har ditzan, eta "belaun honetatik pasa dadila bestera, honetatik joan dadila" esan.

belaza Belardia.

bele-izugarri *Ik.* talaka.

beltz Zuberoako maskaradetako pertsonaiak. Zamaltzaina eta txerreroa ez dira maiz agertzen, bai, ordea, Bohem jauna, ijitoen buruzagia.

benturako ume *Ik.* salutare.

berakatz-zopa 1. Berakatz edo baraxuri eta ogiarekin egiten den zopa. 2. San Joan bezpera gauean, San Joan arbola altxatu ondoren, gaz-



berakatz-zopa

teek auresku dantza egiten zuten plazan eta gero berakatz-zopa jaten zuten arrautza eta txitxarrekin (Elgeta, Legutio).

berbena-belar Herri-medikuntzaren arabera, bronkitis, pleuritis, zauri, zartako, handitsu, pasmo, zingiri, flemoi, faringitis eta sinusitisa sendatzeko gomendatzen den landarea: (Verbena officinalis, verbena, verveine officinale, vervain).

berberana *Ik.* berbena-belar.

berbikin *Ik.* birabarki.

berdangilo *Ik.* sega.

berdikin *Ik.* birabarki.

berezko Antzinakoen artean oso zabaldua zegoen munduaren ikuspegi animista; dena sakratu zen. Gerora, izadi-fenomenoek era berri batez, dibinitateetara jo gabe azaltzen hastean, profano kontzeptua sartzen da jokoan, eta orduan bikoiztasun bat sortzen da izaki eta gertakarien artean: batzuk jeinuen, aidekoen, mundukoak dira; beste batzuk, aldiz, naturalak, berezkoak.

bergamailu Sutegiaren atzealdean ezartzen den harria sugarren efektuari aurre egiteko.

bergamazo *Ik.* bergamailu.

bermena *Ik.* berbena-belar.

beroa eman Hotzean landuriko kobrezko ontzia sutegian ezartzea.

bertz *Ik.* pertz.

bertzun Labeko edo sutondoko errautsa jasotzeko pala.

besabe Lurra landu edota jorran egiteko erabiltzen den lanabes horzduna. Handienari zazpi-hortza deitzen zaio eta artoa ereiteko lurra maneatzeko erabili ohi zen; bost-hor-



besabea

tza jorran erabiltzen zen, artean landareak behar adina hazi gabe zeudenean. Abes edo albo izeneko bi zur ditu luzetara zazpi-hortzak, bastidore gisa. Bastidore hori aurrealdetik itxi egiten da eta pertika baten muturra hartzen du, eta alderantzizko norabidean 45 zentimetroraino irekitzen da. Saihetsetan armazoi bat sortzen da eta horren gainean bi eskuleku daude, ahuntz edo besabe-akerrak. Hortzak burdinazkoak izaten ditu, behe-muturrak aurrerantz kaketuta dauzka, bakoitzean hiru hegaldak eta bat pertikan. Tarteka hortzak txukundu egin behar izaten zitzaizkion.

besaga *Ik.* besabe.

besalako Aulki modukoa, zenbait pertsonak besaburuan eramaten dutena.

besare *Ik.* besabe.

Bestaberri Batez ere Nafarroan eta Iparraldean Gorpuzti edo Corpus Christi egunari ematen zaion izena. Prozesioa iragaten zen tokia era askotako lore eta belarrez estali izan da, esaterako, eztainu-belar, intxaur-hosto, lizar-hosto, arrosa, zinta-belar eta ezpata-belarrez. Gero belar horiekin San Joan bezperako sua piztu ohi zen, baita

beren adar eta guzti arbi-hazi buruekin ere.

bestaburu Jai nagusia.

beste munduko Izendapen hau ere erabiltzen zen hildako agertua, arima herratua eta abar izendatzeko. Beste mundukoak eta neskatoa:

Gauetz ohean zegoela izeba eta ama pontekoa agertu zitzaizkion neskatoari zerura joateko meza baten beharrea zeudela esanez. Neskatoak ez zeukan dirurik, eta urtebete pasa eman zuen zerbitzatzeko baserri batean, eta azkenean meza atera zuen. Meza horretara joan ziren guztiei hildakoek ur bedeinkatua ematen zieten. Neskak meza guztian aurrean eduki zituen hildakoak. Eliza uztean, berriz ere ur bedeinkatua eskainiz agurtu zituen. Neskari esan zioten: "Gu orain zerura goaz eta zuretzat ez da zerurik faltako, baina ez erabili harrokeria handirik".

betegarri Berrogei bat zentimetroko egurra sua edo ikatz-txondorra mantentzeko erabiltzen zena.

betteketa Nesken jolas honetan elkarren atzetik segika ibiliz jostatzen da, eta norbait ukitzean "bette" esan ohi da.

beztidura /k. meztidura.

biba 1. Norbait edo zerbait goratzeko egiten den oihua. 2. "Biba San Joan sua. Biba!" deiadar eginez salto egiten zen San Joan bezperako suaren gainetik.

bidegurutze 1. Zenbait bide gurutzatzen diren gunea. 2. Baserrietako San Joan sua bidegurutzeetan egin ohi zen, eta bertan hildakoaren lastaira ere erretzen zen gaitz guztiak uxatzeko (Aia). 3. Sorginak bidegurutzeetan agertzen zirela uste zen. 4. Erdi Aroan bazen gai-

xoak bidegurutzeetan ezartzeko ohi-tura, bidaztiak, haiek ikusi eta, senda zitezten.

Bigarren Dantza Lizartzako Inauterietan dantzatzen den dantza baten izena.

Bigarren Habanera Tolosako Inauterietan Tolosako Musika Bandak jotzen duen piezetako bat.

Bigarren Idiarena Tolosako Inauterietan musika-bandak jotzen duen piezetako bat.

bi-hortzeko atxur Lurra berdintzeko erabiltzen dena, adibidez, laian egin aurretik; zenbait tokitan aitzursarde eta ozpiko ere deitzen zaio (Tolosa).

bi-hortzeko haitzur /k. bi-hortzeko atxur.

bihotzerre Herri-medikuntzaren arabera, arabarba-sustraien ura eta azukrea gomendatzen dira bihotzerrea sendatzeko.

bildumen Argizari birbildua.

bilkar-burni Saskigileak erabiltzen duen burdinazko tresnetako bat (Astitz).



bilkar-burni

bilkatu Saskigileak saskia eta hondagaiak esku batean hartuz, gorantz biltzen ditu zuzenean, eta bilkotik kanpo gelditzen dena beste eskuaz jasotzen du behar duen garaiera eman arte, gero zumitzez josteko.

bilko Saskiaren uztaia.

biolin Erresonantzi kaxa eta masta edo kirtena zurezkoak dituen musika-tresna. Lau soka ditu eta soka hauek igurtzeko arkuak zurdazko soka izaten du. Arruntek, zurdazko bi soka izaten dituzte. Gaur egun arrabitarakin nahasten bada ere, bi soinu-tresna desberdinak dira. Dirudienez, arrabita soinu-tresna zaharrak zeukan funtzioa hartu zuen biolinak eta hortik etor daiteke geroago bi tresna hauek izendatzerakoan sortutako izen-nahasketa. Biolin-joleak XIX. mende arteko dokumentu zahar askotan agertzen dira ia gure lurralde guztietan. Euskal Dantzarien Biltzarraren argazki artxibategiko bilduman, besteak beste, mende hasierako Bizkaiko biolin-arrabitariak ikus ditzakegu. Hauek, bakarka, pandero-jotzailez lagundurik edo "tamborin" edo "salterio"arekin taldea osaturik agertzen dira. Baxenabarreko dantzetarako askotan erabiltzen zen mende honen hasieran. Gipuzkoan ere mende honen hasieran biolina jotzen zuten herrietako festa-ospakizunetan. Jotzaileek, inongo musika-eskolara joan gabe, belarriz ikasten zuten eta bertako kantu eta dantza-errepertorio herrikoia jotzen zuten.

birabarki Zuloak egiteko erreminta, "U" formako gider batez birarazten den ginbaleta batek osatua. Honako izen hauek ere onartzen ditu: birabirjina, berbikin, berdikin eta bilabirjina.

birabirjina Ik. birabarki.

birao 1. Lagun hurkoari kalteren bat opa diogun esaldia, madarikazioa. 2. Eguerdiko hamabietan botatako

biraoa edo madarikazioa eragingarria izaten da, baina biralariak ez du ordua jakin behar. 3. Lekeition Kalbario mendira, Lumentxara begira jaurtitzen zen biraoa indar handiagoa emateko. 4. Lurrean eskuaz gurutzea egin, muin eman eta botatzen zen biraoa indar gehiago emateko. 5. Biralariak birao-era asko erabiltzen zituzten. Hona hemen On Manuel Lekuonak Oiartzunen bildutako batzuk: "Hilko al duk. Amen."; "Itoko al duk. Amen."; "Lehertuko al duk. Amen."; "Tximistak erreko al dik. Amen."; "Lupuak jango al dik. Amen."; "Lepo-hezurra hautsiko al dik. Amen."; "Hamaika mila demoniok eramango al ditek. Amen."; "Tximistak burutik sartu eta orpotik atera eta errebenta arraio egingo al dik. Amen." 6. Arratiar batek aizkora kirtenari botatakoa: "Txarri makera gorriak ezkurra hintzan orduan jan bahindu!". 7. Beste birao-era batzuk: "Zikatuko al haiz!"; "Bernazurak hautsiko al zaizkik!"; "Hi jaio hintzenez, arkume buruzuri bat jaio izan balitz hobe genian". 8. Nork bere buruari ere bota izan dizkio birao baldintzatuak: "Gezurra badiot, nagoen lekutik ez nuke zirkinik egin behar".

bistu Inauteri-giroan txantxo bezala mozorrotu batzuek beste batzuei su emateko erabiltzen zuten gaia, mugarra burdinaz igurtzita ateratako txinpartarekin piztu ondoren.

bitxilore Herri-medikuntzaren arabera, hagineko mina kentzeko landare honen ura hartzea gomendatzen da: (Bellis, margarita, pöquerette, daisy).



bitxiloreak

bixika *Ik.* maskuri.

bizio *Ik.* zizare.

bizkar-besta Etxegintzaren bukaera ospatzeko egiten den bazkaria (Baigorri).

bizkar-jauzika Mutilen jolasa zen eta bat eskuz oinak ukituz jartzen zen makurtuta, eta haren gainetik, eskuak bizkar gainean ezarriz, banaka salto egiten zuten jolaskideek. Jolasa errepikatu egiten zuten, makurtutakoak bizkarra gero eta gorago jarritz, eta saltoa gero eta zailago bihurtuz. Saltoan huts egiten zuena joko kanpo geratzen zen (Baigorri).

bizkar-saski *Ik.* ondasaski (Igantzi).

bloke-dantza Lizartzako Inauterietan dantzaten den dantza mota.

boba Burdin gozozko totxoa.

boga Aro bat eta zepoetan sarturiko bi zehar-mihi edo -ziriz osatutako oletako tramankulua. Zepoak lurrean sarturik eta tinkaturik egotean, bogak ardatz-betekizuna zuen gabia higi zedin. Gabigunari eusten zion.

Bohem jaun Zuberoako maskaradan ijitoen buruzagia, beltzen artekoa, bere tribuarekin etortzen dena. Bere hitzaldietan herriko kontuen errepasoa egiten dute.

boja *Ik.* lixiba-ontzi.

bola-joko Jaurtitzen den bola batez birlak lurreratzean datzan jokia.



bola-jokoa

bolant Luzaideko Inauterietan eta "Bazko Zaharretan" agertzen dira. Guztira hogeiren bat dantzari izaten dira eta zintzilikario apaingarrietatik bolantak deitzen zaie. Atorra xuri almidonduaz jantziak, paparraldea urrezko orratz, botoi, kate eta edergailuz apaindua erabiltzen dute. Bizkar-sorbaldetatik dilindan zetazko xingola luzeak belaupeetarraino eta paparrean behera painelua izaten dute gerriko batekin soinari lotua.

bolant-jantza Luzaideko "bolant" edo dantzariak egiten zuten dantza.

bolari Bola-jokoa aritzen dena.

boloketa Joko honetarako lehenik hiru zirkulu egiten dira lurrean, batetik bestera lau bat metroko tartearekin. Horietako bakoitzean neska edo mutil bat jartzen da, eta hiru horiek jokoa parte hartzen duten gainerakoengandik aparte geratzen dira marra baten bidez. Zirkuluez kanpoko jokalariek batek artilezko pilota hartu eta laguntako baten aurka jaurtitzen du, eta azken horrek hartu eta airera bota behar du, ahalik eta urrunen. Lehen jaurtitzailak pilotaren bila joan behar izaten du, eta bitartean, zirkuluetako batean sartutakoak hurrengora egiten du salto; bigarren horretakoak hirugarrenera, eta hirugarren zirkulukoak, arrastoa pasatu eta "barruan" geratzen da. Baina pilotahartzaileak zirkulutik zirkulura pasatzen ari direnak jo-

tzen saiatu behar du, eta hori lor-tzen badu "Boloketan" hastean zir-kuluen barruan dauden hirurak gertatzen dira galtzaile (Amezketeta).

boltxa-harri Txerri edo urdearen "bol-txa-harri" edo hezurrekin neskek egiten zuten jokoa da. Jokoa has-tea egokitzen zitzaion neskak lau "boltxa-harri" jartzen zituen lurrean, azpikoz gora. Ondoren, lurrean eseri eta pilota botatzen zuen gorantz eta berriro hartu aurretik "boltxa-harri" bat irauli egin behar izaten zuen. Berriz gauza bera egi-ten zuen, harik eta laurak irauli arte. "Boltxa-harriak" behar bezala ez jartzeak edota pilota garaiz ez hartzeak txanda beste bati utzi beharra zekarren. Neska bakoitzak bere pilota erabiltzen zuen eta "bol-txa-harriak" ere norberak apaindu-takoak izan ohi ziren (Baigorri).

bonbardino Bueltetan bildurik meta-lezko kono-enbor formako tutua duen soinu-tresna. Mutur batean pita eta bestean hotsa handitzen duen kanpai gisako zabalgunea du. Tonu-aldaketarako hiru pistoi ditu eta hauek sakatuz aldatzen dira tresnak ematen dituzen notak. Bon-bardino-jotzaileak aspaldidanik aritu dira Euskal Herriko eskualde guztietako herri-jai eta festetan mota guztietako dantza eta doinuak jotzen. Folklore mailan, horrelako saio ezagunenak Lapurdi eta Nafar-roa Beherako dantzetarakoak izan dira.

bonbo Zurezko edo metalezko kaxa zilindrikoa duen soinu-tresna. Larruzko edo bestelako bi partxe tenkatu ditu. Zerbaiten gainean jarri edo lepotik zintzilikatuz, eskuan mazo berezi batez partxea kolpatzen da. Musika-banda, txar-ranga eta fanfarre izeneko musika-taldeetan, ia ezinbestekoak dira bonboak. Hauetako famatuena Lizarrako festetan ospatzen den "la bombada" eta azkenaldian Iruñeko sanferminetan egiten den "el

estruendo" dira. Arizkungo Inaute-rietan, bertan egindako bonbo han-diekin aritzen dira izugarrizko zarata eginez.

borda Basetxe arrunta; batez ere mendian edo basoan abereak edo belarra gordetzeko etxola edo etxe modukoa.

bordari Bordaldea lantzen duena, batez ere maizterra.

bornola Txalupagintzan karela ezar-tzeko lehen ilara eratzen duen ohola (Getaria).

borra Mazo handia, burdinazko atal astun batez eta zurezko kirten batez osatua.



borrak

Bost festak Berpizte, Maiatzeko Paz-koak, Jasokunde, Domu Santu eta Eguberri. Hala ere, leku guztietan ez dira jai berak izaten, batzuetan horien artean herriko Patroiarena sartzen baitute.

bostanka Ik. besabe.

bost-hortz Besabe mota txikia.

bostortz Lau-hortzeko lanabesaren izen desegokia.

bota *Ik.* xirolarru.

botana Zurezko atal biribila zahagi eta zahatoak konpontzeko erabiltzen dena.

botilero 1. Mutil nagusi edo maiordomoaren laguna (Arizkun, Erasun) 2. Zenbait herri-kiroletan jokalariai laguntzen dion gizona.

braera Itsasontzien saihets bakoitza eratzen duen zur sailak tinkatzen dituen haritz piezak.

Bralia Zuberoako maskaradako dantza nagusia, Bralien Jaustia ere deitzen dena, gorriek jaunaren aurrean dantzatzen dituzten urratsez osatua.

Bralien jaustia *Ik.* Bralia.

branka Itsasontzien aurrealdea.

brasero 1. Argizariginek ezkoari berotan eusteko erabiltzen zuten berogailua, beste langintza batzuetan ere erabiltzen zena. 2. Etxeetako berogailua.

brentsa Ardoa egiteko dolarea.

bronkitis Herri-medikuntzak era askotako erremedioak proposatzen ditu bronkitisarentzat eta, oro har, arnas aparatuko gaixotasunentzat. 1. Tipula bat egosi litro-erdi esnetan eta oheratu aurretik pixka bat hartu hiru egunean. 2. Baratxuri batzuk zartaginean ipini eta egosi direnean -ez frijitu- berbena txikitua bota bertara. Dena puntuan dagoenean sutatik baztertu eta arrautz zuringo irabiatua gehitu. Tortilla hori bi trapan hedatu eta bularrean ezarri, bederatzi egun bikoititan. 3. Kazola batean eukaliptoia ipini uretan berotzen estalkiarekin eta irakitean estalkia kendu, kazolaren diametroari ongi egokituriko inbutu bat eza-

rri, kazola sutatik alden du eta lurrun hartatik hartu eta sudurretik kanporatu, hogeit bat minutuz. 4. Kazola batean ardoa eta gari osoaren irina ongi egosi, nahaskiloa bi mihiseren artean hartu eta bularrean ezarri. 5. Bronkitisaren aurka erabiltzen diren beste gai batzuk hauek dira: liho- eta mostaza-hazia, malba, erromeroa, txingar gainera botatako azukrea, intxauroak, ira edo garoa, San Joan egunez bedeinkaturiko belar onak.

bueltako zerra Ebakidura biribil edo erdi-biribila egiteko erabiltzen den zerra.



bueltako zerra

buhadera *Ik.* hauspo (Uztaritze).

buhameak Zuberoako maskaradako pertsonaiak, izatez "ijitoak". Beltzen taldekoak dira, oso zalapartariak, eta nabarmenkeria handiak egiten dituzte.

buhoin Orgaren gupil bakoitzak darman burdin urtuzko txopina (Uztaritze).

buja *Ik.* lixiba-ontzi.

bukanas joko *Ik.* atzemaiteka.

buleketa *Ik.* arrenaketa.

bulken *Ik.* burukote (Unanua-Ergoien).

bulunba Arran handia.

burdetz *Ik.* ardatz.

burdi *Ik.* gurdi.

burdi motz Burdin are *Ik.* besabe.

burdin maza Arotz edo erementariak suteagian erabiltzen duen mailua.

burdin sega *Ik.* zerra (Baigorri).

burdin ziri Forma konikoa duten burdinazko piezak, mazoka enborrak erdibitzeko erabiliak.

burdina tiratu Errementariak burdin puska tenkatzea, mehartzuz eta zorrotzuz.

burdingita Malgukia, indar batek okertu, tenkatu eta sakatu ondoren, bere jatorrizko formara bere kasa itzultzen den gauzakia, gehienetan espiral formakoa.

burdinurtu Burdin urtua, burdin eta ikazkai- (%2,1 baino gehiago) nahastura.

burdisaldi *Ik.* arkütxa.

burdün arrastela *Ik.* ukuilu-aitzur.

burduntzi *Ik.* burruntzi.

burkama Baserri-gurdiaren ohea.

burko Gurdian enborra lotzeko erabiltzen zen zur zati birakaria.

burni barra Leitzako aizkoragileek beren lanerako erabiltzen duten burdin geza.

burni gozo Errementariak lanabes batzuk lantzeko erabiltzen duen burdina bera mota.

burni piko Burdina ebakitzekoa (Betelu).

burni plantxa *Ik.* plantxuela.

burni ziri *Ik.* burdin ziri.

burnia luzatu *Ik.* burdina tiratu.

burpil *Ik.* gurpil.

burpil-banda *Ik.* banda.

burrin Haurrak jolasteko eta animaliak ikaratzeko erabiltzen zen soinu-tresna. Taulatxo bat da, soka bat duena. Tokian tokiko neurri eta itxurak izaten dituzte. Sokaren mutur batetik heldurik, taulatxo hori abiadura bizian airean bueltaka jartzen da, zurrunbilo-hotsa emanez. Abiaduraren arabera hotsaren tonua aldatu egiten da.

burruntzali Janaria plateretan banatzeko erabiltzen den koilara.



burruntzaliak

burruntzi 1. Okela su gainean erretzeko erabiltzen den burdinazko hagaxka moduko atala. 2. San Joan bezperako eta beste egun batzuetako puska-biltzean urdai eta txistorrarentzako erabiltzen zuten gazteek.

burruntziki Saskiaren uztai (lgantzi).

bursaldi *Ik.* arkütxa.

burtasa Gurdiak luzetara izaten dituen bi zuretako bat.

burtasto Gurdi motzaren gurtetxearen gainean doan eta azpian burtasa daukan zur zati higikorra; ardatzari eusten dio.

burtaun Gurdiaren eta leraren pertika (Gernika, Mallabia).

burtela Zamak garraiatzeko gurdiari ezartzen zaion zurezko bastidorea (Lizarraga).

burtere Gurdiaren hedea.

burtere-leku Uztarriak burterearentzat duen zuloa.

burtirun Gurdiaren pertika (Oñati).

burtugal *Ik.* gurdi.

burtzil Gurdiaren ardatza (Oñati).

burtzil-untze *Ik.* aspoi-iltze.

buru 1. Arroan buruko mina zutenak Ondarroako Antiguara eraman eta burua kanpaiaren barruan sartzen zitzairen, eta bertan gortu arte bezala kanpai hotsa entzuten edukitzen zituzten. 2. Oroko Andre Mariaren ermitan ere gauza bera egiten zen, Kredoa berrogei bider esaten zen bitartean. 3. Zeanurin eta Diman San Justoren ermitara eraman eta gaua pasarazten zitzairen. 4. Aralarko San Migelen elizaren alboko hutsune batean burua sartu eta Kredoa berrogei aldiz esaten da buruko mina kentzeko.

buruhandi Haurrak zirikatuz jaietan kalez kale maskuriarekin edo jottzeko zerbaitekin Erraldoien ondoan ibiltzen diren pertsonaiak. Jostakizun horretan dabiltzanek burua estaltzeko erabiltzen duten giza buruaren tamaina handiarengatik ematen zaie izen hori.

buruka Galburua.

buruko min Herri-medikuntzak honako erremedio hauek proposatzen ditu

min hori kentzeko: 1. Gatza eta ozpina urtu arte nahastu hotzean eta gero mihise bat busti eta bekokian ezarri. 2. Olio, baratxuri, berbena txikitu eta arrautza zuringoarekin egindako enplastua bekokian jarri. 3. Esne hotzetan zapi bat busti eta bekokian jarri. 4. San Joan goizeko belarrak enplastuetan jarri. 5. Zenbait ermitatara eramateko joera ere bazegoen, besteak beste, Ondarroako Antiguara, Aralarko San Migelera, edo Muni-beko (Markina) San Martinera. 6. Suge-azala bekokian jarri.

buruko pañelu 1. Emakume ezkonberria buruzapi hori janztean jabetzen zen etxekoandretzaz, eta horregatik ezkondata zegoela jakiteko agiria zen (Ormaiztegi). 2. Inauterietan eta beste zenbait festatan neskek erabiltzen zuten, eta baserrietako emakumeen jantzi arrunta izaten zen.

burukote Emakumeek suila buru gainean garraiatzeko jartzen zuten bigungarria; hemezortzi bat zentimetroko diametroa izaten zuen eta erdian zuloduna zen.

buruntzaki *Ik.* karel.

buruntziki Ehundegiak izaten duen hariak biltzeko zilindroa. Hagatxo baten bitartez eragiten zion ehuleak buruntzikiari.

buru-saski Baserritar emakumeek barazkiak garraiatzeko buru gainean trebeki erabiltzen zituzten otareak.



buru-saskia

burute Agoaren erdi kirtenduna.

buruzai San Adrianen ospakizunetan, lurrezko txarro batzuetan, herritarren artean ardoa banatzen zuena (Lizarraga-Ergoiena).

buru-zare Zola karratu eta aho biribilko saskia (Sunbilla).

buruzkainka *Ik.* bizkar-jauzika (Baigorri).

buskantza Odolki lodia, zenbait tokitan Gabon Zaharretan jaten zena (Nuarbe-Azpeitia).

buztarri *Ik.* uztarri.

buztarrigin *Ik.* uztargile.

buztin Urarekin nahasturik errementariak ontzi batean edukitzen zuen bere lanean erabiltzeko.

buztin-ur Errementariak buztina eta ura nahastuz egiten dutena.

Dd

dagonil Abuztua.

daila *Ik.* sega.

Dama Gazte Tolosako Inauterietan musika-bandak jotzen duen izen bereko pieza.

damalai Etxalarko Inauterietako bi dantzari-bikoteren izena.

damuñ Txistularia (Arizkun).


damuñ-etxeakoandre Andre maiordoma, Inauterietako pertsonaia garrantzitsua (Arizkun).

damuñ-lagun Maiordomoaren lagun-tzailea Inauterietan (Arizkun).

damuñ-nagusi Maiordomoa, Inauterietako pertsonaia garrantzitsua, etxe-

koandrearekin eta lagunarekin ibiltzen zena.

danbolin 1. Zabalera baino altuera handiagoko zurezko kaxa zilindrikoa duen danbor txikia. Larruzko partxeak tenkatzeko sokazko sistema eta atzealdeko partxean bordoia izaten dute. Garrantzitsua izan da historian zehar eta jotzaileari danboliterua izena eman zaio. Antzina neurri desberdinetakoak ziren. Gaur egun, bi motatakoak erabiltzen dira: danbolina (txikia-altua) eta bonbetea (handia-baxua). Jotzeko era desberdin asko daude. Batzuek sinple eta errazak, eta besteak esku batekin jo ahal izateko konplexutasun eta trebetasun handikoak Sinonimoa: Ttuntun. 2. Gaztainak erretzeko galdaratxo edo pertz txiki zuloduna, musika-tresnaren antzekoa.



danbolina

danbolin-etxeakoandre Maiordomoa, Inauterietako pertsonaia garrantzitsua (Arraioz, Erasun).

danbolin-ipurdi Gaztainak erretzeko tresna edo ontziaren bi saihetsetako bakoitza.

danbolin-kirten Gaztainak erretzeko tresnaren heldulekua, birak emateko erabiltzen dena.

danbolin-nagusi Maiordomoa, Inauterietako pertsonaia garrantzitsua (Arraioz, Erasun).

danbolintero Txistua eta danbolina joaz jaiak alaitzen zituen musikaria. Adibidez, San Joan suaren gainetik jauzika zebiltzan bitartean jotzen zuen, baita herriko jai eta festa nagusietan ere.

danbor Letoizko kaxa zilindrikoa eta larruzko bi partxe eta tenkatzeko sokazko sistema duen tresna, dultzainero-gaiteroekin gehien ikusi duguna. Bi makilarekin jotzen da. Askotan dultzaina-jotzailea edo gaita-jotzailea eta danborrariak osaturiko taldea ikusten bada ere, bi dultzaina-jotzaile edo gaita-jotzaile (duoa eginez) eta danborrari batek osatzen dute ohiko taldea. Danbor hauen hotsa handia izaten da eta jotzeko era oso apaindua, aberatsa eta entzungarria.

danborrada Danborra joaz parte hartzaile askorekin egiten den desfile edo ibilaldia. Dirudenez Donostian izan du jatorria jai egintza honek, nahiz eta gaur egun herri gehiagotan ere egiten den. Donostian, San Sebastian egunean, urtarrilaren 20an, kale eta bazter guztietan danborradak ikus daitezke nonahi. Jai XIX. mendearen hasieran sortu zen, eta oraindik erabat argi ez badago ere, badirudi festa sortu baino lehen prozesioa egiten zela San Sebastian egunean Santa Mariatik Antiguako ermitara santuaren erli-



danborrada

kiarekin, danborrak eta bestelako musika-soinuak erabiliz. 1836an prozesioa egiteari utzi egin zitzaion, baina jendeak festari eta musikari heldu zion ohitura ez galtzearen. Dena dela, jatorria ez dute erabat argitu. 1860an Raimundo Sarriegik gaur egun hain ezaguna den "Donostiako martxa" idatzi zuen; letra Serafin Barojarena da.

danburia Ik. ttunttun.

dantza Gorputz-higidura arin eta kateatuen multzoa, ia beti doinu baten arabera egiten dena. Euskal dantza izenekoen artean izen eta era desberdineko sail ugari dago. Kultur mailan eta mendeetan barrena gutxien aldatu den ohitura edo usa-dioetako bat da.

dantza askatu Norberak beste dantzakideei heldu gabe egiten dena.

dantza libre 1. Dantzakideek, dantza lotuan ez bezala, elkarki heldu gabe egiten den dantza. 2. San Joan arratsaldean dantza librean aritzen ziren neska-mutilak (Betelu).

dantza lotu Bi pertsonak elkarki helduz egiten dena.

dantza suelto Ik. dantza libre.

dantzasoka 1. San Joan eguneko meza nagusiaren ondoren herriko plazan egiten zen aurreku edo dantza. 2. Abaltzisketan eta Amais festetan hirugarren egunean eta beste zenbait herritan Inauterietan egiten zena.

daratulu Zurean eta beste zernahi gaitan zuloa egiteko erabiltzen den metalezko tresna aho-bihurria.



daratuluak

deabru 1. Kristau-tradizioan, Jainkoaren aurka altxatako aingeruei ematen zaien izena. Euskaraz izen ugari ditu: addar, gaizkin, etsai, beste mutil, galtzagorri, hattan, munttiot, txerren, tusuri, plaga, kinkilimarro eta abar. Euskal-tradizioan deabruen agerpenei buruzko kontaktuzun ugari izan da. 2. Deabruak andre gaixo bati: Berastegiko emakume bat gaixorik zegoen eta apaizari bere izenean meza bat ateratzeko eskatu zion, apaizari esku hutsa luzatuz eta zera esanez: "Gainerako sobrate horiekin erresponsoak atera bitza". Beste egun batean esan omen zion apaizari: "Bart infernukoak azaldu zaizkit adar eta guzti". Apaizak galdetu omen zion: "Infernutar horiek, beraz, adardunak ditun?" Eta erantzun omen zion emakumeak: "Bai, jauna, bai; nahi badu sinestu, eta nahi ez badu, ez, baina Jainkoak ez dezala nahi berorrek horiek ikustea". 3. Deabrua igeltsero bati laguntzen: Nafarroako Gaintzan eliz atzeko kanposantua herritik ateratzea erabaki zuten, eta horretarako Beteluko igeltsero bati eman zioten lana. Igeltseroa etxera zihoala, tratu txarra egin zuelako damuturik, bidean neskatxa batekin topo egin zuen: hark galdetu zion zer gertatzen zitzaion eta bere nahigabea azaltzean, neskak adierazi zion hurrengo iluntzean liburu batekin joango zitzaiola lantokira eta bertan odolaz izenpetzen bazuen, deabruak berak lana azkar eta ongi egingo zuela igeltseroaren ordeiz. Igeltseroak ezarri zuen odolezko bere sinadura eta horrela infernutarrekin elkarturik gelditu zen. Baina igeltseroa kezkatzen hasi zen eta apaizarengana joan zen. Hark galdetu zion etxean bi urte baino gutxiagoko oilarrik ba al zuen, eta igeltseroak baietz erantzutean, apaizak ekartzeko eskatu eta bedeinkatu egin zuen. Gero sakristian utzi zuen oilo zuria. Iluntzean apaiza eta igeltseroa, oilarra zaku txo batean zutela, kanposantu



deabrua

ondoko sasi batean ezkutatu ziren. Kanposantura txingurriak baino ugariagoa zen deabru-talde bat bildu zen lanera eta guztiek Mikolas zuten izena. Lanean ari zirela, apaizak bere garaian oilarra zakutik atera zuen eta hark kukurruku jo zuen. Deabruak, hori entzutean, lanari utzi eta elkarri begira jarri ziren. Bigarren kukurrukuarekin ikarratu egin ziren. Eta hirugarrena entzutean, ziztu bizian eta sugarretan alde egin zuten. Orduan apaizak esan zion igeltseroari infernuko langileek ez zutela bukatuko lan hura eta igeltseroa poz-pezik itzuli zen etxera bere oilarrekin. 4. Deabrua iruleari agertu: Araban, Ullibarri Aranoako biztanle baten aita, etxean iruten aritzen zen gauetz, kriseiluaren olio- zein gas-argitan, eta batere uste gabe, gizon oso handi bat eta buztanduna jartzen zaio aurrean. Mamutzar hori bat-batean desagertu zen. Irulea, lana bere hartan utzi eta bere gelan ezkutatu zen bake bila. 5. Deabruaren urteak jakin emakumeak: Gauza itxuragabe batek gauero, ordu berean, zubia gurutzatzen zuen. Denak izuturik zeuden, eta emakume batek esan zuen bera arduratuko zela hura zer zen jakiten. Emakumea zubiaren erdira joan eta biluzik jarri zen, eta burua atzera boteaz zango

artetik aurpegia atera zuen buruko ile guztiak zintzilik zituela. Zera itxuragabe hura etorri zen eta emakumearen aurrean hala esan zuen: "Infernuko deabrua nauk, hirutan ehun urte baditiat honela nabilela, baina horrelakorik ez diat inoiz ikusi". Deabrua beldurturik itzuli eta betiko ezkutatu zen. 6. Deabruak ikazkinari lagundu: Lakuntzako ikazkin bat Aralarko mendietan txondarrean aritzen zen, eta egun batean janari bila jaitzi zen herrira. Mendira itzultzean zama okertzen zitzaion mandoari. Orduan ikazkina biraoka hasi zen eta esan zuen: "Horrelakoetan laguntzera ez da sorginik, ez infernukorik etortzen. Baldin badira, azaldu daitezela". Hori esanaz batean gizon indartsu bat agertu zitzaion, adar gorriekin eta zama eusteari ekin zion, txabolaraino lagunduz. Iritsi zirenean, gizona ezkutatu egin zen, eta handik bi egunera hil zen Lakuntzako ikazkina. 7. Deabrua talo-lapurtzailea: Ataungo Araoz mendian ikazkin-talde bat txondarrean ari omen zen; berekin bazuten arrantxero bat, sukaldeko lanetarako eta goizean goiz taloa erretzeari ekiten zion; dena prest zeukanean lankideei deitzen zien, baina haiek txabolara hurbiltzen zirenerako, talorik ez zen gelditzen. Egun batean arrantxeroa zelatan jarri zen eta hara non ikusi zuen deabrua zela lapurra. Batean ikazkinak talo-burdina gortua hartu eta berarekin deabruari sabela alderik alde pasa zion. 8. Txanbenat, deabrua eta Aita Santua: Txanbenat fraidea zen eta bere amaren etxean zegoen, taloa nola erretzen ari zen hari begira. Semea bazihoala ikusita, esan zuen amak: "Nora hoa, afaritarako taloak erretzen ari nauk-eta". Semeak berehala itzuliko zela erantzun zion. Txanbenat deabru bizkor baten gainean jarri eta Erromara joan zen esanez "Alzate, diablo, vete a Roma". Txanbenatek Erroman Aita Santuarenean atea jo zuen eta Aita

Santuarekin egon nahi zuela adierazi zuen. Baina hori ezina zela erantzun zioten, bisitari harekin afaltzen ari zelako. Mahaia neurtu besterik ez zuela nahi esan zue-nean, pasatzen utzi zioten. Mahai gainera bastoia luzetara eta zeharretara bota eta gurutzea egitean, afaldarra ezkutatu egin zen eta Aita Santuak igarri zion bisitaria deabrua zela. Txanbenat etxera itzuli zen eta amak taloa eta esnea atera zion jateko. 9. Deabrua nola uxatu: gauean noiz edo noiz oilarrak kuku-rruku jotzen badu, gatz ale batzuk sutara bota eta kredo bat errezatu behar da. Horrela uxatzen dira inguruko deabru guztiak.

debeku Tradizioz egitea zilegi ez diren zenbait egintzaren berri eman izan da: 1. Elizari gauez hiru bira ematea ez da zilegi. 2. Gabon gauez ez da arrantzarik egin behar. 3. Korpus Kristiz ez da ardi mozketarik egin behar. 4. Ostiral Santuz ez da lixibarik egin behar. 5. Ostiral Santuz ez da abererik uztartu behar. 6. Ostiral Santuz ez da arkumerik jan behar.

degueilo Errementariak langaiaren muturraldeak murriztu eta soldadura prestatzeko erabiltzen duen tresna.

dekorazio Bizkarralde goitua duen ihizko siloiaren besondoak sendotzeko erabiltzen diren bi ihi okertu.

dendal *Ik. endal.*

detxema *Ik. hamarren.*

deztera *Ik. geztera.*

diana Festa edo jaiaren adierazgarri den musikarien goizeko lehen egintza.

disipula Herri-medikuntzaren arabera, erromeroa, anis-belarra, ziguina, asentsioa, gaztaina-adarra, San Joan loreak, San Joan lore horia,

malbabiskoa, zinta-belarra, arrosak, liriok eta azuzenak egosi San Joan egunean bedeinkatutako erramu edo ereinotzarekin. Gaixoak lurrinak hartu behar ditu. Guraizeak, orrazia eta orratz bat hariarekin gurutze erara ere jartzen dira ontzian, sorginek ez baitute horrelakorik onartzen.

disparo Antaparako txinboa graduatzeko erabiltzen zen zutikako zura, zeharretako beste batekin elkar-tzen zena.

ditxo Esaldi errimaduna, barre eragiteko edo ziria sartzeko.

doila Aizkora eta aitzurraren buruei ematen zaien izena (Baigorri).

dolare Bereziki mahatsa eta sagarra zanpatuz muztioa ateratzeko instalazioa. Honako osagai hauek izaten zituen: mandioa, azpi-zumilak, sobrekantalak, kantamera, ziriak, oriak, patsolak, giltzak, zutikakoak, uztarrikoak, urkatxoa, ardatza, hagaia, pixoiak.



dolarea

dolu 1. Norbait hiltzeak sortzen duen nahigabea. 2. Hildakoak sortzen

duen nahigabea adierazteko seinaleak, jantzi beltzak erabiltzea bereziki.

Domeka Aratuzte Kinkuagesima eguna.

Domeka Karnabal Ik. Domeka Aratuzte.

Domeka Zamartxiki Ik. Domeka Aratuzte.

Domingillo 1830. urteaz gero Durangoko Inauterietan tarteka "Domingilloa" atera ohi zuten, baina soildua, urritua, zortzi zintako hagarekin. Berez, Domingillo izeneko hori monigote bat, txorimalo bat omen zen. Lehenago osorik ateratzen zen eta haga-buruan gizon irudi bat zeraman ikur gisa. Dantzariak zinta horiek gurutzatu eta askatu egiten zituzten. Domingillo eta Taraska antzinako Korpus Kristi prozesioan ikusten ziren, Euskal Herrian ez ezik beste herrialde batzuetan ere bai.

dormienda Ik. dormienta.

dormienta Burdinolak zuen zurezko atal handiena, gainerako guztien euskarria.

dote Ik. arreo.

draga Gurdia geldiarazteko balazta, galga edo freno.

dragatu Gurdiaren abiadura geldotu edo erabat geldiaraztea, balaztaztea.

dultzaina 1. Euskal Herrian mihi bikoitze soinu-tresnen artean eboluzionatuena eta ezagunena. Konikotasun irregularreko forma hartzen du. Gehienetan zurezkoak izaten dira eta ezpela izan da zur erabiliena. Joan den mendearen bukaeran Gipuzkoan eta Bizkaian metalezkoak egiten hasi ziren. Tonu-aldaketarako zortzi zulo ditu,

zazpi aurrealdean eta bat goiko atzealdean. Dultzaina guztiek behealdean beste bi zulo dituzte alboetan, biak parean, soinu-tutuaren luzera finkatzen dutenak. Nafarroako gaitarekin itxuraz ez du ia diferentziarik, baina erabiltzean eta ematen duten musikaren alde-tik desberdintasun nabarmenak dituzte. Baserri ingurukoek belarriz ikasten eta jotzen zuten, erronomia eta herri txikietan. Dultzainaren errepertorioa, fandango jota, arinarin, porrusalda, martxa eta herri kantuz osaturik dago. 2. Ik. nafar gaita.

dulunda Zaldabere eta abelgorriek larrekoan erabiltzen duten zintzarri biribila.



dunba

dunba Ik. bonbo.

dupa Mahats-muztioa irakin edo hartitzeko upela.

Ee

Eate Mariren agintepeko jeinua, ekaitzak gidatzen dituena.

ebaki 1. Herri-medikuntzaren arabera, zarandona-belarra erabiltzen da ebakiak sendatzeko. 2. Ezpalak edo oteak egindako zauria sendatzeko suge-larrua ezartzen da gainean olio igurtzia. 3. Hanka bat hautsi zaion bati sendatzeko, aulki baten hanka zatitu eta ongi loturik edukitzen da, harik eta gizakiaren hautsia sendatu arte.

edar Ik. suil.

edensuge Ik. herensuge.

egoarrito Elur eta lurraren bat-bateko lerraketa (Araitz bailara).

egontoki Atsedendia hartzeko leku egokia.

Eguen Gizen Kinkuagesima aurreko osteguna.

Eguen Gordo Ik. Eguen gizen.

Eguen Zuri Markinan izen hori eman izan zaio Inauterietako ostegunari; baita Txixiburduntzi eguna ere. Izan horrek berak adierazten du egun horretan okela errea jateko zegoen ohitura. Markinan kokoxak deitzen zitzairen moztortzen zirenei eta Martizen Karnabal edo Antzara egunean agertzen ziren. Lekeition ere izen bera erabiltzen da Inauterietako osteguna adierazteko; baita Sasikoipetsu eguna ere. Lekeition moztortuari mamojantzia deitzen zitzaion.

egun-txinta 1. Egunsenti edo goiznabarra. 2. San Joan eguneko egun-txintan lizarra eta elorria jartzen ziren ateetan (Anoeta). 3. San Joan goizeko egunsentian haurrak jaiki eta mendira joaten ziren ira sendor bat ebakitzera.



egun-txinta

egur 1. Iraganeko eskulan askotan erabili izan den zuhaitz-gaia, zur ere

deitua. Batzuetan egur edo zur hezea behar izaten da, uztargintzan adibidez; sua egiteko, aldiz, iharra nahiago izaten da. Adaredo mozkorerara erabiltzen da. Egurraren gunerik gogorrenari giharra edo bihotza deitzen zaio eta bigunenari, azalaldeari, olgura. 2. Saskigileak txarria labetik atera eta zur-aluaz joka matxetaren bitartez epai bat egiten dio mutur batean, egurra lehertu deritzana eginez.



eguzkia

eguraldi 1. Mozorro txiki bat, satorraren antzekoa, lurrean zuloa egiten aritzen da. Zulo hori goizean zabalik badago, eguraldi ona egingo du; itxita badago, aldiz, eguraldi txarra. 2. Beleak kuak-kuak egiten badu, hegoak joko du. 3. Satorrak lurra jotzen badu, eguraldi txarra laster.

egur-ikatz Egurrez egindako ikatza.

Eguzki Berezko gaitasunez gainera, eguzkiak gauzez beren egintzak burutzen aritzen diren espiritu gaizkileak uxatzeko ahalmena du. Eta gainera sorgin eta lamina batzuk higi ezinik geratzen dira Eguzkik bere lanbideko atributuak erantzi gabe harrapatzen baditu. Eguzkiaren mitologia indoeuroparrak ideia asko erantsi dizkio eguzkiari Euskal Herrian, horregatik solstizio-jaiak badute Eguzki-kultuzko izaera: eguzkia San Joan goizean dantzan aritzea, egun horretako bainu eta ihintza gaitzak sendatzeko egokiak izatea, San Joan belar eta loreen ura hartzea ona izatea gaitz asko sendatzeko, belar horiek atalburuan ezarrita etxea tximistatik babestea eta abar. Ildo beretik doaz, bidegurutzeetan eta etxe aurreetan sua egitea eta horien gainetik jauzi eginez larruazaleko gaitzak sendatzeko, taldean otoitzak esatea beti sua ezkerretara dela, su horretan piztutako belar-eskutadak sorotara eramatea espiritu txar, izurri eta gaitzak uxatzeko, herriko plazan San Joan arbola ezartzea. San Joanen ermita batzuetara joaten diren erro-

mesek buruan betibiziak ezartzea, herniadunak haritzean egindako pitzaduratik pasatzea... Neguko solstizioari, berriz, honako hauek dagozki: Gabon-zuzia edo Eguberrietan sutan erretzen den enborra ezartzea, etxe-abereak enbor horren gainetik iraganez garbitzea, Gabon gauean familiako buruak egiten duen ogiaren bedeinkapen errituala, Gabon Zaharrea hamabiak jo ondoren erortzen den lehen ura jasotzea. Eguzkiaren sinboloak askotarikoak dira: zirkulu soilak, zirkulu zentrokideak, erradio zuzeneko gurpilak, izar pentagonalak edo pentafak, swastikak, zeinu obifiloak, arrosotoiak eta abar. Horietako zaharrenak erromatarren garaikoak dira eta Basabeko Urbinan, Ibernalon, Gasteizko Institutuan eta Iruñeko Museoa dauden hilarrietako zeinuak, arrosotoiak eta tetraskeoloak dira. Kasu askotan apaindura soilak dira, baina beste batzuetan zirkulu erradioduna kustumaz ordezkatua izan delarik baliteke sinbolo horiek izaera erlijiosoa izatea. Bestalde, gaur egun arte heldu da baserrietan ate nagusiaren gainean basagarduaren lorea (*Carlina acaulis*) ezartzeko ohitura, eta eguzki-lore izena eman izanak garbi adierazten du eguzki-sinbolo delakoa: antzinako etxe batzuek kustodia edo arrosotoia zeukatzen leku berean ezarria, Eguzkiari egozten zaizkion eta lehen aipatu diren egiteko mistiko berak betetzen ditu.

Azkenik, esan behar da, eguzkiaren mitologia horrek eraginik izan bide duela antzinatik eraikinak Ekialdera begira orientatzean; adibidez, Erdi Aroko hilobietan, burua mendebaldean eta oinak ekialdean ehorzteko ohitura sarri aurkitzen da, hau da, eneolitikoko trikuharrietan ageri dena bera. → *Eguzki amandre*.

Eguzki amandre Bergara aldean esan ohi dute: "Eguzki amandrea badoia bere amangana", astroa lurraren altzora itzultzen dela adieraziz; horregatik, Eguzkia lurraren alabatzat hartzen da. Mañari aldean, berriz, Eguzkiaren ama Andra Mari dela esaten dute, eta horrek izan lezake zerikusirik Ama Birjina baino lehenagoko Mari jeinuarekin. → *eguzki*.

eguzki-haize Ekialde edo sortaldetik datorren haizea.

eguzku *Ik.* Eguzki (Erronkari).

ehorzketa Hileta ondoren egiten den lur ematea.

ehule Ehunak ehotzen dituen langilea.

ehundegi 1. Ehunak ehotzeko tresna. Oinel baten bidez eragiten zitzaion, orrazia izeneko atala higiaraziz. 2. Ehulearen lantegia, ehuntzen den lantegia.



ehundegia

ehunsartze Saski edo balotzaretik haria buruntzikira pasatzea (Arbizu).

ehuntegi *Ik.* ehundegi.

ehuntzaile *Ik.* ehule.

ekaitz 1. San Joan goizean etxe-sarreran ezartzen den elorri zuriak ekaitz txarrak urruntzen ditu (Zubietta, Arraioz). 2. Ekaitza sortzen zenean, etxe-atariko lur gainean ontzi bat jartzen zuten sutako hautsarekin, San Joan goizean bedeinkatutako belar batzuekin eta gainean igitaia ahoz gora (Amezketeta). 3. Erramu egunean egin eta San Joan goizean ezartzen diren gurutzeek tximista eta ekaitza (erauntsia) urruntzen dituzte (I-txaso). 4. San Joan sendor edo sortako landare batzuk erretzen ziren etxeko sukaldean (Oñati). 5. Suge asko agertzen denean, ekaitza edo erauntsia izango da laster.

eki *Ik.* Eguzki.

ekilore Herri-medikuntzaren arabera, hagineko mina kentzeko gomendatzen den lorea: (Achillea millefolium, milenrama, millefeuille, milfoil).

eklix Zumagileak erabiltzen duen zume-xafla mehena.

ekzema 1. Herri-medikuntzaren arabera, erle-belarraz igurtzi behar da gaitzak jotako gunea, egunero bizpahiru aldiz goizean eta arratsean. 2. Aihena edo basurde-patata hartu, azala kendu eta gunea igurztearekin gomendatzen da.

elgorri 1. Herri-medikuntzaren arabera, koltxapean eta izerditan eduki behar da elgorriduna. 2. Gona gorri artean edukitzen da gaixoa.

elizako Hilzorian dagoenari ematen zaizkion sakramentuak, bereziki jaunartzea.

elizbide *Ik.* andabide.

eliz-sartze Ama berriak etxetik irten eta lehen aldiz elizari egiten zion bisita.

elorri beltz 1. Herri-medikuntzaren arabera, hipertentsioa eraisteko gomendatzen den landarea: (*Prunus spinosa*, endrino, prunellier, blackthorn). 2. San Joan goizean etxe eta ukuiluetako ateetan jaritzen da elorri beltza, lizarrarekin batera (Bidegoian).

elorri zuri 1. Herri-medikuntzaren arabera, zauriak sendatzeko gomendatzen den landarea: (*Crataegus monogyna*, espino albar, aubépine á un style, common hawthorn). 2. San Joan bezperako suan elorri zuria eta laharrek erretzen ziren (Amezketeta). 3. Elorri zuria berez bedeinkatuzat jotzen da, eta San Joan goizean etxe-sarrerako atean ezartzen zen tximista eta ostotsa urruntzeko (Arraioz).



eltzagorra

eltzagor 30-60 zentimetro altuerako eltzearekin egindako soinu-tresna. Ezagutzen direnetan, Baigorriko herrian aurkitutakoa izan ezik, buzinezkoak dira. Ipurdia kentzen zaio eltzeari eta tenkaturiko larruzko partxearekin ixten da. Larruaren erditik bikeaz zikindutako soka pasatzen zaio. Eltzagorra besapean

hartzen da, ahoa aurrealdera duela, eta eskua eltze barrura sartu eta bi behatzekin soka barrutik kanpo aldera igurtzi egiten da. Tresna honek gure inguruan izan duen funtzioa ez da izan batere musikala, zalaparta egiteko eta ikaratzeko edo beldurtzeko baizik. Beste herrialde batzuetan Gabonetan jotzen da, baina Euskal Herrian galarrotsetan eta xaribarietan. Esan bezala, zarata ateratzea eta helburu desberdinekin animaliak edo pertsonak izutzea eta uxatzea zen helburua. Garbi dago pertsonen belarrietarako eltzagorraren hots zakar hori higuigarri eta beldurgarria dela, baina animalien belarrietarako hori baino gehiago da nonbait. Dirudenez, min hartzen dute eta ezin dituzte hots honek sortzen dituen disonantzia eta maiztasunak jasan. Horregatik itsutu eta erotu egiten dira eltzagorra entzundakoan. Eltzagorrek izan duen erabilera ikusiz, ez da harritzekoa jende askok eta agintariek aurkako jarrera izatea eta ondorioz, toki askotan debekaturik egotea eta jotzaileak ezkutuan aritzea.

elur 1. Ardiak bordan ezkila hotsa ateratzen badute, biharamunean elurra. 2. Katuak erotuki jolasean ari direnean, biharamunean elurra. 3. Behiak hanka goratu eta dar-dar egiten badu, elurra.

elur-arantza *Ik.* elorri beltz (Bidegoian).

elurzulo Elurra gorde eta iraunarazteko lekua, antzina garrantzi handikoa.

Emakondo Kinkuagesima aurreko osteguna (Beruete).

Emakunde 1. Ostegun Gizenaren aurreko osteguna, emakumezkoek ospatzen dutena. 2. Azkaraten bezala, Lezetan ere izen hau ematen zitzaien Inauteriei.

Emakunde-bezpera 1. Kinkuagesima aurreko asteazkena (Azkarate). Herri horretan Ostegun Gizona Emakunde izenaz ezagutzen zen, eta lote edo Inauterietan Emakundeak izena ere ematen zitzaien.

Emezortzi Neskazar Tolosako Inauterietan txistulariek jotzen duten pieza.

enbor-aizkora Saskigileak enbor gainean txara zatitzeko erabiltzen duen aizkora.

endaitz Goldeek eta gurdiek aurrealdean abereak lotzeko duten haga gisakoa.



endaitza

endal Gabi-oinen muturrek ardatzarekiko ukigunean izaten zuten atal burdinaztatua.

endal-harri Burdinolan endalak botea egiten zuen harria; izenak besterik adieraziarren burdina ere izan zitekeen.

enplastero Sasimedikua, sendalaria.

enplastu Sendagai-nahastura biguna, zauriaren edo sendatu behar den gorputz zatiaren gainean ezartzen dena.

entablazio Itsasontziaren estaldura.

entenga Iltze handia, bereziki Durango eta Tolosako iltzegileek egiten zutena.

enterru-bazkari Hiletan eta ehorzketan esku hartzen zutenek Zornotzan hildakoaren etxean egin ohi zuten bazkari oparoa (Zornotza).

entramakin Aho edo mutur zorrotza duen lanabesa, barrena adibidez.

entseñari Zuberoako maskaradan bandera ibiltzen duena.

epaiki Oletan ebakitzeko erabiltzen zen burdina zorrotza.

epaiki-gorrika Ebakitzeko balio duten tenaza zorrotzak.

epaile Ik. tajadera.

epilepsia Herri-medikuntzaren arabera, gaixotasun hau zeukana sendatzeko sugea hartu, burua zapaldu eta bihotza atera behar zitzaien; gero gaixoari begiak estali eta zer zen jakin gabe bihotz hori irentsarazi behar zitzaien.

eraneun Heriotzaren ondorengo bigarren elizkizuna (Aia).

erauntsi Ik. ekaitz.

erbinude 1. Animaliatxo honek izen desberdin ugari du euskaraz: ogigazta, andere eder, aholatz, satandere, musterle, urdanda eta abar. 2. Erbinudeak axuria ez ukitzeko ukuiluan abarka zaharrak erretzen dira eta, gainera, ogia eta gazta ezartzen dira horma-zuloetan eta axuriaren kutunean. Etxean sar ez dadin ere abarka zaharrak erretzen dira.

ereinotz 1. Herri-medikuntzaren arabera, zingiriak sendatzeko gomendatzen dira zuhaixka honen hostoak: (*Laurus nobilis*, laurel, laurier, laurel). 2. San Joan goizean, baserriaren kanpoaldeko ateetan, alderdi batean lizarra eta bestean elorria, bere ereinotz (erramu) bedeinkatua-ekin jarri ohi ziren (Gaintza). 3. San Joan suan ereinotz- edo erramu-aba-

rra erretzen zuten (Zubieta-Nafarroa)
→ *erramu*.

eren Heriotzaren ondorengo elizkizunaz geroztik bederatzai eguneko mezen arteko lehena (Larraul).

eresi Hileta-kantua.

erlauntz Erleek erlekumea hartzeko prestatzen duten babesa edo ontzia. → *abaraska*.

erle Animalia sakratua euskaldunen hileta-tradizioan, hildakoen sufragiorako ezkoa edo argizaria ekoizten baitute. Gainera, horiei berri ematen zaie baserriko norbait hil denean. Honelako formula bat erabiltzen zen: «Erletxoak, erletxoak, egizue argizaria. Nagusia hilda, ta behar da elizan argia». Ez dira diruz saldu edo erosten, baizik eta trukea erabiltzen da transakzioetan. Ostiraletan eta ilargi betean ez zaie kendu behar ezirik erleei. Esaera zaharrak. «Erleak ezta aurretik eta eztena atzetik», «Erlea gozoa aurretik, minkorra atzetik».

erle erregina Erleontzian goi-maila duen erlea eta parekorik uzten ez duena; erlauntzaren ama.

erle langile Erregina eta nagiekin erlauntzako biztanleria osatzen duena. Antzua izaten da eta ezta sortzeko gaia garraiatzen du; ugariena izaten da.

erle-belar Herri-medikuntzaren arbera, egunean hiru bider erabiliz ekzema sendatzeko gomendatzen den belarra.



erle-belarra

erlemando Erlerik handiena, alfer, nagí edo amu ere deitua. Horietako batek erregina ernaltzen du.

erleontzi Erlearen bititokia, zuhaitz baten hutsunea, harkaitz zuloa nahiz gizakiak antolatuturiko ontzi berezia.

erletegi Erleontziek osaturiko multzoa.

ermainudun Akats fisikoren bat duena, herren, konkordun, besamotz, begibakar eta abar duena.

erostari Antzinako ehorzketetan erostaka edo aieneka ibiltzen ziren emakumeak. Nahiz eta Bizkaiko Lege Zaharrak debekatu, luzaroan iraun zuen ohitura horrek.

erpilari *Ik.* alper.

erpiletze *Ik.* alde-etxe.

errabia-belar Herri-medikuntzaren arbera, handitsuaren zornea tiratzeko gomendatzen den belarra: (Hieracium pilosella, oreja de ratón, piloselle, mouse-ear hawkweed).

errada *Ik.* suil.

erraki Barreno mutur-zorroztz eta kokeduna, ia beti, kaikuak, goporrak, abatak eta abar egiten erabiltzen zena.

erramileta San Joan goizean familia bakoitzak meza nagusira bedeinkatzeko eramaten zuen lore eta belar sorta, arrosa, galburu, arto-landare, babarrun-landare, iratze, margarita, erremolatxa-landare, gerezi eta intxaur-abarrez, ezpata-belarrez, erbasantara, errura, ezpartin edo plantain eta lirioz osatua.

erramu 1. San Joan sortaren zati bat eta erramu bedeinkatua egosi eta ur horrekin hildakoaren gorputza garbitzeko ohitura izan da zenbait tokitan (Aia). 2. San Joan goizean, erramu bedeinkatua ezartzen zen

etxeko atean tximista urruntzeko (Betelu).

errapeko gaitz San Joan sortaren zati bat egosi eta ur horrekin errape-gaitza sendatzen ahalegintzen ziren (Orexa).



erratza

erratz 1. Ekaitz egunetan erratza etxe ondoan zutik jartzen da lehenbailehen eguraldia hobetzeko, eta horren gainean artazi edo gurazeak zabalik uzten dira gurutzetara. 2. Gogoko ez den norbaiten bisita denean, lehenbailehen etxetik bidaltzeko txoko batean erratza jartzen da zutik.

errauts 1. Ikatza, egurra eta abar erretzean gertatzen den hauts hondakina. 2. Ekaitza sortzen zenean, etxeko atariko lur gainean ontzi bat jartzen zuten sutako hautsarekin, San Joan goizean bedeinkatutako belar batzuekin eta, gainean, igitaia ahoz gora (Amezqueta).

erratzto Neska-mutilek eskutik elkarri heldu eta korroa eratzten zuten, erdian erratza zutik zeukatela. Talde osoa elkarrekin mugitzen zen erratzaren inguruan, eta halako batean, gutxiena uste zenean, norbaitek bultza eta erratza botatzen zuten eta halakoa kanpoan geratzen zen. Azkenean, bi baizik gelditzen ez zirenean, botatzen zuena suertatzen zen galtzaile. Urte guztiko

jokoa zen, leku zelaietan egiten zena (Muskindi).

errebatidore Ik. kalderero.

errebatitu Errebatidoreek beren lana egitea.

erredura Herri-medikuntzaren arbera, hara zer egin behar den erregunea sendatzeko: intsusa-adarra zuritu eta mintza labana batez kendu eta txikitu eta jarraian argizari pixka batekin frijitu oliotan. Ondoren iragazki batetik pasa eta katilu batera atera, eta erredura, hotzean, oilo-luma batez igurtzi ukenduaz.


erre-espeziak Ofrendako ogia eta kandela.

Errege egun 1. Euskal Herriko zenbait tokitan zintzarri joko ibiltzea izan da egun horretako ohitura berezia, baita etxez etxe agurtzen eta eskean ibiltzea ere. 2. Orain dela 20ren bat urte arte, Hondarribian emakume batek goizeko meza nagusian mahaiburu zegoen alkate-arengana hurbildu eta mahai gainean oparia (ia beti opila) uzten zuten, eta gero herriko ospitalera eramaten zen.

erreketa Neska-mutilen artean eta bi taldetan banaturik egiten zen jokoa. Jolastokiaren erdian arrasto bat egiten zen eta taldeak alde banatan kokatzen ziren. Jokalariak banan-banan ateratzen ziren arrastoa zapaltzera –pasa ere egin zeza keten– eta ahal zuten bizkorren itzuli behar zuten. Joanetorri horretan beste taldekoren batek harrapatzen bazuen, "erre" geratu eta "preso" eramaten zuen harrapatzaileak bere aldera, eta hantxe gelditzen zen harik eta taldekideren batek ukitu eta jaregiten zuen arte (Amezqueta).

errementaldegi Errementariaren lan-tegia.

errementari 1. Metalak, batez ere burdina, lantzen dituen arotza. 2. Errementariak otsoa sortu: Errementari edo arotza lanean ari zela, jo eta jo egiten zuen arren, ez zion burdinari ezereen itxurarik ematen. Kexaturik, hartu burdin gorria eta arotzegiaren atzeko leihotik sasi artera bota zuen. Bat-batean sasi artetik otsoa atera zen. Alboko lagunak hori ikustean herrian kon-tatu zuen ikusitakoa eta lan egitea debekatu zioten eta guztien artean pentsioa ordaindu, lanean ari balitz bezala bizitzeko (Baigorri).



errementariak

errementari-gari Nekazariak urtero errementariari ematen zion garia, lanabes desberdinak zorroztearen truke.

errementari-mutil Errementariaren laguntzailea eta ikasten ari zen mutila.

erremu Ik. erramu.

errentari Ik. maizter.

errentero Etxearen nagusiarri errenta ordaintzen ziona, maizterra.

errepuja Beste eskulangile batzuen artean, Getariako ontzigileek erabiltzen zuten lanabesa.

erroero Metalak, bereiziki burdina, lantzen dituen eskulangilea. Arotza.

erresoloi Zahia.

erretira Abemari-ezkila entzutean kale edo plazatik alde egitea.

erreu Familiakoren bat hiltzean elizari neurri hau gari ematen zitzaion (Intza).

erreuma 1. Belauneko erreuma-aidea kentzeko eskutada bat San Joan lore, arrosa eta intsusa, lizar- eta intxaur-hosto uretan egosi eta gaxoa aulki batean eserarazi zango artean ontzia duela lurrunak hartzeko. 2. San Joan suaren gainetik salto eginez urruntzen da erreuma edo aire txarra. 3. Erreuma sendatzeko, Olaetan labe-su handi bat egiten zen, eta izpikiak garbitu ondoren, erreumaduna bertan sartu eta hoztu arte hantxe edukitzen zuten. 4. Ekainaren bukaeran hartutako lizar- eta haritz-hostoen ura goizetan eta arratsaldeetan hartzea gomendatzen da. 5. Zartzaparrila, txarpoil-belar, bihotz-lore eta alaka-belarrez egindako jarabe bat azukre ubel eta eztiarekin hartzea gomendatzen da. 6. Erreuma ezvitzeke, Garazin emakumeek bost begiko patata ale bat sartzen zuten poltsatxo batean gona artean; zenbat eta patata bigunago, hainbat eta eztiago erreumainazeak. Gizonetako sakelari erabiltzen zuten patata hori.

errokada Oletan zegoen gurpil edo errota.

errobatiba Lehortean Jainkoari eta santuei eurria eskatuz egiten zitzairen otoitza eta prozesioa.

erromara-langa 1. Hesi eta bideetan ezartzen diren zurezko pasaguneak, zeharretarako hagaz eginak. 2. Aramaion San Joan bezperako sutan erretzeko, besteak beste, erromaralangak erabiltzen ziren (Aramaio).

erromeria 1. Ermita baten inguruan egiten den baserritar-jaia. 2. San Joan suaren ondoren erromeria hasten zen, musika eta dantzarekin.

erromero Herri-medikuntzaren araberako bronkitisa eta disipula sendatzeko gomendatzen da landare hau: (Rosmarinus officinalis, romero, romarin, rosemary).

erromilleta Ik. erramileta (Amezketeta).

erronda Ik. albada.

errosena 1. Gaixotasun honek izen asko ditu euskaraz: errosena, arrosa, ezkoila, kazalda, sanarrosa, zahia, zalgi, zokolda eta abar. 2. Norbaiti errosena kentzeko mahats-orrizko txapel bat egin eta gaixoari buruan jartzen zaio, horren gainean zapi bat duela. 3. Abar bateko zazpi arrosa gorde, eta errauts eta esnetan egosirik, zapi batzuekin buruan ezartzen da. 4. Arrosa-koroa bat ezartzen zaio eta gero koroa hori tximinia ondoan edukitzen da ihartu arte. 5. Haur errosendun edo zahidunak zenbait ermitatarako eramateko joera ere izan da: Markina eta Berriatu bitarteko Santa Errosaren ermitara, Ondarroako Andra Mari-rengana, Amezketako Santa Rosaren elizara, Iruñea ondoko Labianon Santa Felizia Erreginareneko ermitara eta abarretara.

erroska Tamaina handiko opila, erdian zuloa zuena, elizan eskaintza gisa ematen zena.

errota Ik. gurrpil.

errota-burdina Gurdiaren burdinazko lanta.

errota-uztai Ik. errota-burdina.

ersuge Ik. herensuge.

esaga Ik. gainaga.

ese Hamakaren okerdura arautzeko erabiltzen diren zur zati horzdunak.

eserleku Ik. aulki.

eskalanpo Zurezko oinetako pieza bakarrekoa.



eskalanpoak egiten

eskalapin Ik. eskalanpo.

eskalapoin Ik. eskalanpo.

eskale Eskean bildutakoaz eta tokiz aldatuz bizi dena. Euskal tradizioan presentzia garrantzitsua izan du: artaburu emateko ohitura zegoen, Zuberoako maskaradan beste pertsonaia batzuekin ibiltzen zen (eskelia), eta hizketan atzeraturik dabilen haurrari eskalearen ogia ematen zaio.

eskamela Hauspoen besoak.

eskaratulero Ik. txantxo.

eskarpatu Forjan piezari muturretatik tira egitea.

eske batze Ik. puska biltze.

eskeko Ik. eskale.

eskeliak Zuberoako maskaradako pertsonaiak. Eskeko edo eskaleak, bizargin, notario, emakume espainiarra, aragoitarren erara jantzia, tximini garbitzaileak eta apezpikua-ekin batera ibiltzen zirenak.

eskoare *Ik.* eskuare.

eskobera *Ik.* eskuare.

eskoihal Emakumea hiltzean ardiki, ogi eta ardoarekin batera elizari eskaintzen zitzaion oihala.

eskolau Apaizaren laguntzaile edo akolitoa.

eskoligesi Gurasoek eta maisuek ez dakitela eskolara ez joatea, piper egitea, txikar egitea.

eskoplo *Ik.* zizel.

eskorta Abereak gordetzeko esparru hesitu eta sabairik gabea.


eskrofula 1. Gaixotasun honek izen asko ditu euskaraz: gingil, bolada, gangarabil, kirkil, maizandre, papera eta abar. 2. Eskrofulak kentzeko zenbait tokitan formula bat esatea proposatzen da, aldi berean gatzale edo artale bat boteaz, edota txanpon batekin gingila igurtzi eta hori bidegurutze batean uzten da. 3. Zamuka edo espartzuloa hartu San Joan goizean eguzkia irten baino lehen, eta ihartu eta gero, lore horiek bi txingarren gainera botatzen dira, zapi bat horien ketan berotzeko eta gero gingilen gainean ezartzeko.

esku (bat arrautza) Sei arrautza edo dozena-erdi arrautza, esku batean hiru eta bestean beste hiru hartzen direlako, nahiz eta "esku bat" esan.

esku (txaloak) Eskuak, txalo jotzean, soinu-tresna kontsideratu behar ditugu. Zenbait kantu eta dantzatan erabiltzen dira musikaren erritmoa

markatuz. Adibide gisa, hor dauzkagu "Esku-dantza" izeneko dantzak. Horietan, dantzariak eskuak jotzen ditu, bere eskuak bata bestearen kontra eta beste dantzarien eskuen kontra.

eskuara *Ik.* eskuare.



eskuarea

eskuare Belar ebakia astindu eta biltzeko erabiltzen den zurezko lanabes honen burua, hortzak eta kirtena atalez osatua da. Hortzak meheagoak izaten dira muturretan eta zeharretarako zurak erdigunean zabalera handiagoa izaten du alboetan baino.

eskuarila Labore-uzta biltzeko sega-kirtenari tinkatzen zaion zeharkako zur bospasei horzduna, orrazi ere deitzen dena.

esku-arrantza Txipiroiak harrapatzeko moduari esaten zaio.

eskulagintza Eskulangileen jarduna; eskuzko lanbideen multzoa.

eskulan Eskuz egindako gauzakia.

eskulangile Eskulanean aritzen den langilea. Eskulanak egiten dituen pertsona.

eskumailu 1. Errementariak bere langintzan erabiltzen duen mailu mota. 2. Zokorrak xehatzeko zurezko mazoia.

eskuotarre Otarre arina, eskulekua erdian daramana.

esku-tenaza Errementariak sutejiko lanetan maiz erabiltzen duen tresna.

eskutila Segak heldulekutzat izaten dituen zurezko bi atalak. Aurreko esku edo eskutilatik gutxi gorabehera 45 zentimetrora egoten da atzeko eskua edo eskutila, eskuaira erakoa; Gipuzkoan aurreko eskutila atzerantz tinkaturik egon ohi da, Nafarroan, aldiz, alderantzizko noranzkoan.

esku-zare *Ik.* eskuotarre.

eskuzerra Eskulangile batzuek erabiltzen duten zerra txikia.

eskuzko marka Hazia erein aurretik lurtean ildoak egiteko erabiltzen den zurezko tresna. Zeharretako zur batean lau hortz daude eta metro pare bateko pertikatik tiratzen zaio. Pertikak helduleku bat du erabilera errazteko, eta urkila erakoa du zeharretako zurean. Bada behi-marka esaten zaion eredu bat ere.

esnarri Esnea egosteko erabiltzen zen harria.

espardea Lur leuna desegin eta apurtzeko nekazariak erabiltzen duen tresnaren izenetako bat, hesi eta ola izenak ere hartzen dituena.

espartin Zola espartuzkoa eta gainaldea ehunezkoa duen oinetakoa.

espartingile Bizibidez espartinak egiten dituen pertsona. Sonatuak izan dira Azkoitiko espartingileak.

espartin-joko Batez ere neguan jokatzen zen eta hasi aurretik kartak banatzen ziren "Bateko urrea" nori egokitzen zitzaion jakiteko. Zoriak

hautatua jolaskideek egindako korroaren erdian belaunikatzen zen lurtean. Korroa osatzen zutenek, espartina pasatzen zuten belaupe-tik, eta erdikoak gutxien uste zue-nean, oinetakoaz jotzen zuten buruan edo bizkarrean. Kolpea gehienetan atzealdetik etortzen zitzaion erdikoari, ustekabean, eta espartina harrapatzen ahalegindu behar zuen. Eskuratzen bazuen korrora pasatzen zen eta galtzailea erdira (Gorriti).

espensero Berastegin Kinkuagesima baino bi igande lehenago gazteak bildu eta bi espensero hautatzen zituzten urte osorako. Espenseroek festetan erabiliko zen diruaren ardura izaten zuten, baita neskak dantzara ekartzekoa ere.

esporta Buru-zarearen itxura bereko otarrea, baina neurritz txikiagoa (Sunbilla).

esporta-terrero Zoru karratua eta aho biribila dituen saskia, buru-zarea baino txikiagoa, obran erabiltzen dena.

espos-gosari Ezkontzaren ondoren gonbidatuekin egiten zena (Zugarramurdi).

estaka Burdinazko barra, bukaeran ingude edo txingura gisako bat duena. Zelaia edo laua eta borobila izan liteke.

estalki Emakumeen buruko painelua, Inauterietan mozzorrotzean sarri erabiltzen dena.

estanpa Mutur bat iltzeburuaren formakoa duen mailua.



estaka

estapabo Lapikoan egositako haragiari, irinaz eta tipula txikituz egindako saltsa gehituz egiten zena; Nuarben Eguberri goizaldean jaten zuten.

estoka Landu behar diren gauzakiak finko edukitzeko lanabesa, torloju baten bidez hurbiltzen edo urruntzen diren bi atal barailadunek osatua.

estolda 1. Hirietako ur zikinak eramateko lurpeko erreten edo kanala. 2. Olako isurbidea, urei irteera ematekoa.

estrapo Kalamu txirikordatu batekin arrauna toletari tinkatzeko erabiltzen dena (Orio).

estropada Ontzien, ete besterik adierazi ezean, traineruen, arteko lehia-keta.

estropu Arrauna toletari lotzeko erabiltzen den sokazko eratzun modukoa.

estu *Ik.* alper-zesto.

eten Etena edo hernia sendatzeko Euskal Herrian zehar hedaturiko ohi-tura baten arabera etena duen haurra haritz baten ondora eramaten da San Joan bezperan. Eskailera batean adaburura jaso eta han, Joan izeneko bi pertsonak esku hartzen dute. Gauerdiko hamabiak jo baino zertxobait lehenago haurra eskuan hartzen du batek. Lehen kanpaikada entzutean esaten du: "Joanek uzten zaitu"; bigarren Joanek haurra bere eskuetan hartu eta esaten du: "Joanek hartzen zaitu", eta horrela jarraitzen dute, harik eta hamabi kanpai-hotsak amaitu arte. Zenbait tokitan haritza erditik pitzitzen dute eta hutsune horretan gai-xoaren atorra uzten dute.

etxaldeko Etxejabearen familiakoa. Teilatu beraren azpian dauden etxebizitza bakoitzekoentzat bestekoa 'etxaldeko' izaten da.



etxea

etxe Tradizioz datorren pentsaeraren arabera, euskalduna etxe bati loturik dago. Sarritan deitura etxearen izena izaten da. Etxea ostatu, eliza eta hilerri da. Etxea leku sakratua da, suak –Andra Mari izeneko jeinu batek– babestu, indar supernaturalak dituen baratzeko edo bertako ereinotzarengatik, elorri, lizar eta San Joan loreengatik, ahalmen mistikoak dituen aizkora eta igitaiarengatik, arbasoen egoitza edo bisitaleku izateagatik eta bertan etengabe arimegi eskaintzen zaien argiarengatik ("lasto batez bada ere argi egin behar zaie hildakoei"), leiho-sapailoetan hildakoei jakiak uzten zaizkielako, antzinako usadioaren arabera etxeko sarrera ekialdera begira jartzeagatik eta etxea bertakoen hilerri delako. Horrek guztiak egiten du sakratu etxea. Etxearen izaera sakratua jarlekuak adierazten du elizan, eta bertan eskaintzen baitira argizaria, ogia eta dirua hildakoen alde. Hildakoak kristautasunaren aurretik etxean lurperatzen ziren, baina bataiorik gabe hildako haurrak teilatuaren hegalepean edo etxe ondoko baratzean ehorzten ziren.

Etxe-dantza Lizartzako Inauterietako dantza bat.

etxejabe Maizterra ez dena, etxena nagusia. → *etxaldeko*.

etxeakoand(e)re 1. Etxea zuzentzen duen emakumea, gehienetan familiako ama. 2. Zuberoako maskardako pertsonaia.

etxetiar *Ik.* maizter.

etxola *Ik.* atxero.

eufemismo Euskaraz, beste hizkuntzetan bezala, badira zenbait hitz tradizioz leundurik esan direnak, besteak beste: Jainko (Ala Inka, Ala Intzo, Ala Jaina, Ala Jainkia, Ala Dzipo...), demonio (denganiñau, demonimes, anganiño, diaño, demorrio, diamutxu, enemien...), arraio (arrano-pola, arrao, arrasto, arraiea...), madarikatu (madari-madaria, Madalen katilu, mada-riena, madarian katua...).

eultzi 1. Larrainean joa izan aurretik edo ondoren, etzanda dauden uzta-azaoen multzoa. 2. Uzta, bereziki garia, larrainean jo, lastoa eta alea bereizteko.

auri 1. Madalen egunean euririk ez bada: gaztaina-urte handia eta pikur-urte handia. 2. Euri-langarra bada, urte txarra: harrak sartzen dira artalandareetan. 3. San Pedro egunean euria egiten badu, berrogei egunean egingo du euria. 4. Armiarma beltza jaisten denean, euria. 5. Muskerrak kantatu eta eskinosoak karra-karra egiten badu, euri handiak berehala. 6. Okila, kantatzen duenean, euri eske ari da.

ezkabia 1. Herri-medikuntzaren arabera, aski da patrikan indi-gaztainale bat sartzea eta erabiltzea. 2. Bike edo uiaz ere kentzen da.

ezkila 1.- Zenbait forma t a k o metalezko ontzia da. Soinua ateratzeko ahoz behera erabiltzen da eta barnealdean zintzilikatuturik mihi bat izaten du. Euskal Herriko



ezkila

artalde eta bestelako animaliek lepotik zintzilikatuturik eramaten dute. Beren hotsen bidez zeinenak diren eta non dauden jakiten da. Mota askotakoak daude, bakoitzak bere izen eta zeregin berezia izanik. Oso erabiliak dira inauterietako dantza eta desfileetan. Besteak beste, Nafarroako toki askotan Egu-berrietako Errege-etorrera aurretik, haurrek zarata handia aterata herrian zehar erabiltzen dituzte. Zuberoako maskaradetan eta Lapurdiko inauterietan ere ezkilak erabiltzen dira. Baina famatuena Nafarroako Ituren eta Zubieta herrietan inauterietan tresna hauek joz egiten diren martxak dira. Zanzanzar (inauteriarekin erlazonaturik dagoen Saint Pansart), Joaldunak (joareak dituztelako) eta Ttuntturoak (buruan eramaten duten txano luze eta konikoa) deitzen zaie. Bi lerrotan jarririk, martxa taldeko partehartzaileek, atzealdean, gerrian lotuta, bakoitzak bi ezkila handi, dunbak edo pulunpak daramatzate (Iturengoek bizkarrean beste bi ezkila txiki ere bai) eta guztiak batera ematen duten urrats bakoitzarekin joareak astintzen dituzte. Urrutitik entzuten da joaldun-talde honek duen martxa-erritmo iraunkorra. 2.- *Ik.* kanpai.

ezkiljotzaile Ezkila edo kanpaiak jotzen dituztenak, bereziki San Joan bezpera-gauean ezkila handia eta txikiak baliatuz eta festarako deia eginez (Zubieta-Nafarroa).

ezki-lore Herri-medikuntzaren arabera, loezina kentzeko gomendatzen den lorea: (Tilia, tila, tilleul, lime blossom).

ezko 1. Erleei darien gai horixka eta urtzen erraza, beren bizilekua egiteko erabiltzen dutena, hots, abaraska. 2. Ezko-argia, kandela. Aztiarentzat ezko edo argizarizko kandelak gorputza ordezkatzen du. Zenbait kasutan lapurreta egin duena agerian jartzeko kandela bat

piztu izan da. Luzaroan gaixo dagoenari buruz esan izan da: "Horri baten batek argizaria piztu dio".

ezko(argi)-zare Zumezko otarre biritan ezkoargia ezartzeko erabiltzen zena.

ezkoargi Elizan pizten den argizarizko erroilo txikia.

ezkobildu *Ik.* bildumen.

ezko-zare Ezkoargia uzteko zumezko saski biribil txikia (Baigorri).

ezpain-soinu San Joan bezperako puska-biltzea eta herri askotako jaiak alaitzeko erabiltzen zen ahoko musika-tresna.

ezpata 1. Gurdian zama tinkatzeko zutikako zuretako bat. → *xeila* (Baigorri). 2. Lihoa eta antzeko landareak zehatzeko erabiltzen den tresna. 3. Ezpata-belarra, San Joan sorta osatzen duten landareetako bat.

ezpel 1. Zuhaixka hosto-iraunkorra, eskulangintzan erabiltzen den zur gogor eta trinkoa duena: (*Buxus semper virens*, boj, buis, box). 2. San Joan goizean, eguna argitu baino lehen, neska edo mutil gazteek ezpelaz apaintzen zituzten atea (Irañeta).

eztainu-belar *Ik.* azeribuztan.

ezten 1. Zurezko kirten edo makila batean sartzen den altzairuzko punta zorrotza. 2. Metalezko lanabesa, zuloak eta markak egiteko erabiltzen dena.

eztera *Ik.* geztera.

eztul-belar Herri-medikuntzaren arbera, zauriak sendatzeko gomendatzen den landarea: (Tussilago farfara, uña de caballo, pas d'âne, coltsfoot).



eztul-belarra

Ff

familiari Ustez norbaiten lagun eta zerbitzari den espiritua. "Orraztokikoak" eta "atzuntziak" izenak ere erabiltzen dira.

fandango Hiru aldiko dantza bizia, jatorriz espainiarra; dantza horri dagokion doinua.

fandoadore Zumitzari ateratako hozka edo erretenetan erabiltzen den landare.

fandoatu Zume-muturra labana txiki batez hiruzpalau zatitan banatzea.

fara Zintzarria. Olaztiko Inauterietan zamarrek farak erabiltzen zituzten.

faringitis 1. Herri-medikuntzaren arbera, berbena txikituz eta aurrautzaren zuringoaz prestatutako enplastua ezartzea gomendatzen da. 2. Eukalipto-uraren lurrinak hartzea. 3. Plantilla-belarraren ura hartzea. 4. Gaztaina-adarra zuritu eta eskutada bat hartu, eta hiru morkotekin batera hamar minutuz egosten da; ur hori erabiltzen da gargarak egiteko.

Farol-dantza Tolosako Inauterietan herriko musika-bandak jotzen duen pieza.

ferra 1. Burdinazko arku formako zerrenda zulodun txikia, zamarieei eta abelgorriei apoen babesgarri ezartzen zaiena. 2. San Joan erramiletako landareak etxearen kanpoaldeko horman edo sarrerako atean bi aldetan egon ohi ziren, eta horretarako ferretan tinkatzen ziren (Aurizberri). 3. Ferra bat lurtean ikusiz gero gorde eta etxean nonbait esekitzen da, zori ona ekartzen omen duelako. 4. Ferra zulodun batek, sakelari sartu eta, zori ona ekartzen omen du.



ferrak

ferra-belarri Ferraren txabeta.

ferra-iltze Ferra tinkatzeko iltzea.

ferra-tenaza Ferraketan erabiltzen diren matxardak.

ferratoki Abereei ferrak ezartzen zaizkien tokia eta instalazioa. Ferratokiak osagai hauek izaten ditu: a) ferratokiaren atzeko hankaleku: atzealdean ferratzeko astoa daraman zura, aberearen hanka edo belauna biltzeko erabiltzen dena. b) ferratokiaren aurreko hankaleku: aurrealdean ferratzeko astoa daraman zura, aberearen hanka edo belauna biltzeko erabiltzen dena. c) ferratokiaren aurreko uhala: ferratzeko astoak aurrean daukan zingila edo petrala. d) ferratokiaren burua jasotzeko polea: ferratzeko astoak daukan txirrika, abereraren

burua jasotzeko eta tinkatzeko erabiltzen dena. e) ferratokiaren buruko katea: ferratzeko astoan larruzko bi gerriko esekita dauzkan katea. f) ferratokiaren dornu: ferratzeko astoaren erroiloa. g) ferratokiaren tripako zura: atzealdean dagoen zurezko petrala, ferratzeko astoak daramana. h) ferratokiko txintxa: abereari besazpietatik eta errapeondotik tinkatzeko pasatzen zaizkion lokarriak.

ferratzaile 1. Abereei ferrak ezartzen dizkiena. 2. Jesukristo ferratzaile: izeneko istorioa: ferratzaile harro bati lezioa emateko Jesukristok eta Pedrok zaldiaren hanka askatu eta ingude gainean ferratu zuten. Ferratzaile harroak gauza bera egin nahi izan zuen, baina ezin izan zuen zaldiaren hanka bere lekura bihurtu. Jesukristo eta Pedro itzuli ziren eta hanka bere lekuan jartzen lagundu zioten, baina "Ni naiz munduko ferratzailerik hobereena" zioen iragarkia kentzeko agindu zioten.



ferratzailea

ferreta Ik. suil (Eskiula. Baigorri).

festa bigarrena Jai edo ospakizun garrantzitsuenaren ondoko bihar-muna.

Festa Txikiak Azken urteetako Inaute-riei Leitzan eman izan zaien izena. Etxalekun abuztuaren 3an egiten direnei esaten zaie.

festaburni Zenbait burdinolak antzina ordaintzen zuten zergaren izena.

fidoka Neska-mutilen arteko joko honek jolaskideak bi taldetan banatzea eskatzen zuen. Gero talde bakoitzetik bat ateratzen zen, lasterka nor abiatuko zen elkarri erreparatuz. Ihesari ematen ziona kanporatuta gelditzen zen segitzaileak ukitzean. Harrapatzen zuen unean jarraitzaileak "fido" esan behar zuen. Ondoren, harrapatuta-koaren taldetik beste bat ateratzen zen jolasarekin jarraitzeko, neska edo mutil bakarra geratu arte, eta halakoaren taldea gertatzen zen irabazle (Muxika).

filarmonika Ik. aho-soinu.

firlak (firletan ibili) Ik. bolo-jokoa (Bai-gorri).

firringila Taulatxo bat da, erdian bi zulo txo dituela. Hauetatik sokatxo bat sartzen da eta sokaren bi muturrak korapilo batekin lotzen dira. Botoi handiekin ere egiten dira. Soka bi eskuekin zabaldu egiten da, taulatxoa erdian utzirik, eta taulatxoa jiratuz soka bildu egiten da. Horrela dagoela, bi aldeetatik tiratuz, taulatxo hori abiadura bizian jira-biran jartzen da zurrunbilo-hotsa emanez. Abiaduraren arabera hotsaren tonua aldatu egiten da.

flauta Zurezko edo metalezko zeharkako flauta arrunta. Zurezkoak ezpel edo ebanoz eginak izaten ziren. Moderno edo berriek giltzak dituzte zuloak itzeko eta irekitzeko. Bi eskuekin hartu eta pita ezpainetan jarriarik, pitaren ertzaren kontra haize emanez jotzen da. Aurreko mende bukaeran eta honen hasieran herri askotako errondaila-erako musika-taldeetako

partaide zen. Baserri-inguruan ere agertzen zen.

flemoi 1. Herri-medikuntzaren arabera, irina txigortu zartaginean, txingar puska batzuk plater batean ezarri eta horien gainera San Joan goizean bedeinkatutako lore eta orri sorta bat botatzen da. Bi oihaltxok hartzen dute minutu eta erdiz landare horien lurruna; orduan irin txigortuaz aurpegiaren alderdi minberatua igurtzi eta horren gainean zabaldu intsusa-lurruna hartu duten bi oihaltxoak. Mihisetxoak zapi batez tinkatzen dira. 2. Halaber, intxaur-adar, San Joan lore, zintabelar, arrosa, garo edo ira, hots, belar onak deitzen direnez egindako lurruna hartzea gomendatzen da, baita berbena txikituaz eta zuringoaz egindako enplastua ere.

forja Burdin gorria mailuaz lantzeko lantegia.



forja

forjari Burdin gorria mailuaz lantzen duen lantzailea.

forjatu Burdin gorria matxinoan mailuaz-edo landu, burdina jo.

furrufarra Ik. burrun.

Gg

gabi Oletan uharkako urak higiarazten zuen mazo handia, agoa lantzeko erabiltzen zena.

gabi-borrika Agoa ebakitzeko matxardak.



gabi-borrika

gabiguna Mazoaren euskarria.

gabiko Liho azaoa edo sorta.

gabioin Oletan ardatzak higiarazten zuena eta gainean gabia edo mailu handia zeukana.

gabitegi Olan, gabia dagoen tokia.

gabonil Abendua.

Gabon-supil Gabon ilunabarrean behipareak tira eginez pago-buru edo mokorra etxeko sukaldera garraiatzen zuten eta han su ematen zioten arto-lotxarekin; horren gainean matxarda jarrita erretzen zituzten afaltzeko bisigua eta gaztainak. Afari horretan bakailaoa jateko ohitura handia zen. Afalondoan, kafea hartuz eta pattar zuria eta gorria edanez jarraitzen zuten ospatzen, harik eta halako ordu batean etxe-koandreak itzaltzen zuen arte. Zenbait lekutan suaren arriskuari ihes egiteko supazterretik sarrerako ate ondora eramaten zuten, eta biharamunean berriro pizten zuten, eta halaxe Urtezahar eguna arte irauten zuten. Behe-sua galtzeak ohitura hau galtzea ekarri du.

gabutxu Burdin areak daraman mordazari ezartzen zaion zur zatia.

gainaga Gurdiak belarra, artolastoa eta abar bezalako zama erorkorra daramanean zama hori tinkatzeko

gainetik ezartzen zaion haga. → *nardai*.

gaineko Galafariaren bukaeran hartzen zen konpota eta intxaur-saltsa; gainekoa etxe batetik bestera aldatzen da urte-garai, ekonomia, gazteen parte-hartze eta abarren arabera.

gaita *Ik.* turuta /*Ik.* xirolarru.

gaizkin Gaueko jeinu gaizkilea, kalte-gilea, burkoko lumaz oilar-buruaren itxura hartu eta gainean lo dagoenari gaixotasun larriak sorrarazten dizkiona. Irudi horiek sutan errez bakarrik lortzen da gaixotasuna sendatzea. Pirinioalde guztian daude jeinu honi buruzko sinesteak.

galafari Garia edo soroko hazi-ereitea egin ondorengo afaria: senideen artean egiten zen eta behar izanez gero soro-lanetan laguntza eskaini zutenekin ere bai (Gemika-Murueta, Bergara-Elosu).

galar Ikatz mota bat.

galarrots *Ik.* tobera.

galazale Ezteiak egin aurretik arreoaren erostera dendara joaten zirenak.

galbahe Irina zein ikatza eralgitzeko hari gurutzatuzko tresna biribila, ale larriari eutsi eta xeheari pasatzen uzten diona.

galdabateko Agoa banatzen den lau atalak.

galdara *Ik.* pertz.

galdatu Asko berotu, goritu burdina batik bat, ola eta errementerian lantzeko.

galdor Teilatuaren gailurra.

galdor-apari Etxeari galdorra ezartzean egiten den ospakizun afaria.

galga 1. Bi puntu garaiera berean dau den ikusteko edo garaiera berean jartzeko erabiltzen den zurezko edo metalezko tresna burbuiladuna. 2. Ibilgailu edo makina bat geldiarazteko edo bere higadura gutxitzeko tresna. 3. Forjako pieza neurtzeko erreminta. 4. Besabearen azpialdetik hortza gehiago edo gutxiago irte-tea (galga handia eta txikia).



galga

galga handi Besabearen azpialdetik gehien irteten den hortza.

galga txiki Besabearen azpialdetik gutxien irteten den hortza.

galtxagorri Ik. galtzagorri.

galtza Artilezko galtza lodiak (Aramaio).

galtzagorri Familiariari edo, oro har, deabruari ematen zaion izena. Eguzkiak kolorea jandako prakak janzen dituenari galtzagorri deitu izan zaio isekaz.

galtzairu Ik. altzairu.

Galtzaundi 1. Tolosako Inauterietarako Ramos Azkarate bertsolari-olerkariak sortutako poema. Pertsonaia hau Etxarri-Aranatzen jaiotako Santos Aldasoro (1831) zapatarian oinarritua da. 2. Inauterietan jotzen den izen horretako habanera-musika.

galtzerdi zuri Legutioko iruleek erabiltzen zituzten Inauterietan.

ganbara 1. Etxeak, bereziki baserri eta antzekoen gorenean gauzak gordetzeko izaten duten teilatupeko barrunbea. 2. San Joan goizean bedeinkatutako sorta, zabaldua, ihartzen uzten zuten ganbaran (Zubieta).



ganbara

ganbaratxo Ik. ganbara.

ganitpus Joko hau hasteko arrastoa egiten zen lurrean. Marra horretatik, makurturik, oin-puntetan, esku bat lurrean jarri eta beste eskuaz gauzaren bat ahalik eta urrunen uzten ahalegindu behar zen, betiere eskua altxatu gabe (Baigorri).

gantxar Ik. gantxigar.

gantxigar Urdai-azala ongi frijitu ondoren gelditzen den jakia (Tolosa).

garatxo 1. Herri-medikuntzaren arbera, garatxoa, sendatzeko, zazpi ostiralez jarraian urdai-azalaz igurtzi behar da. 2. Garatxoa duenaren ohe azpian zulorik ez duen ontzi estali batean sarturik apo bizi bat utzi behar da; apoa akabatzen denerako garatxoa desagertu egiten da. 3. Sagar-alea lau zatitan banatzen da eta horietako bakoitaz garatxoa igurzten da; ondoren inork ikus ez ditzakeen toki batera

botatzen dira sagar zatiak. 4. Gatz, gari- edo ipuru-alez igurzten dira eta sutara botatzen edota harripean usteltzen uzten dira azken bi horiek. 5. Elduainen ihi-zukua erabiltzen zen gatz-ale batzuekin eta hori guztia simaurpean gordezten zen gatza urtu eta ihiak usteldutakoan, eta horrenbestez garatxoak desagertu egiten omen ziren. Bedian ihizko lotura bat egiten dute eta jende asko dabilen bide batean harripean jartzen dute. 6. Oartzunen garatxoak dituenak ikusi gabe atera behar ditu ihiak lurretik, gurutzeak eginez garatxoan gainetik pasatu eta beheko suko tximinian ezarri lehenbailehen ihar daitezen. Belarrak ihartu ahala, joaten dira garatxoak ere. 7. Bedia, Garai, Kortezubi eta Arabako Garaion garatxoak sendatzeko gari-aleak erabiltzen ziren eta Laudion ipurualeak. Garatxoak ale horiez igurtzi ondoren, harripean uzten dira usteldu arte.

Garbitokiko arimak 1. Infernuratzen ez diren arimak, zerura joan baino lehen, beren bekatuekin egin duten zor guztia ordaindu arte egoten diren toki oinazezkoa. Tradizioan garbitokiko arimei buruzko kontakizun ugari ageri da. Hona hemen horietako batzuk. 2. Hona hemen Garbitokiko arima eta danborjolea: Andoaingo danborjolea ero bati arima atera eta Santa Krutz ermitan apaizak meza ateratzeko eskatu omen zion. Danborjoleak dirurik ba al zuen galdetu eta arimak ezetz esatean, Andoaingo apaizak ez ziola mezarik aterako esan eta danborra jotzen jarraitu omen zuen. 3. Garzaron herriko Arozena izeneko bati hildako eza-gun bat agertzen omen zitzaion behin eta berriz, zerbait egiteko eskatuz. Arozenak meza bat atera eta arima ezkutatu egin omen zen "Zure heriotzako orduan oroituko naiz" esanez. 4. Alabaren arima aitari: Leitzan bizi zen alargun bati alaba Argentinan hil eta behin eta

berrito agertzen omen zitzaion baserriko mandioan, aitari zeruan sartzeko meza bat eskatuz, eta hala egiten bazuen heriotzako orduan lagunduko ziola aginduz. Aitak hala egin eta arima desagertu egin omen zen. 5. Hernaniko gazte batek Kuban soldaduska egiten ari zela, heriotza izan zuen. Baserrian bizi zen arreba bati soldadu jantziz agertzen omen zitzaion, ilunabarreko ezkilak jotzean. Emakumeari ondoeza egiten zitzaion. Zer nahi zuen galdetzean, hileta-meza bat eskatu zuen. Sagarakoan hildakoa agertu zitzaion arrebari eta kordea galdu zuen. Hileta ondoren, eskatua betez, ur bedeinkatua hartzean painelua ateratakoan zenduaren hatz-arrastoak geratu omen zitzaizkion bertan garbi-garbi. 6. Arimak meza eskertu: Familiako bati azkena hildakoa azaldu eta meza baten premian zegoela adierazi zion. Senideak meza atera eta amaieran, hildakoa ur bedeinkatua eman omen zion eskura esanez: Eskerrik asko, zerura noa. 7. Aralarko santutegian bildotsa eskaini: Errazkingo artzain batek zioenez, Aralarko San Migelera bildotsa oparitzera zihoan beste artzain batek, asmoz aldatu eta arkumea saldu egin zuen. Handik urte batzuetara hil eta zerura sartu ezinean zegoen. Orduan lagun bati agertu eta Aralarko santutegiarekin zeukan zorra kitatzeko eskatu zion, eta hala sartu zen zeruan. 8. Arima eta segalaria: Basaburuako batek esanaren arabera segalari bat iratzea ebakitzena joaten zen eta ataka batetik iragatean portiltoa berez irekitzen zitzaion. Segalaria ikaraturik gelditzen zen. Galdetu zion zer behar zuen, eta meza bat eskatu zion. Apaizak meza atera bezain laster egundoko argitasuna sortu zen elizan, eta nekazariak eta apaizak biek entzun ahal izan zuten zerura nola zihoan. 9. Nafarroako Gaintzako baserriar bat Ameriketan hil zen eta horren ondoren gauza harrigarriak gertatzen ziren

baserrian: atea bere kasa ireki, ganaduak bere burua askatu, ardiak larrera joan, gauzak ezkutatatu, lekuz aldatu eta honelakoak gertatzen ziren. Baserriko atea alanbrez itxi arren, gauzak bere horretan jarraitzen zuten. Sendagileak esanik norbait hil ote zen ikeretzean, Ameriketara hildakoaren berri izan zuten, eta Gaintzan meza ateratakoan bakea itzuli zen baserrira. 10. Hildakoak altxorra erakutsi: Etxe batean gaueko isiltasunean hitz hauek entzuten ziren: "Jausiko nauk ala ez?". Halako batean erantzuna ere entzun zen: "Jausi hadi gura bok!". Orduan familiako aitona, aspaldi hila, su gainera erori zen eta esan zuen: "Suaren azpiko txapa jo ukabilaz eta horren azpiko urrea zuentzat". Haren nahia egin zuten eta bakea itzuli zen etxera.

garbitzaki Puntan gantxoia duen barrena.



garbitzakia

gare Arrana, joarea.

gari 1. Herri-medikuntzaren arabera, hagineko mina eta flemoiak sendatzeko gomendatzen da galburu-ura: (*Triticum aestivum*, trigo, blé, wheat). 2. Garia ereiten zenetik hurrengo zeregin garrantzitsua jorratzea izaten zen eta horretarako jorraia izeneko aitzurtxo erabiltzen zen. Eta azkenena uzta heldu eta gero, garijotzea egiten zen alea eta lastoa bereizteko, antzina harriari joz eta gerora makinari; horren bukaeran garijotzaileen afaria izaten zen parte hartu zutenak eta inguruko guztiak festa-giroan mahaian eseriz.

gari-bedeinkatze 1. Urtero apaizak egiten zuen uzta-bedeinkatzea, gariarena bereziki. 2. Urte batean huts egin omen zuen apaizak eta baserri bateko amonak honela esanez ordeztu zuen: "Ogi bedeinkatu santua / lurrian ondratua / zeruan ordenatua / hau jaten dogunean / izan bedi nire arima salbatua" (Marina).

Garizuma 1. Berako zaharren artean Garizumako asteek izen bana zuten: Ana, Badana, Susana, Rebenka, Pasio eta Erramo. 2. Bizkaian Garizumari zazpi hankako atsoa deitu izan zaio, eta lehen ostiral edo barikua igarotzean "Atsoari hanka bat kendu deusagu" esan ohi da. Antzina, aro honetan festa egitea debekaturik egoten zen.

garlopa Zurgintzan erabiltzen den tresna, marrusketaren antzekoa baina handiagoa eta kirtenduna, zura leuntzeko erabiltzen dena.

garlopin *Ik.* garlopa.

garlotxa Elurraren gainean ibiltzeko sokaz loturik erabiltzen den zurezko bastidorea.

garo *Ik.* ihintz / *Ik.* iratze.

garo-biltzaile Iratze-biltzaile.

garo-biltzaileen afari Familiako eta auzokoek garoa edo iratzea biltzea bukatutakoan jai-giroan, kontu-kontari, egin ohi zuten afaria.

garo-eztai Iratze-eztai.

garrafoi-saski Beirazko ontzia hauts ez dadin inguruan ehotzen zaion zumezko edo beste gai batez egindako babesgarria (Alkiza).

garraiari Gorpua etxetik elizaraino sorbaldan eramaten dutenak. Beste izen hauek ere erabiltzen ziren: hilketariak, hilkarreariak

(Eskiula), korputz-eramantzaileak (Larraul, Urkizu), gorputz-jasotzaileak (Aia), andarixek (Zornotza).

garrama Garbe, ezpatatzeko tresna.


garramatu Ezpatatu.

garranga Amuaren eta arrankaziaren mutur kakoduna, kizki erakoa.

garrasta Oin mugikor eta zutiko bakarreko eskailera zurezkoa, alde banatan mailak dituena, aldatsean arbolatik fruituak hartzeko aproposa.

garrikalda Zamarra hartzeko gorrika zapalak.

gartza Joko hone-tarako lur-rean lauki bat marrazten zen eta horren erdian jolaskideek ekarritako txanponak jartzen ziren bata bestearen gainean. "Gartza" izeneko laukitik arrasto bat egiten zen eta bertatik jokalariek, banaka, beren txanpona botatzen zuten, "gartzaren" marretakoren baten gainean kokatzeko asmoarekin, edo bestela kanpoaldetik ahalik eta hurbilen. Irabazleak ematen zion hasiera jokoari eta txakurrandia hobekien botatakoak hurrenez hurren. Jokoan hasteko aipatu den arrastotik txanpona botatzen zen laukiaren erdiko mordora. Txanponak "gartza" pasatzen bazuen, bertakoak ukitu gabe, tiraldiak ez zuen balio eta hurrengoari ematen zitzaion txanda. Botatako txanpona ez bazen, aldiz, "gartza"tik ateratzen, txanpon piloan geratzen zen, laukitik atera zitzakeenekin batera. Botatako txanponarekin batera



garrasta

txanpon mordotik bat edo gehiago "gartza"tik ateraz gero, tiratzailea horiez guztiez jabetzen zen eta berriro tiratzea egokitzen zitzaion. Jokalari guztiak pasa ondoren laukiaren erdian txanponik geratzen bazen, norik bere txakurrandia jarri eta berriro jokoan hasten ziren. "Gartzan", batez ere neguan, eta eliz arkupeko lauzen gainean jokatzen zen (Gernika).

gastritis Andre bat eta alaba kanposantura joan eta hiru defuntu zeuden tokitik lur pixka bat hartzen zuten, gero etxean egiten zuten txokolatari nahasteko; txokolate hori ematen zioten gastritis edo urdailko arazoak zituen gaixoari.

gathu Ik. gathuzain.

gathuzain Zuberoako maskaradako pertsonaia, zurezko guraizeekin jostalari ibiltzen dena, ikusleak erregaratzen.

gatz 1. Gai hau azti-jardunetan erabili izan da Tolosa, Urnieta, Andoainen gingila edo lepoko handituak kentzeko; horretarako, baraurik, pazienteak gatz-ale bat hartu eta hartaz igurtzi behar du erigunea, gurutzea behin eta berriro eginez eta aldi berean, arnasarik hartu gabe, konjuru hau esanez: "Gaingilak dira + bederatzi; bederatziak + zortzi; zortziak + zazpi; zazpiak + sei; seiak + bost; bostak + lau; lauak + hiru; hiruak + bi; biak + bat, gaingilak egin dezala zirt-zart". Azken hitz horiek esatean sutara bota behar du gatz-alea eta bat-batean zirt-zart egiten du erretzean. Gauza bera egin behar du bederatzi aldiz eta bederatzi egun jarraitutan. 2. Bedia, Garai, Kortezubin; herri berean eta Arabako Garaioan garatxoak sendatzeko gari-aleak erabiltzen ziren eta Laudion ipurualeak. Garatxoak ale horiez igurtzi ondoren, harripean uzten dira usteldu arte.

gatzara Mamia, gatzatua.

gatzatu Mamia mamitu.

gatzemaile Oletan, janaria prestatzen zuena, ola-morroia.

gau Gauari buruz uste eta sineste ugari izan da iraganean. 1. Gaueko hamabietan etxe bati hiru itzuli eman baietz dioenak ez omen ditu eman ahal izaten. 2. Gaez iturritik edo errekatik ura ekarriz gero, ilintia sartu behar izaten da uretan, bertako gaitz guztiak kentzeko. 3. Gaez ez da ispilura begiratu behar. 4. Gauerdia deabruaren ordua da, eta gauerdian esnatzen denak otoitz egin behar du. 5. Gauerako lagunik onenak idia eta astoa dira, astoa gurutzea duelako.



gaua

gauargi Gaez agertzen den jainua, zuhaitz, harkaitz eta etxeen gainean argi gisa agertzen dena. Hasiera batean gauaren zaindari izan bide da, edota gaueko beza-laxe gau pertsonifikatua (Errezil).

gaubeila 1. Lo egiteko orduetan iratzarrik ematen den denbora, bereziki, hildako bat beilatzen ematen den denbora. 2. Hildakoari beila egiteko ahaide, adiskide eta auzoek bilera egiten dute hildakoa- ren etxean eta bertan errosarioa errezatzen dute; lutua duen familiak kafea eta edari bizia eskaintzen dizkie.

gaueko Gauaren jainua edo gau pertsonifikatua, abemariak jo ondoren zenbait portaera onartzen ez dituen, batez ere ausarkerietan ibiltzea. Kontaera batzuetan deabruzat hartu izan da, eta beste batzuetan jentil edo jentilen dibinitatetzat; behi eta lehoi erara irudikatu izan da.

gau-hil Ik. gaubeila.

gazta Esne gatzatuaz, gazura kendu ondoren, prestatzen den janaria.

gaztagile Gaztak egiten dituen pertsona.

gaztagin Ik. gaztagile.

gatzainerre egun Jai hau Eibarren azaroaren bigarrenegun egiten da eta hildako guztien oroitzapenarekin loturik dago, horregatik egin izan da hildako guztien egunaren bederatziurrena bukatu ondorengo astelehenean. Gizonezkoek eta emakumezkoek zeinek beren aldetik egiten zuten otordu hau, eta barraskiloak eta tortilla ere jaten zituzten gatzainekin batera.

gatzainondo Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa sendatzeko gomendatzen diren hostoak dituen zuhaitza: (Castanea sativa, castaño, châtaignier, sweet chestnut).

gatzain-txara Saskigileak bere lanerako erabiltzen zuen langaia.

gatzanaxal Ik. zumitz.

gatzandegi Gaztak kea hartzen eta bilduta edukitzeko lekua (Urbia).

gazur Gazta estuari darion isurkaria.

gereziendo Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa sendatzeko gomendatzen dira zuhaitz honen

hostoak: (Prunus avium, cerezo, cerise, cherry).



gerezia

gerixeti Arbasoen arimei eman izan zaien izena, batez ere Bizkaian. Heriok gorputzetik bereizi eta lurpeko alderdian bizi direnean, noizean behin gauez gainaldera agertzen dira, beren etxeetara batik bat, senideei laguntzera, eta hiltzean zintzilik geratu zitzaizkien arazoak konpontzera. Arimak azalera irtetean argi, hodei, itzal edo mukulu beltz modura agertzen dira, baita zarata bitxiak eraginez ere. Horrela agertzen diren arimei argi (Lapurdi, Nafarroa), heotsegile (Zuberoa) izugarri edo izu-argi (Ataun) deitu izan zaie. Beste zenbaitokitan arima herratu izena ere eman izan zaie.

gernu Herri-medikuntzaren arabera, gernua edo pixa egin ezin duenari arto-bizarraren ura ematea gomendatzen da; halaber gerneragile onak dira perrexila eta kanabera ere.

gerren 1. "laute, laute, zingar t'arrautze" esanez txerri-puxkak zintzilik eramateko Saran erabiltzen den zurezko haga. 2. Ezpata.

gerriko 1. Baserritarrek erabili izan duten ehunezko zerrenda arrunta, nagusiki urdin-ilun edo beltza. 2.

Dantzari eta mutil-gizonek festagiroan erabiltzen duten kolore biziko ehun-zerrenda.

geztera Oinaz edo eskuaz eraginez zorrozteko erabiltzen den harri lau biribila. → *harleun*.

gezurraska Aska hondogabea.

gider Ik. kider.

gigante Luzaideko Inauterietako pertsonaia. Txapel gorria, lepoan zapia, soinean brusa eta gona zuriak jantzen dituzte.

gihar Zuraren parte zaharrena, olgura ez dena.

giltza Patsoletan banaturik sagar joak edo patsa zapaltzeko lagungarriak dira. Hogeitabat zentimetroko zurak, bina heldulekukoak. Zortzibat izan daitezke, eta zapaltze-lana aurre-ratu ahala ugalduta egiten dira egiteko hori errazteko.



giltza

giltzero Mutil-ardo taldeak urtean zehar arduradun izateko aukeratzan zituen bi gazte izena; horretarako kartak bi aldiz banatu eta bateko urrea egokitzen zitzaizkien izendaturik gelditzen ziren, baina gehienetan gazteek borondatez onartzen zuten kargua eta ez zen kartak banatu beharrik izaten (Altzola, Aia).

ginbalet Daratulu txikia, zurginaren lanabesetako bat.

gingirrin Puska-biltzean urdai eta lukainkak biltzeko eraman izan den tresna.

gisu Karea.

gisugile Karegilea.

gitarra Zortziaren itxura duen erre-sonantzia-kaxa, kirten edo giderra afinatzeko larako-etxearekin, eta sei soka dituena. Musika-taldeetako soinu tresnetako bat da, baina askotan, bera izan da ahotskantuetan soinu tresna bakarra. Abeslariari laguntzen dio bere doinu, harmonia eta erritmoarekin. Dirudienez, gitarra-jotzaile asko itsuak ziren. Honek, maila sozial pobrekoak izango zirela adierazten du eta horrela kalean gitarra jotzea eskalea izatearekin bat izango zen. Gure historian izan dugun gitarra-jotzaile ospetsuena Jose Mari Iparragirre izan da. Beti gitarrarekin ibili zen Euskal Herriko herrietatik eta mundu erdian zehar. Bada, Euskal Herriko berezko gitarraerabilpena nonbaiten gelditzen bada, Nafarroako Erribera aldean egiten diren "jota"-saioretan da.

Gizakondo Ik. Gizakunde.

Gizakunde Orakunde edo Ostegun Gizena baino bi ostegun lehenago ospatzen den gizonezkoen jaia. Sexagesima aurreko igandea. Beti ez zen ostegun jakina izaten, eta herri batetik bestera eguna aldatu egiten zen.

gizon-dantza Etxalekun astearte Inauteko erromerian egiten zen dantza.



gizon-dantza

gizotso Ilez beteriko gorputza zuen eta beti lo-lo-lo kantatzen ibiltzen zen. Otso-gizon izena ere hartzen zuen. Badirudi beste herri batzuetako loup-garou edo hombre-lobo dela.

goaztordi Zoru sakoneko saski bikoi-tza, ongarrria garraiatzeko aberearen alde banatan ezartzen zena.

godalet-dantza Zuberoako maskaradan "fonction" izenekoa osatzen duen dantza. Zamaltzain, txerrero, gathuzain eta kantiniarsaren artean dantza egiten dute. Nork bere dantza-urratsak egiten ditu ardoz beteriko edalontzi edo godalet baten inguruan eta gainean. Zamaltzaina izaten da azkena. Bere saioari bukaera emateko edalontziaren gainera igo eta oin baten gainean gelditzen da, besteaz gurutzea seinatzen duen bitartean. Trebetasun berezia behar izaten da, zeren oso zaila baita lurrean dagoen edalontzia ikustea.

gogordura Herri-medikuntzaren arabera, San Joan goizeko ihintzetan oinutsik ibiltzea ona omen da gogordurak kentzeko.

goiz-meza Eguneko aurreneko meza, batez ere igande eta jaiegunetan meza nagusia deitua izaten zenean emandakoari deitzen zitzaiona. Laburragoa eta handitasunik gabea izaten zen.

golde 1. Lurra lantzeko lanabes horzduna, abereren baten herrestan eraman eta nekazariak atzetik gidatzen duena. Atal nagusiak hauek ditu: mutur edo punta, nabarra, aniloa, urkila, gurpilak eta ezpata. Bi golde mota bereizten dira, hau da, handia eta txikia. 2. Baserri baten garrantzia aditzera emateko mantentzen zituen "buruez" gainera "goldeak" ere aipatzen ziren; goldeak hogeita hamahiru area eta hamahiru zentia area ditu.

Gomentzago Gabon- edo Gomentzago-goizean "Niño Jesusen eskia" egiten da Zumaian.

gona (gorri) Emakumeak festarako, eta bereziki Inauterietarako, janzen zuen kolore horretako gona, "Nire aitak amari" kantak aipatzen duena.

gorabila Neurri-unitatea, zazpi estatu edo besabete dituena. Besabete edo estatuak zazpi oinbete ditu.

goragale Herri-medikuntzaren arabera, larranbilo-ur eta likorearekin kentzen da.

gordaka Ik. arrenaketa (Zalgize).

gordeketan Ik. arrenaketa.

goritu Ik. gorritu.

gorosti 1. Zur gogorreko zuhaitz edo zuhaixka, ertz arantzaduneko hosto distiratsu eta iraunkorrak, eta fruitu txiki biribil gorri biziak dituena: (Ilex aquifolium, acebo, houx, holly). 2. San Joan goizean etxearen sarrerako ate aurrean jartzen ziren abartxo batzuk etxeoak babesteko (Elduain).

gorpu-eroate Hildakoa eramatea (Zornotza).

gorputz-eramantzaile Ik. garraiari.

gorpuzbide Hildakoaren segizioak etxetik elizaraino egiten zuen bidea. → *gurutzebide*, → *andabide*.

gorraize 1. Gorraizea San Gregorioren olioaz kentzen da. 2. Erdi-gorraizea sendatzeko harri zuri bat goritu eta esnetara botatzen da eta sortzen den lurruna belarrarian harrarazi behar da; hiru bider egin eta zoldu egiten da eta gero sendatu.


gorri 1. Luzaideko Inauterietako pertsonaiak. Eskuarki bi izaten dira, eta konpartsaren buru gisa aritzen

dira. Dantzarietak bezalako prakak, eta gerrera eta txapel gorriak erabiltzen dituzte. Txapelak kolore desberdinetako borla izaten du. Esku batean zurezko ezpata eta bestean eskerako poltsa erabiltzen dute. 2. Zuberoako maskaradetan fartsa osatzen duten bi taldeetako bat: gorriak eta beltzak.

gorrika Urtzaileek sutegitik ingudera (txingudira) zamarra edo burdinur-tua garraiatzeko eta gero jotzen zen bitartean eusteko erabiltzen zituzten burdinazko matxarda gisako handiak.

gorritu Sutegian metal zatia lantzeko guztiz berotzea.

goru Iruteko erabiltzen zen tresna, goialdean iruteko gaia jartzeko atal bat duen makila batez osatua.



goruak

gorulari Goruetan egiten duena, irulea.

gorule Ik. gorulari.

gotxa-atxur Ik. ukuilu-aitzur.

grama Lurra harrotzeko erabiltzen den lanabesa, burdinazkoa, eta eskuarki bederatziz hartzitu.

gramila Ik. draga.

greda Ebaki behar zen zura markatzeko buztin zuri puxka batez balia-

tzen ziren; erre, hauts bihurtu eta urarekin nahastu ondoren lehortzen uzten zen gogortu eta "greda" bihurtu arte (Berastegi).

grisela Zenbait janari mota erretzeko tresna berezia, burdin hari paraleloz osaturikoa eta gjderduna (Urdiñarbe).

gubia Zurgintzako lanabesa, aho ebakitzailea eta zeharka makotua duena.

gubil Zizel txikia.

gubileko Gubila erabiltzen duen langilea edo maisua.

guraize *Ik.* artazi.

gurdi Zamak garraiatzeko erabiltzen den eta nagusiki zurezkoa eta bi gurpilekoa den ibilgailua. Zamak hartzen dituen erakuntzari gurtetxe deitzen zaio eta arasaz eta barra edo errailaz eratua izaten da. Pertika edo burtirunatik tira egiten zaio eta muturrean bi kabila edo larako izaten ditu, bata tinkoa eta bestea kengarria. Gurdi-ardatza edo burzila 130 bat zentimetrokoa izaten da, erdian edukitzen du, eta pago zurezkoa izaten da. Gurpilaren kanpo diametroa 85-88 zentimetrokoa izaten da, eta 30 mm-ko zabalera eta 25 mm-ko lodiera duen uztai bat izaten du, nahiz eta beste neurri batzuetakoak ere badiren. Aroari hortz, burtugal, ubel, llanta izenak ematen zaizkio. Gurpilaren metalzko errefortzuei lama deitzen zaie; gurpil uztaiak lortzeko llantabuelta-zekoa deritzan tramankuluan pasarazi eta ingudean, errementari batek eutsi eta besteak joz, behar zuen forma biribila ematen zitzaion. Zama mota batzuetarako gurtoholak ezartzen zaizkio (gurdi-kaja) eta beste batzuetarako ezpatak eta gainetik gurtaga edo esaga. Gurtetxea asto edo gurditxinelen gainean irrotzen da eta horiek ardatza



gurdia

igurztean kirrinka ateratzen dute. Kirrinka hori tonu desberdinekoa izatea lortzeko, gurdigileek artista batzuk zirela erakutsi dute.

Gurdi-soinua gurdi-barrika. *Ik.* karreta-barrika.

gurdibide Gurdiak ibiltzen diren bidea.

gurdidun Gurdizaina.

gurpil Pieza zirkularra, ardatz baten inguruan bira egiten duena. Ibilgailuak, gurdiak eta antzekoak mugiarazteko balio du.

gurtesi Gurdiari zama batzuetarako ezartzen zaizkion zurezko oholak edo ingurualdea.

gurutzebide Hildakoa garraiatzen zen bidea; ohituraren arabera bide horrek libre egon behar zuen beti, debekaturik baitzegoen langak ezartzea (Ormaiztegi).

guzurraska Oletan bere urak gurpilpotara edo paletara isurtzen zituena.

Hh

haga Nekazaritzako lanabesaren pertika; muturrean mordaza darama bi iltzez josia eta lan-tresna erabiltzeko gabutxo izeneko zur-mokorra eransten zitzaion.

hagai Dolarearen ardatza mugitzeko erabili izan den zur luzanga.


hagarri Burdina jotzen den harria.

hagin *Ik.* hortz.

hagineko min Herri-medikuntzak honako erremedio hauek gomendatzen ditu: 1. Anis pixka bat min egiten duen aldera eraman eta ahoa garbitu. 2. San Joan egunean bedeinkatutako lore-landare sortatik eskutada bat egosi, eta aurpegia trapu batez estaliz haren lurruna hartu.

haitzür *Ik.* aitzur.

haizearka Oletan erabiltzen ziren larruzko hauspoak; tablako eta tronpa izenak ere hartzen zituen.



haizearkak

haizearri Labearen atzeko horma.

haize-erauntsi Herri-esanaren arabera, haize-erauntsiak eskribau edo errotariaren heriotza iragartzen du.

hamahiru bateko *Ik.* hamahiru hiruko.

hamahiru hiruko Ihiaz siloi osoa egiteko hiru-bateko gurutzaketan (hiru eta bat) hiru osagaizko hamahiru esku behar izaten dira (hamahiru hiruko) eta beste hamahiru zirrindara (hamahiru bateko).

hamaiketako Baserritarren artean usadioz eguerdi aurretxoan hartzen zen mokadu edo otordu arina.

hamarren Lurraren emaitzetatik Elizari (jaunari, erregeri...) eman behar zitzaion zatia. Dextema, dekuma.

hamarretako *Ik.* hamaiketako.

handitsu Herri-medikuntzaren arabera, handitsua sendatzeko, ura alkanforarekin irakiten jarri eta gaixo dagoen gorputz atala sartu-irtenean erabili behar da, ahalik eta tenperatura beroena jasanez.

hargin 1. Eraikuntzan harria lantzeko ogibidea duen pertsona. 2. Hargina Anbotoko Damari galdetza: Karobia borobiltzen edo giltzatzen ari zen hargin bati beti sabaia erretzen zitzaion eta apaizek ezer lortu ezin zuteneko gero, aztiak Anbotoko Damari galdetzeko gomendatu zion. Halaxe egin zuen, eta hark esan zion karobiaren ondoan apo bat aurkituko zuela ahoan ogiarekin. Ogi puska hartu eta ziri batean karobi ondoan ezartzeko, harik eta harria zeharo erre arte. Halaxe egin zuen karobilariak.

hargindegi Harginaren lantegia.

hargingo Harginaren lanbidea.

hargintza *Ik.* hargingo.

hari 1. Irulearen langaia. 2. Hildakoaren familiak harizko oihal bat oparitzen zion elizari (Intza, Araitz bailara). Haril deitzen zaio haria bilduz egindako bolari.

hari pikatu Zahatogileak josteko erabiltzen duena.



hari pikatua

haril Haria bilduz egindako bola.

haritu Mahaiko tornuaren barrualdea forjatu eta hariz hornitu.

haritz 1. Pagoaren familiako zuhaitza, hosto erorkor eta gingildunak dituen, fruitutzat ezkurra ematen duena: (Quercus, roble, chêne, oak). 2. Eten edo herniak sendatzeko haritzaren indarrean sinesten dute: Zornotzan, ekainaren 23tik 24rako gauean, San Joanen ermita ondoan dagoen harizti batean, jarraiko bi anaiak, aizkoraz pitzitzen dute haritzaren gerria eta, ziri baten bitartez, aldendurik edukitzen dituzte bi parteak. Pitzatua herniaren irudia da. Gaueko hamabiak jotzen hastean, anaietako batek herniaduna besoetan hartu eta pitzatatik pasatzen du "Eutsi, anaia" esanez, eta beste anaiari ematen dio. Hark "Ekatzu, anaia" esanez hartzen du. Gero kanpoaldetik itzultzen dio lehenari, formulak trukatu. Hiru bider egiten da hori. Haritzetik esekita uzten dute gaixoaren alkandora eta berriz biltzen dituzte aldenduriko zuhaitzaren bi parteak eta sokaz lotzen dituzte. Haritzak bizirik badirau, gaixoa osatuko da, bestela ez du erremediorik. Sara, Larraun, Urbina, Aezkoa, Erronkari eta Donazaharren ere antzeko jarduerak ezagutu izan dira. Haritza, San Joan gaua eta Joan izena dutenei egozten zaizkien indar horiek ondare indoeuroparrekoak dira, eta zabalera handia lortu zuten antzinatean.

harlatz Ik. geztera.

harleun Errementariak metalezko ahoen bizarki edo bazterkinak kentzeko erabiltzen duen harri berezia.
→ geztera.

harpa Ik. maniura.

harrapaketan Haur-jolas honetan gelditu denak parte-hartzaile guztiak pixkanaka harrapatu eta "soka"

deituriko eskuak elkarri emanez eratzen den sail gero eta luzeago batean korrika erabili behar ditu, harik eta guztiak lotu eta jokia amaitu arte.

harrespil Ik. jentil-baratze.

harri 1. Mea-materia gotorra, lurraren azalean eta barrenean masa trinkoetan aurkitzen dena. 2. Zauri bat gaiztotzen denean, hartaz esan izan da: "Urak eta suak hartua" eta lurrezko lapiko batean ura irakinarazten jartzen da zazpi edo bederatziz harribilekin. Lapikoa hustu egiten da, edukia galdara batera hustuz, eta lapikoa, ahozpeztan jartzen da horren barruan harribilak estaltzeko eran. Lapikoaren gainean guraizeak ezartzen dira gurutze eran edo zabalik; gainean bi ereinotz-abartxo; ereinotzaren gainean, orrazi bat, eta horren gainean gaizkoaturiko gorputz atala. Urak alde egiten badu, berez lapikoan sartuz, horrek esan nahi du gaizkoadura edo infekzioaren kausak ere alde egin duela eta sendatu egingo dela (Sara, Oiartzun, Lizartza).



harria

harri latz Ik. geztera.

harrían jo Lixiba eta garia jotzen ziren bereziki txankeka izeneko harrían.

harriena Herri-medikuntzaren arabera, ardo zuritan tipula eta errefaua txikitu, sei artale irindu, limoi tanta

batzuk gehitu, dena egosi eta hogeita lau ordu igaro ondoren noizean behin ardo horretatik edan harriena sendatzeko.

harri-jasa 1. Ale larriko txingorra. 2. San Joan bezperan etxe, baserri eta ukuiluetako ateetan ezarritako elorri zuriak eta erramu bedeinkatuak harri-jasa urruntzen dute. 2. Erramu egunean bedeinkatu eta San Joan egunean ezarritako sahats eta erramuzko gurutzeek harri-jasa urruntzen dute (Latasa).

harrizulatzaille Harkaitzean barrenoak sartzen dituen.

hartz Ugaztun haragijalea, ile sarri eta luzekoa, ibiltzean oin zola osoa lurrean jartzen duena: (Ursus, oso, ours, bear). European zehar ez ezik Euskal Herriko Inauterietan ere sarri ikusi izan den irudia.

hasikin Zerbaiten lehen emaitza edo fruitua, garai batean Eliza katolikori eskaini behar zitzaiona; hamarrenak eta hasikinak (primiziak) esapidetan erabiltzen zen, aipatuaz gainera irabazien hamarretik bat ere eman behar zela adierazten zuen.

haspo-punta Eskuarki lastaira edo jer-goia josteko erabiltzen den iltze mota.

haur-eske Apaiza eta bi akolito haurtxo baten gorpuaren bila etxera joatea, ondoren elizara eramateko.

haur-hizkuntza Euskaraz beste hizkuntza batzuetan bezala bada haurrekin bereziki erabiltzen den hitz zerrenda bat: abo, apapa, apatx, babi, koko, kaka, lolo, mama, momo, ñoño, papa, pu, pupa, ttauttau, txitxi... Azkueren arabera, hitzak bereziak bailiran, mugatzaile gabe erabiltzen dira, eta zenbait tokitan "xuka" hitz egiten zaie haurrei.

haur-hortzadura Haurren hortzadura, ideia magikoen arabera, trikuaren (Laudio), basakatuaren (Larrabetzu) edo zaldiaren (Bedia) hortza lepotik zintzilik erabilia eragiten da.

hauspo Haize emateko tresna, larru zati edo ehun toleskor batek elkartzen dituen zurezko bi oholez osatua, oholak urruntzen direnean airea hartu eta hurbiltzen direnean jaurtitzen duena; eskua ezartzeko duen atalari trabaila esaten zaio.



hauspo

Hauster egun Kin-kuagesima hurrengo asteazkena, barau eguna eta elizan eliztarrei bekokia hausterrea ezartzen zaien eguna.

Hausterri egun *Ik.* hauster egun.

Hautse egun *Ik.* hauster egun.

hauze Bi ahoko ganibet zorrotz mota bat.

haxa Orgaren ardatza.

haxe Norbaitek bizkarrean etxera garraiatzen duen zama. (Eskiula) Haxekari deitzen zaio haxea garraiatzen duenari.

hede Ganadua uztarrian lotzeko beharrezko larru-zerrenda, puska baka-rrekoa edo gehiagokoa.

hegabera-apeua Hamar zentimetro luze eta bi zentimetro diametro inguruko hurritz-makila hartu eta luzeraren erditik mozten da. Bizikletaren ganbaratik eraztun bat mozten da. Makilaren bi zatia bata bestearen kontra jartzen dira, erdian gomazko eraztun hori luze samar eta tenkatuta jarririk. Buka-

tzeko, bi makila-zatien muturrak lotu eta estu-estu jartzen dira. Ahoaren kontra jarritz, erdian gelditu den zirrikitu horretatik haizea botatzen da eta erdian tenkaturik dagoen gomazko zerrenda hori bibratzen hasten da hegaberaren kantua imitatuz. Beste toki askotan bezala, Gipuzkoako Goierri aldean erabili dituzte halako erreklamoak. Euskal Herritik kanpo, soinu-tresna hau "chilla" izenez ezagutzen da.

hegitsei *Ik.* igitai.

helduda Zuberoako maskaradan karrirkan sartzen direnetik herriko plazara iritsi bitartean pertsonaiek egiten duten dantza modukoa. Arribada ere deitzen zaio.

heotsegile *Ik.* gerixeti.

here *Ik.* hede.

herensuge Euskal mitologjako jeinu gailenetako bat, suge-itxurarekin agertzen dena; zenbait tokitan zazpi bururekin agertzen da, eta beste zenbaitetan buru bakarrarekin. Bere hatsak abereak erakarri eta jan egiten zituen. Aralarren giza-kiak janez bizi zen. Kontaera ugari dago herensugeaz eta A. Xahok bere Le serpent du Valdextren jaso ditu horietako batzuk. Bere bizileku aipatuenak hauek dira: Ahüzkiko Azalegi, Aralarko San Migel, Sarako Faardiko harria, Urduñako Haitza eta Arrasateko Baltzola eta Montekristo.

herpes Herri-medikuntzaren arabera, suge bat, garbitu eta txiki-txiki egin ondoren, gaixoari tortillan eginda ematen zitzaion.

herresta *Ik.* alper-zesto.

hesi Lur leuna desegin eta apurtzeko nekazariak erabiltzen duen tresnaren izenetako bat, ola eta esparda izenak hartzen dituena.

hesi-zimitz Saskigileak hesia egiteko erabiltzen duen langaia; hesigai ere esaten zaio.

hidropesia Herri-medikuntzaren arabera, hidropesia kentzeko bost atso alargun eramaten dira gaixorengana eta bost herritan bost lanparatako olio hartu eta horrezaz zilborra igurtzen zaio.

hilabeteak Hilabetei buruzko uste eta sinesteak ugari izan dira iraganean. 1. Otsaila katuen eta emakumeen hila, martxo gizonetzkoena. 2. Maiatzeko esnea urte guztirako gaztak egiteko onena: gogorak izaten dira eta galtzen ez direnak. 3. Maiatzean ez da ilerik ebaki behar, urdindu egiten baita. 4. Maiatzaren lehenean urdai errea janez gero, zuri, horail eta eder izango da mutila zein neska. 5. Maiatza da hilik onena soinekoak eta arropak garbitzeko. 6. Martxoan jaiotako gizoni marti-oilar esaten zaie Bizkaiko zenbait herritan. 7. Martxoko eta urriko txitak arrautzagileak izaten dira. 8. Ostiralean ilea pixka bat moztuz gero, loditu egiten da, eta buruko minak kentzen.

hilarri Sepultura.



hilarria

hila-zaintze *Ik.* gaubeila (Ornoz. Mugairi).

hildako 1. Euria handia bada norbait hiltzean, zuzenean zerura doa; hortik datoz honako esaera hauek: "Gorputz ona, euritsu; gorputz txarra, haizetsu". Hala ere, ekaitza izatea, hildakoa txarra zen seinaleztat hartzen da. 2. Hildakoa begiak edo ahoa zabalik gelditzen bada, beste baten eske dagoela esa ohi da. 3. Etxe bateko jauna edo andrea hiltzen denean, erleei eta behiei jakinarazten zaie. 4. Norbait hiltzen denean etxeko bat teilatura joaten da teila bat kentzera, handik arima zerura dadin. 5. Hildakoez ez da inoiz gaizki hitz egin behar.

hilerriko trapu Oihal beltza eta zuria, elizako hilobiaren gainean zabalitzen zirenak.

hileta 1. Hilaren alde egiten zen ahuena edo ospakizuna. 2. Hilaren alde egiten zen ospakizunera joaten zirenei ematen zitzairen otordua. 3. Hildakoaren arimaren alde egiten den elizkizuna.

hiletari *Ik.* erostari.

hil-ekzila *Ik.* hil-kanpai.

hil-kanpai Hildakoaren oroitzapenean jotzen den kanpaia.

hilketari *Ik.* garraiarari (Baigorri, Eskiula).

hiltamu Hiltamuan dagoenak sagar errea jan dezake, gordina ez.

hinke Lau bat mutilen artean jolasten zen. Hinke izeneko ezpelezko makila bat erabiltzen zen; metro eta erdi inguruko luzera eta mutur zorrotza izaten zuen. Lurrean marra biribil bat egin ondoren, metro beteko distantziazik marraren barruan sarturik utzi behar zen hinkea, muturrez behera. Bigarrenak gauza bera eginez lehenaren hinkea lurrera

bota behar zuen. Eta horrela jarraitzen zen puntu gehien lortutakoa irabazle gertatzen zelarik.

hipertentsio Herri-medikuntzaren arabera, elorri beltzaren abar batzuk uretan egosi eta ur hori kikara batean egunean bizpahiru aldiz hartzea gomendatzen zen.

hiru zangotako Beheko su gainean eltze, kazola, zartagina eta abar kokatzeko erabiltzen zen metalezko tresna.



hiru zangotakoa

hirusta Nielka, berga-belar eta malporta ere deitzen den landare hau lau hostokoa aurkitzen duena zoriontsu izaten omen da.

Hodei 1. Mari jeinuaren agintepekoa, ekaitzak gidatzen dituena. 2. Ekaitza.

hodeiko 1. Karbunko ere deitzen den gaitz honek aberea jo ez dezan triku-larrua esekitzen da ukuiluko habeetan. 2. Hodeikoa kentzeko, burdin gorituz erretzen da ahalik eta gehien zaldartxo, eta gero azarorri, letxuga- orri, erremolatxarorri eta intxaur-orri egindako enplastua ezartzen zaio gainean. Edaten larranbilo-ura besterik ez zaio eman behar.

hondagai Saskiaren zorua ehotzeko langaia, eskuarki zumitza.

Hondar egun Astearte Iñaute (Eli-zondo, Beartzun auzoa).

hondasaski Bizkarrean eramaten den saskia, arto, erremolatxa eta abarrek.

hondaska Aska hondoduna.

hondazimitz *Ik.* hondazumitz.

hondazumitz Saskiaren zorua egiteko zimitz edo zumitzak.

hondeo-atxur Lurra sakon zulatzeko aitzurra.

hondo Saskiaren zorua.

hontza 1. Hontza ilunabarrean goiz samar oihuka hasten bada eguraldia berehalaxe aldatuko da, edo norbait hilko da etxe hartan, edo zerbait makurra gertatuko da. 2. Hontzak gauez etxe baten inguruan kantatzeak laster sortze bat izango dela adierazten du.

horts Herri-medikuntzaren arabera, era askotako gomendioak egin izan dira horts eta haginekako mina sendatzeko. 1. Baratzuria txiki-txiki egin eta eskuturrean hogeita lau orduan eduki. 2. Ahoan hiru, bost edo zazpi gatz-ale handi sartu. 3. Agurearen pipa hartu eta aizkora bat lurrean ezarri eta horren gainean masaila luzaroan eduki. 4. Oherakoan sutako hautsa eta gatza ur berotan sartu eta hantxe oinak ordu laurden batez eduki. 5. Lau gauza ardoarekin nahastu behar dira: huntz-orria, intsusa, piper-hazia eta koilara-erdi bat gatz; noizean behin nahaste horrekin ahoa garbitzen da. 6. Hagineko mina kentzeko Lumoko elizara joaten dira Murelagatik batzuk; beste batzuk Arretxinagako ermitako harriari zatitxo bat kentzen diote. 7. Arabako Langarika izeneko herritxoan,

kanpoan dagoen burdinazko gurutze handi bati hozka egiten diote. 8. Urkiolan Santa Apoloniaren ermitaren aurreko iturrian ahoa bete ur hartu eta ermitari hiru bira eman eta gero ur hori ermita barrura botatzen da. 9. Arrosa basa ileaz aurpegia igurtzi behar da gorritu arte. 10. Hagineko minik inoiz ez izateko: goizean belarri-atzeak goitik behera ongi igurtzi; ohetik jaikitzean pertz bete uretan oinak sartu; Santa Apoloniari errezatu. 11. Triku-hortzak eta sator-atzaparrak ezartzen zaizkie haurrei eta ume atzeratuei hortzak azkar irten dakizkion. 12. Ira jaioberria ahoan txikituz gero hortzak ez dira usteltzen. 13. Horts edo hagina erortzean teilatura edo sutara botatzen da Mari Teilatukori, saguzarrari, Amabirjina edo Jainkoari "Horts zaharra hartu eta berria ekartzeko" kantari eskatuz. 14. Baserriko lanabes desberdinek izaten duten zur, burdina edo altzairuzko irtengune edo ziri-antzekoa, helburu desberdinetarako erabiltzen dena.

horts-bakarra Aho oso edo banatu gabea duen aitzurra.

horts-biko *Ik.* hozpiko.

hosto txabal *Ik.* plantain ertain.

hozpiko Bi horts dituen aitzurra.



hozpikoak

huntz Herri-medikuntzaren arabera, zauriak sendatzeko gomendatzen da landare honen ura: (Hedera, hiedra, lierre, ivy).

hütxa *Ik. kaxa (Eskiula) / Ik. kutxa.*

ii

laute lote, lnaute.

Idiyarena Inauteriekin oso bat egina dagoen musika.

iduri *Ik. iruri.*

iele *Ik. igeli.*

ieltxu Gizaki itxura edota hegaztiarena duen eta, gehienen ustez, ahotik sugarra darion gaueko jeinua. Bat-batean agertu eta izularria sortzen du, baina ez da gaizkilea. Jakin-minak zirikatutik jarraitzen zaiona troka, amildegi eta leku arriskutsuetatik gidatzen du, eta bera leize, osin eta antzekoetan bizi izaten da. Busturiako putzua eta Nabarniz mendiko leize bat aipatzen zaizkio bizilekutzat (Gernika).

Igande lñuti *Ik. Igande lote.*

Igande lote Kinkuagesima igandea.

igatei *Ik. igitai.*

Igautre *Ik. Inauteri.*

igela Metalezko txapaz egindako intxaurea **z a l a r e n** erdiko eta igel baten itxura duen pieza dituen soinutresna. Honek, estalki gisa, altzairuzko mihi zabal bat du, alde batean "igelari" lotuta eta bestean, libre. Bere posizio naturaletik aldatzean, igelaren



igateia

mihia klik, klik hotsa ateratzen du. Toki askotan erabiltzen ziren metalezko hots-tresna txiki hauek. Herriko festa nagusietan, kanpotik etortzen ziren feriante eta saltzaileek ekartzen zituzten. Hurrek erosi eta alamaena ematen aritzen ziren festak irauten zuen bitartean.

igeli Oletako forjaria, mea urtua edo zamarra gorriekin hartu eta ingudera edo txingudira garraiatzen zuena. Igeli batek gorrikez behar bezala zamarra mugitzen zuen bitartean, beste igeliak, burdin mazoaz jotzen zuen forma egokia eman arte.

igitai 1. Uzta biltzeko edo belarra ebakitzeko lana-besa, altzairuzko xafla kakotu batez eta zurezko **e s k u t o k i** labur batez osatua.



igitai

2. Ekaitza sortzen zenean, etxearariko lur ganean ontzi bat jartzen zuten sutako hautsarekin, San Joan goizean bedeinkatutako belar batzuekin, eta ganean igitaia ahoz gora (Amezketeta).

igitai garrangadun Igitai horzduna.

igurtzitako botila Azal zimurra duen botila eta igurtzeko koilara edo antzeko beste tresna bat erabiltzen dira. Jotzeko, koilarearekin igurtzen da botilaren azala, erritmoa markatuz. Euskal Herriko toki askotan erabili dira igurtzitako botilak, erritmoa markatzeko soinu-tresna gisa.

ihi Zurtoin luze eta malguak dituen landarea, toki hezeetan hazten dena: (Juncus effusus, junco, junc,

rush) Eskulangintzan, lantzeko azala eta barruko bihotza edo muina kentzen zitzaizkion. Ihiaren binakako gurutzaketa gaixo, haur eta abarrentzako siloietan erabili izan da, hiru eta bateko gurutzaketa, berriz, siloi orokorrak egitean; bizkarraldea goitua duen siloiak, hamakak eta alkitxoak, aldiz, gurutzaketa loredun izenekoa erabiltzen zuten.

ihintz 1. Eguratzeko hezetasuna, batez ere gau eta goizaldean, ur tanta xehe bihurtua. 2. San Joan goizean, zortziak aldera, belardiko basur edo ihintzetan oinutsik ibiltzen ziren ordu erdi batez, osasunerako ona zelako. Ohitura aski hedatua zen Euskal Herrian.

ilite zor-pagatze Igitaiarekin galebatena lagundu izateagatik auzoari ordaintzea.

ijitomoxorro *Ik. txantxo.*

ikatz Errekin beltz eta trinkoa, gehienbat ikazkaiz osatua, landare etorkia duena eta egur-ikatz ere esaten zaiona. Izadian harri-eran aurkitzen denari harrikatz deitzen zaio.

ikatz-kako Zurezko heldulekudun burdinazko kakoa ikazkinak txondo-errian erabiltzen zuena.

ikatz-neurri Eskuarki 25 kiloko zaku-kadak izaten ziren.

ikatzobi Burdin mea urtzeko erabiltzen zen egur-ikatz gordetzeko olak izaten zuen barrunbea.

ikazkin Egur-ikatz egiten duen pertsona.

iki *Ik. Eguzki.*

ilargi 1. Hitz asko erabiltzen dira lurraren satelitea izendatzeko: ilargi, iretargi, itargi, ilazki, argizagi eta goikoa, besteak beste. Forma zaharrena badirudi il edo hil dela.


Baliteke hildakoei argi egiten die-lako sinestetik sortua izatea izena. Bestalde, argizari da beste izenetako bat eta ezkoa erabiltzen da sepulturetan hildakoei argi egiteko. Gainerakoan, iretargi eta idetargi izenek izan lezakete zerikusirik ieltxu (ireltxu, iritxu, iruztargi eta idittu) gaueko jeinuekin. Ilgoran hiltzea seinale ontzat hartzen da arimaren geroko bizitzarako. Ilargia eguzkia bezala emetzat hartzen da eta Ilargi Amandre deitzen zaio. Antza denez, ostirala ilargiari eskainita zegoen eta igande hitza ere ilargi beteari dagokio. Pertsona sorginduenak izan diren gauzak ostiralez eta bidegurutzetan erre egin behar dira; ostiraletan biltzen dira eskuarki sorginak. Zenbait herritan artirinez egindako zopak jatera ilargiaren argitara irteteko ohitura zegoen. Beste herrialde askotan bezala, Euskal Herrian ere, ilargiaren aldi desberdinei landare eta animalietan eragin berezia egotea zaie: ilbeheran ebakitako egurrak bero gutxiago ematen du, ilgoran sortutako pertsonak eta animaliak arrak izaten dira eta ilbeherakoak emeak, ilbeheran ebaki behar dira etxegintzarako eta altzari eta lanbesak egiteko zurak. Ilbeheran erein behar da garia, eta egin behar dira artoa eta patata; ilgoran ereinez edo eginez gero, landarea gehiago hazten da, baina alea txikiagoa eta urriagoa izaten da, baina mareabehera dagoela ereinez gero, oreka lortzen da. Hona hemen ostiraletan debekaturiko zenbait: egintza lan handiak hastea, artaldea mendiratzea, erleei ezta kentzea, neska-morroiak etxera eramatea, ezkontzea, azazkalak moztea, elizan sartzea edo emakume erdi berriaren garbikuntza. 2. Hosto koxkatua duten zuhaitzak (haritz, astigar, elorri, gaztaina, pago, lertxun, gerezi, izei eta abar), ilbeheran inausi behar dira; hosto koxkatu gabeak (arte, ametz, gorosti eta abar), ilberrian. 3. Ilbeherako ikatza gogorra izaten da eta

su gutxi egiten du. 4. Loratu behar den gauza ilberrian erein, egin edo sartzen da; loratuko ez dena, berriz, ilbeheran. 5. Ilbehera da onena astoari nahiz ardiari ilea mozteko, baita txerria hiltzeko ere. 6. Ilberriz egindako ongarrira lizundu egiten da, indarra galtzen du eta lurruna dariola egoten da.

ile Emakume-ile bat palangana batean utziz gero suge bihurtzen da. Beste batzuek diote, eguzkitan egon behar duela ileak, edo behorren zurda izan behar duela. Erreketako sugeak horrela sortuak omen dira.

iltze Metalezko atal mehe eta luzea, mutur batean punta eta bestean burua dituena, finkatzeko, batzeko, zintzilikatzeko erabiltzen dena.

iltzegile Iltzeak egiten dituena.



iltzegilearen mahaia

iltze-txapel Iltzearen burua.

iltze-zanko Bururik gabeko iltzea (Urđiñarbe).

ilun-ekila Ik. abemariak.

ilun-zeina Ik. abemariak.

inakin Irria, iseka.

Inaute Ik. laute.

Inaute motx Kinkuagesima ondoko lehen asteartea (Arantza).

Inaute motz Astearte inautea, Inaute-rietako azken eguna.

Inauteri Tolosan eta inguruko herrietan Garizuma aurreko jai bereziei edo Karnabalei ematen zaien izena. Hamaika urtez behin Santa Ageda eguna eta Inauteri igandea edo Kinkuagesima egun berean izaten dira.

indaba Babarrun.

ingude Oletako sutegiaren aurrean, barrunbearen erdi aldera egoten zen burdinazko pieza mazukariaren edo gurpil horzdunaren parean; horrek gabieren balankari eragiten zion eta mazukariaren hortzek eraginik igo-jaitsika ibiltzen zen ingude gaineko zamarra gorria xaflatzeko.

ingudi Ik. ingude.

inguma Jeinu gaizkilea, etxekoei lotan daudela agertzen zaiena, lepoa estutuz, arnasa hartzea zaildu eta larrialdiak emateko. Lotaratu aurretik zenbait formula magiko esaten dira ingumaren kontra: "Inguma, ez nauk hire beldur, / Jinkoa eta Andre Maria / hartzen ditiat lagun; / zeruan izar, lurrean belar, kostan hare, / hek guztiak kontatu arte / ez hadila nireganat ager" (Ezpeleta). "Ingumes erromes, / ez nagok hire beldurrez / Jesus diat aita, / Ama Birjina Ama, / zeruko saildu eta aingeru guztiak goarda".

ingure Ik. ingude.

ingurutxo Betelun, Astearte lotez, ezkonduak ingurutxoa dantza egiten zuten eta Udalak ardoa eskaintzen zion erromeriara joaten zen guztiari. Leitzan, San Joan arratsaldean ingurutxoaren ondoan daudenei opila eta txistorra eman izan zaizkie.

intsusa 1. Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa, erreuma, errea, flemoia, aknea, zingiria eta abar bezalako kasuetan erabiltzea gomendatzen da, hosto zein azalerara: (Sambucus, sauco, sureau, elder). 2. San Joan belar izena hartzen dutenen artekoa da.

intxaur Ik. kaskamelan.



iltzegilearen-mahaia

intxaurrondo 1. Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa eta erreuma sendatzeko gomendatzen diren hostoak dituen zuhaitza: (Juglans regia, nogal común, noyer commun, English walnut). 2. San Joan belar izena hartzen dutenen artekoa da bere hostoa.

intxixu Euskal mitologiako izakia. Aztia, sorginaren ahalmek dituen gizona. Hitz hau latinezko facticiusetik dator, gaztelaniazko hechizo sortu duen beretik.

inurri-belar Herri-medikuntzaren arabera, zauriak sendatzeko gomendatzen da landare hau: (Chenopodium ambrosioides, té de Méjico, thé du Mexique, Mexican tea).

lñoteria Ik. Inauteria.

lote Ik. Inaute.

lote Astearte Kinkuagesima ondoko lehen asteartea (Etxaleku, Latasa).

lote Astelehen Kinkuagesima ondoko lehen astelehena.

lote egun Kinkuagesima ondoko asteartea (Lizarraga-Ergoiena).

lote hirugarren Kinkuagesima ondoko lehen asteartea, Inauterietako hirugarren eguna (Irañeta).

lote Igande Kinkuagesima eguna, Inauterietako lehen eguna (Irañeta).

lotegi Horrela deitzen zaie Leitzan eta Areson Inauteriei, eta Garizuma aurreko hiru egunetan, Zalduniote, Asteleniote eta Asteartietez ospatzen dira. Herriko gazteak ez ezik, zaldiak ere mozorrotu egiten dira eta horrela dabiltzanei atxo izena ematen zitzaaien. Areson atxaurezte deitzen zitzaion atxo mozorrotzeari.

ipurua 1. Altzifrearen familiako zuhaixka, hosto-zorrotxa, fruta beltz edo more oso usaintsuak ematen dituena: (Juniperus communis, enebro, genévrier, juniper). 2. San Joan bezperarratsaldean gazteek herrira ekartzen dute sua pizteko behar duten ipurua (Erro).

iratxo Gizakiei laguntzen edo, batez ere, kalte egiten omen dien izaki alegiazkoa.

iratze 1. Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa, hagineko mina eta flemoia sendatzeko gomendatzen diren belar eta landareetako bat: (Pteridium aquilinum, helecho común, fougère commune, common brake). 2. San Joan goizean, haurrak egunsentian jaiki eta igitia harturik mendira joaten ziren iratze sorta bat ebakitze-



iratze

ra (Aramaio). San Joan suan iratze idorra erretzen da (Arraioz).

iraunsuge *Ik.* herensuge.

iraurrak Metro eta erdi bat luzeko bi oholtxo edo makilaz osaturiko tresna, mutur banatan hamabihamalau zentimetroko lokarriz tinkatuak, galburuak jo, baba-lekak aletu, artilea astindu eta abarretarako erabiltzen zena.

iraute *Ik.* Inauteri (Auzperri).

irazi Haga edo pertika mehetzea.

iraztaskatu Haria ehundegian pasatzeko prestatzea.

iraztrama Ehuleak iraztaskatzeko erabiltzen duen tresna.

irelu Euskarazko beste izen asko du: argidun, irel suzko, ireltxo, ieltxu, iratxo, khuso, lonpipa, malo, momo, papao, txitx, zomorro, zikilimarro eta abar. Asto modukoak omen dira, eta beste batzuen iritziz, txerri erakoak; ahoa ireki eta sua botatzen dute. Erdarazko duende edo fantasmaren parekotzat har daitezke.

iriztegi Ehuleak erabiltzen duen harilkai irazkigilea. Sei ziri izaten ditu eta goikoetatik hasten da hariaren bilketa.

irrintzi Pozezko deiadar luze eta zolia, batez ere festa giroan egiten dena; behin eta berriz irrintzi egiteari irrintziketan ibiltzea esan izan zaio (Urretxu).

Iru Damatxo Tolosako Inauterietan Herriko txistularien eresbatzak jotzen duen pieza.

Irugarren Idiyarena Tolosako Inauterietan Herriko txistularien eresbatzak jotzen duen pieza.

irulario Joko honetarako izen bereko zurezko pieza erabiltzen zen, 20 cm luzerakoa eta mutur zorrotzak zituena, erdialdean lodiagoa izaki. Irularioa bi metro inguruko zabalera zuen zirkulu baten erdian uzten zen. Jokoari hasiera nork eman jakiteko zotzetara egiten zen eta luzeena hartzen zuena hasten zen. Zirkuluaren erdian jarri eta "irulario"ari mutur batean lurraren kontra kolpea ematen zion makilaz; ondoren, lurretik altxa eta bigarren kolpea ematen zion, airean zegoela, ahalik eta urrunen bidaltzeko. Bigarren jokalaria zain egoten zen "irulario"ak berriro lurra ukitu arte, eta hartu eta eskuaz botatzen zuen zirkulu barruan sartzeko asmotan; aurreneko jokalaria hori galarazten saiatzen zen, makilaz baliaturik, "irulario" a zirkuluaren barrura eror ez zedin. Bigarren jokalaria ez bazuen "irulario" a zirkulu barrura itzularazten, lehen tiratzaileak berriro jokoari ekiten zion. "irulario" a zirkulu barrura itzularazten zuenak jasotzen zuen tantoa; irularioaren jabe egin eta lekuz aldatzen zen (Ultzama).

irule *Ik.* gorulari.

irun Ehun-gai bat hari bihurtu.

irundegi Irulearen lantegia, iruten den lantegia.

iruri Egur-ikatz xehea sutegiaren azpialdea eta saihetsak betetzeko erabiltzen zena.

iruteko *Ik.* goru.

Isabelita Tolosako herriko musika-bandak Inauterietan jotzen duen pieza.

iskilinba *Ik.* orratz.

isopo Ituren eta Zubietako joaldunek eskuetan erabiltzen duten zigorra.

iteile *Ik.* besabe.

itsas otarre Itsasontzietan erabiltzen den saski berezia.



itsas otarre

Itsasgorrieta Euskal mitologian astroak sartalde edo mendebaldean ezkutatzean joaten diren lekua.

itsulapiko Neska-mutilak Garizumako igandeetan ibiltzen ziren jokoa zen. Horretarako plazako balkoi batetik bestera soka lotzen zen, eta erdi parean, beste soka batez lurrezko itsulapikoa zintzilikatzen zen. Jokoa banan-banan aritzen ziren, begiak estalita eta makila eskuan zutela. Helburua itsulapikoa haustea zen alde zurretik erabakitako denboraren barruan. Itsulapikoa hautsitakoan, beste bat jartzen zen haren ordean, harik eta jokorako prestatutako guztiak apurtu arte (Bidankoze).

itsu-mandoka Zotz egiten zen begiak nori estali jakiteko, eta neska edo mutil horrek, ukimenaz baliatuta ezagutu egin behar zuen jolaskidea nor zen eta haren izena esan. Asmatutakoan, ezagutu berriari estaltzen zitzaizkion begiak eta horrela ematen zitzaion jokoari jarraipena (Sohüta, Baigorri).

ittan egin Auzoei lagunduz igitaian egitea (Alkiza).

Itxitxarko Inauterietako pertsonaia eta berari dagokion panpina (Hiriberri Arakil).

itxixo Ik. intxixu.

itxola Ik. txabola.

itxuketa Ik. arrenaketa.

itzain Ildiak zaintzen eta gurdia gidatzen duen pertsona.



itzaina

itze Ik. iltze.

itze-zanko Iltze burugabetua.

iuzumitz Saskigintzako zumitz mehera, ehozumitz eta josizumitz ere deitzen dena (Nuarbe).

ixilu Ik. zizeilu (Bergara).

ixkilima-joko Nesken denborapasa zen eta bi taldek esku hartzen zuten txandaka. Bi buruoratz edo ixkilima jartzen zituzten mahai gainean, buruz buru. Jokoa zen bietako bati bultza egin edo kolpe bat emanez bestearen gainean gurtzaturik jartzea. Neska bakoitzak jokorako egokienak ziren bi buruoratz erabiltzen zituen, eta gal-tzaileak lagunari bi eman behar zizkion, baina ez jokorako erabilitakoak nahitaez, espresuki emateko ekarritakoak baizik. Urte guztiko jokoa zen eta etxean zein eskolan aritzen ziren horretan (Baigorri).

izalu Ik. zizeilu.

izen Izenak zeinuak dira, gauzen ordezkapen soinu-zukoak eta antzinako herri askorentzat bezala,

euskaldunontzat ere izena gauza edo izanari estuki loturik dago (Izena duen guztia omen da), beraz uste horren arabera, ez dago izanen bati ez dagokion izenik. J.M. Barandiaranen arabera, sineste horren eta kristau fedearen arteko konpromisotik sortua da honako baieztapen hau: "Direnik ez da sinetsi behar; ez direla, ez da esan behar". Horregatik, kontzepzio magikoaren arabera, izenean eragina izanez gero gauzaren baitan eragina izatea lortzen da, eta birao edo otoitz gaiztoak menpean hartzen du izen horrek aipatutako erre-alitatea, eta indar magiko edo adurrak gaixotasunak eta ezbeharak garraiatzen dizkio izendatuari.

izera Hildakoa lurperatu aurretik bil-tzen zuen mihisea, katona (Ezkio) ere deitua.

izkidornu *Ik.* iriztegi.

izorrapote Ardo egosia, kanela, piku eta azukrearekin prestatzen dena. Berueteko herriko ostatuan lote asteardez festan esku hartzen zuten guztiei ematen zitzaien.

iztupa Lihoa eta kalamua zehatzean bereizten den zati larria, sokak eta soineko latzak egiteko erabiltzen dena.

izu-argi *Ik.* gerixeti.

izugarri *Ik.* gerixeti.

Jj

jai-erdi Jai oso baten oroitzapena.

Jainkoaren begi *Ik.* Eguzki.

janpantza *Ik.* Zanpantzar.

jantza luze Luzaideko Inauteetan egi-ten den dantza mota.

jaski *Ik.* saski (Arbizu).

jaun Zuberoako maskaradako per-sonaia. Anderea, mutil gazte soi-neko eta kapela zuriduna, besotik eramaten duena. Zilarrez apaindu-riko jaka beltza, kapela handi galoi-duna, praka beltzak eta gerrian ezpata motza erabiltzen ditu. Eskuan agintari-makila zinta urdine-kin eta bularrean zehar banda urdina ere erabiltzen ditu.

jauzi motz Jokoa zen ea nork jauzi edo saltorik handiena egiten zuen, gora eta luzetara, oinak bildurik eta lasterka egin gabe (Baigorri).

jendari Hildakoaren ahaide edo tarte-riakoak (Berroeta, Baztan).

jentil Kristau ez den pertsona, batez ere, Euskal Herria kristautu aurreko euskalduna, herri-oroitzapenean kontaera ugariren bidez gelditu dena. 1. Aholkua ematen: Baserri-tar batek gurutze bat zeukan muga-rria behar ez bezala kendu eta leize-zulo batera bota zuen. Beste baserri-tar batzuk txarkeriaz ohartu eta mugarria lehengo lekuan berrezartzera behartu zuten. Orduan baserri-tar hura leize-zulora jaitsi zen mugarriaren bila eta bertan jentilak



jentila

aurkitu zituen. Haiek esan zioten: "hartu harria bizkarrean gurutzea aurrera duela, bestela ezingo duzu garraiatu". Eta jentilek esandakoa egin eta baserritarrak mugarrira lehengo lekuan berriz jartzea lortu zuen. 2. Seme jatun eta indartsua: Ama-seme jentilek hamalau morroi zituzten, jentilak haiek ere. Behin amak semeari morroientzako bazkaria eman zion eta seme honek bidean zihoala hamalauen anoak jatea erabaki zuen, eta halaxe egin zuen. Morroiak kexatu zitzaizkion semearen amari, baina hark erantzun zien berak bidali ziela jatekoa. Semeari galdetzean, hark goseak akabatuta zegoela eta jan egin zituela hamalau bazkariak, erantzun zion. Orduan amak jaten eman zien morroiei. Ondoren semea morroiek zenbat lan egin zuten ikustera joan zen, eta seme jentilak, bi orduan egin zuen hamalau morroiek egun guztian egin zuten adinako lan saila. 3. Jentil balankariak: Konta-era batek baino gehiagok adierazten du jentilak balankari bikainak zirela eta mendi gailur batetik besteraino jaurtitzen zutela. 4. Jentilak beren burua defenditzen: Jentilak mendian bizi ziren, eta kristauek, kaletarrek harrapatu egin nahi zituz-



jentila

ten. Jentilek beretako bat zelatan jartzen zuten eta kristauak hurbiltzean hark adarra jotzen zien bere lagunei. Jentilak mendi-gailurrean biltzen ziren eta kaletarrak igotzen hastean, prest zeuzkaten harri handiak piririka maldan behera bota eta kristauak hil egiten zituzten. 5. Jentila eta lehoia: Jentil bakarti bat animalien artean bizi zen eta animalia horien artean lehoi bat zegoen. Lehoiak arantza bat zeukan hankan eta jentilak sendatu egin zuen. Jentilaren inguruko animaliek artaldeak jaten zizkieten kaletarrei eta horregatik, animaliak harrapatu eta kanpora bidaltzea erabaki zuten. Halaxe egin zuten. Jentila ere harrapatu eta plazara eraman zuten, lehoiak jan zezan. Lehoia jentilak hanka sendatu ziona bera zen eta ezagutu egin zuen eta inguruan bi bira egin zituen eta jentilak eskua ezarri zion bizkarrean. Hori ikustean ezagutzen al zuen galdetu zion, eta berak erantzun zien bizia salbatu ziola. Orduan bizirik eta libre utzi zituzten biak. 6. Jentilak eta Martin Txiki: Jentilek bakarrik zekiten artoa ereiten eta Martin Txiki, haiekin tratatzen zuen bakarrak, apustu egin zien arto pila handi baten gainera baietz salto egin. Martin Txiki abarka handi batzuk jantzi zituen saltoa egiteko. Jentilak aise salto egin zuen metaren gainera, baina Martin Txiki piloaren erdian erori zen, eta abarkak artalez beterik zituela gelditu zen. Gero ihes egin zuen, baina jentila konturatu zen Martin Txikiren amarrukeriaz eta atzetik esan zion: "Hazia badaramak, baina noiz ereiten den ez dakik". Andre zahar jentil bati galdetu zion noiz ereiten zen, baina hark ez zion erantzun nahi izan. Emakumearen leiho ondoan zelatan jarri zen eta orduan entzun zuen: "San Isidrotan ereiten baduk, artoa jango duk, bai". Eta hala ikasi omen zuten euskaldunek artoa ereiten. Artoa erein eta hartu zuten, baina ez zuten ehotzen asmatzen, ez baitzekiten nolako ardatza egin behar

zen. Orduan Martin Txikik joan eta esan zien: "Ez zaukaġu errotarekin burukomin handirik, ondo ari gaituk errotarekin". Eta orduan jentilek esan omen zioten: "Haltzarekin egindako ardatza jarriko zenioten-eta". Horrela jakin omen zuten kristauek haltza zela errota-ardatzak egiteko zurik egokiena. 7. Jentil gizajaleak: Ataungo basoetan jentilak bizi ziren; jende gaztea eta haurrak harrapatzen zituzten eta ez ziren gehiago agertzen. Herrian jan egiten zituztela esaten zen. Jendea oso beldurturik zegoen eta indar militarra ekarri zuten, eta jentilak suntsitu ondoren etorri zen bakea herrira. 8. Jentil on indartsua: Atauen jentil indartsu eta zintzo bat bizi zen. Egun batean herrira jaitsi zen, herrian indarrak gehiena zeukana nor ote zen galdezka. Patxi Errementaria zela erantzun zitzaion. Jentila Patxi Errementariarengana joan zen eta hark itxaroteko esan zion, eta sutan goritutako orrikak atera, atzean gorde eta jentilarengana hurbiltzean kolpe batez sudurra moztu zion. Jentil zauritua errementariaren atzetik abiatu zen, baina ez zuen harrapatu. Rurrerantzean jentila lotsaz ez zen herrira jaisten sudurra moztua zuelako, eta herritarrek basora joaten zitzaizkion bisita egitera. 9. Jentila eta Kristoren jaiotza: Garai batean lainorik ez zen baina bat-batean, mendian bizilekua zuten jentilek hodei bat ikusi zuten. Burutzat jentil zahar bat zeukaten, betazalak erorita zeuzkalako ezer ikusten ez zuena. Adineko horri galdetu zioten zer gertatzen zen eta hark betazalak altxatzeko eskatu zien. Horretarako laurogei arrobako palanka erabili behar izan zuten, eta jentilak hodeia ikustean esan zuen. "Kixmi, Kristau Tximua jaio duk, ahal dena ahal den tokira ezkuta dadila". 10. Jentilak txakurra eta zezena akabatu: Haragi gordina janez mendian bizi zen jentil bati galdetu zioten ea gauza izango ote zen herriko baten txakur indartsua menderatzeko. Jentilak erantzun


zien berak egingo zuela txakurrarekikoa, baina ez zeukala herrira jaisteko jantzirik. Orduan, txiki bazeukan ere, fraide-jantzi bat eman zioten eta hala jaitsi zen herrira. Plazan aulki bat eskatu eta bertan eseri zen, belauñ bat doblatua eta aurrealdera zuela. Hala zegoela txakurra bota zioten eta belaunetik heltzeko kolpea bota eta ahoa irekitzean, jentilak atzaparez heldu eta ahoa txikitu zion eta txakurra akabatu zuen. Gero zezena bota zioten, eta gauza bera egin zuen harekin ere. 11. Ormaiztegiko zubia: Herri honetan zubi bat egiteko jentilak aukeratu zituzten, baina lana gau batean, eguna zabaldu aurretik bukatu behar zuten. Jentil asko omen ziren, Tomas izenekoak gutxienak izanik ere, hiru mila ziren. Ilaran jarri eta harria eskuz esku ekartzen zuten Aralartik, batak bestearekin izenez deituz. Eguna zabaltearekin, bat-batean lanari utzi eta guztiak beren bizilekuetara joan ziren, zubia bukatzeko harri bakarra falta zutela. 12. Ezkurrako jentila: Ezkurrako beheko aldean, Errotalde izeneko parajeen jentilak bizi ziren. Egunez zulo horietan gordetzen ziren, eta gauez lapurreta egitera irteten ziren. Noizbehinka eguzkitan ageri ziren binaka elkarri burua garbitzen. Gauez tximinian barrena sartu eta haurrentzat prestaturiko ahia jaten zuten. Baina etxe batean etxeoandrea horretaz ohartu eta zartaginean zeukan olio frijitua bota zion jentil haietako bati, eta bere bizitza guztirako markaturik utzi zuen. Aurpegia ikusi ziotenean beste jentilak haserretu egin ziren, eta etxe hartara gauez itzuli, sarre-rako atea jo eta atean esku-marka utzi zuten. Amarrandegi da etxearen izena. 13. Neska jentilarekin izandako haurra: Herriko mutil batek haurra izan zuen jentil batekin, eta hori jakitean apaizak esan zion mutilari haurra kentzeko amari. Jentilak lotan zeudela mutilak haurra kendu zien, baina berehala konturatu ziren eta harrapatu nahian

atzetik jarraitu zioten mutilari. Baina ez zuten lortu, mutilak ihes egin baitzuen haur eta guzti. Orduan etxeko ateari sastakaia sartu zioten, jentilak ez baitziren etxeko sarreratik aurrera sekula pasatzen.

jentil-baratze Jentilak lurperatuak izan omen ziren lekua.

jentil-harri Neolitos aroko hileta oroi-garria, lurrean zutik finkaturiko harri batez osatua. Albizturren ezaguna da izen hau duen harri bat.

Jesukristo Jesukristo tradizioz datorren kontakizun batean baino gehiagotan agertzen da. 1. Morroi eredugarri. Untzurrungo baserritar batek bi morroi hizketatu zituen eta ohea eman zien. Biharamunean ez ziren jaikitzen, eta biharamunean deitzean dena egina zegoela erantzun zioten. Larrainera joan zen eta dena garbi zegoela ikusi zuen, lastoa ahoztegian eta alea mandioan. Orduan galdetu zien nor ziren eta haietako batek erantzun zion: "Ni Jesukristo naiz". 2. Jesukristo (eta Pedro) gari-ale-tzaile. Kontakizun batzuetan Jesukristo gari-metari su eman eta alea eta ahotza banatzen zituen laguntzaile bezala agertzen da.



Jesukristo

jitomoxorro Nafarroako zenbait herri-tan (Iturmendi, Arbizu, Etxarri-Aranatz...) izen hau ematen zitzaien mozorrotzen zirenei. Beste batzuetan txatar edo txatxo izenez ezagutzen dira.

joaldun Joare edo arranak erabiltzen dituztelako deitzen zaie horrela Ituren eta Zubietan, eta bi herrietako gazteek osatzen dituzte joaldun taldeak. Zubietako joaldunek alkan-dora zuria janzen dute; Iturengoek, aldiz, ardi-larruzko gerruntzea, paparrean behera esekitako bi solaparekin eta besoak biluzik dituztela. Herriko larru-paxa ere garrantzizkoa da joaldunarentzat, hartatik esekitzen baititu joareak.



joaldunak

joalte Zintzarriak zintziliek duen lepoko handia.

joare Ik. ezkila.

joaregile Joare edo arranak egiten dituen.

joare-karoi Joarearen barneko eta kanpoko lotuneak, mihi edo mizkia eta uztaiak ezartzeko erabiltzen direnak.

joko Euskal tradizioan jokorako zale-tasuna sarri agertu izan da, apustu, erronka edo dema gisa. Edozein

herri-kirol aukera aproposa izaten zen eta da gaur ere horretarako. Esaera zaharra: Jokoa ez da errenta.

jorra-aitzur *Ik. jorra.*

jorrai Jorrazteko erabiltzen den aitzur txikia.

jorratu Lur landuetan belar txarrak atera.

josizumitz *Ik. zumitz.*

joskura *Ik. jostura.*

jostura Ehunezko, larruzko...bi atal batzen dituen puntada-segida jarraitua. Herri-medikuntzaren arabera zapi bat ezartzen da gaixoaren gorputz atal gaizkoatuan eta bertan hari bat albainutzen da korapilorik gabe, bitartean errezatuz edo hone-lako formularen bat esanez: "Zain tiratu / Zain urratu / Zaina bere tokian sartu" (Maruri, Gernika, Axangiz, Gerrikaiz, Bedia).

jota Tolosako Inauterietan musika-bandak eta txarangek askotan jotzen duten pieza.

jota-dantza Etxalekuko loteetan egiten den dantza mota.

Judas Nafarroako Adios herrian (Iltzarbeko ibarrean). Asteazken Santuan erretzen duten panpina; txapela eta arpilerazko aurpegia, txamarra, prakak eta espartinak janzen ditu, lastoz edo zerrautsez beteak. Aldez aurretik auzoen artean paseatzen dute. Abartzuzan, Judas eta Judesa, lastozko panpina batzuk ateratzen ziren Pazko-igande eguerdiz, asto banatan. Herriko gazteriak gitarra jo eta dantza egiten zuen ibilaldian eta plazara iristean soka batzuetatik eseki eta su ematen zieten. Suak txinparta ugari ateratzen zuen, panpinek gatza izaten zutelako. Duela mende-erdi galdu zen ohitura hau.

Kk

Kabana Zuberoako maskaradako pertsonaietako bat, kauteren buruzagi gisara agertzen zena.

kabela *Ik. karel.*

kabi-eztai Karobi-lanak amaitu ondoren egiten den bazkaria.

kabila 1. Burdinazko edo zurezko atala, iltzearen antzekoa, zulo batean sartzen dena edo bi osagai zulodun elkartzeko erabiltzen dena. 2. Baserri-gurdiaren gurpiletako zurak jostean erabiltzen den metalzko ziria. 3. Katearen bukaeran ezartzen den zur zilindriko eta zeharretakoa, hauspoari eragiteko helduleku gisa erabiltzen dena.

kadena Eskola garaiko neska-mutilen jokoa zen, eta "betetzen" izenekoak bere lagunak harrapatzen hasi behar izaten zuten. "kadena" esaten zuten lagunei begira eta gainerakoak "badela" esanik, lasterka hasten ziren. Norbait harrapatzean, eskutik hartu eta hirugarrenaren atzetik hasten ziren, harik eta azkenekoa harrapatu arte. Berrito jokari hasiera emateko aurrena harrapatutako neska edo mutila jartzen zen "betetzen" (lgoa).

kadera *Ik. kadira.*

kadira Aulki, bizkardun besorik gabekoa.

kaidera *Ik. kadira.*

k a i k u Ardi-esnea biltzeko zurezko ontzia, euskarri bakarrekoa eta goporra baino handiagoa. Urkizkoak izan ohi ziren, eta erabilitako zurari kaikugaia deitzen zitzaion.



kaikua

kain Mende honetako hirugarren hamarraldian (Añana-) Gesaltzan Inauterietan bertako gizon berezi bat kaleratzen zuten igandean eta asteartean. Oinutsik eta praktikak belaueraino jasota, besoa eta aurpegia belztuta, haur guztiak inguruan zituela ibiltzen zen pertsonaia.

kainabla Abereen lepoko edo koilaroia (Izaba).

kajola Ik. kartola.

kakarrero Ik. txantxo.

kakarro Ik. txantxo (Bergonda, Zabrana, Amurrio).

kako 1. Metalezko atal okertua eta askotan punta-zorrotza, zerbait zintzilikatzeko, zerbaiti eusteko edo heltzeko erabiltzen dena. 2. Bi hortzeko aitzurra edo hozpikoa. 3. Oletan peialeak errobada abian jartzeko tira egiten zion burdinazko atala.

kakoilatze Zuberoako maskaradan, entseñariak zuzenduriko dantza, Braliaren barrukoa. Godalet dantzak eta ondorengoek osatzen dute "fonction" deitua eta zamaltzain, txerrero, gathuzain eta kantiniersak burutzen dute.

kakola Ik. kako (Zugarramurdi).

kalaka 1. Hiri oholtzarekin egiten den soinu-tresna. Erdikoa kirtenarekin (palatxo gisa) goialdean egindako bi zuloetatik sokatxo bat pasaturik loturik daude. Kirtenetik harturik astintzen da eta kanpoaldeko bi oholtxoek erdikoaren kontra jota, zarata ateratzen dute. Askotan libre jotzen dira eta batzuetan, errepikatzen diren joko erritmikoak osatuz. Aste Santuko ospakizunen inguruan erabiltzen dira, bai eliza barruan eta bai kanpoan, elizkizunetako abisuetarako. 2. Errotarriaren gainean dilindan dagoen oholtzua, hura dabilenean etengabeko zarata ateratzen duena.

kalanka Larrean dabilen behor edo behiarentzako arrana.

kalaxka Bildotsarentzako arrana.

kaldera Eskulangile askok erabiltzen duten metalezko ontzi handia. Adibidez, zumagileak eta kaikugileak beharrezko zuten beren gaiak edo langaiak egosteko.

kalderero Lantegiko ofizialei ematen zitzaizen izena.

kalderon Jokalarien kopurua aldakorra izaten zen eta pilotan egiteko paletaren antzeko zur zati bat eta bi muturrak kono itxurakoak zituen 10-12 cm-ko makila bat erabiltzen zituzten. Makilatxoa paletaz jo muturrean eta airean zegoen bitartean bigarren kolpea eman eta ahalik eta urrunen bidali behar zen. Jokalariak makila lurrera erori baino lehen hartu behar izaten zuten (Langraitz Oka).

kale-baserri Behiala nekazaritzatik soilik bizi izan zen baserria, baina gerora industrian lan eginez soldata nagusia etxeratzen duena. Nahiz eta erabat ez alde batera utzi baserriko lana, nabarmen murrizturik egoten dira zeregin horiek kale-baserrian.



kale-baserria

kalejira Jaietan kalez kale musika jotzen egiten den ibilaldia.

kali "Kali" izeneko eta metro bete pasatxoko makila mutur-makurra erabiltzen zen joko honetan. Neska-mutilek herriko plazan jokatzeko zuten, ia beti hurritzezkoa izaten zen makilaz gainera trapuzko pilota ondo liztariz lotuarekin. Bakoitzak bere koadrila aukeratzen zuen; bi taldetan banatu eta erdian arrastoa egiten zen. Sakea norena izango zen jakiteko "kaikulo" botatzen zuten txanpona. Sakatzailea auke-ratu eta "kali"az jo eta pilota beste alderaino pasatakoan, aurkako pilota berriro marra gainetik pasatu behar zuen tanto egiteko. "Kalia" erabiliz marra gehiagotan pasatzen zuen taldeak irabazten zuen (E-txaleku).

kalioketa Hamabiren bat neska-mutilek hartzen zuten esku joko honetan, bi taldetan banaturik. Seiko taldea alde batera, bata bestearen ondoan, eta parez pare, hamar metro inguruko tartearekin, beste seiak. Bakoitzak hogeituzentimetroko makila zeraman eskuan, besoa goian zuela. Talde bateko aurrenekoa, makila bota eta, beste-koren bat jotzen ahalegintzen zen. Asmatuz gero, haren taldeak jasotzen zuen tantoa; huts eginez gero, berriz, tantoa beste taldearentzat izaten zen. Hamabi tanto aurrena egiten zituen taldea izaten zen irabazle (Ezkio).

kalles Erronkariarrei inguruko jendeak eman izan dien izena.

kalotza Eskalapoin paladuna.

kaltxuera Ik. eskuare.

kamaina 1. Artzain eta ikazkinek mendian, ohol, lasto eta orbelez egiten duten ohea. 2. Itsasontziko litera edo oheari (Getaria) deitzen diote.

kamamila Herri-medikuntzaren arabera, sabel eta buruko minetarako gomendatzen den belarra da: (Cha-

momilla recutita, manzanilla, petite camomille, wild camomille).

kamantxila Kaskabilo edo zintzarri txikia.

kamarero Lizartzako Inauterietan jailetako kontu-emaile edo festa-antolatzaila.

kamaro Ik. txantxo.

kamio-saski Garai bateko kaminerok bideak txukuntze-lanetan erabiltzen zuten saski edo otarra.



kamio-saskia

kana Luzera-neurria, metroa baino zerbait laburragoa, ehunak eta enborrak neurtzeko erabilia. Nafarroakoak 0'785 m eta Bizkaikoak 0'8359 m ditu.

kanabera Kanabera arrunta harturik, goitik behera, pitzatu egin behar da erdi-erditik begi bateraino, zati bat osoa utzirik. Malgua izan dadin, alde batean leiho bat egiten zaio. Begitik beherako zati osoa, heltzeko kirten gisa erabiltzen da. Esku batekin kirtenetik heldurik, beste eskua eskubarruarekin igurtzi egiten da kanaberaren beheko muturra. Horrela, libre gelditu diren bi kanabera-erdiak elkar jotzen dute, eta kalaka edo kriskitinek ematen duten antzeko hotsa ateratzen da. Gutxi bada ere, Bizkaian oraindik erabiltzen da, fandango, arin-arin, martxa eta horrelako doinueta, erritmoa jotzeko.

kandela 1. Argizari-geruza batek, gehienetan zilindro bat osatuz, inguratzen edo biltzen duen metxa, argi egiteko erabiltzen dena. 2. Enkante mota, kandela piztu batez egiten zena. → *kadena* (Ihaben).

Kandelario Otsailaren bia, Kandelaria-ren eguna, herri batzuetan kandela eta argizari edo ezkobilduak bedeinkatzeko eguna erdi-jai izaten zen. Mutiloan burruntziarekin txorizo eta urdai-eskean ibiltzeko ohitura izan da. Esaera zaharra: Kandelario hotza, neguaren bihotza. Kandelario bero, negua da gero.

kandeleroka *Ik.* kadera.

kanpai Hainbat neurritako metalezko ontzi kono-enbor antzekoak izaten dira. Ahoz behera daudelarik, barnealdean zintzilikatorik mihi bat dute. Eliza eta etxe ofizialekako dorre edo goialdeetan egoten dira, abisu eta mezu desberdinak bidaltzeko. Horretarako, jendeak ezagutzen dituen kodeak erabiltzen dira. Elizkizunetarako deietan, orduak eta egunaren zati nagusiak adierazteko erabiltzen dira. Baita sukantziak inguruetakoei laguntza eskatzeko, hil-deiak emateko... Halaber, jotzeko era desberdinak izaten dira hildakoa haurra, heldua edo erlijioso den bereizteko. Itsas herrietan arrantzaleei deitzeko ere erabili dira. Oso interesgarriak dira era libreago eta musikalagoan jotzen diren kanpai-iraulketak eta errepikak ere. Festa hasieran, prozesiotan eta halako beste ospakizunetan jotzen dira. Jotzaileek trebezia handia behar izaten dute arauen barnean luze, bariatatu eta polita jotzeko.

kanpaigile Bizibidez kanpaiak egiten dituen.

kantalera Dolarea inguratzen duen errefortzua.

kanteatu Zura beheratu marka edo seinale bateraino iritsi arte.

Kantiniersa Zuberoako maskaradako pertsonaia. Garai bateko ijito-andrearen ordezkaria da, txantxa, ausarkeria eta lizunkeriatara ere labaintzen zenaren ondorengoa.

kapa Garai batean sarri erabiltzen zen janzkia, batez ere familiako elizkizunetan, baita udal-gizonen artean ere.

kapelu Olagizonek erabiltzen zuten burutako zabala.

kapitan Beteluko loteetan, Astelenio-zez antzara-jokoa egiten zen. Zaldunak, txapel zuriz edo gorritz, zinta koloretakoez apaindurik, atorra eta praka zuriak, zetazko zapia lepotik eta koloretako abarketa zuri zintadunak oinetan zituztela ibiltzen ziren. Taldeko buruzagiari kapitan deitzen zitzaion eta azkendari taldean azkena zetorrenari.

kapitxala Su-burdina (Urdiñarbe).



kapitxala

kapitxula *Ik.* kapitxala.

kaprestu Abereei ezartzen zaien burualdeko erantzuna (Arantza).

kaputxina Emakumearen burua estali eta sorbaldan behera erortzen zen mantua, hiletetan bereziki erabiltzen zena (Baigorri, Eskiula).

kara *Ik.* madre.

Karakotxa *Ik.* Maskarada.

karatola *Ik.* maskara.

karatula *Ik.* maskara (Ziordia).

karda Artilea kardatu edo txarrantxatzeko bi paletak.



karda

kardatu Artilea eta gainerako ehun-zuntzak bereizi, orraztu.

kardera Arteka edo zirrikitua.

kardiadore Zurari hozkadurak egiteko tresna, upelgintzan eta suilgintzan erabilia.

karel 1. Saskiaren goiko uztai (Aran-tza). 2. Itsasontzietan, albo bakoitzaren goialdea edo goiko ertza.

karel-buelta Brankako eta popako karela osatzen dituzten atalak (Getaria).

kareta *Ik.* txantxo.

karga Pisu-neurria, hogeita hamabi kiloko sei zakukadak osatua. Bi kargaz gurdia osatzen da (Urkizu-Tolosa).

Karnabal *Ik.* Inauteri.

Karnabala hilobiratze Karnabal edo Inauteri-jaiei ematen zaien bukaera.

Karnabal-egun 1. Kinkuagesima igandea. 2. Lantzeko Karnabala Kinkuagesima igandean eta ondorengo astelehen eta asteartean egiten

da, Miel Otxin pantomimaren inguruan.

karnabal-eske Etxez etxe puska bilzen edo saria eskatzen ibiltzea.

karnabal-sari Karnabal-eskekoei ematen zaiena, dirua eta jakiak batez ere. → *karnabal-eske*.

karobi 1. Kare bizia egiteko labea, gisu-labea. Karobiaren arkuari giltza deitzen zitzaion eta hori eginez ixteari giltzatzea. Karobiak izaten zuen hutsune bat, leiho deitua, atakan ari zirentzat ardo-zahatoa gordezteko. 2. Karobietan ezbeharrak gerta ez zedin, bedeinkatu eta zotal ganean gurutze bat ezartzen zuten eta karobi berria egitean kandela bedeinkatuz su ematen zitzaion. 3. Karobi-etzteiak: Labekada bat latsun, galtzin edo kare egosi ondoan, jai bat egiten zen Euskal Herriko alderdi askotan: afari-irrigaria, su handiak, dantzak eta irrintziak. Jai horri karabi-etzegu eta kislulabe-besta ere esaten zitzaion.

karraka Euskal Herri osoan erabili den soinu-tresna. Karraka arruntek zurezko mihi bat izaten dute U luzearen forma duen zurezko euskarri baten barrualdean helduta. Irekita dagoen muturrean makila bat sarturik dauka alde batetik bestera. Kirtenerako, makila alde batetik luze uzten da eta barrualdean hortzak dituen ardatza jartzen zaio. Kirtena tinko harturik, karraka jiratu egiten da eta mihiak ardatza jotzen du hortz batetik bestera saltatzean hots handia aterata. Aste Santuan orduak jotzeko, elizkizunetara deitzeko eta eguberrietako zenbait ekintzaren abisua pasatzeko erabili da gehienbat. Karrakak izan du beste zeregina ere: aberreak sorotatik mendian gora bidaltzeko, eltzagor gisa erabiltzen da toki askotan, bere zaratarekin animaliak ikaratuz.

karrama Olako bi gupil azpadun edo errobadak.

karranka Gurdiak, orgak..., higitzean egiten duten hots zoli, bizi edo ez atsegina.

karraskila Herri-medikuntzaren araberako, hipertentsio arteriala erasiteko gomendatzen da: (Rhamnus alaternus, aladierno, nerprun alterne, Mediterranean buckthorn).

karraskolindas Carnes tolendae haragia utzi edo bijilia egin behar dela adierazten duen latinezko esamoldearen aldaerak (Kortes, Ablitas, Arrieta).

karrastolendas *Ik.* karraskolindas.

karreta-barrika Upel luzanga, baserriko gurdian sagardoa garraiatzeko erabiltzen zena (Zubieta).

karrika-dantza 1. Betelun Astearte lotez puska-biltzea egin ondoren, mutilak arreba edo barrideren bat lagun zutela herriko plazara joaten ziren eta karrika-dantza hasten zuten herrian barrena; gune jakinetan kapitanak eta azkendariak zortzikoa dantzatzen zuten. Dantzarien atzetik ñañarroak ibiltzen ziren eta bukaeran Kontzejuko tabernan eskean bildutakoa jaten zuten. 2. San Joan festetan herrian barrena egiten den dantza (Auritz).

karro *Ik.* orga.

karrosa Nafarroa Garaiko xaribaria edo irri-antzerki herrikoia, Zuberoako asto-lasterren, Nafarroa Behereko kabalkaden edo toberen parekoa. Eguneroko bizitzako zenbait gertakari kritikatu eta jendearen aurrean irrigarri bihurtzeko egiten zen pantomima gisakoa zen.

kartak 1. Kartak elizan sartuz gero sorgindu eta deabru bihurtzen ziren ustea zegoen, horregatik bekatzat hartzen zen eta horrelakorik

eginez gero kartak erre egin behar izaten ziren. 2. Sugemiztoa sakelan daukanak, inoren kartak nolakoak diren badaki. 3. Karta-jokoan irabazteko Txerreni otoitz egitea egoki da. 4. Bere burua urkatu duen baten soka zati bat sakelan edukitzea egokia da kartetan irabazteko. 5. Karta-jokoan sarri irabazten duenari esaten zaio: "Hik moxorroak dauzkak sakelan". 6. Buztan-biko sugandila sakelan daukana irabazle izaten da.

kartola 1. Ongarriarekin erabiltzen den saskia (Berastegi, Berrobi, Elduain, Tolosa). 2. Baserri-gurdiari ezartzen zaion ohola burdi-arasako taketa-zuloetan tinkatuz, simaurra, lurra eta abar garraiatzeko.



kartola

kartxa Zumaginak erabiltzen duen zume-xafla lodiena.

kaska Luzaideko dantzariak Pazko Zaharretan txapel gorria eta kolore desberdineko borla erabiltzen zuten, eta tarteka koroaturik agertzen ziren. Koroari kaska deitzen zitzaion, eta kartoizkoa izaten zen; paperezko loreak arrabeteko garaiera izaten zuen.

kaskabeleta Kanaberaren antzeko soinu-tresna da, baina kasu honetan, arto-landare baten makilarekin egiten da. Mutur batetik luzeraren erdiraino, erditik pitzatuta dago. Pitzatuta ez dagoen aldetik helduta, astinduz, kalaka baten moduan funtzionatzen du. Haurren jostailu gisa erabiltzen da.

kaskabilo Barruan metalezko puska-txo bat duen metalezko bolatxo bat da. Azalean aho txiki bat izaten du. Astintzean bolatxoak jotzen ditu paretak errepika moduko hotsa emanez. Zenbait animaliak eramate dute berak identifikatzeko, lokalizatzeko eta apaingarritarako. Euskal herri dantza askotan ere erabiltzen da. Larruzko lauki batean taldeka josirik, dantzariak zangoetan lotuta eramaten dituzte (leku batzuetan, zuzenean galtzetan josirik) eta dantza egitean kaskabiloen hotsak, musika erritmikoki laguntzen du.

kaskamelan Toki askotan erabili dira halako perkusio-tresnak. Intxaur bat hustu ondoren, intxaur-azalaren erdia hartu eta mutur batean puska bat kenduz, bere gainean, luzetara, zotza jartzen zaio hari batekin estu-estu lotuta eta osoa dagoen intxaur-azalaren kontra tinkaturik. Behatz batekin zotzari beheraka eraginez, libre gelditzen denean intxaur-azalak jotzen ditu eta hotsa ateratzen da. Trebeziaz mota guztietako erritmoak jo daitezke kantuak laguntzeko. Koko-azalaren erdiarekin ere egiten zen, Nafarroako Erribera aldean bereziki.

kastañeta *Ik. kriskitin.*

kastañuela *Ik. kriskitin.*

katabuan (eraman) Andatan eta sorbaldan gorpua garraiatu.

katabut Zerraldoa, hilkutxa.

katamalo Txantxo (Legazpiko Telleriarte auzoa) → *txorimalo*.

katar Konjuro bat apaizak egin ondoren bi katar izatea komenigarritzat jo izan da (Zegama).

katar eta matar *Ik. arrenaketa* (Albiztur).

katarro 1. Herri-medikuntzaren arbera, zerbait beroak kentzen du katarroa. 2. Linazi-enplastuak bularreran jarri eta garagar-ur azukretsua edanda kentzen da. 3. Karraskila-ura, tximiniako kedar-ura eta zurrakapotea edanda ere kentzen da.

katau Bi gurpileko baserri-karroa. Ardatzari natza deitzen zaio eta etxeaz gainera haga erabiltzen du (Larrañe).

kate 1. Maila edo eraztun formako atalak elkarri lotutakoen saila, lokarri zein apaingarri gisa erabiltzen dena. 2. Sutegia bizitzeko hauspoa; horretarako eskuleku edo kabilari eragiten zitzaion (Itsasondo).

kate-motz Kate sendo eta laburra, enborrak lotzeko erabiltzen dena.

katen-maila Katea osatzen duten ataletako bakoitza.

katona *Ik. izara.*

katu Animalia honek garrantzi handia izan du euskal tradizioan, eta horregatik uste eta sineste ugari sortu ditu bere inguruan. 1. Katua azpian hartu duenari urte horretan edo zazpi urtez ez dela ezkonduko esaten zaio. 2. Katua aurpegia garbitzen ari bada, laster euria egingo duela esaten da ezkerrekoaz ari bada; eskuinaz ari bada jende arrotza edo albisteren bat etxera etorriko dela. 3. Katuak iparraldera begiratzen badu, eguraldi ona iragartzen du; itsasaldera begiratzen badu, berriz, euria. 4. Kanpotik ekarritako katuak



katua

ihes egin ez dezan egin beharrekoak: laratzaren inguruan hiru bira emanarazi, zakuan sartu eta bederatzi bira emanarazi. 5. Etxean katar beltza jaiotzea zorionaren zantzua izaten da. 6. Katua ez da diruz saltzen, oilanda-truke ematen da. 7. Katuak zazpi espiritu edo bizi eta hats gaiztoa ditu. 8. Katuak lapurra eta bigote-luzea izan behar du ehiztaria izateko.

katula *Ik. maskara.*

katuzil Jolas honetan mutilak bakarrik aritzen ziren eta katuzil izeneko hogeit bat zentimetroko zurezko pieza punta bikoa erabiltzen zuten. Metro-erdi inguruko beste makila bat ere behar izaten zen. Jokoari hasiera emateko lurrian marra egiten zen, makilaren luzera berekoa, hau da, metro-erdikoa. Mutil bat arrastoaren ondoan jartzen zen esku batean makila eta bestean "katuzil" a zuela, eta aurrenekoarekin txikia joz, ahalik eta urrunen bidali behar zuten. Ondoren makila marra gainean utzi, eta aurkakoak "katuzil" a jaso behar zuten lurretik eta makila jotzera bota behar zuten. Asmatuz gero, postuak trukatzeko zituzten. Aurkakoak "katuzil" a lurrera erori baino lehen jasotzen bazuen, bi aukera izaten zituen makila jotzeko. "Katuzil" ak ez bazuen makila jotzen, aurreneko mutilak makila lurretik hartu eta hiru bider jotzen zuten muturrean "katuzil" hori, urrunera bidaltzen ahaleginduz; baina ez zuten kolpe huts egin behar, bestela pieza ez urruneratzeaz gain, bestelako ordaindu beharren bat izaten baitzuen. Bigarren mutilak aukera izaten zuten "katuzil" a oin gainean jarri eta makila aldera botatzeko, aurrenekoak huts egin zuten adina aldiz. Hartara hurbildu egiten zuten eta errazago gertatzen zitzaion ondoren eskuaz botatakoan makila jotzea. Baina azkeneko jaurtiketa horiek egin aurretik makila eta hiru bider jotako "katuzil" aren arteko distan-

tzia begiz kalkulatu zuten. Makila astintzen zuenak esan egin behar izaten zuten distantzia horretan makila hori zenbat aldiz sartzen zen. Aurkakoak uste zuten egindako kalkulua okerra zela eta egiaztatzeko eskatzen zuten. Aurrez esandako zenbakia gehiegizkoa bazen, ordu arte makilaren erabiltzailea izana gertatzen zen galtzaile. Ontzat emandako makila-kopurua ehun tantotara zenbatzen zen eskuarki (Burgi).

katxi. *Ik. txantxo.*

katxibulo *Ik. txantxo.*

katximorron *Ik. txantxo.*

katxirulo *Ik. txantxo.*

katzamale *Ik. gatzemaile.*

kausera Inaute Asteartean Luzaiden jaten diren gozokiak.

kauter Zuberoako maskaradako pertsonaiak. Galdarariak dira eta auvernieraz hitz egiten dute. Maisua edo patroia, langilea eta apendizak izaten dira. Eszena komiko bat egin, Jaunaren galdara konpondu, apendizak bidali eta dantza baino areago jauziak egiten dituzte.



kauterrak

kaxa 1. Kutxa, ontzia. 2. Metalezko kazo kirten-luzea. 3. Diametro zabala eta altuera txikia duen metalezko kaxa zilindrikoa. Larruzko edo bestelako bi partxe tenkatu ditu. Hotsa aldatzeko eta handiagotzeko,

atzealdeko partxean tripazko soka edo bestelako bordoia izaten du. Bi makilarekin jotzen da, konplexutasun handiko erredoble eta joko erritmikoez, musika apaindu eta aberastuz. Musika banda eta txaranga/fanfarre gisako taldeetan ere erabiltzen da, erritmoa markatzeko eta musika-taldearen doinuak apaintzeko.

kaxarranka San Pedroz zortzi mutilek sorbaldetan kaxa handi bat erabiltzen dute, horren gainean beste mutil bat dantzari dela. Hiru dantzaldi izaten ziren: arrantzale-aroko ondasun-zain edo maiordomo zahararren eta berriaren etxe aurrean egiten ziren lehen dantzaldi biak; hirugarrena San Pedroren irudiaren aurrean. 1903tik hasita beste bi lekutan egiten dira lehen bi dantzaldiak.

kaxoleta *Ik. zoketa.*

ke 1. Kea ederrarengana joaten da.
2. Ke asko tximiniatik zuzen-zuzen irteten bada etxeakoandrea kexu den seinalea da.

keixarbola *Ik. gereziondo.*

kerren *Ik. gerren.*

kerrika-gutardatz Orga edo gurdia ardatzak egiten duen hotsari kerrika eta karranka deitzen zaio. Gurdia martxan ari dela ardatzak jiratzean ateratzen duen hotsaz ari gara.

khapela *Ik. burukote (Eskiula, Larrañe).*

kherestu Zuberoako maskaradako pertsonaiak. Kherestu edo irentzaileak zamaltzainaren atzetik joaten dira eta Biarnoko hizkeraz mintzo dira. Irri-gertaera batean zamaltzaina harrapatu eta irentzeiturak egiten dituzte.

khobain *Ik. erlauntz.*

khorbail Belarretarako erabiltzen den saskia (Eskiula).

khotxüska Ontzi txiki helduleku bakarrekoa, esne-zopak jateko artzainak erabilia.



khotxüska

kider Kirtena.

kila-ohol Txalupagintzan kroskoaren azpialdeko ohola, gilaren ondoan doana.

kilikalaska Nafarroako Sakana bailarako herrietan eta Arabako iparraldean orain dela gutxi arte bertako haurrek erabili duten hots-jostailua. Astrakal-kardentxa landarea lehortzen denean, lore-buruak kendurik, hiruhortzekoa egiten da. Landarearen beste adar-makila bat hartu, erdian zulo bat egin eta hiruhortzeko erdiko hortzean trabeska sartzen da. Hiruhortzekoaren kirtena bi eskuen artean harturik, alde batera eta bestera jirabiran jartzen da. Orduan, sartutako makilak alboetako hortzetan jotzen du eta hotsa ateratzen du. Udazken aldean, landare hauek lehortzen direnean egiten dira eta hori bera izaten da jotzeko garaia.

kilo *Ik. goru.*

kintal Pisu-neurria, ehun libarren baliokidea.

kintalero Burdinolan mea pisatzeko erabiltzen zen tresna.

kirikoketa Txalapartaren antzera, euskarririk gabe eta lurretik isolaturik jartzen da ohol bat. Sagarra jotzeko bi mazo, gutxi gorabehera metro eta erdi luze dena eta

zurezko bi mailu behar dira. Bi jotzailek, zutik, bakoitzak mazo bana harturik, bertikalki ohola kolpatzen dute. Hirugarrenak, belaunikaturik, mailuekin jotzen du. Hiruren artean konpas moduko buelta edo ziklo bat osatzen dute kolpe bana joz (ko-ke-ta).

kirrinka *Ik.* karranka.

kittoka Neska-mutilen jokoa zen eta hogeitik hogeita hamarrera bitarteko taldeak osatzen ziren. Korroa osatu eta batek hogeitaz batzen zituen: zenbakia egokitzen zitzaiona bere lagunaren atzetik abiatzen zen norbait harrapatzera. Ihesi zihoana ukitzean, "kitto" esaten zen eta bera izaten zen hurrengo harrapatzailea, hark ere beste bat ukitu eta "kitto" esan arte (laben).

kixmi Jentilek Jesukristori ematen zioten izena. Kixmiren jaiotzak jentilen bukaera esan nahi zuen.

kizki 1. Makila kakoduna. 2. Kako mutur-zorrotza, gauzei heltzeko erabiltzen dena.

klabera Iltzeak prestatzeko tresna.

klarinete Zurezko tutu zilindrikoa, goialdean kanaberazko mihi bateko pita eta behealdean kanpai gisako zabalgunea dituen soinu-tresna. Tonu aldaketarako zuloak ditu eta eskala kromatikoa egin ahal izateko metalezko giltza-sistema du. Munduko eta bereziki Europako beste herri askotan bezala, klarinetea Euskal Herriko hainbat eskualdetan askotan agertzen da herri-musikaren munduan, danborraren laguntzarekin, beste klarinetearekin bikote eginez, bestelako soinu-tresnekin talde txikiak osatuz edo orkestra-fanfarre-txaranga-banda gisako taldeetan. Baztan aldean, dantza batzuetarako txistuaren ordez klarinetea erabiltzen zen. Kasu askotan txistulariak izaten ziren klarinete-jotzaileak. Lapur-

diko dantzetarako ere erabiltzen zen. Nafarroa Beherako inauterietako dantza ikusgarrietan, klarinete-jotzaileak izan dira musika horien emaille eta gordetzailerak.

klaska Luzera baino zabalera zerbait handiagoa duen arrana.

kobla Bertsoa, eta bereziki kanta edo kantu baten ahapaldi bakoitza.

koblari Koblak ontzen edo kantatzen dituena, bertsolaria, puska-biltze eta errondak bereziki alaitzen dituena.

kodaina *Ik.* sega.

kodaina-harria ibiltzekoa *Ik.* sega-poto.

kofoin *Ik.* erlauntz.

koilara 1. Isurkariak, zopa eta antzekoak ahoratzeko erabiltzen den tresna ahurra. 2. Egur-ikatz galbahetuaren hautsez igurtzita labetik burdin salda ateratzeko erabiltzen zen ontzia. 3. Zurezko bi koilara arrunt (askotan ezepelekoak) erabiltzen dira perkusio-tresna gisa. Kantua erritmikoki laguntzeko erabili dira, mahai inguruan izaten diren festetan bereziki. Bi koilarak parean eta bizkarra emanez, esku batean harturik, hatz erakuslea



koilara

bien artean jarririk, izterraren eta gainean jarritako beste eskuaren kontra joz, astinduz, jotzen dira.

koko 1. *Ik. txantxo* (Axpe Martzana. Atxondo). 2. "koko": nafarrek berena ez zen ibarreko ei ematen zieten izena, adibidez, Baztanen ul-tzamarrei.

kokomarro *Ik. txantxo / Ik. Kukumarro* (2).

kokox *Ik. txantxo* (Markina).

kolpe 1. Herri-medikuntzaren arabera, zartada edo kolpe baten ondorioa sendatzeko asun batzuk zanpatu behar dira mailuaz, hotzean, harik eta zukua atera arte. Gero pertsona baten pixarekin nahastu eta mihise bat bustitzen da isurkari horrekin eta zartakoa hartu duen gunean uzten da. 2. Ehun gramo berbena-belar hartu eta beste ehun plantila-belar; laurogei gramo iodo-belar, berrogeita hamar pasmo-belar, eta beste hainbeste argizari eta, azkenik, hogeita hamar gramo oilo-gantz eta hirurehun eta berrogeita hamar gramo olio fin. Dena zartaginean berotu, iragazi eta hoztu behar da.

koltza *Ik. gurtesi*.

konjuntibitis 1. Herri-medikuntzaren arabera, arrosak egosi eta azukre pixka bat gehitu behar zaio; ondoren begiak garbitzen dira ur horretaz kotoi bat erabiliz. 2. Lahar-hosto batzuk egosi eta gau osoan hozten uzten dira eta goizean kotoi batez begiak garbitzen dira ur horrekin.

konjuru 1. Naturaz gaindiko ondorioa omen duen esaldia. Arao edo konjuru batzuk herriak umoretsu esaten ditu. Apaiz konjurugileari bere betebeharrarengatik ematen zitzaion gariari konjuru-gari esaten zitzaion. 2. Hodeipean ezkutatu gaizto bati / indarrrik gabea /



konjurua

konjurutzailari deabru agertu / Murumendiko Damari / frailearen aurka.

konkordun 1. Goizean goiz konkordun batekin (edo ermainudun batekin) topo eginez gero zorigaitzen bat gertatzen da. Orduan burdinazko zerbait eskuztatu behar izaten da zori txarra aldentzeko. 2. Konkordun baten ondotik igarotzean eta hura ohartu gabe eskuaz bizkarra ukituz gero, zerbait zori onekoa etorriko dela uste izaten da.

konporta 1. Oletan uraren sarrera eta irteera erregulatzeko erabiltzen ziren atakak. Sarrerakoari konporta handi deitzen zitzaion, eta irteerakoari, konporta txiki. 2. Etxearen sarrerako atea, bi atal, goikoa eta behekoa dituena. 3. Arropak egosteko treska edo tina. → *lixiba-ontzi*.

kontradantza Dantza honekin ematen diote amaiera Luzaideko "Bolanta" deituek.

kopako gabi Bi gabietatik biribila; lauari txapako gabia deitzen zitzaion. → *pertz-ola*.

kopa-otarre *Ik. kopa-saski*.

kopa-saski Eraikuntzan eta fruta-biltzen erabiltzen zen saskia; kopa-otarre ere esaten zitzaion. Oinalde karratua zuen, 20-30 zentimetro hegalez, garaiera bera eta aho-diametroa hogeita hamarberrogeita hamar bitartekoa.

kopetako Ganaduari hede marruskatzea eragozten dion eta uztartzean kopetan ezartzen zaion larruzko babeskia.



kopetako

kopetxa Metalezko kazo kirten-luzea, edateko erabiltzen zena.

koplari *Ik.* koblari.

korain 1. Txibiak eta kidekoak harrapatzeko erabiltzen den tresna.
2. Txipiroitarako potera edo horiek harrapatzeko kala.

korapilo Beste izen hauek ere baditu: marapil, boropil, opilo, orapilo. Hiru korapilo egin eta zoriona izaten da.

korneta 1. Behi-adar, kanabera edo metalezko mihia duen pita muturrean sarturik duelarik edo adar-itxura duen letoizko soinu-tresna. Oso musikalak ez badira ere, ekin-tza eta ohitura askotan agertzen dira halako tresnak. Askotan adarrari kendu diote bere lekua eta lehen adarrarekin jotzen zena orain kornetarekin egiten da, adarren zeregina betetz: ehiztariak basurde-tara joaten direnean, eguberrietako, urtezaharretako eta inauterie-

tako puska-biltze edo eskean airtzen diren taldeak, harrobietan ez tanden aurretik... Gure herrietan, mota guztietako dei publikoetarako (bandoetarako) halako kornetak erabiltzen ziren. Ituren-Zubietako Zarpantzar konpartsetan eta Zube-roako maskaradetan ere erabiltzen dira kornetak. 2. *Ik.* adar.

korrika *Ik.* kurrika.

korrika makur *Ik.* kurrika.

korriketa txiki *Ik.* kurrika.

korro Haur-jolas askotan neskato-mutikoek elkarri eskuak emanez eratzen duten zirkulu gisakoa, biraka mugitzeko.

koskari Eguberriak baino astebete lehenago herriko behartsuek inguruko herrietan, bakarka, egiten zuten eskea (Belaskoain).

kostare *Ik.* besabe.

kotilungorri Lapurdiko Uztaritzeko Inauterietan esku hartu ohi dutenen artean pertsonaiarik nabarmena da, eta bi izan ohi dira. Lau egunetan egiten dira Inauteriak eta lehenbiziko hiruretan eskaerak egiten dira, etxero dantza egiten dute eta etxeok emandakoa jasotzen. Dantzariak alde batetik bestera ibiltzen dira eta desfile horretan zenbait pertsonaiak esku hartzen dute, kotilungorriak tarteko direla. Gona gorria janzen dute praka zurien gaintetik, artilezko txaleko zuria eta koloretako mantala; horren poltsikoan airera eta jendeari botatzeko errautsa eramaten dute eta eskuan makila, eta makilatik zintzilik behi-isatsa; buruan txoto luze piramidala eta gerrian zintzarri ugari esekita, aurpegia oihal gorritzko maskara batez estalia, ahoa eta begiak bistan dituztela. Pertsonaia horiek umeak izutzen eta etxeok emandakoa biltzen saiatzen dira.

koxkailu Lezetako loteetan antzara-jokoan esku hartzen zuten zaldien koilareetatik koxkailuak esekitzen ziren.

koxketa Joko honetan zabalean sei edo zortzi zentimetro inguruko zulo borobila egin lurgainean eta intxaur-alea botatzen zuten biraka zulora jolaskideek, bost bat metrotik. Ahal izanez gero zuloan sartu behar zen, edo bestela ahalik eta hurbilen utzi. Zuloan sartzen zuenak eta hurbilen uzten zuenak ematen zion hasiera benetako jokoari. Erpuruaz eta erdiko hatzaz baliaturik jaurtitzeko zuten intxaur-alea besteak jotzeko asmoarekin. Jotzeari "kotx" esaten zitzaion eta ukitutako intxaurra jotzailearen eskuetara pasatzen zen. Huts eginez gero, hurrengoa jarraitzen zitzaion jokoa. Jokoan bi bakarrik gelditu eta bat galtzaile eta bestea irabazle gertatzen ematen zitzaion berriro hasiera jokoari (Matxinbenta).



koxketan

krabelin 1. Herri-medikuntzaren araberako, hagineko mina kentzeko gomendatzen diren landareetako bat da: (Dianthus, clavel, oeillet, pink). 2. San Joan goizean bedeinkatutako sortak izaten zituen.

kriskitin 1. Zurez egindako zirkulu antzeko bi pieza ahurrek osatzen dute pareta. Binaka elkartzeko eta jotzean heltzeko goialdetik sokatxo batekin loturik daude. Gaur egun oso erabiliak ez badira ere, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako zenbait eskualdetan dantzariak jotzen dituzte dantzan ari direla. Bi motatakoak dira, eta jotzeko bi era daude. Mota batekoak, taldeka, herrietako dantza errituala eta ingurutxo moduko dantzetan erabiltzen dira. Adibidez, Gorpuztu Eguneko Oñatikoko Dantza, Otsagiko Dantza, Lesakako inauterietan... Kasu hauetan, esku osoarekin Iberia penintsula osoan jotzen diren kriskitin arruntak erabiltzen dituzte. Besteak, fandango eta arin-arin (jota, porrusalda...) dantzatzeko erabilitakoak dira, eta hauek, kasu askotan aurrekoak bezalakoak badira ere, bestetan, txikiagoak dira eta erpuruan loturik, beste behatzekin klasketa egiten jotzen dira. Sinonimoak: Kastañeta, castañuela 2. Hatz lodia eta erdikoa elkar joaz ateratzen den hotsa, kriskitin-hotsaren antzekoa.

krispa Ik. hiruzangotako.

krixketa Iltzegintzan erabiltzen den palankatxoa, iltzea gori dagoen bitartean kolpe batez trokeletik jaurtitzeko duena.

kroxka Ik. koxketa.

kuarta Pisu edo neurri baten laurdena.

kuarta bat arto Hamabi kilo eta erdi arto, egun beteko lanaren truke ehuleak hartzen zuen saria (Dima).

kuartzatu Lau puska egin, laurdendu (Sunbilla).

kuebano-otarre Kono luze baten itxurako saskia.

kuela Sagarra neurtzeko zurezko ontzia burdinazko lantaz errebor-txatua. Sagardogileak tratua egiteko orduan erabiltzen zuen eta sagar-neurri ere deitu izan zaio. Kono-enbor itxura du eta berrogeita bost kilo sagar sartzen dira. Hamazazpi milimetroko pinu oholtzoz egina, kanpotik 93 zentimetroko garaiera du, 49ko barne-diametroa du oinaldean eta 37koa ahoan. Bost uztai daramatza, bata burukoa eta bestea behekoa; erdikoaren alde banatara zurezko bi helduleku ditu. → *lixiba-ontzi*.

kuika *Ik. arrenaketa (Gernika).*

kuilera Metalezko koilara ertz-zorro-tza, eskalapoiak egiten erabiltzen zena.

kuku Kukuaren hotsa urte batean lehenengoz entzuten denean: 1. Oin azpiko lurra etxera eraman eta zimitz guztiak hiltzen dira. 2. Sake-lan dirua daukanak urte guztian ez du falta izaten. 3. Urte hartan ez da hilko. 4. Kukuak hiltzen duenak zorte txarra izaten du. 5. Antzina nagusi eta morroien arteko tratua honela izaten zen: "Kukutik kukura urtea, ehun dukat soldata; hase-rretu gaitezenean, uhala ateratzeta." 6. Kukuak zazpi urtean eskolan ibili eta "kuku" besterik ez omen zuen ikasi. 7. Esan ohi da Ama Birjina Martxokoaren egunean Erromako zubian kantatzen duela.

kukuka *Ik. arrenaketa.*

kukulauka *Ik. arrenaketa (Donaxitibarre).*

kukullero Zuberoako maskaradako pertsonaia. Hamar-hamabi bat izan ohi dira, nahiz eta kopuru finkorik ez dagoen, eta bi ilaratan dantzari joaten dira. Zamaltzainaren antzeko koroa eta makila bat izaten dute eskuetan, dantza-garaian elkarrekin gurutzatzen dutena. Orain burutako zuria, zamarra gorria eta prakak

zuriak eta eskuan zintaz apaindu-riko bastoitxoak erabiltzen dituzte.

kukumarro 1. Barruan gazta berria duen taloa (Iparralde). 2. Bergarako Aratoztietan Martisen arratsaldean San Martin Agirrekoaren enparantzan aurrekoa dantzatzen zen kukumarro edo mozorrotuak tarteko zirela. Antzuolan ere izen bera erabiltzen zen mozorrotuak izendatzeko, eta Elorrion kokomarro. Eskean hartza, tximinoa eta abar ibiltzen ziren.




kukumarroa

kukumikuka Joko honetan, zotz eginda aukeratutakoak, besoz begiak estali eta hau esaten zuen: "Kuku miku, kuskunde, zahagia bete domina. Purgatorio salbatorio, gorde zarete. Bule". Erretolirik zirauen bitartean, jolaskideak ezkutatatu egiten ziren eta "zigortuak" ikusi ahala, haien izenak esan eta kantaturiko tokira eramaten zituen. Baina bila ari zen bitartean gordetakoren batek preso zeudenak ukitu eta "tximilikorte" esaten bazuen, denak libre geratzen ziren jokoan jarraitzeko (Aia).

kukupraka San Joan goizean elizan bedeinkatzen ziren loreen artean zegoen: (Digitalis purpurea, dedalera, gant de nôtre-dame, foxglove).

kukurro Jolas honi ematen zaion izenak zenbait landareri ateratzen zaien koskoila esan nahi du; kasu honetan haritzarena, kukusagar ere

deitzen zaiona, izaten da. Lurrean hiru "kukurro" ezartzen dira triangelua osatuz, laugarren bat gainean dela. Handik hiruren bat metro urrundu eta jokalariek txandaka nork beren "kukurro" a botatzen dute lurreko laurak jo eta tokiz higitzeko asmoz. Jotzea lortzen duenak bereganatzen ditu "kukurro" horiek (Narbaxa).



kulubis

kukuta Joko honetan paretari begira nor geratu erabakitzeko korroan jartzen ziren, eta kantariak banan-banan seinatuz hau esaten zuen: "Gaztaina-gora-behera-txipitin-txapatan-fuera". "Fuera" egokitzen zitzaiona korrotik kanpora ateratzen zen, eta eragiketa hori behar adina aldiz errepikatzen zen, harik eta neska edo mutil bakarra geratu arte. Halakoa "kukutan betetzen" geratzen zen eta paretari begira zenbatzen hasten zen, alde zurretik erabakitako zenbakiraino, jolas-tokiari bizkarra emanaz. Behin zenbatu eta gero, lagunak bilatzen ahalegintzen zen eta bat ikusi bezain laster horma, zuhaitza, harria eta abar ukitzen zituen aurkitutakoaren izenarekin batera "sapo" esanez. Adibidez, Mikel ikusten bazuen, "Mikel sapo". Gordeta zegoenen bat atera eta toki jakin hori ukitzen bazuen, "kukutan betetzen" ari zenaren izena eta ondoren "sapo" esanez, jokoari hasiera ematen zitzaion berriz, eta horrela "kukutan betetzen" ari zenak bertan jarraitu behar zuen (Leitza).

kukuts Lihoari, bihurtzean, ateratzen zaion gandar modukoa.

kulubis Arrantzan egiteko sareari, hondora ez dadin, jartzen zaion artelazki zatia.

kumetxa Irakzi edo hondo zuloduna duen bahe modukoa, txerri-hilketan odola bertatik iragaziz lohitasunak kentzeko erabiltzen dena.

kupel Sagardoa gordetzeko zurezko ontzia, hiru bat mila litroko edukiera izateraino iristen dena. Tamaina horretako batek 30 bat kupel ohol izan ditzake 2,30 metroko luzera eta 16 zentimetroko zabalera dutenak, burdin gozoko sei uztatik (60mm-ko zabalera, 5 mm-ko lodiera) bilduak. Topeak ziriz josiriko zortzi kupel-ohol edo hondoholez ixten dira. Goialdean zulo bat izaten du inbutu edo onilarentzat, 60 mm-ko diametrokoa, eta jariozik izan ez dezan zuraren adabegietan bilgor edo gantzez igurutzen da. → *lixiba-ontzi*.

kuriketa 1. Joko honetan zeinek bete behar zuen jakiteko, jokalariek bi taldetan banatu eta elkarren artean tarte jakina utzita, taldeetako parte-hartzaile banak "hanke-tan" egiten zuten; aurkakoa zapaltzen zuena kanpoan geratzen zen eta zapalduak, aldiz, berriro egiten zuten "hanketan" egokitzen zitzaionarekin. Azkena zapalduakoa geratzen zen "betetzen" eta horrek gainerakoena bila abiatu behar izaten zuen. Aurkitutako lehena "betetzen" jartzen zen eta horretarako horma ukitu eta "korte" esan behar izaten zuen. Neska-mutilak aritzen ziren kuriketaren eta neguko jolasa eta etxe barrukoa izaten zen eskuarki (Udabe). 2. Zenbait aldaketarekin jolas hau lgoa, lhaben, Albiasu eta Allin ere egiten zen.

kurkubika Neska-mutilak aritzen ziren joko honetan, batez ere neguan eta estalpean. Lurgainean hamarren bat zentimetro zituen diametroko zuloa egin, nork bere kurkubia (kukorro, kukurratx) hartu, zuloa baino metro-erdi lehenagotik bota eta hartan sartzen ahalegintzen ziren. Eta zuloan sartzeko, eskua-
ren erdiko hatzaz, indarra emateko erpuruaz baliaturik jotzen zuten haritz-koskoila edo kurkubia. Zuloan sartzea lortzen zuenak jolaskideengandik kurkubi bana jasotzen zuten (Lizarraga).

kurrea-kurree-kena Neskek elkarri eskutik heldu eta korroa osatzen zuten, bakarria haien atzetik libre geratzen zen bitartean. Hark "Kurree-kurree-kena..." esaten zuen ozenki eta jolaskideek "ttunt-tunena" erantzuten zioten. Bakarrik eta libre zebilenak, gutxien uste zenean, korroko bati kolpetxo bat ematen zion bizkarrean eta hura berehalaxe abiatzen zen haren bila korroa utzita. Atzetik segitze hori korroaren barrutik zein kanpotik egiten zen. Harrapatzaileak iheslariari eskua ezartzen bazion, batak bestearen lekua betetzen zuten eta jokoak jarraitu egiten zuten. Baina korrokoek jarritako denboran ez bazuen harrapatzen, bi neska horiek beren lekura itzultzen ziren eta jokoari berriro hasiera ematen zitzaion (Gaintza).

kurrika Metalezko tresna bi aldez osatua eta erdialdean giltzatzen dena; alde bat gidertzat erabiltzen da, eta bestea baraila gisako bat izaten da. Badira kurrika makurrak, laukurrikak edo kurrika handiak eta kurriketa txikiak deituak, eta oletan erabiltzen ziren gehienbat.

kurrupera Albardaren atzealdeko anila batekin lotzen den isats-ondokoa.

küsküilo Küsküilota baino arran handiagoa (Larrañe).

küsküilota Ardientzako erabiltzen den arran edo ezkila txikia (Larrañe).



küsküilota

kutun 1. Haurrek bataiatu aurretik, bularrean daramaten zorrotzkoa, baren gauza bedeinkaturen bat duena. Higo izena ere hartzen du Iparraldean. Nafarroa Garaian Ebanjelioak hitza erabiltzen da. 2. Kutun horretan gauza asko sartzen dituzte gurasoek: ikatz zatitxoak, anila, xaboi zatitxo bat, ur bedeinkatu tantak, papertxo idatzi bat tolestuta eta haurrari jaiotzean ebaikitako zil zati bat. Lekeition laumaraiko bat ere sartzen zioten. 3. San Joan goizean bedeinkatutako afixu eta arrudarekin haurrentzako kutunak egiten zituzten, Anbotoko Dama uxatzeko (Oñati).

kutxa 1. Baserrietan ezinbesteko altzaria izan da laborea eta ogia ez ezik arropa zuria ere gordetzeko. Barruan, saihets batean, kutxatila izaten zuten, kutxa txikiago bat; luzera eta sakonera hamabost bider hamabost zentimetrokoa izaten zen. Gordailutxo horretan edukitzen zen hazi hautatua aldizkako ereitearen bitartez uztei irauarazteko. 2. Hildakoa eramateko kaxa, zerraldoa (Orbaizta).

kutxilo Ik. labana.

kuxkula Zintzarri txiki edo kaskabiloa.

kuxulu Kriseilua.

LI

labaki-aitzur Pala luzeko aitzurra, lurra sakontzen duena.

labana 1. Ahoa kirtenaren barruan toles daitekeen ganibeta. 2. Aho leuneko igitaia; beste igitai motari hagindun deitzen zaio (Arantza, Igantzi).

labatro *Ik. barreno / Ik. daratulu.*

labatz *Ik. laratz.*

labe Eraikuntza gehienetan biribila, barnean su eginez zenbait gai erre, egosi, berotu, urtu edo eraldatzeko erabiltzen dena. Zenbait eskulagintzan, burdingintzan, saskigintzan, gozogintzan adibidez, ezinbestekoa da.



labea

labeburni Burdinolako sutegian erabiltzen zen burdina.

labi-labi Bost eta hamar urte bitarteko haurren joko hau korroa eratu eta hogeitazentetik hasten zen. Zenbakia egokitzen zitzaiona zigortuta hormari begira jartzen zen, jolaskideei bizkarra emanez. Aldez aurretik erabakitako zenbakira arte zenbatzen hasten zen postura horretan eta bukatzean, bira eman

eta oihu egiten zuen: labi-labi eta lagunek beren gordelekuetatik txakurrak buztan bi erantzuten zioten. Ondoren bila hasten zen eta norbait begiz jo bezain laster horma ukitzen zuen labi-labi esanez, ikusiaren izena ere esanez; horrela aritzen zen guztiak aurkitu arte. Aurkitutako lehena pasatzen zen hormara zigorturik egoteko. Baina jolaskideren bat gordelekutik atera eta zigortuak baino lehen horma ukitu eta labi-labi esanez gero, berriro errepikatzen zen jokoa eta zigortuak berriro lan berean jarraitu behar izaten zuen (Aramaio).

laborantza Nekazaritza.

laborari 1. *Ik. nekazari (Iparraldea).* 2. Zuberoako maskaradako pertsonaia. Akuilua erabiltzen du eta ezkerretik janzki ilunez jantzitako etxekanderea izaten du lagun.

laborarisa Zuberoako maskaradako pertsonaia. Laborarien ondoan ibiltzen da, janzki ilunez nekazariz jantzita.

labra-aizkora Arotz edo zurginak erabiltzen duen aizkora berezia.

lagatz *Ik. laratz.*

lahar 1. Laharra gona-barrean emakumeari katigatuz gero alargunarekin ezkondu beharko duela esan nahi du. 2. Emakume horrek tabernan zorra ere baduela esan nahi du.

lahatz *Ik. laratz.*

laia Burdinazko edo altzairuzko bi atalezkoa izaten da, eta landu eta gorputz bakar bihurtu ondoren, hanka edo hortz mutur-zorrotzak eratzen dituzte. Barretako bat goialdean ireki eta begia egiten zaio kirtena sartzeko. Bi laia mota erabili dira gehienbat Euskal Herrian: hortzen artean bost bat zentimetroko tartea duena eta 70-80 zentimetroko

luzera duena; eskuarki zurezko kirtena luzeran 25 zentimetro eta diametroan 5 dituena. Beste lai mota Burundatik Agoitzerraino, Erronkari aldean eta Aragoiraino, aurrekoak baino hortz edo hanka laburragoak ditu (30-35 cm. luzera eta 15 cm. tartea) eta kirtena metro-erdi batekoa, gutxi gorabehera. Laiaren muturraldean loditasuna kentzeari laia-hankak tiratzea deitzen zitzaion; halaber, forjan laiaren hanketako bati ateratzen zitzaion eskuairari hankatokia egitea deitzen zitzaion. Laiaren zurezko heldulekuari laia-kirten izena ematen zitzaion.

laiari Laian aritzen zen pertsona. Sarritan binaka aritzen ziren bikoitea eratuz.

laiatu Laiaz lurra lantzea. Horrela ateratzen zen lur zati lodiarri zohi deitzen zitzaion. Lan hori bosteko taldeak egiten bazuen bost zohi deitzen zitzaion, zortzikoak eginez gero, zortzi zohi eta horrela kopuruaren arabera (Urkizu-Tolosa).

laka 1. Ehuleak erabiltzen duen kutxatila harila gordetzeko. 2. Errotariak, eho lanagatik, gehienetan gari edo artotat hartzen zuen saria. 3. Ale-neurri zaharra, ia bi litro eta erdi dauzkana, almutea.



lakak

lakain Soka bat osatzen duten piruetako bakoitza.

lakari Ale-neurri zaharra, ia bost litroko edukierakoa.

lakio 1. Abereak harrapatzeko prestatzen den soka urka-bilurduna. 2. Janaria eramateko zorroa (Iparralde).

lakorka Ardoa egiteko dolarea (Baigorri).

laku Sagardoa egiteko dolarea (Uztaritze).

lama Baserri-gurdiaren gurpila errebertxatzeko metalezko xingola.

lama-bueltako Baserri-gurdiaren gurpila alde bietatik errebertxatzen duen txapa biribila.

lama-iltze Baserri-gurdiaren lama josteko erabiltzen zen iltzea.

lama-zuzen Baserri-gurdiaren gurpila errebertxatzeko xafra zuzena.

lamin Ik. lamina.

lamina 1. Eskuarki emakume-itxurako jeinua, baina oinak oilo-hanka gisa-koak izaten ditu. Zeanuri, Orozko eta Elantxoben bekokiaren erdian begi bakarra duen emakume txikitat daukate. Gaur egun leize, putzu eta gaztelu abandonatuetan bizi dira, eta lixiba egiten eta ilea orrazten aritzen dira. Eskaintzak eskatzen dituzte, eta nekazariak soroaren ertzean utzitakoak gauzez kontsumitzen dituzte; ordaintzat soroan bukatu gabe utzitako lanak amaitzen dituzte. Idiek tiraturiko goldeak uxatu omen zituen laminak; beste batzuen ustez, baserri giroan eraikitako ermitak atzerarazi zituzten. → *lamin*, → *laminako*, → *eilalamia*. 2. Laminek gauerdian egiten dute lixiba. 3. Laminekin dabilenak ez du "Jesus" esan behar, bestela ihes egiten dute. 4. Azkuek Euskalerraren Yakintza, 2. liburukian, zenbait ipuin dakartza laminei buruz: Lamia eta emagina, Lamia ezkongai, Lamia gaztanberazalea, Lamia eta Homeroren kyklops, Lamien azkena eta abar.

laminako *Ik.* lamina.

landarare *Ik.* are.

Landarra 1. labar-Arakilgo Inauteetako pantomiman ateratzen den pertsonaia emakumezkoa. 2. Txan-txoa.



Landarra

landar-sumil Landar-arearen luzetarako zurak.

langai Eskulagintzan ezinbestekoa den oinarritzko materiala: zura, burdina, argizaria... eta abar.

lantegi 1. Eskuzko lanen bat egiten den tokia. 2. Fabrika. 3. Egitekoa, lanbidea.

lantzeta Ebakuntzetako lanabesa, bi ahoko xafila punta-zorrotz batez osatua.

larako 1. Kabila, burdinazko edo zurezko atala, iltze lodi gisakoa, zulo batean sartu eta bi osagai zulodun elkartzeko erabiltzen dena. 2. Artoa lurrean sartzeko ziria.

laratz 1. Sutondoan kebidetik zintzilik dagoen kate kakoduna, pertzak ezartzeko erabiltzen dena. 2. Laratza dilindan dabilenean, Jainkoa edo Ama Birjina negarrez dago eta gelditu egin behar da. 3. Laratzari ez zaio eragin behar, bestela dea-

brua zirikatzen du-eta. 4. Katua ekartzen denean katuari hiru bira eman behar zaizkio.

lardai 1. Zurezko atala, pertika baino laburragoa, lanabes batzuek abereek tira egiteko izaten dutena. 2. Nekazaritzako zenbait lanabesek izaten duten tira egiteko zur luzea.

Lardero Kinkuagesima aurreko osteguna.

larrabere Basaberea.

larre 1. Landa, bereziki abereak bazkatzen diren toki belartsua (Iparraldea). 2. Bazka.

larremilo *Ik.* kamamila.

larruazaleko gaitz Ekzema sendatzeko, herri-medikuntzaren arabera aihena edo basurde-patata hartu, eta azala kendu ondoren, gaixogunea igurtzi behar da, egunean bi aldiz edo gehiagotan.

larrugin Larru-ontzailea, larru-apaintzailea.

laruen 1. Laruena edo ikterizia kentzeko zorriak eramatea ontzat jotzen da. 2. Berberana txikitu eta ardo zuritan eduki ondoren horretatik hiru edalontzikada egunero hartzea ona da. 3. Arto-bizarraren ura hartzea ona da.

lastagizon Inauterietan erretzen den giza itxurako panpina ahotzez betea.

lastalazaro *Ik.* txantxo.


lastargi *Ik.* lastazao.

lastazao Muturrean su ematen zaion lasto bilduma, horrela gaeuz ibiltzeko lastargia egiten zuena (Ormaiztegi).

lau ostiko-dantza Lizartzako Inauterietan egiten den dantza.

lauburu Adar bakoitzean buru moduko bat duen gurutzea, ohiko euskal ikurtzat erabili izan dena, nahiz eta beste zibilizazio eta herri batzuetan ere ezaguna eta erabilia izan den. Zenbaiten ustez eguzkiaren sinboloa da.

lau-hortz Besabearen antza eta helburu beretsua duen lanabes hau batez ere lur lauetan erabiltzen da. Hortzek, 40 zentimetroko zabaleran banatuek, 45 zentimetroko luzera izaten dute eta lerro uhindua dute goranzko erremate zorrotzarekin. Zeharraga batez elkarturiko bi helduleku ditu eta horiez baliatzen da nekazaria lanabesa gidatzeko.



lau-hortza

lau-hortzaren oilar Lau-hortz izeneko lanabesaren burua, haga batean sartzen dena.

laukorrika *Ik.* kurrika.

lau-lauko ogi Maizterrak elizan eskaintzen zuena (Lizartza).

laurdendu Zura lau zati egin. → *kuar-tizatu*.

laurkitu *Ik.* laurdendu.

laute Udare itxura duen erresonantzi kaxa, kirten edo giderra afinatzeko larako-etxearekin, eta sei sokapare dituena. Gaur egun ia erabat galdua bada ere, garai batean garrantzizkoa izan zen. Informazio gutxi badugu ere, garbi dago “errondai-

lak”, “estudiantinak” eta antzeko soka-taldeak, XIX. mendeko Euskal Herriko herri askotan ezagutzen zirela. Oraindik ere, ikus eta entzun ditzakegu halako talde gutxi batzuk gure herrietan, Bizkaiko kostaldeko (Lekeitio, Mundaka...) eta Nafarroako Erribera aldean bereziki. Azken honetan mantendu da halako musika-taldeen ohitura, berezko estiloan eta herriko kulturarekiko loturarekin, besteak beste “jotaren” laguntzaile bezala.

laztabin 1. Ginbaleta, zurginaren lanabesa. 2. Burdinazko haga, buru batean daratulu moduko bat duena, harriak zulatzeko erabiltzen dena.

lega *Ik.* lera.

lega-gaineko *Ik.* gainaga.

legen 1. Herri-medikuntzaren arabera, legena sendatzeko oilarraren gandorrari ebaki txiki bat egin eta odol horretaz igurtzi behar da legena, egunean behin, hiru egunean jarraian. 2. Teila batez karraskatzea, edota baratxuriaz igurztea gomendatzen da.

Lehenengo Dantza Lizartzako Inauterietan egiten den dantza.

Lehenengo Habanera Tolosako Inauterietan herriko txistularien bandak jotzen duen pieza.

Lehenengo Idiarena Tolosako Inauterietan herriko txistularien bandak jotzen duen pieza.

lekaio *Ik.* irrintzi.

lema Ontzi baten norabidea gobernatzeko ohol laua, eskuarki txopan ezartzen dena.

lema-iltze Lemari ezartzen zaion iltzea.

lepa-otarre *Ik.* lepa-saski.

lepa-saski Artoa, sagarra eta beste emaitza batzuk garraiatzeko erabiltzen zen. Garaiera hogeita hamar-hogeita hemezortzi zentimetrokoa zuen eta oinaldearen neurri bera du, karratua baita. Ahodiametroak hirurogei-laurogei zentimetro bitartekoa du.

lera Arrastaka zamak garraiatzeko ibilgailua da, eta lega eta alera ize-nak ere hartzen ditu. Hiru zurez osaturiko bastidore bat izaten du sei-hamar zeharretako barrarekin. Gorantz jasotzen diren zurei ezpata deitzen zaie eta batzuetan horiek gurtaga batez lotzen dira azpiko zama tinkatzeko. Akazia eta zuma-rezkoak izan ohi dira.



lera

lera-azpa Lerak luzetara dituen eta lurra ukitzen duten behealdeko zurak (Uztaritze).

lera-haga Lera-tenteak edo zurubiak elkartuz azpiko zama tinkatzen duen luzetarako zura.

lera-tente Hagaren bi muturretarantz zutika elkartzen diren zutikako zurak, zama tinkatzeko erabiltzen direnak.

lerrondo 1. Pinu-enborra. 2. San Joan sua pizteko lerrondo edo pinuaren enborraz baliatzen ziren herriko gazteak (Ezkarotze).

leundu Eskulangilearen azken eginbe-harra, bai zurezko eta bai burdi-

nazko gauzakiak egitean laztasunak edo gogortasunak kentzeko.

lezka Herri-medikuntzaren arabera, flemoiak eta disipula sendatzeko gomendatzen den landarea: (Typha angustifolia, espadaña, massette à feuilles étroites, lesser bull-rush).

liho Belar-landare lore-horia, hazi oliodunak ematen dituena, ehungintzan erabiltzen diren zurtoineko izpiengatik batez ere lantzen dena.

lihogintza Etxe batean lan eta jai egiteko bilera, liho-prestatzearen inguruan. Neska gazteek antolatzen zuten eskuarki eta mutilak gonbidatzen zituzten bertara. Jaia arrastean hasi eta gau berandura arte luzatzen zen. Jan, soinua jo eta dantza egiten zuten. Amaieran mutilak etxera laguntzen zuen neska.

lima Zenbait eskulangilek beren sorkariak leuntzeko erabiltzen duten tresna.

lina Ik. lera (Donaixti-Ibarre).

linai Gorua (Gipuzkoa).

linazi Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa sendatzeko gomendatzen da lihoaren hazia: (Linum, linaza, linette, linseed).

lira Ik. lera.

lirazpa Ik. lera-azpa.

lirio Herri-medikuntzaren arabera, disipula sendatzeko gomendatzen da lorea: (Iris, lirio, iris, yellow flag).

lits Oihal baten ertzeko hari puska. Zenbait herritan hilkutxaren gainean litsak zituen esku-oihal bat ezartzen zen, eta gero parrokiaren jabetzara iragaten zen.

lixiba-ontzi Arropak egosteko ontzia.
→ *konporta* → *kuela*.



lixiba-ontzia

lixu-ontzi *Ik.* lixiba-ontzi.

lizar 1. Herri-medikuntzaren arabera, zuhaitz honen hostoa bronkitisa eta erreuma sendatzeko gomendatzen da: (fraxinus, fresno, frêne, ash). 2. Lizar-abarrak San Joan goizean etxeko sarreran ezartzea, gaitza eta erauntsia uxatzeko, usadio arrunt eta orokorra izan da; halaber, lizar-hostoa San Joan sorta edo erromiletaren osagaie-tako bat izan da.

llama *Ik.* lama.

luberri Lur goldatu berria.

lugin *Ik.* nekazari.

lukainka Txerri-haragiz egiten den heste luze eta mehea. Inauterietako puska-biltzean sarri bildu izan den jakia da; gaur egun dirua emateko ohitura nagusitu da.

lupu 1. Arrabioa (Bizkaia). 2. Azal azpiko handitua, minik egiten ez duena. 3. Pozoia: "Lupuak jo dezala" esabidean gaitza, pozoia adierazten du, eta madarikazioe-tako bat da. "Lipu" eta "lupe" ere deitzen den gaixotasun hori sendagaitza da herri-medikun-

tzarentzat, eta esan izan da hildako emakume alargun baten sudurrean gurutze bat eginez sendatu izan direla lupuak jotakoak. 4. Lupuak abelgorririk jo ez dezan azkonar-raren larrua zabaldu behar da uztarriaren gainean.

lur Lurra ereiteko prestatzea izenda-tzeko lurra haustu eta gozatu esa-moldeak erabili izan dira.

lur-aitzur Pala luzeko aitzurra, metro eta hamabost zentimetro inguruko kirtena zuena.


lur-jasotzaile Alor edo soro barrenetik lurra saskika jasotzen duena (Loiola-Azpeitia).

lur-saski Otarre txikia, gaztaina, sagar eta lurrarekin erabili izan dena.

Mm

madre Kobrezko pieza sail bat egi-tean erdia alde batean uzten zen eta madre deitzen zitzaion; beste aldean uzten zen beste sailari kara deitzen zitzaion.

mahai Oin batek edo gehiagok eusten dion ohol lau batek osaturiko al-tzaria, bertan jan, idatzi nahiz lan egiteko. Arotz eta erre-mentariak ezin-bestekoa dute beren lanean, baita beste eskulangile ba-tzuek ere.



mahiatz

mahaiko tornu Mahaiari eza-rrita egoten den eta oinez eraginez lan egiten duen torlojua.

maiatz 1. Urtearen bosgarren hila. 2. San Joan suaren ondoren herriko plazara ekarri eta zutik jartzen zen pago luze eta zuzena (lhaben). Aranakoa San Bizenten maiatzaren hiruan, Santa Kruz egunean, jarri eta iraileko Santa Kruzetan kentzen dute.

maide Gaueko jeinu sukaldeko tximikian behera jaisten dena, etxekoek oheratzean bertan utzitako eskaintzak jasotzera.

maili Zurezko mazoa (Urdirnarbe).

mailo Oletan erabiltzen zen burdinazko mazo astuna.

mailu 1. Kolpeak emateko lanabesa, metalezko buru begidun batez eta begi horretan finkatzen den gider edo kirten batez osatua. Erremendiak erabiltzen duenari mailu handi deitu izan zaio. 2. *Ik.* matraka.

mailukari Mailuaz ari dena, mailukatzen duen pertsona.

mailukatu 1. Eskea izendatzeko beste izen bat da eta zenbait herritan Inauterietan egin ohi zen, gero bildutakoarekin otordu bat egiteko. 2. Azkaraten, festa ospatzeko, San Joan bezpera arratsean bi mutil talde ateratzen ziren, aterik ate honako hau kantatuz: "Atxekoandre zabala / leku oneko alaba / bidean gatoz informaturik / limosneroa zarella". Zikoitza zenari honela kantatzen zioten: "Armarioan sagua / kontrarioa katua / etxe hontako limosnarekin / ez da beteko zakua". Apaizari honela kantatzen zioten: "Intxaurrak eder hostoa / Kaliza zilarrezkoa / Meza emanzale ondrosoa / da abade Azkaratekoa". 3. Gorritin puska-biltzekoek hau kantatzen zuten: "Iaz San Joan, San Joan zen / bihar San Joan Bautista / Jesukristoren lehengusua zen / San Joan Ebanjelista".

mailuketari *Ik.* mailukari.

mailuki 1. Lurpeko urak ateratzeko harriz edo adreiluz egiten den zulo estu biribila. 2. Euria egiten duenean eratzen den ur geldizko hedadura txikia. 3. Zenbait eskulangilek, bereziki saskigileek, beren langaiak (txarak) egokitzeko erabiltzen duten ur geldizko gunea.

mailulari Ferratzaileak aberearen azazkalak leundu eta ertzak kentzeko erabiltzen duen labana.

maiorazko Ohitura-legearen arabera honela izendaturiko gizonezko edo emakumezkoak etxeko ondasunen jabe eta jarraitzaile izaten dira.

maiordomo Uitzin irailaren 8an gazteak bildurik maiordomoa eta maiordomo-lagune izendatzen dituzte herriko festei buruzko xehetasunak zaintzeko; baina toki guztietan ez dute egun jakinean izendatzen. Ioteak urtarrilaren 6an hasten dira eta hiru eguneko erromeria eta puska-biltzea izaten dituzte. Epe baten ondoren maiordomo izateari uzten zionari maiordomo zahar deitzen zioten.

maiordomo-lagun *Ik.* damuñ-lagun.

mairu 1. Ipar Afrikako biztanlea, kolorez beltz samarra. 2. Bi agotengandik jaiotako haurrari ematen zitzaion izena. → *txantxo* (Hondarribia).

mairu-baratze *Ik.* jentil-baratze.

maixu aparejadore Lan-maisua, etxegintza eta bestelako lanetan aritzen dena (Deba).

maiztar *Ik.* maizter.

maizter Baserri, lur, etxe edo bizilekuren bat errentaren truke hartzen duena, errentero ere deitua.

Maju *Ik.* Sugaar.

makea Nekazaritzan erabiltzen diren lanabesen heldulekua.

makera Arearen aurreko bi muturrak elkartzen dituen haga edo burdina, tiratzeko katearentzako aniloa darimana.

Makil dantza 1. Bina makila dituzten hamabi laguneren artean egiten den euskal dantza. 2. Lizartzako Iñauterietan egiten den dantza.

makila Zurezko zati zuzena, biribila eta luzea bereziki ibiltzean euskarri edo lagungarri gisa edo jotzeko erabiltzen dena. Festa-giroan gazteek sarri erabiltzen zuten, eta Makil dantza izenekoan ere erabiltzen da. Eskaleek ere gehienetan erabiltzen zuten.



makilak egiten

makilari Luzaideko Inauterietako pertsonaia. Kartoizko burutakoa erabiltzen du, zetaz estalia eta aurrealdean ispilutxo bat izaten du, mitra itxurakoa. Eskuetan kolore desberdinetako makila bat erabiltzen du eta airera jaurtika eta hartzartean biraka duela aritzen da. Azken makilariak gerrera eta burutako zilindrikoa erabiltzen ditu. Burutakoan bi erronbo-ilara agertzen dira eta gandorrean luma sorta bat izaten du.

mako 1. Ukuiluan simaurrarekin erabiltzen den burdinazko eskua-rea, hiru, lau edo bost hortz izaten dituena. 2. Bost edo zazpi hortzeko burdin arean, horietako bik mako izena dute (Aramaio). 3. Sardearen hortza. 4. Arkua, uztaia.

malastu Ik. malato zuhaitza.

Malato zuhaitza Bizkaiko hegoaldean muga egiten zuen eta Luiandon zegoen zuhaitza. Bizkaitar guztiak behartuta zeuden beren jaurreria armaz zaintzera eta etsaia lurraldetik kanpora bidali arte borrokatzera, baina Malato zuhaitzeraino bakarrik, handik aurrera joan nahi zuenari soldata ordaindu behar baitzitzaion.

malats Artzainak gaztagintzan erabiltzen duen irabiagailua. Antzinakoak zurezkoak ziren.



malatsak

malba Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa eta zauriak sendatzeko gomendatzen da landare hau: (Malva, malva, mauve, mallow).

malba zuri Herri-medikuntzaren arabera, disipula sendatzeko gomendatzen da landare hau: (Althaea officinalis, malvisco, guimauve officinale, marsh mallow).

malbabisko *Ik.* malba zuri.

maltza Alor, landa edo soro baten banaketa aditzera ematen duen ebaki gabeko belar-zerrenda (Azkarate).

mamarro Jeinu txikiak, giza itxurakoak –intsektu itxurakoak zenbaiten iritzian– gizakiei beren zereginetan laguntzen dietenak. Lau sartzen dira orratzontzi batean, eta babesen duten pertsonarenean egoten dira. Gauza miresgarriak egiten dituztenei buruz, azti, sorgin eta sendalari batzuei buruz esan ohi da mamarroez baliatzen direla. → *gal-txa gorri*.

mami 1. Ogi, fruitu, ale eta abarren barrualdea osatzen duen gai biguna, azalak estalia. 2. Zerbaiten barneko zatia. 3. Esne gatzatua.

mamoxarro 1. Txantxoa (Unanua-Ergoiena). 2. Mamoxarro handien eguna lote asteartea izaten zen, mamoxarro txikien eguna, berriz, lote igandea.

mandagurdi Lau gurpil eta bi ardatzeko orga, zamak garraiatzekoa, batik bat zamariak tiratzen dutena.

mandarra Luzaideko dantzari taldearen barruan zapurra deituek erabiltzen duten jantzia.

mandazain Mandoarekin garraioan ibiltzen dena.

mandio 1. Baserrietan ukilu gaineko gela zabala, laborea, belarra eta abar gordetzeko. 2. Dolarean josteko sagarra ezartzen zen tokia, dolarearen behealdea.

mando-saski Gehienetan sorora simaurra garraiatzeko eta mandoak erabiltzeko egiten zen saski mota berezia.

mandren *Ik.* maneral.

maneral Burdinazko moldea kono hautsizko lineakoa, aizkora, aitzur eta beste lanabes batzuen begian sartzen dena forjan.

manes Bi tapagailuko esku-saskia, batez ere erosketak egiteko erabiltza.



manesa

manex Baxenabartarrei eta lapurtarrei zuberotarrek ematen dieten izena.

manitxal *Ik.* marexal.

maniura Zurezko puntaz beheako uztai sasi-triangeluarra da. Goiko euskarritik erresonantzi kaxa duen beste euskarrira, neurri ezberdinetako soka tenkatuak daude. Azkenaldian agertzen ez bada ere, aurkitutako dokumentu zaharrek garbi adierazten dute garai batean erabili dela soinu-tresna hau antzina gure herri-musikan. Baina ez dakigu zenbat, ez eta zer-nolako muska joko zen soinu-tresna honekin.

manixal *Ik.* marexal.

mantal Errementariak aurrealdean ezartzen zuen larruzko babesgarria.

mantaleta *Ik.* kaputxina.

mantar Bereziki zangoak elur eta bustitzetik babesteko erabiltzen ziren ehunezko zapiak.

mantelina Emakumezkoek elizara erabiltzen zuten eta eskuarki beltza izaten zen buru-estalki edo mantu laburra.

mantoi Bereziki emakumezkoek sorbaldak babesteko erabiltzen duten zapia. Abaltzisketako txantxoek zetazko mantoi laukia erabiltzen dute Inauterietan. Lezetan, aldiz, neskek janzten zuten “mantona” deitua.

mantu Hileta-buru den emakumeak elizara eramaten duen jantzia.

mañane Zuberoako maskaradako dantza, marexalaren aurretik, zamaltzaina irendu baino lehen egiten dena.

maratila 1. Zurezko atala, biratuz atea eta leihoak ixteko erabiltzen dena. 2. Torlojuak sartzeko eta ateratzeko erabiltzen den lanabesa. 3. Irutean erabiltzen zen txirrika.

marexal Zuberoako maskaradako pertsonaiak. Manitxal edo manixal izena ere ematen zaie, eta ferratzaileak dira. Beren lanbideari dagozkion abesak erabiltzen dituzte. Lore-saltzaile izeneko pertsonaiak galdu zirenetik eskea egitea dagokie. Irri-gertaera batzuen ondoren txerreroa ferratzeko itxurak egiten dituzte, eta ijitoen laguntzarekin, gauza bera egiten dute zamaltzainarekin.

Mari Euskal mitologiako emakume-izaera duen jeinu honek beste herrialde batzuetako izaki mitiko askoren atribuzioak bereganatu ditu eta haitzuloetan bizi izaten da. Batzuetan dotore jantzitako andre bezala agertzen da, eskuetan urrezko jauregi bat duela (Durango, Elosu, Bedoña, Azpeitia, Zegama, Errenteria, Azkaine eta Leskun). Lau zaldik tiraturiko gurdi batean eserita airean barrena ere agertzen da (Amezketak). Sua dariola ikusi izan da (Zaldibia), zeharretara etzaniak airean barrena doala (Bedoña); erratz bat atzetik duela eta kate batzuekin ere agertu izan da (Errezil); ahari baten gainean eserita (Zegama, Oñati); buruaren inguruan

ilargi betea duela (Azkoitia), hegazti-hankekin (Garagartza); ahuntz-hankekin; bele-, sai- edo putre-, zaldi- eta aker-irudipean. Suzko bola eta igitai bezala ere agertu izan da (Oñati, Segura, Orozko, Ataun, Zegama, Ganboako Zuatzu). Lurpean du bere bizilekua eta hauek dira tokirik ezagunenak: Dimako Balzola, Orozkoko Supelaur, Anboto, Eskoriatzako Atxorrotx, Zaldiaran, Zegamako Aketegi, Ataungo Agamunda, Beasaingo Murumendi, Amezketako Marizulo, Berastegiko Obantzun, Altsasuko Odabe, Zugarramurdiko Akelarre, Altxaiko Azalegi eta Gamere-Zihigako Otsibarre. Normalizat jotzen da Mariren bizilekuan urrezko altzariak aurkitzea. Munduan dauden jeinu guztien buruzagi edo erreginatzat hartzen da Mari. Senarra Maju (Sugaar) du eta haserretzen direnean euria eta kazkabarra egiten du. Kontaera batzuek bi alaba esleitzen dizkiote: Atarrabi, ona, eta Mikelats, gaiztoa. Batzuetan kobazuloan Mari izeneko neska gazte bat gordetzen du gatibu, arrazoi desberdinengatik horretaratua. Ilea orrazten eta hariikatzen ikusten den Mari hau ekaitzen sortzaile edo ateratzailea dela uste da. Marik saritu egiten omen du beragan fedea izatea eta lagundu egiten die hiru aldiz “Aketegiko Dama” deituz gero. Zenbait kasutan aholkua eskatu izan zaio. Zenbait tokitan urtero opari bat egiten zitzaion: aharia leizera eramatea izaten zen handiena. XIV. mendean Bizkaiko jaunek behirraiek eskaintzen zizkieten Busturiko haitzean. Badira Mariren aurrean bete beharreko arau batzuk: noka hitz egin, sartu bezala, bira eman gabe irten, eta Mariren egoitzan ez eseri. Marik bereziki zigortzen ditu gezurra, lapurretak, harrokeria eta hantustea, emandako hitza jatea, pertsoneri begirunerik ez izatea eta elkarki laguntza ukatzea. Oinazkarra eta tximista Mari, eta Hodei eta Eate, bere agintepetako atributuak dira.

Maria Galleta Inauterietan gehiegizko jan-edanak egin ondoren Lekeition esaten omen zen esaldia da: "Egin dozue Zarpantzar eta Maria Galleta".

Maria Roka Isatsa garretan zuela eta ilintiak sutan boteaz igarotzen zen emakume mitologikoa. Aizkorrin omen zuen kobazuloa eta Olaztiko mendate gainera pasatzen omen zen Auzkolarre kobara.

marigorri Hegoak tolesturik dituenen bola-erdi baten tankera duen intsektua, gaina gorri bizia, zazpi puntu beltzekin duena. Izen asko ditu intsektu honek: Kattalin gorri, Maria gonagorri, andere kotagorri, Marana gonagorri, Mamanton gonagorri, Txipilota gonagorri eta abar. Euskal Herri osoan zehar intsektu honekin topo egitean haurrek kantatxo bat abesten diote hurrengo egunean zer eguraldi egingo duen galdetuz: "Mari gorri, gonagorri, bihar eguzki ala euri?".

marijesiak Gernikan abesten diren gabon-kantak.

marka Eskuz zein behiak tiraturik hazia erein aurretik soroan ildoak egiteko pertsonak erabiltzen duten lanabesa.



marka

Markitos Zalduondon Inauterietako larunbat gauean gazteak ardandegian biltzen ziren eta buruzagia aukeratu ondoren Markitos panpina antolatzen zuten. Astelehen

Inautez txekorra hil eta panpina prestatzen zuten. Zurezko hankabiko zutikakoa izaten zuen barrutik eta goialdean, zeha-makila batek eratzen zizkion besoak. Garoz beteriko prakak janzen zitzaizkion behetik gora, eta era berean beteriko alkandora janzen zioten, eta gainera jaka, lapikoa burutzat eta kartoizko aurpegikoa gehitzen zitzaizkion. Eskuetan arta-orriak nahiz kartoizko zerrendak ezartzen zitzaizkion. Oinetan artilezko galtzerdien gainera larruzko abarkak garai batean, eta gerora botak ipintzen zitzaizkion. Astearte Inautez, goizean goiz gazteak menditik sasiak ekarri eta herriko plazan metatzen zituzten; gosaldurik ondoren Markitos astoan ezarri eta soinua joz kaleetan barrena paseatzen zuten, eskean egiten zuten bitartean. Elizaren inguruan ematen zitzaion bukaera ibilaldiari, zazpi-zortzi metroko haga batean gizontxoak esekiz eta behealdetik lurrean egindako zuloan tinkatuz. Garaia iristean idi-gurdia hartu eta giza irudia utzitako tokitik atera eta karroan ezartzen zuten. Ondoren hizlariak edo sermolariak bere trebezia erakusten zuten. Markitos, prediku zentzugabea entzun eta gero, epaiturik gelditzen zen. Erruduna gurditik eraitsi, sabelean dinamita sartu eta zuhaitz baten ondora eramaten zuten herrestan. Bertan, oinak lurrean zituela, bukaera ematen zioten Markitosi. Gaur egun Markitosen pantomima Kinkuagesima igandez egiten da.

marko Ik. marka.

marmo Ik. txantxo (Lekeitio).

marraga Artile zakar eta zarpaila, batez ere galtzerdiak egiten erabiltzen zena.

marraizko Ik. marrusketa.

marraxa Ganibet handia, zurezko helduleku bakarreko edo bikoia.

marraza Ik. marraxa.

marrega Iparraldean artile kaskar eta zarpailezko ehuna, batez ere estalki gisa erabiltzen dena (Iparraldea).

marro Ik. txantxo (Gernika).

marroketa Neska-joko honetan bi talde berdinetan banatzen ziren eta erdian marra egiten zen. Bi aldeetako neskek elkarri gerritik helduta jartzen ziren. Bi taldeburuek elkarri eskutik heltzen zioten. Seinalea egindakoan, talde bakoitzak bere aldera egiten zuen indarra, aurka-koak arrastotik pasarazi nahian eta hori lortzen zuen taldeak irabazten zuen (Arribe).



marroketan

marru Ik. txantxo (Mundaka).

marrusketa Zurginaren lanabesa, barneko zuloan zeharka burdinazko xafla ahodun bat duen zurezko prisma batek osatua, zura marruskatu eta leuntzeko erabiltzen dena.

martinetero Burdina urtze-egunean sute-giaz arduratzen ziren lau langileak (Amorebieta-Etxano).

Martisen Aratiste Kinkuagesima ondoko asteartea.

Martisen Karnabal Ik. Martisen Aratiste.

martogi Haurra jaiotzetik hamabost egunera ama berriaren etxean auzoko emakumeek egiten zuten askaria. → *atsolorreta*.

martopil Haurra izan eta hurrengo hamabost inguruko jaiegunetan ama berria ikustera joaten dira adiskide emakumeak, txokolate, azukre, oilo edo antzeko opariren bat eramanez. Opari horiei ikuskei, ikus-sari, karapaio eta abar ere deitzen zaie. Opariak egiteko bisitari atso-lor, atso-lorreta, atso-besta, bateoa, andra-ikustea, emarkariak eta abar esaten zaio.

maska 1. Ik. txantxo (Luzaide). 2. Haxia osatzen duen belar zatia (Eskiula).

maskara 1. Aurpegi-estalkia, batez ere Inauterietan erabiltzen dena. 2. Zenbait herritan mozarrotzen direnei ematen zaien izena, adibidez, Lekeition, Laudion eta Oñatikoko Zubillagan.

Maskarada Zuberoako kanta- eta dantza-multzoa, kalez kale ibiliz kantatu eta antzezten direnak.



Maskarada

maskareta Ik. txantxo (Bastida).

maskuri Giltzurrunei darien pixa biltzen duen mintzezko zorroa. Inauteri eta jaietan sarritan erabiltzen dute buruhandiek txerri-maskuri edo puxika puztua haur eta hazitxoak joz eta festa giroa sortuz.

master egun Ik. Inaute motx.

matarraska Ik. matarraski.

matarraski Orea egiten den mahaian gelditzen diren hondarrak biltzeko erabiltzen den burdinazko tresna.

matasarda Sarde tankerako haga, puska-biltzen erabiltzen dena.

Mateo Txistu Herri-kontakizunetako apaiz honen istorioa era desberdin eta askotara kontatu izan da. Ehiztari amorratua zen apaiz hau. Behinola meza ematen ari zela, bere erbi-zakurren zaunka-hotsak adierazi zioten erbiren bat zekar-kiotela eliz ingurura. Horrenbestez, meza amaitu gabe utzi eta alde egin zuen elizatik. Sakristian zeukan eskopeta hartu eta oinarra-astoak eliz atarian utziz, bere txakurrei segika joan zen. Harrezkero, Mateo Txistu izenarekin ezagutzen dugun apaiz hura hor dabil gau eta egun, gelditze-ke eta atsedenek hartzeke. Haize-erantsi zakarrak eta ehiztariaren txistu-hotsak adierazten digu ezinegonezko bere ibilera. Irakurri pertsonaia mitiko honi buruz, Los perros de Martín Abade (Juan Iturralde y Suite) eta Mitos vascos y mitos sobre los vascos-Eiztari Beltza (Julio Caro Baroja).

matoi Gaztagintzan esnea mamitzean malatsarekin nahasten da. Bizpahiru minutu dirauen nahasketa honen ondoren sortzen den matoia gazuretan bildua gelditzen da; ondoren hartatik atera eta zimitzean sartzen da.

matrailu Mailua (Mutriku).

matraka Kisket edo zurezko mailutxoak (bat edo gehiago) dituen zurezko ohola izaten da. Gora eta behera astinduz, goitik behera eta behetik gora, kisket gisako mailuak jiratu egiten dira, goian eta behean joz. Karrakak eta kalakak bezala, Aste Santuko ospakizunetan erabiltzen da. Lizarraldean “martillos eta completas” deitzen diete. Azken hauek mailu bakarrekoak dira; atzealdetik kirtena dute eta esku bakoitzean bat harturik ezkilatxoak balira bezala jotzen dira. “Compleatas” izena, Aste Santuko elizkizunetarako dei egiteagatik hartuko zuen noski. Aralar magaleko herrietan ere erabiltzen dute Eguberrietan matraka handi bat. Gehienetan jotzaileak haurrak izaten badira ere, helduek ere jotzen dute matraka hori.

matuti Argi-ezkila.

matxalena Zuberoako maskaradan egiten den dantzetako bat.

matxarda 1. Arranparrila. 2. Orrika luzeak. 3. Gaztaina lurretik jasotzeko zurezko kurrika modukoak (Ormaiztegi).

matxino 1. Ola-langilea. 2. Burdina lantzeko tresna, goitik behera higitzen den masa astun batez osatua.

maza Burdinazko mailu edo borra.

mazeta Zurezko mailu modukoa, saskigileek eta beste eskulangile batzuek erabiltzen dutena.

mazo Zurezko mailu gisakoa, mazeta baino handiagoa, ikazkinak, saskigileek eta abarrek erabiltzen dutena.



mazoa

mazokabi Ardatzaren hortzak gabi-oinaren muturrarekin topo egitean, horri eragiten diotenak.

maztar Baserri-gurdiaren gurpilak barrualdetik daraman errebortxazko zurezko zeharretakoa.

mazter *Ik.* maztar.

mazukari Zurezko lau atal, txandaka tikinoiaren paretan sartzen direnak.

mea Minerala.

measaski Mea garraiatzeko saskia.

mehatxu 1. Heriotzako orduan ere barkamenik ez ematea. 2. Leitzako jentilena orrazia lapurtzeagatik: "Ekatzan nere buruko orrazia, bes-tela izango dun hire denborako hezurretako oinazea".

melartu Pieza bat berotu eta mehetzea.

meta Belar ondu edo ihartuaz landan egiten den pila edo mordo, ganaduentzako bazka alferrik galdu gabe iraunarazteko.

metale Lerro angeluzuzeneko arran edo ezkila.

metatxorro Belar meta txikia.

meteorologia 1. Euskal Herrian tradizioz animalien portaeraz baliatu izan dira eguraldiaren zantzuei igartzeko. Aintzakotzat hartu izan diren animalien artean honako hauek dira aipagarriak: armiarma, antzara, harra, luhartza, ardia, aharia, barea, barraskiloa, behia, behorra, zaldia, hegaztiak, eltxoa, eulia, katua, txakurra, erlea, inurria, tximeleta, narrastiak, oiloa, oilarra, enara, usoa, erbinudea, muskerra, muxarra, saguzarra, apoa, satorra, satagina, eta abar. 2. Animalien portaeraz gainera, beste zenbait igarbide-era erabili izan da: a). Egun jakin batzuetan (ilegun, sortelegun,

zotalegun) egiten zuen eguraldia; urtearen lehen hamabi egunak izaten ziren igarregun edo egun augural horiek. b). Santu jakin batzuen egunean egiten duen eguraldia (Andre Mari Martxoko, Madalena, Markos, San Pedro...). c). Hil eta astegun batzuetako eguraldia (martxokoa, apirilekoa, hilaren hirugarren egunekoa, ostiralekoa...) ere adierazgarria izaten zen etorkizuneko igartzeko. 3. Zenbait gauzakeren inguruko gertakariak ere adierazgarritzat hartzen ziren: espartina laxatzea euriaren adierazgarri, titarea hatzak lehortuta eroriz gero euri edo eguraldi hotzaren zantzu, orrika-ertzean txingarra gelditzea biharamuneko euriaren seinale, sutautsa opiltzea euri-zantzu, eta bakailao esekiak behealde bustia edukitzea, ukuiluko hormak izerditan egotea, etxearen habe-harria bustita egotea eta abar euri-adierazgarriak ziren.

metxa Eskuaz eraginez zurean zuloak egiteko lanabesa edo laztabina.

meztidura Hildakoen jantzia, zenbait tokitan Ostegun eta Ostiral Santuz bedeinkatzen zena, Kristoren heriotzaz norberarena gogora ekartzeko.

meztitu Hil-jantzia jarri.

Miel Otxin Lantzeko Karnabaletako pertsonaia, Mile Otxin ere deitua. Erraldi hau bi pago-adarrez osatua da, eta bata besoetarako eta bestea, hankabikoa, zangoetarako erabiltzen da. Txanoa edo kapela du buruan, kartoizko aurpegikoa eta zapia lepoan. Brusa loretsua du soinean eta praka urdinak gomazko polainetan bilduak. Hiru bat metroko garaiera izaten du, eta belar onduz eta garoz barrutik betarik egoten da. Kinkuagesima ondorengo astelehen-eguerdian hasten dira Lantzeko zinu-jaiak, eta astearte arratsaldean Miel Otxin plazara eraman eta bertan tiroz hil eta erre egiten dute. Bitartean txatxoek

zortzikoa dantza egiten dute. Zenbaitetik Miel Otxin garai batean alderdi hartan ibili zen bidelapur baten azkenarekin jartzen dute harremanetan, eta hasiera batean Mila Otxin omen zuen izena (lau pezetako mila dobloi), dirutza hori lapurtu baitzuen.

mihilu 1. Herri medikuntzaren araberan, disipula sendatzeko gomendatzen den belarretako bat: (Foeniculum vulgare, hinojo, fenouil, fennel). 2. San Joan belar sortak mihilua izaten zuen bere osagaietako bat (Zubieta. Nafarroa).



mihilua

mika 1. Mika arrazka edo karranka ari bada Ameriketatik albisteak etorriko diren seinalea: etxe aldera begira ari bada, onak; mendira begira badihardu, txarrak. 2. Mikak Purgatoriokoak omen dira, eta beleak infernuakoak.

mikelete Gipuzkoako Foru Aldundia-
ren mendeko zen miliziako kidea.

Mile Otxin Ik. Miel Otxin.

milotarra Arrantzaleek itsasontzietan erabiltzen duten saskia (Nuarbe).

mimitxor Neska-mutilak aritzen ziren mimitxorren, eta jokoak hasi baino lehen, korroan jarri eta ondorengo hau esaten zuen batek: "Don-don-ite-sakitis-sakiti-fuera-doña-Petrasala-muera-tukisiera- fuera". Gauza bera errepikatzen zuten behar

adina aldiz, jokalaria kopuruaren araberan, eta azkeneko "fuera" egokitzen zitzaizkion jolaskideen atzetik abiatzen ziren, baina aldiko harrapatzaile bakarrak egin behar zuten lasterka "topo eman gabe" ihes zihoazenen atzetik. Harrapatutakoa horma kontra eramaten zen, segitzaitetakoren batek zainduta, eta jokoak aurrera egiten zuten, harrapatuak katean "preso" jartzen ziren bitartean. Zenbat eta preso gehiago, orduan eta zaintzaile gehiago jartzen zen. Ihesean zebile-
netako batek "soka" edo katean egonetakoren bat ukitzen bazuen, "mimitxor" esatearekin batera "presoak" libre geratzen ziren ihesari emateko. Hori galarazteko, zain-
tzaileak aski zuen asmo horrekin zebilena alde aurretik ukitzearekin. Iheseko guztiak harrapatu eta katean jarritakoan ematen zitzaion amaiera jokoari (Berastegi).

mitxilarga Ik. txantxo (Lezaun).

mizki Arran edo kanpaiaren mihia.

mizto Erle eta beste intsektuen eztena.

moko Oletan erabiltzen zen burdinazko kakoa.

mokor-mailu Ik. alper.

molda Amugileak erabilera desberdinetarako baliatzen duen moldea.

molde 1. Eskulangileak maiz erabiltzen duen lanerako baliabidea ekoizkiei forma jakina emateko. 2. Olagizon eta errementariak erabiltzen zuten moldea, zenbaitetan buztinez estalia.

momoxuerre Ik. txantxo (Dorrao).

momuxarro Ik. txantxo (Urdiain).

moneiak Zuberoako maskaradan egiten den dantzetako bat, aitzina-pika eta baskaleta izenekoekin batera.

montanes Zume osoak edo eklixe lodienak.

morko Suila. Ontzia.

morkots Ik. mulko.

morroi Baserri-munduan, inoren etxean lan egiten zuena mantenuaren eta diru-laguntza txiki baten truk. Morroia nagusiarekin bizi izaten zen, baina Gabon gauean bere jaiotetxera itzultzen zen.

morroilo

Ateetan kokatzen den burdinazko tresna, haiek giltzaz itxi eta irekitzeko erabiltzen dena.



morroiloa

morroko Ik. morroilo.

mota-belar Herri-medikuntzaren araberako disipula sendatzeko gomendatzen den landarea: (Tanacetum vulgare, tanaceto, tanaisie, tansy). San Joan-loreheri ere esaten zaio.

moxorro Ik. txantxo (Ekai. Arakil).

moxorroko Ik. txantxo (Zuatzu. Arakil).



mozorrotuak

mozorro 1. Kartoi, ehun, larru edo abarrezko irudia, aurpegia irudika-

tzen duena eta begitartea estaltzeko erabiltzen dena. 2. Txorimama, katamaloa: San Joan bezperan eta festa-giroan, eskolameek txoriak izutzeko mozorroak biltzen zituzten, ondoren San Joan suan erretzeko (Berastegi).

mozorro-jantzi Desgizatzeko erabiltzen den jantzia.

mozorrotu Aurpegia eta gorputza mozorroz estali.

mudao Izabako Inauterietan mozorroturik ibiltzen zena; ahotsa ere bestelakotzen saiatzen zen eta hortik datorkio izena.

mugarri 1. Mugarriek etxe eta baserrien arteko lur-sailak markatzen zituzten eta garrantzi handikoak izan dira iraganean eta gaur egun ere. Ondorioz, mugarriak aldatzea delitu larria zen eta egintza horien inguruan herri-irudimenak zigorkontatera ugari sortu du. 2. Intzan, mugarria isilka aldatu zuen bat garrasika aritzen zitzaion artzain bati eta apaizak esan zion arima bat izan zitekeela eta galdetzeko zer nahi zuen. Hala egin zuen artzainak eta hildakoak eskatu zion aitzurra bizkarrean hartu eta gaueko hamabietan toki jakin batera joateko. Han hildakoak mugarria behar zen lekuan jartzeko agindu zion. Artzainak hori egitean hildakoak esan zuen "Orain lasai gelditzen nauk, zeren infernuak hartuko naik-eta, orain arte ez baininduen ametitzen". 3. Beste hildako bat, alde aurretik mugarria lekuz aldatu zuena, nagusiarengana joan zen harri hura bizkarrean zuela eta "Mugarri, mugarri, nire arimaren galgarri" esanez. Orduan, nagusiak galdetu omen zion "Zer duk, zer duk?" eta hark erantzun "Mugarria hemen duk, mugarria hemen duk" eta hori esatean bere lekuan utzi zuen mugarria, ostutakoa itzuliz. Gisa honetako kontaerak, zenbait

aldaketarekin, oso ugariak dira Euskal Herri osoan.

muilo 1. Iztupa, amukoa. 2. Iruteko gaia, goruan jartzen dena.

muin 1. Animalien hezur batzuen barnealdea betetzen duen gai bigun eta zurixka. 2. Zerbaiten zatirik barnekoena, bereziki zurarena, bihotza ere deitua.

mukanas txaxa Neska-mutilek korroa osatzen zuten bat kanpoan utzita. Hark eskuan zapia hartu eta "mukanas txaxa" esaten zuen bitartean lagunengandik inguruan biraka hasten zen. Halako batean, korroko norbaiten atzean zapia uzten zuen oharkabean. Beste itzulia osatzerako zapia atzean zeukana ez bazen ohartzen, korroaren erdira pasatzen zen beste norbaitek bere lekua hartu arte. Zapia atzean zeukana konturatu bazen, hura utzi zuenaren atzetik abiatzen zen harrapatzeko asmoz. Itzuli osoa egin aurretik ukitzen bazuen, harrapatutakoak korroaren erdira pasatu behar izaten zuen. Erdian zegoenak korroan hartzen zuen tokia eta zapia eskuratu zuenak ordu artekoa bera errepikatzen zuen, lagunengandik atzean lasterka, norbaiten atzean zapia utzi arte. Lehen itzuli hori egin aurretik harrapatzen ez bazuten, zapia utzitakoa korroan jartzen zen eta jaiki berriari zegoen jokoari jarraitzea. Urte osoko jokoa zen, airepean zein aterpean egiteko modukoa (Muskildi).

mulko Mordoa, mahats-ale edo gaztaina alezko multzoa (Tolosa). Gaztainak gehienetan hiru ale izaten ditu, eta behin, hiltzeko zorian zegoen bati mundu honetatik penarik ba al zeraman galdetzean, erantzun zuen: "Bai, molkoaren erdiko gaztaina alea ez jan izana". → *morko*.

mumuzarko *Ik. txantxo* (Ezkaroze).

muñaina Zuberoako maskaradako dantza. Mutil-dantza bat da eta zamaltzaina inguratuz egiten da, manañe eta marexalaren aurretik, zamaltzaina irendu baino lehen.

murkil Kilo-estalkia (Otsagi).

Murumendiko Dama *Ik. Mari*.



muskerra

musker 1. Muskerra aurpegira igozgero, ondorio horretatik sendatzeko zazpi herritako kanpaiak entzun behar ditu eta, gainera, muskerrak ukituari zazpi gona gorri jantzi behar zaizkio. 2. Musker, suge eta antzeko piztiei buruz hil esanez gero harri baten gainean mihiatz hiru bider gurutzeta egin eta beste hainbeste bider muin egin behar zaio. Gero harria urrutira bota behar da, haren zarata entzun gabe. 3. Muskerra agertzen bada edo kantari ari bada, sugea hurbil dabilelako seinalea.

musugitarra *Ik. tronpa*.

musumusika *Ik. tronpa*.

mutikiak San Joan sua pizteko garraiatzen ziren hosto-abar eta oteak (Olazti).

mutiko-dantza Inauterietan egiten zen dantza (Etxaleku. Amaiur).

mutil lagun Mutil gazteen artean izendatutako Mutil Nagusiaren edo Maiordomoaren laguna (Etxaleku).

mutil nagusi *Ik. maiordomo* (Otsagi).

mutil-dantza *Ik.* mutiko-dantza.

mutizarko *Ik.* txantxo (Auzperri).

muttu Unanuko txantxo edo mamoxarroak panpaxlarik gabe, edozein erataro edo zabar jantzita ibiltzen direnak.

mutxizu Belar, gari eta abarren meta txikia (Loiola-Azpeitia).

mutxurio 1. Osa-zumitzak goitik behera tolestu eta muturra bildurik zume mehe batez lotuak (Zumarra). 2. Soroan gari-balekin egiten ziren metatxoak.

Nn

nabala *Ik.* labana.

nabaldu Aziaz zumitza leuntzea (Igantzi).

nabar 1. Laiatu aurretik lurra markatu edo zohia ebakitzeko erabiltzen zen lanabes horzduna (Tolosa). 2. Golde mota batzuetan, lurra ebakitzeko duen hortza, lurra iraultzen duen goldemuturraren aurrean kokatua.



nabarra

Nafar gaita Pita, tutua eta tonua emateko eta aldaketarako zuloak dultzainak bezala dituen soinutresna. Kasu askotan, tutua behealdetik eta pita lotzen dituen mutur

batean txapadun katea izaten dute. Dokumentu zaharretan ikus dezakegunez, aspaldidanik Euskal Herri osoan erabili da nafar gaita. Baina XX. mendearen hasieran atzerakada hasi zen eta oso gaitari gutxi geratu ziren, Lizarra aldean besterik ez ia-ia. Ondoren, han eta hemen, tresna bultzatzen ari diren talde berriak sortu dira. Gipuzkoa eta Bizkaian salbuespen gutxi izan ezik, gaiteroak musika ofizialetik urruti aritu badira ere, Araba eta Nafarroan gehienetan “musika-eskolako” musikariak izan dira, eta kasu askotan, banda edo orkestrako beste soinu-tresnaren bat ere jo dutenak. Inguru horretako herri eta hirietan entzuten da soinutresna honen hotsa festetako goizsoinua ematen, erraldoi eta buruhandien konpartsak mugitzen, plazetan kontzertuak eta dantzarako musika eskaintzen... Antzinako errito edo ospakizunetako dantza askotan erabiltzen dela ere aipatu behar da.

nagiari *Ik.* alper-zesto.

nanarro *Ik.* txantxo (Arribe, Atallu, Betelu).

naranja-biltze Astelenita eta Astearita egunetan goizean egiten zen puska-biltzea (Areso).

nardai Abere-pare batek tiraturik enborrak garraiatzerakoan erabiltzen den burdinazko tresna; anilo bat du txingari tira egiten dion katearentzat, eta nardai edo urkila, barruan pertika daramana. → *nardaka*.

nardaka Hauspo-puioi, hauspoari eragiteko euskarria. Makila labur antzeko bat zen, hauspoari goialdean erantsia berau mugiarazteko.

nardaka-sarde Nardakaren urkila.

nardaki *Ik.* nardai.

narra *Ik.* alper-zesto / *Ik.* lera.

narru Larruzko bizkarrekoa Inauterietako jantzietan erabiltzen dena (Altsasu).

nasa Kaia.

natza *Ik.* ardatz.

naza *Ik.* antapara.

negarti 1. Haur negartiak norbaitek begizkoa egin dielako izaten direla horrelakoak uste izan da; horregatik ermita eta toki jakin batzuetara eraman izan dira horretatik jaregiteko: Ubidea ondoko Santa Engraziara, Anoetako San Joanen ermitara, Lazkao eta Olaberriko San Joanera, Eaurta edo Muskildako Andre Mari Zuriarengana, Murelagako San Joan Degolladorara, Lekeitio San Joan Talakora. 2. Antzina, hildako gorpuaren inguruan bere nahigabea erostaka eta adia adierazten zuena.

nekabihur Gurdiaren zama tinkatzeko taketak elkartu eta errebortxatzen dituen oholetako bat.

nekazari Lurra landuz bizibidea irabazten duen pertsona.



nekazariak

nekezale *Ik.* nekazari.

nerbio Herri-medikuntzaren arabera, San Joan goizean bedeinkatutako ezki-lorearen ura hartu hiru goizetan hurrenez hurren.

neska-laguntze Ilunabarrean plaza-festa amaitu ondoren mutilak neska-erako bidean laguntzea.

neskame 1. Emakumezko zerbitzaria, batez ere etxeko lanak egiten diharduen neska edo emakumea. 2. Beheko suan erabiltzen den tresna eta laratzetik esekita egonik lapiko, burrunzali, zartagin eta abar berotzen jartzeko balio duena.

neskato *Ik.* neskame.

neskatx-etxekoandre Neska Nagusia edo Maiordoma, Mutil Nagusiarekin batera aukeratua (Orokietara).

neskixa *Ik.* piper-opil (Lizarraga-Ergoiena).

neurkin Oletan ura erregulatzeko peailleak kakoari tira egin eta heldulekua tinkatzeko erabiltzen zuen metalezko llanta zuloduna.

neurri-makila Sasaki mota bakoitzaren arabera ezaugarri desberdinak dituen haga (Arantza).

Nini Ihabarko Inauterietako panpina, zur puska bat oihalez estalia, pantomima baten barruan erabiltzen zena.

ñañarro Betelun igande lotez eta erromeriako orduan ñañarroak edo mozorroak irteten ziren, hariak eta ilun-ezkila jo arte.

Oo

Obispo(txo) *Ik.* San Nikolas.

obrera Oletan erabiltzen zen liho zakarrezko kamisoi laxo modukoak, idunean oso irekiak eta gerrian lotu gabe erabiltzen zirenak. Lepotik

behera txingarren bat sartzen bazi-tzaion olagizonari, obrera astintzea aski zuen lurrera botatzeko.

odoljarrio Herri-medikuntzaren arabera, sudurretako odoljarrioa sendatzeko lepoa urez busti-busti egitea da onena.

odontalgia 1. Hagineko minarentzat, patar txuria ahoan hartu eta mina dagoen lekuan geldi edukitzea gomendatzen da. 2. Aizkoraren burua trapu batean bildu eta mina dagoen aldetik aurpegian ezarri oinazeak alde egin arte.

ofrage Norbait hiltzean, elizara eskaintza gisa zerbaite eramatea, esate baterako, oiloa, botila bat ardo, lau (bi) anega gari.

ogia 1. San Blas egunean bedeinkatzen den ogia ez omen da lizuntzen. 2. Hizketan atzera dabilen haurrari eskale baten ogia ematen zaio. 3. Ogia azpikoz gora jarriz gero Jainkoa, Ama Birjina eta Santa Rita negarrez egoten dira eta Garbitokiko arimak minez. 4. Ogi bedeinkatua ona omen da txakur amorratuak hozka egindakoentzat. 5. Ogi kalekoa: Ostegun Gizenean eta Iñauteri asteartean Ezkion torradak jateko ohitura zuten eta horretarako kaleko ogia ekartzen zuten okindegitik.



ogia

ogi nagusiko Lehen mailako hileta (Elgeta).

ogi oso Etxejabeak eskaintzen zuena (Baliarrain).

ogi salutadu Bizkaiko zenbait tokitan Gabon gaueko afaritan gordetzen zen ogi koskorra; ogi horrekin lau mahai-ertzak ukitu, erdian ipini, muin egin eta urte guztirako gordetzen zen, eta ez omen zen lizuntzen.

ogi-erdi Maizterrak edo erreterroak eskaintzen zuena (Baliarrain).

ogi-otarre Ogia erabiltzekoa (Nuarbe).

ogi-saski Ogia erabiltzekoa (Beterrri).

ogi-zopa Ogia saldatan.

oihal 1. Artilezko ehun sarria eta ile-laburra. 2. Zernahi gaiez eginiko ehuna edo zapia. 3. Haur jaioberriarren zapiak. 4. Antzoki baten agertokian igo eta jaits daitekeen ehun zati handia. 5. Ontziak haizearen bultzada hartzeko erabiltzen duen ehuna.



oihalak

oihal beltz Hildakoaren urteurrenean familiak ofrenda estaltzeko erabiltzen zuen kolore horretako mihisea.

oihal zuri Hildakoaren urteurrenean familiak ofrenda estaltzeko erabiltzen zuen kolore horretako mihisea.

oilar Oilarra eta oiloa oso etxeko eta garrantzitsu izan ditu euskaldunak eta horregatik uste eta sineste

mota ugari sorrarazi dute. 1. Elorri diote oilarrak hiru bider kantatuz gero ez dela ezer gertatzen, baina kukurruku gehiago eginez gero, eguraldia txarra izango dela edo norbait hilko dela. 2. Gauerdi aurrean oilarrak kukurruku egiten badu sorginak gertu dabilta, eta kandela bedeinkatua piztu eta gatz sutara bota behar da. 3. Gau beranduan edo ordu biak baino lehenago joz gero Garbitokiko arimak otoitz eske dauden seinalea da. 4. Oilarrak arratseko bostak ezkerre jotzen badu, edota zuhaitzetan gora igotzen bada, hogeita lau ordu barru euria egingo du. 5. Norbait luzaroan gaixo dagoenean, sorginek burukoaren barruan lumazko oilar bat eratzen dutela esan ohi da; gaixoa sendatzea nahi bada, oilar hori bidegurutzetara eramanez eta bertan erre egin behar da.

oilar-joko Hegazti horien arteko borroka, festa edo apustu gisara antolatua.

oilarpoztan *Ik.* azeribuztan.

oilarri 1. Hegazti ura edateko harrizko ontzi biribila. 2. Lau-hortz izeneko burdinazko lanabesaren burua, pertikan sartzen dena.

oilasko-joko San Joan hirugarreneko bazkalondoan eta beste festa batzuetan zenbait herritan egiten den joko. Herriko bi gazte talde goizeko seietan jaiki eta oilasko-biltze izeneko eskean ateratzen dira, tabernaren batean kafea hartu ondoren, txapela, brusa eta abarrik jantzirik. Talde bakoitzak haga bana eramaten du eta bertatik esekitzen dituzte oilaskoak. Arratsaldean plazako lurrian kaxa bat jarri estalki zulodunarekin eta hegaztia zulotik lepoa agerian duela jartzen da. Ondoren, txistu-soinuarekin, gazte batek begiak estali eta eskuan daraman ezpataz oilaskoari lepoa mozteari ekiten

dio. Oilasko horiekin afaria egiten da (Amasa, Askizu-Getaria).

oilo 1. Oiloa zorriketan hasten bada, eguraldia txartuko du. 2. Oiloak kukurrukuta hasten badira, mututu eta banan-banan lumak erortzen zaizkie; norbait hilko da etxean edo eguraldia aldatuko da. Zenbait tokitan berehala hiltzen dute oilo kukurrukularia. 3. Oiloek beren klok-klok hotsa entzunarazten dutenean, laster arrautza errungo duten seinalea. 4. Oiloren bat etxera ekartzen denean, lehen egunean, etxeko-andreak hiru bira emanarazten dizkio laratzaren ondoan esanez: "Etxerako zara eta etxerako izan zaitez".

oilo-biltze Zenbait tokitan puska-biltzeak hartzen zuen izen berezia, hegazti hori eskean jasotzen zelako.

oiloen urarri *Ik.* oilarri.

oilo-gaitz Lierniko Ama Birjinaren egunean baserri askotatik oilandarik ederrena eramaten zen izen horretako baselizara. Oparia egindakoan izena hartu eta salda ematen zion ermitazainak.

oinarrika *Ik.* txingo (Gernika).

oinel Ehundegiak oinaren bidez eragina izateko duen atala.

ointegi *Ik.* oinel.

okaila Ardien eritasuna, kokospaan gertatzen zaien handituan datzana.

okarina Erdia zilindrikoa eta beste erdia sasi-konikoa den buztinezko ontzi luzexka da. Haizea bideratzeko moko-flauta antzeko pita du. Arruntenek, tonu-aldaketarako zortzi, bederatzi edo hamar zulo izaten dituzte (horietako bat edo bi atzealdean). Bi eskuarekin hartu eta pita ezpainetan jarririk haizea emanez, beste flauta bezala jotzen da. Gure

inguruko beste lekuetan bezala, Euskal Herriko herri eta toki askotan erabili dira soinu-tresna hauek.

oker Ihizko sillaren aurreko hanken gainetik irteten den gupil aldea esku-zerraz ebakitzen da. Ondoren eskulangileak mutur batetik bestera zur zati makotu bat ebakitzen du oker deritzana.

okondu Saskiaren karelak oker handiena duen gunea; karelak lau okondu ditu (Arantza).

ola Lur leuna desegin eta apurtzeko nekazariak erabiltzen duen tresnaren izenetako bat, hesi eta espardea izenak ere hartzen dituena.



ola

olagizon Burdinoletan lan egiten zutenak.

olajaun Olaren jabe edo nagusia.

olajaundegi Olajaunaren bizilekua.

olata 1. Elizan eskaintzen zen ogi txikia. 2. Lur ematearen ondoko hiru igandeetako mezari olata deitzen zitzaien. 3. Gabon eta Urtezahar gauean, Ataungo San Gregorion, baserri eta kalean egindako eskean, gazteek jasotzen zuten hiru puntako opila.

olatxu Olatik hurbil kokaturiko beste lantoki bat.

Olentzaro Euskal Herriko pertsonaia mitologikoa, Gabon gaua eta neguko solstizioa irudikatzen dituena. Izen eta jatorriari buruzko teoria desberdinak daude eta Lesaka izendatu zaio jaioterrizat. Bere kanpo itxurari dagokionez,

Jesusen jaiotzaren berri ematera jaitzitaro artzain bezala irudikatu izan da. Kanta eta ohitura ugari (haurrei opari eta jostailuak ekartzearena barne) sortu dituen pertsonaia honi izen desberdinak eman zaizkio: Olentzaro, Olentzero, Onentzaro, Onontzaro, Orentzago, Orantzaro eta Orentzaro. Hala ere esan beharra dago, Olentzaro Beterrin, Bidasoa inguruan, Gipuzkoako itsasertzean eta Nafarroako mendialdean ospatu izan dela batez ere, eta zenbait tokitan Olentzaro haurrak izutzen zituen pertsonaia bezala ere ikusi izan dela.

Olentzaro-eske Gabon edo Olentzero egunean egiten den eskea; antzina baserri bakoitzean oilaskoa emateko ohitura zegoen (Urkizu-Tolosa).

olgura Zuraren parterik gazteena, giharra ez dena (Aramaio).

olha Artzainaren txabola (Larrañe).

ondasaski Baserriarren artean erabileratu ugari izan duen otarrea, simaurketan, eta arbia, erremolatxa eta abar garraiatzen eta antzeko beste lanetan. Bizkarrean erabiltzen zen.

ondaski Ik. ondasaski.

oneztarri Ik. tximista.

ongarrisaski Simaur eta ongarriekin erabili izan den saskia, ondasaskiaren antzekoa.

ontza 1. Ate- eta leiho-banden atal arra. 2. Pisu zaharra, erromatar libarren hamabirena eta libra arruntaren amaseirena balio duena. 3. Luzera-neurri zaharra, oinaren hamabirena (23mm. inguru), gaur egun batez ere enborraren lodiera neurtzeko erabiltzen dena.

ontzigile 1. Lurrezko ontziak egiten dituena. 2. Kostako zurgina, txalupagilea.

opatxur Aitzur txikia (Asteasu, Lazkao).



opatxurra

opera Eskaintza (Albiasu. Uitz).

operatu Eskaintza egitean apaizaren estolari muin egitea (Albiasu. Uitz).

opots *Ik.* sega-poto.

Orakunde Ostegun Gizenaren beste izen bat da, eta Emakunde eta Gizakunde egunetan ez bezala, ospaketa ororentzat edo guztientzat dela adierazten du.

oramahai 1. Irina, galbahetik pasa ondoren, botatzen zen buruz behe-rako konoaren itxurako kaxoia (Ormaiztegi). 2. Ogia eta taloa oratzeko mahaia.

Orantzaro-trunko Gabon suaren saihetsetan jarri izan den enbor lodia.

orbel Hosto edo orri iharra, aziendaren azpietarako biltzen zena. Orbel-biltzaileen afaria jai giroan egiten zen bilketa-lanak bukatu ondoren.

orbiko Hozpiko deituriko aitzurraren bi hortzak.

ordi *Ik.* asto-saski / *Ik.* ongarrisaski.

oremahai *Ik.* oramahai.

orga Bi edo lau gurpileko ibilgailua, gurtabereek tiratu eta zamak garraiatzeko erabiltzen dena.

orgaegile Orgak egiten dituen.

orga-errotaren ferra Gurdi-gurpilaren lanta.

orgari Orgazaina.

ori Patsa edo jotako sagarraren gainean ezarritako pieza luzanga, horietan barrena muztioa sobrekantalen gainetik igaro dadin; dolarea baino bost bat zentimetro laburragoa izaten da eta lau izaten dira eskuarki.

orin 1. Orain, orainen, sort-seinale eta kika ere deitzen den hori ez duena sorgina omen da. 2. Orina eskuinaldean izatea, seinale ona da; ezkerrean izatea, txarra. 3. Orina ikusten ez den tokian daukana aberastu egiten omen da.

orraz 1. Orratz edo iskilinba lurrean ikusi eta jasotzen ez duen emakumea ez da emakume. 2. Orratz lurretik jaso eta gordetzen duena beti pobre izango da. 3. Orratza nahiz beste edozer, bertan utzi behar da, jabeak hantxe aurkitzeko.

orraz-joko Neskek eskolatik irtetean egiten zuten joko hau batek eskuan orrazak gordetzean eta "Bikoitzak ala bakoitzak?" (Bikoitiak ala bakoitiak) galdetzean zetzan. Erantzuleak asmatzen bazuen, orrazak bereganatzen zituen, eta, bestela, alderantziz egiten zen (Ormaiztegi).

orraz *Ik.* abar sorta.

orrazi 1. Gai desberdinezko tresna, hortz mehe eta sarriz osatua, ilea bereizi eta apaintzeko erabiltzen dena. 2. Ez da jaso behar orrazirik lurretik laminaren bat bila etor ez dadin. 3. Orrazia neskatxaren baten burutik erortzen bada, senargaia harekin pentsatzen ari den seinalea.

orre *Ik.* ipuru (Erro).

orro Burdina mazopean tiratzen denean tinkatzeko lanabesa.

ortots *Ik. ekaitz (Arraioz).*

Ortzegun Gizen *Ik. Ostegun Gizen.*

osagari *Ik. osasun (Iparraldea).*

osasun 1. Norbaiten heriotzaren atsekabea ematen denean "Osasuna enkomendatzeko" esateko ohitura izan da zenbait lekutan. 2. Topa egitean "(Nire) Zure osasunean, osasunerako" esapideak erabili izan dira.



osasuna

osin *Ik. asun.*

ospel Herri-medikuntzaren arabera, ospelak sendatzeko ona da oinutsik mahatsaren gainean ibiltzea muztioa ateratzekoan.

ostabar San Joan suan erretzen ziren haritz-abar meheak (Olazti).

ostadar 1. Izen asko du egurats-fenomeno honek euskaraz: auriadar, buztarri, Erromako zubi, Jainkoaren zubi, gerriko eta paxa, ortzadar, ostarku, Frantziako zubi, ostrailaka, ostarrika, San Migelen zubi, zubiar, ustruku eta abar. 2. Ostadarrak lurra jotzen duen tokian mutilak neskata bihurtzen omen dira eta neskatak mutil. 3. Ostadarra agertzen denean bederatzik eguneko euria izaten da. 4. Ostadarrari begiratu gero hortzak usteldu egiten dira. 5. Ostadarrak bidaiariei Erromarako bidea erakusten die.

ostargi-belar *Ik. lirio.*

Ostegun Gizen Kinkuagesima aurreko osteguna.

ostots 1. Ostots edo trumoi gogorra denean gatz bedeinkatua botatzen da sutara, eta kandela bedeinkatua ere pizten da. 2. Ate-leihoetan argizarizko gurutzetxo bat ezartzen da, eta atarian belar bedeinkatua, erramu hostoa edo San Joan belarrak erretzen dira. 3. Aizkora bat jarri behar da gora begira eta kandela bedeinkatua piztu. 4. Santa Barbarari errezatzen zaio. 5. Tximistak daudenean pagoaren eta gaztainaren azpian egotea arrisku handikoa da, elorri azpian egotea ez. 6. Elorri adarrak babestu egiten du tximistatik. 7. Ostotsa denean kartak airera bota behar dira, ostots horiek infernukoaren astruziak baitira. 8. Ostotsa denean esan ohi da: "Txerren bolaka dabil", "Deabruak elkarri sua egozten ari dira", "Karakolen danbolina", "Oraintxe dabilta mutilzaharrak eta neskazaharrak". 9. Ostots egunetan apaizak, konjurua egitera joaten zenean, sakadiz janzten zituen oinak.

ostri Zeru urdin edo oskarbiaren antzinako izena.

otalgi Herri-medikuntzaren arabera, olio epeldu eta zapi zuri batez bi tanta sartu belarri-zulo minduan, eta zapia ere bertan utzi.

otarre Saskia, otar eta otarri, otzare, otzara ere deitua. Otargile deritza egileari.

otasa Zekale- edo zikirio-irinez egin dako ogia (Ormaiztegi).

otasarde Otea jasotzeko sardea.

otasega Hogeita hamarren bat zentimetroko ahoa, sega arruntak duena baino laburragoa, otea, garoa eta

abar ebakitzeko erabiltzen dena (Ormaiztegi).

otaska Arbia, lastoa, otea eta abar zehatzeko ontzi berezia.

ote 1. Zuhaixka abartua, hostoak arantza bihurturik dituena, lore hori usaintsuak ematen dituena: (*Ulex europaeus*, tojo, ajonc, furze). 2. San Joan sua pizteko otea, arbak eta laharrek erabiltzen ziren (Aia, Altzola, Laurgain).



otea

Otsabilko Kinkuagesima igandearen aurreko osteguna, Ostegun (Eguen) Gizen eta Zuri ere deitua (Ataun).

otsalar Arrosa basa, bereziki zurtoin malguak dituen arrosa-aldaera (*Kerria japonica*). Otsalarrezko arku baten azpitik pasatzen zen artaldea mendian zorte ona izateko.

otxabatu Ertzak leundu.

otzara *Ik.* otarre.

ozkarri *Ik.* ostots (Zumarraga).

ozpinarri *Ik.* tximista.

Pp

padera *Ik.* danbolin (2) / *Ik.* zartagin.

paila Burdinazko edo kobrezko ontzia, ahoa biribil oso zabala duena eta behe aldera estutuz doana; brase-

roaren azpian jarrita argizarigileak bere lanean erabili izan du.

pailata Abereei bizkarrean ezartzen zaien estalki edo burusia (Larrañe).

pajaera Amugileak koraina egiteko erabiltzen duen tresna.

pala 1. Kirten bati loturiko zurezko edo metalezko xafla zabal batez osatutako lanabesa, zeregin desberdinetarako erabiltzen dena. 2. Pilotan jokatzeko tresna, heldulekuaren muturrean mehea eta gainerakoan aski zabala den zurezko atal batez osatua.



pala

palanka 1. Burdinaga, puntu batean bermatzen eta hari buruz biratzen den burdinazko barra, gauza pisuak jasotzeko edo mugitzeko erabiltzen dena. Perzkinak, harrobietako langileek, palankan jokatzeko dutenek erabili ohi dute; euskal mitologian ere agertzen da. 2. Palanka-jokoan erabiltzen den burdinazko barra.

palanka-joko Burdinazko barra bat ahalik eta urrutiena jaurtitzeko dantzaren jokoa.

palankari Palankarekin lanean edo jokoa aritzen dena.

palanka-sarde Burdinoletan erabiltzen zen burdinaga laburra (Leitza).

palar 1. Burdingintzan moldeetako kobreak bikorrak zituenean horiek kentzeko erabiltzen zen pala edo karrasgailua. 2. Baserrian, pala zabaleko aitzurra, bidezainek erabiltzen dutena eta eskuarki ukuiluen zainketan erabiltzen dena.

paldiño-joko Mutikoek harri gainean egiten zuten joko honetarako, aurrena kartoiaz "paldiño" izeneko

biribilak egiten ziren, batzuek txikiak eta besteak handiak eta lodiak. Txikienak, "lauko" itxurakoak (bost zentimo), bi koloretan margotzen ziren tintaz edo lapitez. Mutiko bakoitzak bere "paldiñoa" jartzen zuen harri gainean, metatxoan osatuz. Bi mutiko baziren, bi "paldiño" bata bestearen gainean. Hiruzpalau metrotik "paldiño" handiagoa eskuan hartu eta arrasean, lurretik hurbil, txikiagoak jotzen ahalegindu behar zuen, ahal zuen hurbilen uzten bestela. Honen ondoren berriro "paldiño" handia hartu eta txikien gainera bota behar zuen, bira eman eta kolorez aldatzeko. Hori lortzen zuenak "paldiñoa" bereganatzen zuen (Errazkin).

pamerial 1. Ik. familiari 2. Sorginkeria, begizkoa, enkantamendua.

pamitsa Eskaintzako taloa (Zigoitia).

pandero Neurri desberdinetakoa eta borobila den bost zentimetro inguru altuko egurrezko euskarria. Bere bueltan, bat edo bil ilaratan jarririk, dozena erdi bat txinda-pare izaten du. Alde batean, ondo tenkaturik, larruzko mintza izaten du. Esku eta behatzekin jotzen da eta oso eza-guna eta erabilia da Euskal Herrian. Erabili den modurik sinpleena, bakarrik eta ahotsarekin batera osaturiko taldea da: alde batetik, ahotsarekin doinua eta hitza, eta bestetik, erritmoa markatzen da panderoarekin. Bizkaiko argazki zaharretan, arrabita-biolinarekin batera agertzen da erromeria giroko inguruetan. Lurralde honetan eta Gipuzkoan, dultzainarekin ere askotan agertzen da. Albokarekin osatutakoa dugu beste talde arrunta. Kasu honetan, pandero-jotzaileak betebeharrak bikoitza izaten du: erritmoa markatu eta koplak kantatu. Akordeoi diatoniko edo trikitia gure ingurura sartu zenetik, panderoa izan du lagun, gaur egun trikitia talde bezala ezagutzen

dugun moduan. Panderoa asko erabiltzen da gaurko euskal herri-musikan. Beste soinu-tresnetan joleak emakumezko gutxi badira ere, panderoaren kasuan emakumezko pandero-jotzaile asko dauzkagu.



panderoak

panel Ik. abar sorta / Ik. abaraska.

panpalina Zortzi bat zentimetroko luzera duen arrana, zintzarria, ahoa zertxobait makotua, diametroan sei bat zentimetrokoa.

panpaxil Ik. txantxo (Unanua-Ergoien).

panpina 1. Gizakia, batez ere haurra irudikatzen duen jostailua. 2. Berezikari Inauteri batzuetan erabiltzen dena.

Pantzart eguna Ik. Zantantzart.

paperezko soinu-tresna Haizezko soinu-tresna zahar izorratuak edo hauen itxura duten gezurrezko tresnekin eginak dira. Turuta-sistema duen pita jartzen zaie. Pita ahoan jarririk, haizea botatzen da, eztarriarekin hotsa eta tonua emanaz. Jotzaileak eman nahi duen doinua kantatu behar du. Hau, paperxoaren bibrazioz aldatu eta handiagotu egiten da. "Fanfare" taldeetan erabiltzen dira. Ohitura zen koadri-

lan egiten ziren paseo eta kale-bueltetarako musika-taldea kontratatzea. Musika-taldea, zenbat eta handiago, hobe, baina garestiago ere bai. Horregatik, musikari gutxi batzuk kontratatu eta horiekin batera “gezurrezko” jotzaileak ateratzen ziren besteekin nahasturik, hotsa eta itxura erantsiz.

papiolauketa *Ik.* arrenaketa (Hernialde).

para *Ik.* pala.

parafina Ezkoarekin batera kandela eta bildumenak egiteko erabiltzen den gaia, 50 eta 60° C-ren artean urtzen dena, hidrokarburo-nahastura batez osatua. Papera iragaizteko ere erabiltzen da.

parotiditis Herri-medikuntzaren arabera, San Joan goizean bedeinkatutako intsusa-lorea txigortu olio pixka batean eta lepoa igurtzi horrela gingilari (gangailari) edo “xagui” erasotzeko.

partan *Ik.* mantar.

parte txarreko Akerra / txakurra. 1. Gauean zakurra uluka hasten bada, inguruko norbait hil egingo omen da. 2. Txakur batek usain txarreko zerbait egin nahi duenean, bere lana alferreko izan dadin, mutil bik elkarri helduko diote hatz txikiak, eta bata bestearen izena errepikatuko du. 3. Akerra dela-eta esaten dutenez, deabruaren irudikapena da eta hainbat tokitan agertu omen da. Halakoetan, berau uxatzeko behatzekin gurutzearen keinua egin behar da.

paseo-dantza Lizartzako Inauterietan egiten den dantza.

pasmo 1. Herri-medikuntzaren arabera, pasmoa sendatzeko bi baratxuri-buru aletu eta esnetan egosi; beste alde batetik, zartagina presatu eta bertan bi tipula gorri txikitu

eta olio pixka batean buelta bat eman, gero argizari puska bat xerratu eta tipulatara bota, baita xaboi puska bate ere, xerratu eta gero. Egositako baratxuriak ere tipulatara bota, ardi pixa eta ardo pixka batekin. Gero zartagina sutan jarri eta zurezko koilaraz nahastu; mehe samarra ateratzen bada, ogirin pixka bat gehitu, harik eta behar duen loditasuna hartu arte. Orea epeltzen utzi, belar txabalen gainean zabaldu, mina dagoen tokian ezarri eta bendaz lotu egun batetik bestera. Mina sentitzen bada, lehenago aldatu, zauria xaboiak eta ur gaziaz garbituz. 2. Berbena txikituz egindako enplastua ere gomendatzen da.

pasmo-belar loregorri Herri-medikuntzaren arabera, pleuritis, zauriak, kolpeak, pasmoa, berezkoa, bixika eta abar sendatzeko gomendatzen da (Anagallis arvensis, murajes, mouron-des-champs, scarlet pim-pernel).



pasmo-belarra

pasta Sutegian gurdi ubelak lantzean galdatze lana laburtzearen erabiltzen zen orekia.

pastel Burdinazko totxoa.

Pastelero Doinu eta letra oso ezaguneko musika-pieza.

patata 1. Jatorriz Amerikakoa den landare urterokoa, hosto-zatitua,

lore zuri edo moreak ematen dituen: (Solanum tuberosum, patata, pomme de terre, potato). 2. Patata alea lurrera erortzen zaionak esaten du: "Nire aita nitaz oroitzen da".

patsola Dolareko orien gainean ezartzen diren oholak dira; 5-7 zentimetroko lodiera izaten dute eta zabalera dolarearena baino zertxobait txikiagoa da.

Pattar-zezen Asteartita goizean Tolosako zezen-plazan egiten den ospakizuna.

paxo *Ik.* bala.

pazia 1. Egosteko erabiltzen den ontzia, pertza. 2. San Joan belarrak pazia batean egosi eta ur horrekin familiako hildakoaren gorputza garbitzen zen (Elduain).

Pazkozahar Pazkoz hurrengo igandea.

peaile *Ik.* gatzemaile.

pegaki *Ik.* palar.

pegar Lurrezko ontzi handia, sabela zabala eta ahoa eta hondoa estuak dituen.

pelaiki Alea bildu eta metatzeko zurezko pala.

Pella Inauteetako mahai-gainekoa edo postrea (Zubillaga-Oñati).

Pello Ziri-Ziri Inauterietan bereziki entzun ohi den pieza.

pendulen kontrako Azkuek dioenez Lekeitioko arrantzaleek itsasoan zebiltzanean sorginak aipatzeko erabiltzen zuten esapidea, nahiz



pelaikia

eta hori esateko arrazoa zein zen ez jakin. Pendul hitzak zunda esan nahi du.

pentzeko *Ik.* eskuare.

perra *Ik.* ferra / *Ik.* suil.

perrada *Ik.* suil.

perraiki Mea biltzeko lanabesa.

perrail 1. Ahoa hondoa baino zabala-
goa duen ontzi biribil eskutokiduna.
2. Ekaitza sortzean San Joan sortatik eskutada bat eta erramu bedeinkatu pixka bat perrail batean uzten ziren, sutako txingar gainean.

perratzaile Lantzeko Inauterietan Miel Otxinen inguruan ibiltzen direnak.

perreta Zur zati batez egindako ontzia, kono moztuaren itxurakoa.

perrote Baserriko gurdiak dituen zeharretarako bi zurek dauzkaten metalezko euskarriak, zama tinkatzeko ezpatei eusteko.

pertika *Ik.* endaitz / *Ik.* lardai.

pertxun *Ik.* palar.

pertz Egosteko-eta erabiltzen den ontzia, euskarri bakarra eta mugikorra duena eta eskuarki laratzean zintzilik egoten dena.

pertz-konpontzaile Otsailean egiten den jai honek kanpotik etortzen ziren ontzi-konpontzaile eta txorroskiferoak gogoratzen ditu. Donostiako kaldereroen jaia da sonatuena. Tolosan ere egiten zen. Parte hartzaileek erabiltzen dituzten jantzi berezietan eta zarata ateratzeko zartaginez gainera, zaintzailea eta hartza ere kontuan hartzeko protagonista izan ditu.

pertzola Eskuarki kobrezkoak izaten den ontzigintzarako ola.

perzkile *Ik.* perzkin.

perzkin Pertzak egiten dituen.

pesebre Burdinak uretan hozteko lekua oletan.

Petirisantz Gosearen pertsonifikazioa. Beste izen hauek ere baditu: Pettiri, Pittitti Danbolin, Petrisants Tanburin, Santsin, Xantxin...

petral 1. Albardaren aurrealdeko bi ebilarekin tinkatzen den pieza. 2. Zamarien sabela inguratzen duen edo antzeko zereginetan erabiltzen den hede edo uhala. 3. Teilatuari eusten dion habea.

petrikilo Hezur ipintzaileei Euskal Herrian petrikilo esaten zaie, nahiz eta Zeraingo Telleriatarrei eman zitzaizen bereziki izen hori. Trukumun hitza ere erabili izan da.

petruela *Ik.* tarre.

phasta Aizkora forjatzeko plantxuela (Urdiñarbe).

pierrot *Ik.* alper.

pifano Zurezko edo kanaberazko zeharkako flauta txikia. Bi eskuekin hartu eta pitaren ertzaren kontra haize emanez jotzen da. Gaur egun, halako soinu-tresnak gure artean ez badaude ere, Euskal Herriko inguruko herrietan, mota desberdinetako zeharkako flautak oraindik ere erabiltzen dira. Gaskonian, adibidez, ikus eta entzun daitezke.

pikabuztan Zangoa finkatzeko burdina karrozetara igotzean.

pikaerak Ontzigitak gila prestatzean euskarrizat erabiltzen zituen zur zatiak.

pikatu 1. Sega mailuka jo zorrozteko. 2. Lur mokor edo zotala erabat irauli gabe altxatu eta hegalka uztea, gero erdibitu eta horrela

lurrari etekin hobea ateratzeko (Ormaiztegi).

pikatxoi Burdinazko lanabes punta-zorrotza, zurezko kirtenduna.

pildomen *Ik.* bildumen.

pilota Jolasean ibiltzeko erabiltzen den bola biribila, gai desberdinez egina, eskuarki larruz estalia; bereziki izen bereko euskal jokoan erabiltzen dena.



pilota

pilotari Pilotan jokatzen duena.

pilotxo pinta Eduki-neurri zaharra, pitxerraren erdia balio zuena.

piorrea Herri-medikuntzaren arabera, San Joan egunaren ondoko egunean bildutako intsusa eta ziguina ihartzen utzi eta uretan egosten dira eta behar denean ur hori hartzen da.

pipa Ihiz egindako siloiaren ertza.

piper-erroskila San Joan eguneko aureskua dantzatzen zuen aurrelariak ezpatan sartuta piper-erroskila eramaten zuen, eta dantzara ateratzen zuen aurreneko neskari eskaintzen zion (Anoeta).

piper-opil 1. Karrika-dantzan zebiltzan mutil gazteei neskatek eskaintzen zieten opila (Auritz). 2. Lizarraga-Ergoien San Adrian jaietan, ekainaren 16an eta 17an egiten zen banaketa.

piper-opil urkabeko /k. urkabe.

pipitta Txistuaren ahotxo.

pipor-opil San Joan goizean aurora kantatu ondoren, gazteak errondan ateratzen ziren gitarra eta biolina joz neskak bizi ziren ate-aurreetan eta horiek pipor-opilak eskaintzen zizkieten (Astrain).

piriri Jolas hau piriria edo uztaia lurrean jarri eta haren atzetik lasterka ibiltzea zen; horri deitzen zizkion piririn ibiltzea (Lizartza).

pirla Joko honetarako kale gorrian bost "pirla" edo zurezko post pieza jartzen ziren zutik. 40-45 cmko luzera izaten zuten eta mutur bat bestea baino zabalagoa. Horietatik lau bata bestetik metro erdira parekatzen ziren. Erdian, aurrekoen eta atzekoen artean, "bederatziko" izenez ezagutzen zen pirla jartzen zen. Hori beste lauak baino luzeagoa izaten zen eta bola izaten zuen buruan. "Bederatziko" izena, botatzen zuenak irabazten zituen bederatziko tantoetatik datorkio. Pirla bakoitzak tantoa balio zuen; erdikoa eta beste bat botaz gero, bi tanto; berarekin beste bi eramanez gero, hiru, etab. Pirla jokoan berrogeita hamar tantora jokatu ohi zen eta gehienetan neskak izaten ziren jokalaririk (Iraizoz).

pita Herri-medikuntzaren arabera, garatxoak kentzeko gomendatzen den landarea: (Agave pita, agave, century plant).

pitxar /k. pitxer.

pitxer 1. Edaria edukitzeko eta edontziak betetzeko erabiltzen den lurrezko, beirazko edo metalezko ontzia, kirtenduna, lepo mehartua eta aho luzatua dituena. Eduki neurri zaharra, bi litro baino zertxobait gehiago balio zuena. 2. Irañetan, San Joan goizean Arakil errekan bustitzen ez zirenentzat pitxer



pitxerrak

batean ura etxeratzen zen. 3. San Joan goizean "Zabale" izeneko iturrira joaten ziren Zornotza aldean eta lurrezko pitxer bat urez betetzen zen familiako guztiek hartatik edateko (Zornotza).

pixa Herri-medikuntzaren arabera, pixa hobeto egiteko, bost azeribuztan-adar egosi eta ur hori lau alditan hartzen da, baraurik.

pixar Txistuaren mihitxo.

pixoi Sagarra jotzeko erabiltzen den mazoa.

Pizti Joan /k. Mateo Txistu.

piztia 1. Giza eskumendetik at bizi den animalia, batez ere etxeko abereentzat edo ehizako animalia txikiak kaltegarri gertatzen dena. 2. San Joan suak piztia txarrak uxatzen ditu (Ezkio-Itsaso, Urretxu, Larraul, Ormaiztegi).

plana Laiagintzan ari zen errementariak hortzak araztu eta berdintzeko erabiltzen zuen lanabesa.

plantain ertain Herri-medikuntzaren arabera, pasmoa sendatzeko gomendatzen den landareetako bat: (Plantago media, llantén mediano, plantain moyen, hoary plantain).

plantila-belar /k. plantain ertain.

plantxuela Errementariak bere lanean maiz erabiltzen zuen burdina gozoko barra (Ezkiio).

platillo Antxo-lanetan bereziki erabiltzen zen otarrea (Nuarbe).



platilloa

pleuritis Herri-medikuntzaren arabera, berbena-belarrak ongi xehatu labanaz eta olio tanta batekin zartaginean frijitu behar dira; ondoren arrautza-zuringoa nahasi behar zaio tortilla gisako bat eginez. Ondoren apo-belarrak hartu eta horien gainera ateratzen da zartaginekoa; artean bero dagoela zapi batean zabaldu eta bizkarrean ezarri. Gau osoan eduki behar da horrela zapi edo xukadera batez lotuta.

polka Tolosako Iñauterietan Tolosako musika-bandak eta txarangek jotzen duten pieza.

polunpa Joaldun edo zanpantzarrek gerrian erabiltzen dituzten bi arran edo zintzarri. Behar ez denean jotzen ez dutela prestaturik daude.

pontxon Zulagailu edo puntzoia (Zubieta).

Pordon-dantza Euskal dantza, berez Tolosan San Joan egunez dantzatzen zena, Jorrai-dantza eta Corpus egunekoarekin batera zaharrenetako dena.

porra Errementariak erabiltzen duen burdinazko mazoia.

porrerada Txantxo taldea.

porrero Okaritzen Inaute igandez gazteria kafea hartzera biltzen zen eta elizkizunaren ondoren ahuntzedo ardi-larruz, joaretxoz, larruzko uhale-tatik zintzarriak zituztela eta larruzko aurpegikoz mozorroturik ateratzen ziren, neskak eta haurrak izuaraziz. Horiek eliz ataripea izaten zuten babesleku, hara sartzea debekaturik baitzuten porreroek. Porreroek arpillerazko prakak, lastozorrotan sartuak erabiltzen zituzten eta aurpegia estaltzeko gehienek kartoizko maskara erabiltzen zuten. Neska haziek mantoia edo lepoko zapia izaten zuten ezaugarri.

postura Itsasontziak gainean darman barrote edo lakostra.

poteketa Neska-mutilen joko hau urte guztikoa zen eta errepidean egiten zuten. "Betetzaila" nor zen jakiteko, jolaskide batek ondorengo esaten zuen hitz bakoitzaz laguna seinatzen zuen bitartean: "*Kuku-miku-anda-miku-txantxa-perro-kastellano-plon-plon-ikusi-det-erbie-lau-intx aurren-erdienbosgarrena- pus-ladron-ministrón*". Azkeneko "ministrón" hori egokitutakoari pote hutsa ematen zitzaion (tomatearekin edo beste zerbaitekin erabilitakoa), barruan harria zuela. Potearen ahoa jo egiten zen harri hori irten ez zedin. "Betetzaila" potea hartu eta ahalik eta urrunen bota behar zuen, ondoren, jasotzera joan eta bizkor baina bizkorrago abiapuntura itzultzeko. Behin hara iritis eta gero, potea lurrean utzi eta lagunak bilatzeari ekin behar zion, orduko ongi gordeta egoten bai-

tziren. “Betetzailak” norbait begiz jotzean, haren izena ozen esaten zuen, potea lurrean hiru bider joz eta “pote”, “pote”, “pote” esanez. Hala uzten zituen jokoak kanpo jokariak. Baina ezkutatuena bila zebilen bitartean, norbaitek gordelekua utzi, potea hartu eta urrunera bota zezakeen, “betetzailak” hura jaso bitartean berriro gordelekura itzultzeko aukera zuelarik (Lizartza).

potin Bitarteko tamainako txalupa, arrantzan erabiltzen dena.

poxploketa Jolas honetarako neska eta mutilek lurrean arrasto bat egiten zuten eta handik poxplokaxaren azala, ahalik eta urrunen bidaltzen ahalegintzen ziren (Alkiza).

pozal 1. Galdara, pertza. 2. San Joan bezperako suaren kondarrak pozal batean bildu eta biharamunean belardi baten erdian uzten dituzte. (Elizondo). 3. San Joan bezperagauean, sua itzali ondoren, mutilek txokolatea egiten zuten pozal handi batean (Aurizperri).

pozoi Herri-medikuntzaren arabera, pozoia edo zitala hartu duenari xaboi-ura ematen zaio ugari barrua garbitu arte, eta ondoren, linazi-edo malbabisko-ura.

prentsa 1. Bere bi zatiren artean hainbat gauza sakatzeko prestatuta dagoen tresna. 2. Oinaz eragiten zaion torlojua. → *dolare*.

primera-dantza Lizartzako Inauterietan egiten den lehen dantza.

primizi Ik. hasikin.

probarri Plazan dema eginez alde batetik bestera herrestan erabiltzen den harri astuna.

progu Doluan zegoen familiaren ordezkari, elizako sepultura

ondoan kokatua, ohiko elizkizunetan.

pujoi Ardatzak bere muturrean darman burdina.

punpa Arran edo zintzarri tripandia.

punta Ik. iltze.

puntero Burdin goritua zulatzeko lanabesa.

puntzoi Zumea eta ihia ehotzean eskulangileak gurutzaketak egin eta osa-hankak beren tokietan ezartzeko lagungarritzat erabiltzen zuten lanabesa.



puntzoiak

Purgatorio Ik. Garbitoki arimak.

purrutxeta Buruko zapi edo painelua (Bedaio).

puska biltze 1. Eskea izendatzeko beste izen bat da eta zenbait herrian Inauterietan egin ohi zen, gero bildutakoarekin otordu bat egiteko. 2. San Joan bezpera arratsean bi mutil talde ateratzen ziren, aterik ate honako hau kantatuz: “*A-txekoandre zabala / leku oneko alaba / bidean gatoz informaturik / limosneroa zarella*”. Zikoitza zenari honela kantatzen zioten: “*Armarioan sagua / kontrarioa katua / etxe hontako limosnarekin / ez da beteko zakua*”. Apaizari honela kantatzen zioten: “*Intxaurrak eder hostoa / Kaliza zilarrezkoa / Meza eman zale ondrosoa / da abade Azkaratekoa*” (Azkarate). 3. Gorritin puska biltzekoek hau kantatzen

zuten: "Iaz San Joan, San Joan zen / bihar San Joan Bautista / Jesukristoren lengusua zen / San Joan Ebanjelista".

puska-jate Puska-biltzean jasotakoa herriko tabernan lagunartean jatea.

putzu 1. Lurpeko urak ateratzeko harriz edo adreiluz egiten den zulo estu eta biribila. 2. Euria egiten duenean eratzten den ur geldizko hedadura txikia. 3. Zenbait esku-langilek, bereziki saskigileak, bere langaiak (txarak) egokitzeko erabiltzen duen ur geldizko gunea.

puxamenta Ferratzaileak aberearen azazkalak leundu eta ertzak kentzeko erabiltzen duen kuxtila.

puxika Ik. maskuri.

puxtarr Ik. tortolox.



puxtarr

Rr

rabel Ik. arrabita.

rada Ik. suil.


Ranranenea

Ehundegiak ateratzen zuen hotsa-rengatik izen horrekin eza-gutzen zen Hondarribiko etxea.

Ss

sabai 1. Ukuiluko goialdeko edo gainaldeko lastategi edo belartegia. 2. San Joan goizean, elizkizunaren ondoren, elorri zuriaren abarrak

ezartzen ziren sabaiaren kanpoaldeko bi hutsunetan (Ziga).



sabaia

sagale San Joan bezperan maiatz izeneko arbola eraikitzeke erabiltzen zen eskailera (Etxaleku).

sagar-neurri Sagar-ale kopurua, batez ere sagardotarakoa, neurtzeko erabiltzen den ontzia.

sagubelarri-belar Ik. errabia-belar.

Saint Pansard Ik. Zanpantzar.


sakabo Sakaboka aritzeko mutilak bi taldetan banatzen ziren, arrastoa egin eta handik tarte berdintsura kokatuz. Mutilak marra zapaltzera ateratzen ziren banan-banan; baina beste aldekoak, aldi berean ateratakoa baino bizkorragoa izaki, harapatzen bazuen edo marra zapaltzea galarazten bazion, jokoz kanpo utzi eta bere aldamenera eramaten zuen (Etxalar).

sakuta Ik. intsusa (Aramaio).

salda Burdinurtua.

salterio Ik. ttuntun.

salutadore Familia bateko zazpiga-



salterio

rrren semeari ematen zitzaion izena, gaitzak sendatzeko dohaina zuela uste baitzen. Aurreko senide guztiak mutilak izanez gero, dohain handiagoa omen zuen, eta herriustearen arabera, halako salutadoreak gurutzetxo bat omen zeraman mingainaren erdian markaturik. Onena Gabon gaueko hamabihamabietan jaiotakoa izaten omen zen. Zenbait herritan halako profesionaltasun bat aitortu eta diruz ordaintzen zuten, adibidez, Elduainen XVIII. mendean.

samo *Ik. txantxo (Aia).*

San Anton Urtarrilaren hamazazpia aziendak bedeinkatzeko eguna izan da tradizioz Euskal Herrian. Egun horretako meza eta jaiaz gainera ohitura bereziak izan dira, azienda bedeinkatu eta horrekin bizpahiru bira santuaren ermitari ematekoa (egun horretan bedeinkatutako astoek ez zuten lanik egiten, jai baik, eta pentsua egunekoa halako bi ematen zitzaien). Errenteriako Zamalbiden ganaduari emateko artoa bedeinkatzen zen. Getarian nekazarien ermandadeak ateratako meza izaten da eta ondoren Udaltzeko plazan txakolina dastatzen da, baina jai arrantzale-girokoa izaten da. Mutrikun kordeleriaren patroia izaten da, eta otordu bat egiten zuten lanbidekoek bisigua janean.

San Blas Otsailaren 3an Euskal Herriko ermita askotan ospatu izan dira eztarriko minetik libratzeko dei egiten zaion santu honen omenezko jaiak. Janari-edariak bedeinkatzeko eguna.

San Joan arbola San Joan suaren ondoren herriko plazara ekarri eta gazteek zutik jartzen zuten pago edo makal luze eta zuzena (Urretxu, Ezkio-Itsaso).

San Joan belar *Ik. belar on / Ik. San Joan sorta.*

San Joan erramilleta *Ik. San Joan sorta (Auritz).*

San Joan kanta San Joan suaren inguruan era askotako kantak abestu izan dira. Hona hemen horietako bat: "San Joan, San Joan berde, artua eta garixa gorde, txantxikuak eta sapuak erre, biba San Joan berde".

San Joan kargile *Ik. San Joan sorta (Muxika).*

San Joan maxo *Ik. San Joan sorta (Leitza).*

San Joan moltzo *Ik. San Joan sorta (Muxika).*

San Joan muxu *Ik. San Joan sorta (Aurizperri).*

San Joan paxo *Ik. San Joan sorta (Lintzoain).*


San Joan sendor *Ik. San Joan sorta (Arantzazu-Oñati).*

San Joan sobre *Ik. San Joan sorta (Etxebarria).*

San Joan sorta San Joan egunean elizan bedeinkatzen ziren eta hainbat gaitzen erremediotarako erabiltzen zirenak; tokien arabera sorta osatzen zuten belarrak desberdinak izan badira ere, oro har, honako hauek aurkitzen ziren nagusiki: basa loreak, San Joan loreak, arrosa, artemisia, erromeroa, ziguina, ezpata, artalandarea, babarrun-landarea, tipula-landarea, mihi-lua, asentsio-belarra, zizare-belarra, gaztaina-hostoa, gerezi-hostoa, intsusa-hostoa, lizar-ostoa, intxaur-hostoa, ihiak, hurritz-hostoa, aran-abarra, sagar-abarra, sahatza eta galburuak.

San Joan su San Joan bezperan pizten den sua, horretarako belar edo abar bereziak erabiliz eta kanta erritualak kantatuz. Adibidez hone-

lakoak: "San Joan, San Joan berde, / artoak eta gariak gorde, / lapurrak eta sorginak erre. / Biba San Joan berde!" (Elgeta). Ondoren gainetik salto egiten da, osasunerako ona delako ustean, "San Joan bezpera, sarna fuera!" edo antzekoak esanez.



San Joan sua

San Joan txorta *Ik.* San Joan sorta (Betelu).

San Joan xatuke *Ik.* San Joan sorta (Ezkurra).

San Joan xekale San Joan goizean ereiten diren babarrun edo antzeko lekariak (Lintzoain).

San Joan zama *Ik.* belar on / *Ik.* San Joan sorta (Arraioz).

San Joanen martxa Tolosako San Joan jaietan herriko musika-bandak eta txistulariek behin eta berriz jotzen duten pieza; baita astearte arratsaldean zezen-plazan azkeneko zezenarekin jotzen dutena ere.

San Joanen Zortzikoa Eduardo Moko-roaren musika eta Baleriano Moko-roaren letra dituen pieza, Tolosan San Joanetako meza nagusian eta bezperako suaren ondoren abesten

dena. Herri askotan dago horren antzeko ohitura.

San Joan-lore Herri-medikuntzak erreuma, bronkitisa, disipula, zingiria, flemoia eta beste zenbait gaitz sendatzeko gomendatzen dituen landareetako bat: (Leucanthemum vulgare, margaritón, grande marguerite, dog daisy).

San Joan-lore hori Belar mota bat. *Ik.* mota-belar.

San Julian Otargileen eguna Nuarben; lehen Urtezahar egunean egiten zen, baina 1955 aldera aldatu zuten. Matxinbentakoek ere jai egiten dute. Azkenaldi honetan otargintzak beherakada handia izan du.

San Markos ogi Gipuzkoako zenbait herritan amabitxiak Pazkotan besotakoari ematen dion opil hiru muturrekoa.

San Nikolas Abenduaren 6an, San Nikolas egunean, toki askotan (Seguran, Villabonan...) egin izan da gehienbat haur-festa bezala ezagutzen den hau. Neska-mutil koskorrak eguarterean eskean ibiltzen dira, mutil batzuen janzkerak gotzain mitradun batena oroitazten duela. Sariaren zain dauden bitartean gaztelaniaz eta euskaraz kanta batzuk abesten dituzte.

San Pedro-lapiko San Pedro egunean txitxirioak egosteko erabiltzen zen lapiko edo eltzea (Eskoriatza).

San Robertoren zaingorri

Herri-medikuntzaren arabera, zornea atera eta zauriak sendatzeko gomendatzen da landare hau: (Geranium robertianum, hierba de



San Robertoren zaingorria

San Roberto, herbe-à-Robert, herb Robert).

San Sebastian Donostiako patroia eta danborradaren eguna, Raimundo Sarriegiren musikarekin. Azeptian ere danborradarekin ospatzen da egun hau.

sanbelu Neska-mutilen joko honi hasiera eman aurretik, korroan jarri eta betetzen jarri beharrekoa aukeratzen zuten honako hau esanez: *"Ania / mania / di / Joani /di /Joanita / selo / si / Joan de / ramos / Joan de / Estella / hiru / dontzeila / lau / erbi / drin / drin / kaprestu / astoan / gainean / lau / itsu"*. "Itsu" egokitzen zitzaion neska edo mutila, paretari begira jartzen zen lagunak atzean zituela. "Itsu" edo "betetzen" zegoenak txitxera esaten zuen eta jolaskideek badela erantzuten zioten, lasterka hasi orduko. "Betetzen" zegoena haien atzetik abiatzen zen eta ukitutakoa edo harrapatutakoa horma ondora ekartzen zuen. Baina libre zebiltzanek harrapatutakoa jaregin ez zezaten ahaleginak egin behar zituen, baita, aldi berean, libre zebiltzanak harrapatzen ere; besteren bat harrapatzen zuenean, hormara eraman eta aurrekoa, eskutik helduta, "katean" uzten zuen, besoak gurutzatuta gutxi baziren edo besoak behera zituela bost baino gehiago izanez gero. Ihesean zebilena harrapatzean etxo esango zuten, eta libre, preso zegoena ukitzean (Igoa).

Sandi-Maindi Mendiben Maide jeinuari ematen dioten izena.

sanjose Eskulangileak erabiltzen zuen esku-zerra (Aramaio).

Santa Ageda Martiri honen omenezko ospakizunak, kantuan eta eskean ibiltzera mugatzen dira nagusiki Euskal Herriko herri askotan; koble-tan santaren bizitzaren berri emateaz gainera etxejojaunei eta

etxejojaonei jakia eskatzen zitzairen. Gaur egun ere indar handia du zenbait tokitan "santa eskea" deituriko honek. Hamaika urtez behin Santa Ageda eguna eta Inauteri Igandea egun berean egokitzen dira.

Santa Brigida Otsailaren lehenean ospatzen den jai honek abereen errapea zaintzearekin du zerikusia; horretarako errituan bedeinkatutako belarrak (belar on deituak) egosi eta horien uraz igurtzita errapeko mina sendatzen den ustea dago.

Santa Luzia Abenduaren hamahiruan, Santa Luzia egunaren bezperan mutil koskorak, eskola-saioa amaitu ondoren etxean bazterturik zeuden tresna zaharrak eskuratu eta, kalean zehar gora eta behera ibiltzen ziren, zalaparta bizian eta zarata handian, "Santa luzia, luzia, le, aguazilaren beldurrik gabe" geratu gabe oihukatuz (Tolosa).

santa-jate Santa Ageda bezperako eskean bildutakoarekin bazkaldu edo afaltzea (Altzola, Aia).

santaketa-eske Urtezahar eguneko eskeari ematen zaion izen berezia (Arantza).

Santibat Behorlegiko Inauteria mito honen inguruan ardatzen da. Bada esan bat honela dioena: "Santibat andere, aurten bezala gero ere".

santu edo letra Joko honetan mutilak poxpolo-kaxaren azala hartu eta besoa altxata horma ondoan lurrera erortzen uzten zuen; aldi berean, beste jolaskideek "santu" edo "letra" oihu egiten zuten. Lurra jotzean kartoiak marrazkia baldin bazuen agerian, "santu" esandakoak irabazten zuen; bestela, asmatzen ez zuenak kartoiak galtzen zuen bere jolaskidearen mesederako (Ormaiztegi).

Santu Guztietako opil Egun horretako eta Arimen Egunean meza nagusian eskaintzen zen ogia (Ormaiztegi).

sardina-ehorzketa Inauteriaren azken egunean egiten den erritua.

sarjenta Kostaldeko zurginek erabiltzen duten prentsa.



sarjenta

sarjento Lizartzako dantza taldeko kidea.

sarkoma Herri-medikuntzaren arabera, sardinzarrarekin erabilitako ontzi bati ipurdian zulo batzuk egin, barruan bi apo bizirik sartu eta tapa itxi behar zitzaion. Ontzi hori sarkomaren gainean jarri eta bendaz lotu behar zen. Biharamunean apoak bizirik bazirauen gaixoak sendatzeko itxaropena omen zuen, akabatzen bazen, berriz, ez (Litzoain).

sarna San Juan egunean, goizean goiz, biluzik iraulka ibili behar da hoztu arte belardian, eta bertan utzi behar dira arropak (Litzoain).

sartana Ik. danbolin.

sasikoipetsu Ik. Txitxiburduntzi egun.

sasimediku Medikuntza-ikasketak egin gabe sendagintzan aritzen den pertsona.

saskai Saskigileak erabiltzen duen hondagaia baino material luzeagoa (Astitz).

saski Gauzak eramateko ontzia, zumitz edo antzeko gaiez egina, heldulekuduna zein gabea izan daiteke. Saskigileak saski-burdina erabiliz egin ohi du saskiaren zolatik abiatuz; egintza horri zenbait tokitan saskiaren ipurdia hartu esaten zaio, eta beste batzuetan gibelego aldea hartu. Ondoren, saskiak izan behar duen luzeraren arabera, saski-hesia ehotzen da, saski-arma-zoia finkatu eta gero. Saski mota ugari erabili izan da iraganean: simaur-saskia, asto-saskia, astozarea, ongarrisaskia, bizkar-saskia, lur-saskia, lepa-saskia...eta abar.



saskiak

saskigile Saskiak egiten dituenak.

satahaga Karobiaren atakatik sartzen den haga, su-hautsa mugitu eta erretzea errazteko (Urkizu).

satai Ik. palanka.

satola Karraskariak harrapatzeko zurezko zepoa, barila batez eta bi oholez osatua.

sator 1. Apoa bezala, sator hila ere makila baten erpinean ezartzen da. 2. Garai batean tabako toxak sator-larruaz egiten ziren. 3. Satorrak lurra harrotu ez dezan, intsusa-abarrek sartzen dira satorra dagoen tokian.

sega Laborea, belarra, sasia eta abar lur arras ebakitzeko metalezko lanabes aho-zorrotza, bi eskutoki

eta gider luzekoa. Segaren zorrozta-suna galtzen edo kamusten denean, epe laburrera zorroztarria erabiliz berreskuratzen da ahoak edo sorbatzak ongi ebakitzeko behar duen gaitasuna, baina epe luzeagora, segaren ahoa mailuaz pikatu egiten da txinguran edo ingudean kolpe txikiak emanez. → *kodaina*.

sega motz *Ik. otasega.*

sega-kotxo *Ik. sega-poto (Astitz).*

sega-pote *Ik. sega-poto.*

sega-poto Segalariak aldizka segaren ahoa zorrozteko erabiltzen duen zorroztarria edo segarria uretan eta aldean garraiatzeko zurezko ontzia. Zur zati bakarrekoa –eskuarki gaitainarena edo haltzarena–, 25 bat zentimetroko luzera izaten du eta oinaldeak 8-10 zentimetroko eta ahoaldeak 6ko zabalera. Kanpoko aurpegian segalariaren gerrikoari tinkatzeko ezpain bat izaten du.

segarri *Ik. sega-poto.*

segora-arto *Ik. serora-arto.*

segora-gari *Ik. serora-gari.*

segunda-dantza Lizartzako Inauterietan egiten den bigarren dantza.

Segurako diana Tolosako txistularien bandak Inauterietan jotzen duen pieza.

sendor *Ik. erramileta.*

sepultura Elizaren barruan familia bakoitzak zeukan kokagunea, emakumeek zaintzen zituzten argizaiolez hornitua. Espainiako Karlos III.ak debekatu zuen eliz barruan lur ematea.

serora Elizaren ardura duen eta apaizari laguntzen dion emakumea.

serora-arto Familia bakoitzak urtero serorari ematen zion artoa.

serora-gari Familia bakoitzak urtero serorari ematen zion garia; abuztuan ematen zitzaion, eta bi lakari izaten ziren.

serora-labore Serorari elizako lanarengatik ematen zaiona (Abaltzisketa).

serora-ogi Familia bakoitzak urtero serorari ematen zion artoa. Azaroan izan ohi zen eta bi lakari ematen zitzaizkion.

serota *Ik. zerra.*

sertxa Zura neurtu eta markatzeko erabiltzen zen konpasa.

sestraka Zumazaleak lan batzuetarako erabiltzen duen gaitaina-txara.



sertxa

sexta-dantza Lizartzako Inauterietan egiten den seigarren dantza.

сила-dantza Joko honetan neska eta mutilek hartzen zuten esku, eskusoinuaz edo beste musika-tresna batez lagunduta, eta herriko jaien barruan egiten zen nagusiki. Eliz aurrean korroa osatu, eta kanpoaldetik neskek eta mutilak bueltaka hasten ziren soinujoleak aukeratutako musikaren airean. Jokoan esku hartzen zutenak aulkiak baino bat gehiago izaten ziren, eta biraka ari zirenean, eta gutxien uste zutenean, soinua mututu egiten zen; orduan, ahalik eta bizkorren, esertzen ahalegindu behar zuten, baina aulki bat gutxiago zegoelako, aulkirik gabe geratzen zena kanpoan gelditzen zen. Ondoren, aulki bat kendu eta berriz hasten zen jokoa, bi jokalaririk bakarrik gelditu arte. Azkeneko aulkian esertzea lortzen zuena gertatzen zen irabazle (Berastegi).

silbo *Ik. txistu.*

silbote Handiagoa bada ere, txistuak duen egitura bera du. Duen luzeragatik zaila da esku batekin jotzea eta silbote-jotzaileak bi eskuak erabiltzen ditu jotzeko. Batekin tutuak dituen hiru zuloak itxi-ireki egiten ditu eta bestearen erakuslearekin beheko ahoa manipulatzeko du. Silboteari buruzko berri zaharrenek XIX. mende hasierakoak dira.

simaur-saski *Ik. asto-saski / Ik. ongarisaski.*

simonero *Ik. eskolau (Berastegi).*

sinusitis 1. Herri-medikuntzaren arabera, eukalipto-uraren lurrinak hartzea gomendatzen da. 2. Berbena txikitu eta arrautza-zuringoz eginiko enplastua ezartzea. 3. Bi limoiren zukuari ezta gehitu eta edatea.

sobrealdabar *Ik. aldabar.*

sobrekantale Dolarea inguratzen duten zurezko iragazkiak. Sobrekantaletan zehar irteten da muztioa; hala ere, badira pasabide horiek gabeko dolareak.

sohatsi Abaraskatik ezta bildu (Larrañe).

soinu 1. Euskal Herriko herri soinutresna berriena. Zurezko bi kaxa ditu: bata doinua jotzeko botoiekin, eskuinarekin jotzen dena, eta bestea, laguntzeko nota eta akordeak ematen dituena eta ezkerrekin jotzen dena. Bien artean, hauspoa. Gure herriko musikaren munduko bazter guztietan, kaletar edo base-ritar inguruetan sartu zen. Baina azkeneko honetan lortu du herrikotasunaren kategoria edo plaza. XX. mendearen hasieran azaldu zen txirula eta atabalarekin taldea osatuz, eta dultzaina eta panderoz lagundua ere bai. Horrela mantendu da orain arte toki gutxi batzuetan, baina ospe eta arrakasta han-

diena Gipuzkoa eta Bizkai aldean lortu du pandero eta koplaz lagundurik. Hau da trikitia deitutako talde ezagunena. Gaur egun ezin gara euskal musikaz mintzatu trikitia aipatu gabe. Honek gordetzen du gure herri musikako altxorren zati garrantzizkoenetakoa, inguruko aurreko musikariei hartutakoa. Izen desberdinez da ezaguna soinutresna hau. Hasieran akordeoia, soinua, soinu txikia eta azkenaldian bere ondoan erabiltzen den panderoaren metalezko txindek ematen duten “triki, triki” hotsarengatik trikitia izen onomatopeikoa du. Beste izen kurioso bat ere izan du soinutresna honek: infernuko hauspoa. Herritarrek azkar onartu bazuten ere, izen honek garbi adierazten digu hasieran Elizarekin izan zituela arazoak, besteak beste dantza “sueltoan” jotzeaz gain, plaza eta erromerietan orduko “heldutako” dantzak jotzen zituztelako. Urte batzuetan beheraka zihoala ematen bazuen ere, azkenaldian zabalkunde eta gorakada handia izan du. Bazter guztietan entzuten da. Sinonimoak: Akordeoi diatoniko, Soinu txiki, Trikiti 2. *Ik. akordeoi* 3. *Ik. ttuntun.*

soinu handi *Ik. akordeoi.*

soinu txiki *Ik. soinu.*

soinu-jotzaile Ahoko, eskuko edo beste edozein musika-tresna jotzen duena.



soinu-jotzaileak

soka Garizumako jolas honetan, neska-mutilak ibiltzen ziren eta soka lodi edo “erremala”, gurdia lotzeko balio zuena, erabiltzen zuten. Sokaren bi muturrak elkarri lotu eta “sokan” esku hartzen zutenak korroan jartzen ziren, soka eskue-tan zutela. Korroaren erdian, aurrez erabakitako mutil bat jartzen zen beti hasiera emateko, eta horrek neska harrapatu behar zuen, ohar-kabeen zegoela. Horren ondoren, neska erdira pasatzen zen eta mutilen bati eskua ezarri behar zion (Lizarraga).

sokadantza *Ik.* dantzasoka.

sokamutur Tolosan eta beste zenbait herritan, ostiral arratsaldeetan, Garizuma garaian izan ezik, harakinak hil behar zuen idia kalez kale sokamuturrean ateratzeko ohitura zegoen. Ohitura hori XVIII. mendearen bukaeran galdu zen, opor egitera behartzen zuelako; horrela, igande-arratsaldera aldatu zuten, baina ez zuen luzaroan iraun, Tolosako kaleetan joan-etorri handia baitzebilien. 43 urteko ezaldiaren ondoren sokamuturra berriro abiarazi zen “Txinparta” elkartearen ekimenez 1934an, eta orain Astele-nitaz eta Asteartitaz egiten da.

sokasalto Joko hau oso hedatua eta erabilia izan da eta da oraindik ere eta aldaera bat baino gehiago ditu; dena dela, sokari bi muturretatik eragin eta hirugarren batek salto egitean datza bere izaera. Batzuetan soka oinez edo gorputzaren atalen batez ukitzea hutsegitetzat hartzen da (Aia, Berrobi, Villabona).

soldeo Metal zatiak bat egitea horretarako tresna berezia erabiliz.

solstizio.

soperre 1. Baratzuri-zopa lehorra, saldarik gabea. 2. San Joan bezperagauean San Joan arbola altxa ondoren mutilek berakatz edo bara-

txuri-zopa hartzen zuten, eta lehor zegoenean soperre esaten zitzaion (Legutio).

sopil Etxean egindako ogi harroa, Gabon-eskekoeki saritzat ematen zitzaiena (Uribarri. Araba).

sorba *Ik.* ekilore.

sorgin 1. Deabruarekiko hitzarmen baten ondorioz edo, indar ezkutuen jabe den pertsona. Antzina akelarretan biltzen ziren pertsonen ematen zitzaien izena da. Lehenago, ordea, gaueko jeinu bat izan zen, sarritan kobazuloetan bizi zena. Munduan duen ahalmek gauerdetik oilaritera arte irauten du. Mari dibinitatearen jarraigo edo segizioa da eta haren agindupean hamarrenak kobratzen dizkie gezurra eta iruzurraren bidez beren aberastasunak disimulatzen dituztenei. Haurren jaiotzak zaintzen ditu (sorzain), eta sorginetan sinesten ez dutenak zorrotz zigortzen ditu. Sorginak izan omen ziren Euskal Herriko lehen zubigileak. Ermitak eraikitzeak ez ezik suzko armak ugaltzeak uxatu zituen sorginak. 2. Sorginak Euskal Herrian mendez mende izan duen garrantzia ikusteko kontuan har bedi zenbat izen dagoen osagai horrekin: sorgin-afari, sorgin-baratzuri, sorgin-gosari, sorgin-kilo, sorgin-luma, sorgin-mandatar, sorgin-oilo, sorgin-piko, sorgin-opil, sorgin-egur, sorgin-sardina, sorgin-txori eta abar. 3. Sorginen batzartegirik sonatuena Akelarre da, Zugarramurdiko lautadatxo batean dagoena, baina badira beste toki batzuk ere, adibidez, Arratiako Petralanda, Aezkoako Petiriberro, Jaizkibel... Sorginak Alekarrerako bidean gantzu berezi batez beren buruak igurtzi eta esaeratxo hau esaten omen zuten: “Hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik”. 4. Sorgina ezin higitu izaten da matutia joz gero; horregatik ilunezkilan irten eta argiezkilan sartzen dira. 5. Gizonezko sorginak emakumezkoak baino gaiztoagoak



sorgina

izaten omen dira. 6. Erpuruaz esku-
turra jotzen duena eta orinik ez
duena sorgina omen da. 7. Sorgin-
tzua kentzeko oilar baten gandorre-
an hamabi orratz sartu behar dira
eta eltze baten barruan urak irakin
arte eduki behar da gandor hori.
Ura irakiten hastean inguruko sor-
gin guztiek hara jotzen dute. Sorgin
damutuak horiek harrapatu eta
apaizari eraman behar dizkio Eban-
jelioak irakurri eta zorgintzua ken-
dakion. 8. Ate atzean ginar-adarra
edo elorri zuria ipiniz gero sorginek
ihes egiten dute. 9. Sorginak behin
joz gero zauriturik gelditzen da,
baina bitan joz gero, sendaturik, ho-
rregatik esaten da sorgina bakotxi
jo behar dela eta ez biritxi. 10. Sor-
ginak elizatik irten ezinik gelditzen
omen dira apaizak aldareko liburua
ixten ez badu. Sorginak bataiatuak
dira, laminak ez. 11. Ziadi ondora
iristean, sorginak ezin omen dira
ibili, eta hortik dator zi edo ihiari
sorgin-kilo izena ematea. 12. Sor-
ginak gaitzik ez egiteko sakelari gatz-
izatea ona da. → *azti*.

sorgin-afari 1. San Joan bezperan,
maiatz arbola altxa ondoren mutilek
egiten zuten afaria (Orokietan). 2.
Liho-lanak amaitu eta gauerdin-
guru egiten zen jan-edantxoak, torti-
lla, esnea eta ardoarekin egiten
zena. 3. Gabon gauean, gauerdiko
mezaren ondoren egiten zena, olio-
zopak baratxuri askorekin janez
(Izaba).

sorgin-dantza Antzuolako Aratuztean
egiten den dantza.

sorgin-goaze Oiartzungo mozarrotuek
erabiltzen dituzten zurezko gurai-
zeak.

sorgin-solas *Ik.* zapo-erdara.

sorta 1. Loreak, laboreak eta antzeko
landareak bilduz egiten den mul-
tzoa. 2. Zama.

sorzain *Ik.* sorgin.

soto *Ik.* ukuilu.

su baju Behe-sua, sukaldean egiteko
edo etxea berotzeko izaten den
etxe-barruko sutegia. Egon daiteke
hormaren kontra, horman sartua
edo exentua, eta gainean kanpai bat
izaten du keak bildu eta hodi bate-
tik kanpora bidaltzeko.



su bajua

su-aro Bergarako eta inguruetako baseritar askok osatzen duten elkarteak suak egindako kalteak ekonomikoki gainditzeko.

suatxur Olan erabiltzen zen aitzur handia.

suberatu Forjan aizkora zein beste edozein pieza bigundu, tenplea galtean.

subil Beheko suan erretzen den enborra.

Subil-aro Nafarroako ibar batzuetan Eguberri garaia ematen zaion izena. Subila Eguberriz sutan jartzen den enbor handia da; Zaraitzun suklaro du izena.

suburdina Supazterrean suari eta enborrei eusteko ezartzen den burdina.

sueldo Hogeita bost zentimo, XX. mendearen hasieran.

Sugaar Suge ar honek sarritan zeharkatzen du ortzia suzko igitai baten itxurapean ekaitzaren hurbiltasuna iragarritz. Gurasoei egindako obedientzi faltak zigortzen ditu. Azkoitian Maju deitzen diote, eta Mariren senarra dela eta ostiral arratsaldeetan hura orraztera joaten dela diote. Bizileku ezagunenak hauek ditu: Ataungo Kutzeberriko Agamunda eta Sugaarzulo, Dimako Balzola.

suge-belar Herri-medikuntzaren arabera, zauriak eta berezkoak sendatu eta zornea ateratzeko gomendatzen da: (Arum, aro, gouet, cuckoo pint).

suge-hozka Herri-medikuntzaren arabera, suge zein txakur amorratuaren hozka edo heldua sendatzeko mamukio-sustraiaren ura edan behar da. Gero tabako-orri bat edari bizitan beratu eta zaurian ezarri; almaidz batean plantain zati bat

zanpatu eta ateratzen zaion uretik koilarakadaxo bat ematen zaio.


Sugoi Ik. sugaar.

sugrila Ik. matxarda.

suhar-hosto Ik. eztul-belar.

suhats Sutan erabiltzen den matxardaxoa.

suil Herriko iturritik etxera ura garraiatzeko erabiltzen zen eta perra ere deitzen zitzaion. Gaztainazurezkoa izaten zen, hamar-hamabost milimetroko lodierako oholtzoz egina goialdean eta hemezortzikoz behealdean. Hogeita hamabi zentimetroko garaiera izaten zuen, beste hainbesteko diametroa, eta hogeita lau zentimetro izaten zituen ahoan. Burdin galbanizaturiko hiru zerrendak erreborxatua egoten zen eta hiru zerrenda horiei errautsez igurtziz ateratzen zitzaion distira. Emakumeek buru gainean erabiltzen zuten burukote izeneko bigungarri batean ezarrita; hemezortzi bat zentimetroko diametroa izaten zuen eta erdian zuloa.



suila

suilol Suila egiteko arotzak prestatzen dituen oholtxoetako bakoitza.


su-kanpai Suak eragindako ezbeharren baten berri ematen duena, bereziki etxe-erreketaarena.

sukatilu Ik. arragoa (1).

sumil Arearen alboek eratzen dituzten albo-zurak, luzeak eta laburrak izaten direnak.

sunprinu Urritzaren azalez egindako tutu konikoa. Goiko muturra zapaldua du mihi bikoitzeko pita osatuz. Tonu-aldaketarako bi zulo ditu. Bartzuetan pita eta gorputza, dena azal-puska berarekin egiten da, besteetan pita aparte delarik. Sunprinua jotzeko moduan kontserbatzeko, uretan sarturik gorde behar da. Bestela, lehortu egiten da eta ez zaio soinurik ateratzen. Baina uretan denbora luze daramanean usteldu egiten da eta horregatik, udaberrian egiten zenetik, "San Ferminak" arte jotzen zen. Artzainen entretenimenduetako bat sunprinua jotzea izaten zen. Bere sasoiak, egoera egokian honen soinua ozena da eta urrundik entzuten da mendian. Horrela, inguruko artzainek soinua entzundakoan, bat edo beste animatzen zen eta elkarrekin txandakatuz "elkarrizketa" musikala mantentzen zuten aspertu arte. Arratsaldeetan, beren etxeetara jaisten zirenean, herritik kilometro bat edo bira zeuden lekutik, hasten zuten sunprinu-saio garrantzitsuena. Tresna-mota hau munduan zehar ezaguna da eta European, esate baterako, punta batetik bestera egin eta jotzen da, edo erabili da. Gaur egun ez da batere ezaguna Euskal Herrian, erabat galdu da. Aralar mendian ibiltzen ziren artzainak izan dira azkeneko sunprinu-jotzaileak.

supala Urtzaileak zamarra sutegira eraman ondoren ikatza bota eta eragiteko erabiltzen duen pala.



supala

sutegi 1. Oletan edo errementariaren lantegian, landu behar diren burdina edo gainerako metalak goritzeko su bizia egoten den tokia. 2. Metalak lantzeko suarentzako tokia duen lantegia.

sutoki Ik. sutegi.

Tt

tabaketa Ik. tortolox (Berastegi).

taila Ik. sega.

tailaria Ilargi-erdi formako labana.



tailaria

tailu-aztal Kirtenarekin bat egiten den segaren ertza (Baigorri).

tailu-kopa Ik. sega-poto (Baigorri).

tajadera Errementariak ebakiak egiteko erabiltzen duen tresna zorrotza.

taketa Baserriko gurdiak zamari eusteko zuloetan sarturik erabiltzen dituen zutikako gahatxo edo zur biribiletako bat.

talaka Belea eta antzeko hegaztiak izutzeko erabiltzen zen soinu-tresna. Bertikalki jarritako zurezko zutoina du. Goialdean armazoi bati lotuta helize gisako gurutzea edo lau pala luze. Tresna honek zarata handia ateratzeko baditu matraka moduan bueltak ematen dituen ardatzari lotuak bi oholtzoko, sega kolpatzen dutenak. Haizeak eragi-

ten die gurutze-palei eta hauek jar-
tzen dute martxan beste guztia.

talarda *Ik.* alper.

tallaria *Ik.* tajadera.

talo Artirinezko ogia, baserritar eta
basomutilek jan ohi zutena, sarri-
tan esnetan beratua. Gaur egun jai
eta ospakizunetan jaten da txistor,
txorizo eta urdaiarekin.

taloburdina Burdinazko pala biribila,
kirten-luzea, taloa erretzeko erabil-
tzen dena (Gipuzkoa), (Muskildi).

talobürdüna *Ik.* taloburdina.

taloburni *Ik.* taloburdina.

talohol Zur zati biribila, orea hedatu
eta talo erara uzteko erabiltzen
dena.

talo-mantenu Taloaren harrotasuna
lortzeko erabiltzen den burdina.

talo-zapi Talo-oholaren gainean jarri
ohi den zapi gehienetan zuria.

tanbolintero *Ik.* txistulari.

tanborlari

Danborra jotzen
duena. Tanbolinte-
roa.

tanborta

Amugilearen lan-
aulkiaren zulo
batean tinkatzen
den zura. Alde
banatan aro bat
izaten du eta ber-
tan arrankaziaren
garranga eta
amuaren erpina
egiten ziren.



tanborlaria

tapaki Ordi edo asto-zareen hondoa
eratzen duen atala.

taratulu *Ik.* daratalu.

tarralda *Ik.* alper.

tarrañuela *Ik.* arxalu.

tarre Albardatik irten eta aberearen
hankak inguratzen dituen larru-
zerrenda; barrualdean tarrearen
makilak gelditzen dira, basta edo
albardak eskatzen duen esfortzua
jasateko behar adinako zurrunta-
suna larruari ematen diotenak.
Tarreak beharantzakoan bakarrik
balio izaten du, eta tamaina ertain
eta handiko abereentzat. 120-140
zentimetroko luzera eta 12-32 zen-
timetroko zabalera izaten ditu.
Astalubel, atarri eta atarre izenak
ere hartzen ditu.

Tartalo Bekokian begi bakarra zuen
jeinu gaizkilea zen. Gazteak bahitu
eta ekaitzak beharturik haren lei-
zera hurbiltzen duena gatibu hartu,
zatitu eta gero sutan erretzen du.
Hala ere, batzuetan, gatibuak begi
bakarra suntsitu eta ihes egitea
lortu izan du. Homerok Odisean
aipatzen zuen Polifemoren parekoa
da.

tatarra-matarra Joko honetan neska-
mutilak eskolatik ateratzean josta-
tzen ziren. Horretarako zozketa egin
eta aukeratutakoari musuzapiaz
begiak estaltzen zizkieten. Neska
edo mutil horrek inguruan zebilzkio-
nak harrapatu behar zituen eta ihes
egiten ez utzi, eta, gainera, ukitze
hutsarekin nor zen asmatu ere bai
(Altzo).

taulitze Iltze buru-handia, eskuz forja-
tua (Uztaritze).

teatulia *Ik.* barro.

teila 1. Eraikinak estaltzeko erabil-
tzen den buztin erreko atal bakoitza.
2. Haurra izan ondoren ama
berriak eliz-sartzea egin baino
lehen etxe ingurura atera behar
zuen teila buruan zuela egin ohi

zuen, etxetik irten gabe zegoela adierazteko.

tejabana Estalpe edo aterpea, gauza askorentzako gordelekua, bereziki baserriko lanabesentzakoa.

tenporak Tenporetan, leku batzuetan, hiru gauerditan jaiki, azao, bala edo sorta bat piztu eta eguratsean edukitzen zen eskuan, haizea nondik zetorren ikusteko. Hurrengo hiru hilabeteetan haize hori izaten zen ezagunena. Berez, abenduaren 13aren, Mendekoste egunaren, irailaren 14aren eta Hausterre egunaren ondorengo asteako asteazken, ostiral eta larunbatak osatzen dute hiruren bakoitza. Hiru gau horietan egiten duen eguraldia urtaro osoan nagusitzen dela uste dute.

tentsio Herri-medikuntzaren arabera, tentsioa eraisteko basaran edo elorri beltzaren abar batzuk egosi eta ur horretatik kikarakada pare bat baraurik goizean hiruzpalau egunez hartu behar da.

tifus Herri-medikuntzaren arabera, tifus edo sukar ustela kentzeko ur freskotan azukre koskoa sartu eta hori berrogei egunetan edaten da.

tikino Turbina.

timoi Ik. lardai (Asteasu).

timu Ik. lardai.

tina Suil mota.



tina

tipina Ik. tupina.

tiragailu Errementeriako hauspoari eragiteko haga.

tirantegai Ordi edo asto-zarea egiteko erabiltzen diren zumitzak; gutxi gorabehera metro beteko luzera izaten dute (Sunbilla).

tira-perra Enborrak herrestan garraiatzeko burdinazko tresna (Zaldibia).

tobera 1. Bi muturretik zintzilik dagoen gutxi gorabehera metro eta erdiko altzairuzko palankako soinutresna da. Bi jotzaile dira eta jotzeko 30 zentimetro luzeko bina burdin ziri erabiltzen dituzte, bat esku banatan. Palanka joaldiarekin tartekatuz, bertsolariak koplak kantatzen ditu, bai toberaren bertso propio zaharrak, bai saio horretarako prestatutakoak edo bat-batekoak. Beraz, ez da soinutresna bakarrik, festa-giroan egiten den ekintza baizik. Toberak azken denboraldian izan zuen zeregin nagusia, bai Lesakan eta bai Oiarzun inguruan, ezteiei lotua dago. Gazte-taldea, gehienetan palanka bizkarrean harturik, andregaiaren edo ezteia ospatzen ari den etxera inguratzen dira. Han, atari aurrean palanka lurrera sartzen dute, askotan zinta eta lorez apaindurik, eta jotzeko garaian, lurretik atera eta alderik alde bi muturretatik zintzilikatutik jotzen dute. Joaldiekin tartekatuz, koplak kantatzen dira. Bukatzen dutenean, ezkongaeiekin etxera sartu eta afaldu edo zerbait jan eta edan egiten da. Karobietako inguruan ere askotan agertzen dira halako ekintza edo ospakizunak. Karea egiteko elkartzen ziren eta gaeuz, karobien inguruan suak pizturik, "karobi ezteia" izeneko festa ospatzen zen. Gaur egun, txalapartarekin batera edo nahasturik erabiltzen da eta gero eta jole gehiago, iraunkorrago eta trebeagoak dira Euskal Herriko alde

gehienetan. 2. Labe edo forja batera airea sartzen den irekidura.

tobila *Ik.* lixiba-ontzi.

toila Aizkoraren burua (Uztaritze).

tokara Abartzuza, Arbizu eta Okaritzen Aittun Aundia eta Amiñ Txikia gerritik lotu eta kalearen alde bateko ganbaratxotik beste aldekoraino, eta jaso eta eraitsi erabiltzeko lokarriak. Bitartean zahargazteek barre eta gozatu egiten zuten, harik eta ilunabarrean erretzen zituzten arte.

tokoka *Ik.* txingo.

tokota *Ik.* alper.

tokotor Joko honetan neska-mutilak aritzen ziren, urte osoan, Garizuman izan ezik. Bi taldetan banatu eta aurrez aurre jartzen ziren, elkarren artean tarte bat utziz herriko plazan edo Santa Barbara ermitaren arkupean. Talde bakoitzeko bat erdi aldera agertzen zen, eta beste taldekoren bat aurrea ukitzen zuenak “zigortuta” eramaten zuten bere saileko hormara, zuhaitzera eta abarretara. Ondoren harrapatutakoren taldetik bila joaten zitzaizkion “zigortua” jaregiteko asmoarekin. Hori lortu ez, eta gainera bera ere harrapatzen bazuten, “zigortu”aren ondora eraman eta hura ere “sokan” jartzen zuten. Aldiz, beste taldekoei ihes egin eta “soka”n zeudenak ukitzen bazituzten, libre geratzen ziren, eta jokoari berriro hasiera ematen zioten (Urretxu).

tolare *Ik.* dolare.

tolet 1. Abereak tira egiteko gurdia-
ren pertikak aurrealdean daraman zurezko ziria. 2. Karelean edo txalupa-ertz gainean arraunari eusteko ipintzen den ziria.

tomas Gabi txikia (Ibarra. Berna-Zornotza).

topeka Ahari-talka.

toriko *Ik.* txantxo (Otsagi).

tornia Orgak eramaten duen zama (Eskiula, Larrañe).

tornika Neska eta mutilen jolas honetarako, hormatik metro-erdi ingurura, marra bat egiten zen lurrian. Jolaskideek zotz egiten zuten hormaren kontra, oina arrasto gainean zutela nor jarri aukeratzeko. Gainerako lagunak, bi taldetan banatuta, elkarren atzetik abiatzen ziren. Harrapatutako neska edo mutila hormara eramaten zuten, zozketan aukeratuaren ondoan uzteko, eta gauza bera egiten ahalegintzen ziren gainerakoekin. Orduan berriro ematen zitzaion hasiera jokoari. Baina haurren batek ihes egin eta horma ukitzen bazuen, zaintzaileari muzin eginez, hormari “kontu egiten” zegoenaren ordeztartzen zen eta hark, berriz, taldeetako partehartzaileekin batera jarraitzen zuten jokoan (Berastegi).

tornu 1. Birarazten den atal bat duen lanabesa edo makina-lanabesa, atal horretan finkatzen den peza moldatzeko erabiltzen dena. 2. Argizaria egiteko erabiltzen zen danborra. 3. Dolarea (Zugastieta-Muxika).



tornua

torrada Inauterietan bazkal gaineko bezala hartzen den ogi frijitu azukreztatua.

torrada egun Kinkuagesima ondoko asteartea (Aramaio).

torsa Eserlekutik hamabi bat zentimetrotara zumegileak oin-zumitzez egiten duen gurutzaketa erronboak eratuz.

Torto *Ik.* Tartalo.

tortolexketa *Ik.* tortolox (Azpeitia).

tortoliskaka *Ik.* tortolox (Eskoriatza).

tortolox Lau tortolox edo kurkulux erabiltzen ziren batez ere neskak ibiltzen ziren jolas honetan, eta mahai gainera bota eta bere horretan uzten ziren. Banaka egin beharreko jolasa zen. Hezurren lau alderdiei izen hauek ematen zitzaizkien: saka, pon, kulo, karne. Esku batez pilota airera bota eta esku berberaz hartu aurretik “saka” gora begira jarri behar zen. Gauza bera egiten zen beste hiru tortoloxekin, “saka” gainaldera zutela berdin utzi arte. Ondoren lau tortoloxak berriro hartu eta mahai gainera botatzen zituzten; eta gauza bera eginez laurak banan-banan “pon” gora begira zutela jartzten zituzten. Jolasari jarraipena emanez berdin jokatzten zen “kulo” eta “karne” aldeekin. Gero lau tortoloxak mahai gainean uzten zituzten; pilota lau aldira airera bota, eta berriro esku batez jaso aurretik, aldiko tortolox artean hatz bat jarri eta kendu behar zen, honako hau esanez: *“La partida bien cumplida, gracias a Dios y a la Virgen Maria”*. Hitz horiek esan ostean, berriz pilota airera bota eta jaso aurretik lau tabak baztertu egiten zituzten. Egin beharrekoetan hutsik eginez gero, joko kanpo gelditzen zen eta beste jokalarari bati ematen zitzaion txanda (Berrobi).

tortxa *Ik.* atxa.

tosta Txalupetan eta gainerako arrain-ontzietan, jarlekutzat alde

batetik bestera dauden oholetako bakoitza, arraun-aulkia alegia. Tosten arteko bitarteari tostarte esaten zaio.


totxo Agoaren erdia kirtenik gabe.

traba 1. Zaldabereak lekuz alda ez daitezen erabiltzen den kordel txirikordatzko eragozkarria; mutur batean zurezko ziri bat dauka eta bestean begi bat. Pieza hori presilan sartuz aberearen hankak tinkatzen dira. 2. Oletako hauspoen azpian egoten ziren bi tresna.

trabaila Hauspoari eragiteko hagak, kateak eta heldulekuak eraturiko multzoa.

trabes Zurginak erabiltzen duen aitzurtxo erako lanabesa.

trabulu *Ik.* kako.



trabuluak

tragaza Gezia.

traila Abarka-haria.

trailu Garia larrinean jotzeko tresna.

tranga Ezpata, hots, lihoa eta antzeko landareak zehatzeko erabiltzen den lanabesa.

trangabela Bueltake zur zatia, gurdi motzaren etxe azpian ardatzari eusten diona (Bergara).

trangatu Ezpatatu, lihoa eta antzeko landareak trangaz zehatu.

trapa *Ik. alper.*

trapala 1. Etxegintzan edo etxe-konponketan ibili ondoren etxeko nagusiak ematen duen bazkaria edo afaria. 2. Trapalak jo: Ostiral Santuz zenbait elizatan ohol-zarata handia ateratzen zuen zurezko tramankulua; Kristo hiltzean lurrean izan omen ziren lurrikara, ekaitz eta ilunbeak oroitarazteko-edo izaten zen.

tremes 1. Birzahizko ogia. 2. Gari eta zekale irinezko ogia. 3. Zahi txikia.

trenkasega Bi helduleku dituen eta bi erabiltzaile eskatzen dituen enborrak ebakitzeko zerra (Baigorri).

trikiti *Ik. soinu.*

triku Kirikino eta sagarroi ere deitzen zaion animalia honen hortzak soinean josi eta haurtxoei ipintzen zaizkie hortzak lehenbailehen irten dakizkien.

trilu Azpian hortzak dituen zurezko armazoa, lurra xehatzeko erabiltzen dena; hasieran suharrizkoak izaten ziren hortz horiek eta, gerora, zerra-zintazkoak.

trintxa Zurginak erabiltzen duen lanabesa, formoi ere esaten zaiona (Ormaiztegi).

tripaki-zopa Atalluko Inauterietan herriko gazteek tripaki-zopa edo mondeju-zopa afaltzen zuten. Errazkinen antzara jokoaren ondoren ematen zitzairen gazteei tripaki-zopa. Tripotxa beltz edo zuriak jaten ziren ahariki edo ardiakiaren arabera.

tripako min 1. Herri-medikuntzaren arabera, sabel edo tripako minak (tripalak) kentzeko dauzkanari bere gernu edo usuria ematen zaio edateko. 2. Haur baten pixa ematen zaio edateko. 3. Erpuru biekin sabela igurtzi behar zaio. 4. Gizonen tripako minak oilo-zirinen ura edanda kentzen dira, emakumezkoenak, berriz, larranbiloa eta patarra edanda.

trokamenka *Ik. txingo (Muxika).*

tronboi Bueltetan bildurik metalezko tutu zilindrikoa duen soinu-tresna. Mutur batean pita eta bestean hotsa handitzen duen kanpai gisako zabalgunea du. Tonu-aldaketarako bi sistema ezberdinetakoak egiten dira: bata hiru pistoi ditu eta hauek sakatuz aldatzen dira tresnak ematen dituen notak. Besteak, tutu bat bestean sartu eta aterata, tresnaren luzera aldatuz tonu aldaketak egiten ditu. Gure herri-musikan arruntenak hiru pistoikoak dira. Tronboiak aspaldidanik aritu dira Euskal Herriko eskualde guztietako herri-jai eta festetan mota guztietako dantza eta doinuak jotzen. Folklore mailan, ezagunenak Lapurdi eta Nafarroa Beherako dantzetarakoak izan dira.

tronkalakuilu Neska-jolas honetan batek eskua ixten zuen buruorratza barruan zuela; jokoan ari zen beste batek "tronka" esaten zuen. Buruorratza burua gora aldera zuela egonez gero, asmatzen zuen eta buruorratza berarentzat izaten zen. Bestela, berriz, berea eman behar izaten zuen. Buruorratza eta jokoa ematen zituen, eta berriz egiten zen lehengo gauza bera (Ormaiztegi).

tronkozerra *Ik. trenkasega.*

tronpa Soinu-tresna txiki eta simple hau Euskal Herrian asko jotzen omen zen XIX. mendera arte. Tronpak giltza zaharra baten itxura du.



trenkasegak

Itxi gabeko zirkulu antzekoa den uztai du. Muturretatik paraleloki bi beso ateratzen dira aurrealdea. Eta bi beso horien erdian, behatzarekin eraginez bibratzen duen altzairuzko mihia du. Dena metalezkoa da. Durangokoei “tronperriko” deitzen zieten goitizenez, bertan tronpak egiten baitziren, baita jo ere.

tronpeta 1. Bueltetan bildurik metalezko tutu zilindrikoa duen soinu-tresna. Mutur batean pita eta bestean hotsa handitzen duen kanpai gisako zabalgunea du. Tonu-aldaketarako hiru pistoi ditu. Hauek sakatuz aldatzen dira tresnak ematen dituen notak. Tronpetak aspaldidanik aritu dira Euskal Herriko eskualde guztietako herri-jai eta festetan mota guztietako dantza eta doinuak jotzen. Folklore mailan, ezagunenak Lapurdi eta Nafarroa Beherrako dantzetarakoak izan dira. 2. *Ik.* tutubi.



tronpeta

trontza *Ik.* trenkasega.

trontzazerra *Ik.* trenkasega.

tropezia *Ik.* hidropesia.

trumoi *Ik.* ostots.

trunko Lurrean sartutako zurezko zepoa.

trunko-gurdi *Ik.* arkütza.

trunko-iltze Enborrari sartzen zaion iltzea garraio-gurdiari tinkatzeko.

ttipiontzi Neurri desberdinetako metala edo buztinezko eltze bat izaten da. Ipurdia zulatu edo kendu egiten zaio eta tenkatutako larruzko partxearekin ixten da ahoa edo kendutako ipurdia. Larrua jarri

aurretik honen erdian loturik makilatxo edo ziri bat jartzen zaio. Nafarroako erdialdean eta hegoaldean, gutxi bada ere, oraindik erabiltzen da ttipiontzi arrunta Eguberrietako kantuetan, zarata ateratzeko eta kantuarren eritmoaren lagungarri. Eltzagorren kasuan larrua bibratzen jartzeko igurtzitako sokaren bidez eragiten bada, kasu honetan hori kanaberazko edo zurezko makilatxo baten bitartez egiten da. Bibrazio-eragilea gogorra denez, posible da eskuarekin gora eta behera igurtziz eritmoa markatzea.

ttuntun 1. Zurezko erresonantzi kaxa luzekoa. Goitik behera ondo tenkatuturik sei soka izaten ditu, eta hauek kolpatzeko, makila bat. Aurrealdean itxura ezberdineko leihoak izaten ditu. Euskal Herrian izendapen desberdinekin ezagutu dugu sokazko danbor hau. Oso erabilia da Europan zehar, bereziki Pirinio mendiaren inguruko bi aldeetan, itxura desberdinak dituelarik. Gaur egun, Zuberoan bakarrik entzun dezakegu xirulariek jota. Hemen ere atzerakada nabarmena izan du eta azkenaldian gero eta gutxiago erabili da. Pierre Errekalt izan da Zuberoako azken egile zaharra. Honek, Zuberoako aurreko xirulariengandik ikasi zuen egiten eta soinu-tresna onak egiten zituen. Eskualde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik, mota askotako ttuntunak egiten zituen. Zuberoako ttuntuna, txikienetakoa da eta aurretik begiratuta, zezenaren buru-itxura estilizatua du. 2. *Ik.* danbolin.

ttuntunero *Ik.* txistulari (Azkarate).

ttunturro Burutako koniko metro eta erdi luzerakoa, dantzariak erabiltzen duena; behealdea puntilla txulodunez eta zinta koloredunez apaindua du, eta gainaldean, bigarren gain-txanotxo bat du, bitxilanez hornitua, behialako gorulariena

oroitarazten duena. Ituren eta Zubietako Inauterietako pertsonaiei esaten zaie.

tuba Bueltetan bildurik metalezko kono-enbor formako tutua duen soinu-tresna. Mutur batean pita eta bestean hotsa handitzen duen kanpai gisako zabalgunea du. Tonu-aldaketarako hiru edo lau pistoi ditu eta hauek sakatuz aldatzen dira tresnak ematen dituen notak. Tubak aspaldidanik aritu dira Euskal Herriko eskualde guztietako herri-jai eta festetan mota guztietako dantza eta doinuak jotzen. Folklore mailan, ezagunenak Lapurdi eta Nafarroa Beherako dantzetarakoak izan dira.

tulurte Hustutako makila edo kanabera-tutua izaten da. Mutur batean tenkatutako papertxo bat du eta horren ondoan tutua zulatuta dago haizea botatzeko. Jostailu gisa erabiltzen da. Ez da Euskal Herrian halako haurrentzako soinu-tresna edo jostailurik erabili ez den txokorik egongo. Toki gehienetan kanaberazkoak izaten dira. Jotzeko, mutur ondoan egindako zuloa ahoaren kontra jartzen da eta jotzaileak tururu... eginez, eman nahi duen doinua kantatu behar du. Ahoarekin ematen duen doinuaren hotsa, papertxoaren bibrazioz aldatu eta handiagotu egiten da.

tupina Ura berotzeko, jakiak egosteko eta abarretarako metalezko eltze edo lapikoa. Baigorri, Azpeitia eta beste herri batzuetan hiru-hankakoa izaten da.



tupina

turmobe *Ik. ekaitz* (Leitza).

turuta 1. Kanabera-tutu batekin haurrei egiten zaien alboka-klarinete gisako soinu-jostailua dugu. Jotzeko, pita aldeko muturra ahoan sartzen da eta haizea bota. Tonu-aldaketarako dituen zuloak itxi-irekiz doinuak ematen dira. Halako turutak gari-zuztar, oloaren zuztar eta artallorearekin haurrentzat egiten ziren bezalakoak izaten ziren. 2. *Ik. adar* 3. *Ik. tulurte*.

turuta (gari zuztarra) Haurrentzat egiten zen soinu-jostailua. Gari-zuztar bat hartu eta mutur bat behatzekin zanpatuz, mihi bikoitzeko pita sinplea egiten da. Oloaren zuztarrarekin eta artallorearekin ere egiten ziren horrelako soinu-tresnak. Gaur egun, edateko erabiltzen diren plastikozko "lastotxoekin" ere egiten dira. Haize-presioaren arabera tonu desberdinak lortzen dira eta horietaz baliatuz, doinu sinpleak jo daitezke.

turuta (orrazia) Bere kontra tenkatuta papertxo bat eransten zaion orrazi arrunta da. Orraziaren hortzaldean zigarro-papertxo bat jartzen da eta behatzekin helduta, ahoaren kontra jartzen da ezpainetara inguratuz. Haizea botatzen da, doinua tarareatuz, eztarriarekin hotsa eta tonuak emanez. Tresna hauek herri askotan erabili dira.

Turuturu egun Martitzen Karnabal edo Inauterietako astearteari horrela deitzen zitzaion Lekeitio, eta egun horretan haurrak eta helduak marmo jantzita, mozorroturik ibiltzen ziren.

tutu Ehuleak ehundegian erabiltzen zuen kanila.

tutubi Haurrentzat egiten den soinu-jostailua. Gaztainondo-makilari kendutako azal-zinta luze batekin egindako dultzaina gisako tutu konikoa da. Goiko muturrean mihi bikoitzeko pita sartzen zaio. Pita ahoan sarturik haizea emanez, honen bi

mihia bibrazazi egiten dituzte. Pita makilatxo bati ateratako azal-tutu txiki batekin osatzen da. Ez du tonu-aldaketarako zulorik. Beraz, nota bakarra ematen du.

txabet *Ik.* ferra-belarri.

txabila Irutean erabiltzen zen txirrika (Ereñozu-Hernani).



txabila

txabola Artzain, teilagin eta ikazkinen mendiko etxe edo bizilekua.

txakolo *Ik.* eskalanpo.

txakur 1. Euskaraz zakur, or eta txitxi ere deitzen zaio animalia honi. 2. Errementariak eta zurginek base-riko gurdiaren gurpileko zurari lanta ezartzeko erabiltzen duten metalezko giltza. 3. Bi atalez osaturiko iltze ereduetakako bakoitza. 4. Txakurra gauez uluka edo intzirika ari denean, norbait laster hilko dela esan ohi da.

txakur-mihi Herri-medikuntzaren araberak, ebakiak sendatzeko gomendatzen da landare hau: (Cynoglossum officinale, lengua canina, cynoglosse officinale, hound's-tongue).

txakur-zulo Burdinaren irteera-ahoa.

txalaparta Txalapartaren itxura eta zeregina ikusiz, oso zaharra dela pentsa daiteke. Horrela izango da, baina ez dugu antzinako berririk

ohitura honen gain. Ez da garbi ikusten, ez geografikoki eta ez sozialki, zenbateraino zabaldua zegoen. XX. mendeko hirurogeiko hamarkada bitartean, kultur mailan, bazterturik egon da eta ez zitzaion soinu-tresnei eman zitzaien garrantzia eman. Bere itxura ez da beti eta toki guztietan berdina izan. Gehienetan bi euskarri ditu: otarrak edo saskiak ahoz behera jarriak, aulkiak edo bankuak. Hauen gainean, isolatzen duen zerbait: arto-hostoa (arto-orria), zaku zaharrak... Gainean, horizontalki jarriak, gutxi gorabehera bi metro luze, hogeizentimetro zabal eta sei zentimetro lodi den ohol bat. Jotzeko, lau makila, luzera eta itxura desberdinekoak. Txalapartak baditu jotzeko arauak, eta hauek oso estuak badira ere, askatasun handia ematen diete jotzaileei bere irudimen eta inprobisatzeko ahalmena erabiltzaten. Bi izaten dira jotzaileak eta bien artean osatzen dute musika. Batek ordena-oreka jartzen du ("ttakun" edo "tukupun" deitzen da) eta besteak ("herrena" edo "urguna") lagunak jarritakoa haus-tuten du. Horrela, joaldien zehar erritmoa egin eta deseginez, gero eta azkarrago orden-oreka hautsiezinezkora iristen da. Txalaparta beti gauez jo da: sagardoaren inguruko festak, karobi-ezteiak, ezkontza inguruko ospakizunetan... Salbuespen bakarrak azkeneko urteetan, bere ingurutik kanpo eta erakustaldi gisa txalapartariak emandako joaldiak dira. Gaur egun, txalapartaren egoera asko aldatu da. Txalapartarien kopurua hazi egin da eta Euskal Herri osoan jotzen da. Txalapartaren funtzioa musikalki eta sozialki asko zabaldu da, joera aldetik gero eta konplexutasun handiagoa du, eta lehen toki batzuetan zura eta besteetan burdina erabiltzen bazen, orain, bi horiek gehi beste batzuk (harriak, beirak...) nahasturik edo bakarka erabiltzen dira. Gero eta talde

iraunkor gehiago dago eta lana sakon egiten dute.

txali 1. Koilara. 2. Elizako diru-ontzia (Elduain).

txalma *Ik.* arbalda.



txalma

txalmagile Arbalda edo txalma eta bastak egiten dituen eskulangilea.

txalupa Itsasoan zein ibaian ibiltzen den garraio-ontzi txikia.

txalupagile Txalupak egiten dituen eskulangilea.

txanbarrada Larruzko lepoko handia zintzarri txikiz edo kaskabiloz hornitua.

txanbela Tutua, konikoa eta ezepelez egindako soinu-tresna. Luzeraz dultzaina baino motzagoa, gutxi gorabehera dultzainan belarriak deitutako zuloetaraino (txanbelak ez du horrelakorik). Tonuak daketarako, dultzainak bezala zortzi zulo ditu: zazpi aurrealdean (azkena pixka bat alboratua behatz txikirako) eta bat goiko atzealdean. Gaur egun, txanbela eta bere musika zaharren oroimenean dago. Antzinatik Zuberoan, Pirinioetako magalean erabili zen eta gaur egun ia galdua dago. Txanbelak antzinako euskal musikaren estilo eta joera berezia mantendu du, gaur egun gure herrikantutegian dugun musika era zaharrenetariko bat,

zaharrena ez bada ere. Txanbela ez da soinutresna bakarrik, musika egiteko era ere bada.

txanbiris *Ik.* batian-bikoa (Berrobi).

txanbra Legutioko Inauterietan irulejantzitan ibiltzen ziren neskek erabiltzen zuten jantzi zuria.

txangika *Ik.* txingo.

txangin *Ik.* txingo (Ezkio-Itsaso).

txanketa Garia jotzeko harria (Loiola-Azpeitia. Aia).

txanpon Txanponak, giza irudi bat izaten du sarritan eta horregatik egokia gertatzen da aztijardunetarako. Eskuarki txanpona doblatu egiten da eta sutara botatzen da; beste zenbaitetan, San Antoniori kandela bat pizten zaio. J. M. Barandiaranek Ataun, Beasain, Aia, Lezo eta Abadiñon jaso zituen ohitura horien aztarnak.

txanpon-belar *Ik.* huntz.

txantel 1. Arraunak karela marruskatzea eragotzen duen zura. 2. Gurdigurpilaren saihetsean bi txantel doaz eta erdian txantel bat, zil ere esaten zaiona.

txantilo Forjako pieza neurtzeko erabiltzen zen erreminta. → *galga*.

Txantton Piperri Tolosako Inauterietan herriko txistularien bandak jotzen duen pieza.



txantxangorri 1. txantiloia
Papargorri eta txindorri ere deitzen den txoritxo hau norberaren eskuinaldetik badator, berri ona dakar; ezkeretik baldin badator, aldiz, txarra.

2. Andre Maria Kalbarioko mendian semearen heriotza bitartean negarrez zegoela txepetxak altzoa zikindu omen zion eta txan-xangorriak berehalaxe kendu zikin hura. Orduan, Jesusen odol xorta bat erori omen zitzaion papara eta horregatik du gorria harrezkeru.

txantxari-joko Mutilen joko hau gehienbat uda aldean egiten zen. "Txantxaria" zenbait zuhaitz eta landareren kuskuilua da, kasu hone-tan haritzarena. Lurrean zuloa egiten zuten eta bi metrotik "txantxaria" bertan sartzen ahalegintzen ziren. "Txantxaria" lurrean biraka bota behar zen eta zulo gehienetan sartzen zuena izaten zen irabazlea (Udabe, Errazkin).

txantxibiris *Ik. batian-bikoa (Tolosa).*

txantxo Elduainen inauteri-janzkerarekin zebiltzanein ematen zitzaien izen hori eta mozorrotu izena aurpegia estaltzen zutenei. Batzuk emakume jantziz ere agertzen ziren: txamarra eta gona zuri almidoitua, hiru puntako painelu zuria buruan eta galterdi eta abarketa zuriak oinetan. Inauterietako hiru egunetan ateratzen ziren, txistularia lagun zutela, eta eskean egiten zuten. Astelehena-Asteartita arratsaldeetan oilar-jokoa antolatzen zuten plazan eta erromeriaren ostein afaria egiten zuten bildutakoarekin. Berrobi eta Lizartzan ere txantxo izen bera erabiltzen zuten; Latasa eta Etxalekun, aldiz, txatxo deitzen zitzairen, eta horrela janzteari txatxutzea esaten zitzaion.

txantxo-eske Inauterietako janzkerarekin egiten den puska-biltzea (Urkizu-Tolosa).

txapel Artilezko buru-estalki biribila, atal bakarrekua, askotan beltza.

txapel-joko Horma ondoan txapel batzuk jartzen ziren, eta hiru metro ingurutik pilota bat botatzen zuten

jokalariek, haietako batean sartzeko asmoarekin. Pilota zoruan biraka bota behar zen, lurra utzi gabe (Udabe).

txapinu Manta edo zakuzko zerrendak, olagizon batzuek praken barrena biltzeko erabiltzen zituztenak.

txara Saskigileak zur-zerrendak ateratzeko erabiltzen duen gaia.

txaramel *Ik. arxalu.*

txarpaketa *Ik. tortolox (Alkiza).*

txarran Bederatzi hortzeko lanabesa, lurra arin maneatzeko erabiltzen dena.

txarrantxa 1. Aberea hezi eta balaztatzeko erabiltzen den tresna. Bi piezakoa da eta horien muturrak kakodunak dira. Kakoetako batekin txarrantxa tinkatzen zaio aberearen kabrestuari, eta besteak, 50 bat gramoko metalezko bolatxo batetik sartzen den burdinazko argoila hartzen du. Bola horren egitekoa izaten da txarrantxari tira egiteari uztean pisuak jalkiarazi eta abereagandik bakartzea. 2. Gurdian luzetarako zuren artean zeharretara sartzen diren zurak, zamari eustekoak. 3. Lihoa orraztu eta garbitzeko lanabesa, burdin harizko hortzak dituen eskuila. 4. Zurezko sendogarria zoruan duen saski edo otarre mota.



txarrantxa

txarrantxari Lihoa txarrantxan lantzen duen langilea.

txarro San Joan bezperan, etxeko jaunak edo familiako beste batek gurutzeak hartu eta ur bedeinkatua dagoen txarroan sartzen ditu (Leitza).

txartana *Ik.* danbolin (2).

txartel Zume sorta.

txata-joko *Ik.* kalderon.

txatar *Ik.* txantxo.

txatar-jantzi Nafarroako zenbait herritan lote edo Inauterietan mozorroturik ibiltzen zirenak (Abartzuza, Etxarri-Aranatz).

txatxo Lantzeko Karnabaletako pertsonaiak. Mozorrotu izena ere hartzen dute eta Erraldoi, Xaldiko, Ziripot eta ferratzaileen atzeetik ibiltzen dira, arranei hotsa eragin eta irrintzi ozenak jareginez. Garai batean herriko gazteria ia osoa ateratzen zen txatxo-mozorroarekin. Ziripot defendatzen eta Xaldikori jazartzen ahalegintzen dira. Ibilbidearen une jakinetan ingude bat egoten da eta horietan ferratzaileek, galdara eta beren lanbideko tresnez horniturik dabiltzanek, ferratu egiten dute Xaldiko, txatxoan laguntzarekin. Astearte arratsaldean, Miel Otxin plazan tiroz hil eta errezean, txatxoek zortziko dantza egiten dute.

txatxu *Ik.* txantxo.

txatxutu Txantxo edo txatxu modura jantzi.

txepetx 1. Epetx, erregetxupit, larrepetit eta petiterrege ere deitzen da txori hau. 2. Txepetxa ez da jan behar Andre Mariari altzoa lohitu baitzion, ezta ukitu ere ezkabia sortzen baitu. 3. Txori hau harrapatzean, lumatu eta urte hartako

urrak dauden otzare batean sartzen da eta bi landerren artean ezartzen da sutan erre arte. Ona omen da hori egitea. 4. Behin txoriak elkartu eta beren erregea hautatzea erabaki zuten. Goren igoko zena izatea erabaki zuten. Txepetxa arranoaren gainera igo zen. Txori guztiak laster nekatu ziren, arranoa izan ezik, eta hark bere baitan esan zuen: "Neu nauk errege" eta jaisten hasi zen. Baina orduan txepetxa hegan hasi zen eta goren agertu zenez gero, erregetzat hautatu zuten. 5. *Ik.* kas-kamelan.

txerrero Zuberoako maskarada gorriko pertsonaia zaldi-zurdazko erratza astintzen duena. Gerrian ezkilak edo txilinak izaten ditu eta garai batean galtzerdi zuri bat eta gorri bat jantzen zituen.

txerri 1. Euskaraz urde eta zerri ere deitzen zaion animalia hau oso estimatua izan da baserrietan eta eskuarki arretaz zaintzen zuten hiltzeko garaia. 2. Txerria hiltzeko ilargiaren eguna, zazpigarrena, hamaikagarrena eta hamazazpigarrena dira onak. 3. Txerria hiltzeko ilbehera da ona; orduan hildako txerriaren haragia gogortu egiten da; ilgoran hildakoarena, berriz, harro gelditzen da. Halere, batzuek diote txerri ordotsa ilgoran hil behar dela, eta ahardia ilbeheran. 4. Txerri hiltzeak auzokoan artean odolki eta txerriki-puskak banatzeko ohitura izan du. Hori adierazten du "Odolkiak ordainetan" esamoldeak.



txerria

txerritrapala Txerria hil ondorengo gosaria (Aldaba-Tolosa).

txiflo Lizar edo intsusez egindako moko-flauta da. Aurrealdean bost edo sei zulo ditu eta atzealdean bat. Bi eskuekin hartu eta pita ezpainetan jarririk, bestelako moko flauta antzera jotzen da. Arabako Trebiño aldean erabiltzen ziren halako flautak.

txikoleta *Ik.* kalderon (Aramaio).

txilibitu 1. Kanaberazko tutua da. Goialdean pitarako errebajea eta leihoa ditu eta takoa jartzen zaio. Tonualdaketarako hiru zulo edo gehiago egiten zaizkio. Txilibituaren pita ahora sartu, putz egin eta zuloak behatzarekin itxi eta irekiz doinu simpleak jotzen dira. Beti ez ziren etxean egiten. Gure herriko festetara etortzen ziren feriante eta saltzaileek ere ekartzen zituzten halako tresnak. 2. *Ik.* txistu.

txiloketa *Ik.* arrenaketa (Arribe).

tximani *Ik.* txingo (Erasun).

tximinia Urtezahar gauez afaldu aurretik tximinia garbitzeko ohitura izan da.

tximista 1. Tximistaren izen batzuk: ozpinarri, oneztarri eta tximistarri (agian baita ozkar, ozkarri eta inhar ere). 2. Europako herrialdeetan oso hedaturik dagoen mito zahar bati dagozkio eta horren arabera tximista harri berezi bat da lurrera erortzean zazpi estadutarainoko sakonerara iristen dena, gero urtero estadu bat gora egiteko, eta zazpigarren urtean gainaldera azaltzen da; harrezkero dagoen tokiko etxea babesten du espiritu gaiztoetatik edo ahaide gaiztoetatik, hau da, tximistatik beretik. Mito hori Thor-en mailuarekin eta Jupiterren geziekin loturik dago. Hala ere, Euskal Herriko zenbait lekutan tximista brontzekoa edo burdinazkoa dela

uste dute, eta horregatik sortu da altzairuzko aizkorak ahoz gora ezartzeko ohitura atalondoetan, ekaitza denean etxea babesteko. Aizkorriko Zabalaitz haitzuloko sarreran brontze-aroko aizkora bat aurkitu zen lurrean sartuta eta ahoa gorantz zuela. 3. Tximista urruntzeko pala batean sutako txingarra hartu eta gainean San Joan-belarrak jarriz hau esaten da: “Sarna fuera, onak barnera, gaiztoak kanpora” (Elizondo) → *Tximistarri*.

tximistarri Suharri, oxme-harri eta zeraunia ere esaten zaio. Tximista pago, haritz edo lizarrera etortzen bada, tximista horrek harri batzuk sartzen ditu zuhaitzaren azpian lurreraino. Harri horiek dira tximistarriak.

txinbo Antapararen zulo tapoiduna, ura olara igarotzen uzten duena.

txindorri-belar *Ik.* inurri-belar.

txinga Enborrak arrastatzean erabiltzen den burdinazko tresna; burua, obaloea eta haginak izaten ditu.

txingar Urdaia, Inauterietako eskean zebiltzanez garai batean sarri ematen zitzaien jakia.

txingarri *Ik.* txingar.

txingo Neskak zein mutilak aritzen ziren txingoan edo txingoka. Zoru gainean -laua bada hobe- sei laukizuzen marraztu eta 1., 2. eta 3.a “Trucame”, “Cielos” eta “Maria” bitan zatitzen ziren, goitik beherako marra baten bitartez. Lehen laukian harri zapal bat jartzen zen eta oin bakarraren bidez bultza egin behar zitzaion laukiz lauki, seigarrenaraino, “Maria” deitura iritsi arte. Harriak ez zuen marraren gainean geratu behar eta oinaz ere ez zegoen marra zapaltzerik. Eskuineko “Maria” izeneko laukira iristean, ezkerrekora pasatu behar zen. Bi oinak lurrean jarri, erdiko



txingoka jolasten

marraren alde banatan, itzuli-erdia eman eta egindako bidetik atzera itzultzen zen, berriro abiapuntura iritsi arte. Ondoren harri zapala bigarren laukian utzi behar zen eta lehen bezala ibilbide osoa egin, ondoren hirugarrenarekin jarraitzeko, eta abar. Harria marra gainean utzi edo oinaz zapaltzen zuena jokoak kanpo geratzen zen. Gaur egun ere umeak ibiltzen dira txingoka (Tolosa).

txingoi *Ik. ingude.*

txingudi *Ik. ingude.*

txingura *Ik. ingude.*

txingure *Ik. ingude.*

txinkirrin *Ik. txingo (Azpeitia).*

txinkoketa *Ik. txingo (Amezketeta).*

txinkote *Ik. ingude.*

txintx(a) 1. Kanpai formako arran edo ezkila, behiaren lepotik esekitzen dena. 2. Txintx izeneko jokoan mutilak ibiltzen ziren, urte guztiko igandeetan. Jokalariek bost xentimoko txanpona jartzen

zuten lurrean, bata bestearen gainean. Lurrean uzterakoan txanponaren alde jakina gora begira jartzen zuten beti, lurrean egindako marratik hiruzpalau metro-tara. Ondoren, alde zurretik txotx eginda egokitutako txanda gordez, marra horretatik banaka botatzen zuten hamar zentimoko txanpona. Hamarreko txanponarekin bosteko txapon-mordoska jo eta lurrera botaz gero, aldi berean txanpon hauek buelta emanda utzia, tira-tzailearen sakelara joaten ziren. Botatakoan inork ez bazituen bostekoak jotzen, bere bost zentimoko txanpona hurbilen utzi zuenak berriz eskuan hartu eta pilatutako txanponak jotzen zituen, eta buelta emandakoak berarentzat izaten ziren. Honek aukera ematen zion bost zentimoko txanponei bigarren kolpea emateko –elkarren ondoan bazeuden behintzat–, eta buelta emandakoak berarentzat izaten ziren. Mutikoren batek jokoan huts egiten zuenean, bost zentimoko txanponetatik bere hamarrekoa hurbilen uzten zuen hurrengoak hartzen zion txanda. Jokoari hasiera emateko bost zentimoko txanponak elkarren gainean jartzen ziren, eta aurrekoan irabazle gertatua izaten zen jokoa- ren hasiera-emailea ere (Erasun).

txintzarri *Ik. ezkila.*

txintxiketa Neska-mutilen joko hau lurrean laukia edo zirkulua eginez hasten zen, eta zozketan egokitutakoak tarte jakin bat uzten zuen marrarekiko. Orduan, makila mutur-zorrotza bota eta marra barruko gunean sartzen ahalegindu behar zuen. Tanto-kopuru jakinera jokatzen zen; makila marra barruan lurrean sartuta uzten zuenak tantoa bereganatzen zuen, eta tanto horiek aurrea eskuratzen zituena bere txandaren barruan irabazle gertatzen zen (Orexa).



txintxiketan

txintxin lk. aingerukanpai.

txintxirri lk. angerukanpai.

txiri-joko lk. kalderon (Tolosa).

txirikila 1. Joko honetan hoge zentimetroko tartea zuten bi harriren gainean makila edo "txirikila" jartzen zen, muturrik zorrotzera kanpoaldera zuela. Gero, txanda egokitutako neskak edo mutilak, metro-erdi inguruko makilaz "txirikila"ren muturra jo eta airean jarri behar zuen; neskak, mantalean jaso behar zuen, mutilak, berriz, gerrian lotutako zakuan. Jokoa huts egin arte errepikatzen zen eta, orduan, huts egin zuena ilararen atzealdean jartzen zen. Urte osoan aritzen ziren txirikilaka (Tolosa). 2. Izen bereko beste joko bat ere badago, neska-mutilek Garizuman jokatzeko zutena. Aurrena "porteria" egiten zuten hiru egur erabiliz. Ate horrek metro-bete inguruko zabaleira izaten zuen, eta behetik gorakoa berrogei zentimetro ingurukoa izaten zen. Jokalarietako bat "porteria" edo ate horren ondoan jartzen zen eta lurrian hoge zentimetroko makila, muturra zorrotzua zuena,

"txirikila" zeritzana. Eskuetan beste makila bat hartu, batzuetan luzeagoa eta beste batzuetan laburragoa zena, eta lurrekoa muturrean jo eta lehenik lurretik altxatzen zuen, eta, ondoren, artean airean zegoela, beste kolpe bat emanez, ahalik eta urrunen bidaltzen ahalegintzen zen. Jolasean ari ziren beste lagunek "txirikila" airean har zezaketen eta hori lortzen zuenak ordu arte pieza txikia jaurtitzeko ibilitakoaren lekua bereganatzen zuen. "Txirikila" airean hartu nahi zuenari eskuetatik ihes egin eta lurrera erortzen bazen, hurbilen zegoen jokalaria zutitu eta porteria sartzen ahalegintzen zen; hori lortzen bazuen "txirikila" bota zuenaren lekua hartzea zegokion, jokoarekin lehen bezala jarraituz (Apatamonasterio).

txirikin Olan erabiltzen zen kako edo garabato txikia.

txirrika 1. Ardatz batean kokaturiko gurpila, bere ingurunean soka, kate edo uhal bat daramana, eta zamak jasotzeko edo higidura bat helarazteko erabiltzen dena. 2. Alboetan bi disko dituen haga edo hodia hariak, sokak, xingolak eta abar bilatzeko.

txirrinka Gurpila. Burdi-txirrinka (Aramaio).



txirrinka

txirristohol Ik. bildumen.

txistoki 1. Izen asko ditu min mota honek: azaldor, edarate, erpuruko, ertul, itzemin, zingirio, zoldu eta abar. 2. Herri-medikuntzaren araber, kataplasma gogor bat behar da, eta hartan ardoa, olio, gantza, linazia, baratxuria, tipula eta gatzagi-mamia ezarri behar dira. 3. San Joan belarrez edo elorri-arrantzaz zulatu behar da txistokia. 4. Hiru erramu-hosto gainean jarri behar dira, erramuarekin berarekin zeinatuz batean goitik behera, ezker-eskuin, eskuin-ezker eta behetik gora. Min duenak Kredoa esan behar du. Hiru bider egin behar da hori, goizean, iluntzean eta hurrengo goizean. Petrikiloak hatsaldi bakarrean otoi ez egiten du zerbait. 5. Txistokia kentzeko ur irakinetan sartzen da hatz mindua hiru, zazpi edo bederatzi aldiz. 6. Txistokia kentzeko ona da tipula berotu eta bigundua, baita esnetan bustiriko ogi beroa ere. Halaber, txerri-behazuna eta baratxuriz eta lirio zurien sustraiez egindako kataplasmak erabili izan dira.

txistor 1. Inauterietako eskekoek badute esan bat: "Txistor-mistor Emakunde, ematen duena leiala, ematen ez duena zimurra". 2. Lukainka mota mehea.

txistu Herri-musikan soinu-tresna zabalduenetakoa eta ezagunenetakoa. Hiru zuloko (hirurak behealdean, bi aurrealdean eta bat atzealdean) flauta zuzena da. Azkenaldian plastikoa eta metala erabili badira ere, txistuak zurez eginak dira. Afrikatik ekarritako ebano eta pasio-fruta izeneko zurak erabiltzen dira eta horregatik dute kolore beltza. Aurretik bertako zurez egiten ziren, ezpelez esate baterako, eta horrexegatik txistu zaharrek hori-kolorea izaten zuten. Zurezko tutua babesteko eta apaintzeko, metalezko eraztunak ditu. Ahokaketa eta mihi-alaka ere metalezkoak dira.

Beheko muturreko metalezko sendogariari erantsirik, hatz nagia sartzeko eta txistuari heltzeko eratzuna du. Txistulariak esku batekin txistua eta bestearekin besotik zintzilaturik daraman danbolina batera jotzen ditu. Horrela jole bakarrak musikaren doinua eta erritmoa aldi berean eskaini ditzake. Gaur egun eliza eta erakunde ofizialekin gehienetan harreman onak badituzte ere, historian zehar txistulariek marjinazio larria jasan dute askotan, hauek ibiltzen baitziren zenbait dantza eta ohitura zaharren partaide eta buruzagi gisa. Txistulariak edo txistulari izandakoak, adibidez, ezin zuen kargu publikorik izan zenbait tokitan. Horregatik askotan "danbolite-roak" agote eta ijitoak izaten ziren eta bestetan festetarako kanpotik ekartzen zituzten. Azken urteotan, txistulari-taldearen aukerak zabaltu nahian, neurri desberdinetako txistuak sortu dira esperimentazio-mailan. Gainera, gero eta gehiago, bestelako soinu-tresnak ere erabiltzen dira txistulari-taldeekin.

txistulari Txistua jotzen duena, sarritan danbolinarekin batera.



txistularia

txitasar Ziri txikiz egindako zurezko kaiola.

txitxar Txerri-okela gizen frijitu edo erre, San Joan bezpera-gauean gazteek herriko plazan aureskua

egin ondoren, baratxuri-zopa eta arrautzarekin jaten zutena (Elgeta).

txitxera *Ik. sanbelu.*

Txitxiburduntzi egun Kinkuagesima aurreko osteguna (Markina).

txitxilu *Ik. zizeilu.*

txiza Joko honetan poxpolo-kaxa baten gainean bost zentimoko txanponak jartzen zituzten partehar-tzaile bakoitzeko. Lau edo bost metrotatik bakoitzak hamar zentimoko bi txanpon botatzen zituen kaxaren gainera; horiek botatzean txanpon txikiak kaxa gainetik lurre-razten ahalegintzen ziren; tira-tzaileak eroritako bost zentimoak eskuratu nahi bazituen, txanpon txikiak berak botatuko hamar zentimo-koetatik hurbilago geratu behar zuen kaxatik baino. Bestela, lurrean uzten zituen eta hurrengo jokalaria ere bere bi hamarrekoak kaxatik baino bost zentimo-koetatik hurbilago uzten ahalegindu behar zuen. Asmatzen ez zutenen hamarrekoak deposituan gordetzen ziren joko amaite arte eta jokoari berriro hasiera emateko bost zentimokoak jarri behar izaten ziren kaxaren gainean (Burgi).

txoketa Neskak-mutilen jolasa zen eta inguruko belardietan egiten zen eguraldi oneko igandeetan. Batbatean, zozketa egin gabe, neska edo mutila jolaskideen atzetik harrapatzera abiatzen zen. Norbait atzemandakoan "txok" oihukatzen zen eta harrapatutakoa besteen atzetik abiatzen zen. Batetik bestera mugituz neska-mutilak nekatzean, jolasari amaiera ematen zitzaion (Albiasu).

txokor Aleak kendu zaizkion artaburuak.

txondar *Ik. txondor.*

txondor Ikatza egiteko eratu eta su ematen zaion egur-meta; bertan ezartzen den egurrari betegarria esaten zaio.

txondor-mazo Txondorgintzan meta-
ren kanpoaldea egokitzeko erabiltzen den zurezko mazo.

txopa Itsasontziaren atzealdea.

txopin Gurdi edo orga batzuek erabiltzen duten burdinazko abatz edo gurpegia, ardatza babesteko.

txorbeltz *Ik. karraskila.*

txori-izugarri *Ik. txorimalo.*

txorimalo Soroetatik txoriak uxatzeko erabiltzen den arropa zaharrez eraturiko giza irudia. Berastegin txorimaloak erabili izan dira San Joan sua pizteko.

txori-zomorro *Ik. txorimalo.*

txorrotx Zuberoako maskaradako pertsonaiak. Txorrotxaileak bi izaten dira, nagusia eta langilea. Beren "funtzio"an frantsesez hitz egiten dute, baina inprobisatzean, euskaraz.

txorrotxaile Tresna ahodun desberdinar zorrotzen dituen.



txorrotxaile

txotxttua Nesken jolas honetan, lurrean zeharka eta ilaran makilak jartzen ziren, elkarren artean hamabi bat zentimetroko tartea utziz. Banaka hartzen zen esku. Oin bakarraren gainean, zeharka, makilen tartean zapalduz, azkenekoa gainditu behar zuten. Orduan, eta beti ere oin bakarra jarriz, makurtu eta makila bat hartu behar zuten, eskuan hartuta berriz esandako moduan abiapuntura itzultzeko. Hemendik, eta gelditu gabe, berriz ere gauza bera egitera abiatzen zen, beti azkeneko makila hartuz, kendutako guztiak eskuan zituela eta oin bakarraren gainean (Mus-kildi).

txulo Bidankozen Txulardero egunean, inauterietako ostegunean alegia, aitapontekoak besoetakoari ematen dion erroka.

txulora “Txulora”n aritzeko aurretik txulo txiki bat ireki behar da, eta hiru metro ingurutik, arrasto batez markatuta, intxaurra sartu behar da zuloan, lur gainetik edo airetik botata. Beren nahia lortzen zutenek, zuloz kanpo gelditutako intxaurrak banatzen zituzten. Inork zuloan sartzea lortzen ez zuenean, hatzez bultzatu eta zuloratzen zuen aurrenekoarentzat izaten ziren orduan (Ormaiztegi).

txulubita (abrikot-hezurra) Abrikot-hezurra hartu eta honen ertza harri baten kontra igurtziz higatzen da, hezurra zulatu arte. Gero, labana, guraize edo iltze-puntarekin barruko hazia ateratzen da, barrengoa garbi-garbi utzirik. Zulo aldea ere kontu handiz ondo egina utzi behar da, zuloaren ertza zorrotz utzirik. Txulubita hau bi behatzekin muturretatik hartu eta beheko ezpainen kontra jarririk, haizea indarrez zuloaren ertzaren kontra bota eta txistu ozen eta tonu altukoa lortzen da. Halako tresnak eskualde guztietan erabili dira.

txulubita (zuloduna) Adar-makilatxo bat da. Mutur batean, begi ondoan, pitaren muturra egiten zaio eta makila aterata, azala da flautaren tutua. Beheko muturretatik sartzen zaio lehenago ateratako makila. Putz egin eta txioka moduko doinu luzeak jotzen dituzte txulubitek. Herrialde askotan, udaberrian, izerdi garaian, haurrei egiten zitzaizkien halako soinu-jostailuak. Leku batzuetan lizar-adartxoekin, besteetan makal edo gaztainondo-koekin egiten dira. Tresna hauek ez dute jotzeko balio dutela luze irauten. Horregatik, erabili nahi denean egin eta jotzea izaten da zuzenena.

txulubita (zulorik gabea) Zuloduna den txulubita bezalakoa da, baina zulorik egin gabe. Txulubitararen pita ahoan sartu, putz egin eta txio moduko doinu luzeak jotzen dira. Eginkizun, erabilera eta entzuteko garaiari dagokionez, txulubita zuldunaren antzera jotzen da. Egitako sinpleagoak eta jotzeko ere errazagoak dira.

txulula *Ik.* xirula.

txungure *Ik.* ingude.

txuntxo Neska-mutilen joko honetan, lurrean arrasto bat egiten zuten makilaz eta handik bost metrotara bigarren arrastoa. Arrasto horren gainean harri zapal bat jartzen zuten, azpian zerbait sartu eta alde batetik zerbait altxatuta. Bere gainean, kono itxurako zurezko pieza, hamabiren bat zentimetrokoa, “txuntxo” izenekoa; batzuetan horren orde zere pote hutsa ere erabiltzen zen. Haur talde bat “txuntxo”aren inguruan jartzen zen, esku hutsik pare bat inguru samarrean, eta gainerakoak aldenduxeago. Bigarren taldea beste arrastoaren atzean jartzen zen, nor bere makila eskuan zuela. Horieta batek makila bota eta “txuntxo”a jo behar zuen, eta orduan ingurukoak piezaren atzetik abiatzen ziren, eta

harrapatutakoan lehengo lekura itzuli behar zuten “txuntxo, txuntxo, txuntxo” esanez. Makila bota zuena, berriz, makila horren bila abiatzen zen marra atzetik, eta “txuntxo”a bere lekura itzuli baino lehen haren paretik pasatu behar zuen, makila eskuan zuela. Horretarako astirik ez zuela sumatuz gero, lehenik oinaz makila zapaldu behar zuen, eta ondoren, eskuan hartu eta “txuntxo”aren ondoko marraren alboan jarri, aurrera jarraitu gabe. Ondoren beste jolaskide batek botako zuen “txuntxo”aren kontra; “txuntxo”a bere lekura itzuli baino lehen makila.

txurikin Artaburuaren hostoa (Urkizu-Tolosa).

txurka Gaztagintzan erabiltzen den zurezko bastidore edo atala.



txurka

txurra Jolastokiak ongi bereizitako bi larrain izaten zituen, alboak ere ongi mugatuta zituela. Larrain bakoitzeko hiru mutil aritzen ziren. Jokalari bakoitzak eskuan ezpelezko makila erabiltzen zuen, muturrean bola zeukana, eta tresna horri ematen zitzaion “txurra” izena. Trapuz eta artilez egindako pilota erabiltzen zuten, hariz josia. Pilota eskuz jokatzea baino zerbait handiagoa izaten zen. Txanpona botata “leon-kastillo” egiten zuten larraina aukeratzeko eta jokari hasiera nork eman jakiteko. Pilota lurrean utzita hasi beharkeak, bota egiten zuen hura, bere larrainetik ateratzeko asmoarekin. Jokoa hogeitanto eta gehiagotara egiten zen. Talde bakoitzeko hiru jokalariai jokorako arrastoaren barruan elkarrengandik aparte jartzen ziren, zoruak agintzen zuenaren arabera. Talde bakoitzeko

ezker-jokalaria izaten zen sakegilea, hau da, pilota beste aldera bota behar zuena (Bidankoze).

txurraketa Mutilen jolas honetarako zuhaitzen enborretatik kabatxak mozten zituzten, baita abar lodi samarrak ere, muturra kako tankerakoa zutenak. Bi mutil talde antolatzen ziren, talde txikiagoak edo handiagoak, baina parte-hartzaile kopuru berdinez osatuak biak. Bi taldeen erdian marra egiten zen lurrean. Mutilak beren makilekin kabatxa indarrez jotzen ahalegintzen ziren, beren aldetik bestera pasatzeko. Marraren atzetik talde bakoitzak ahaleginak egiten zituen aurreko taldeak jotako kabatxa bere sailera pasa ez zedin (Arribe).

txurrin Eliz atarian bi talde osatzen ziren elkarrengandik hamar bat metrora, eta erdian arrastoa egiten zen. Talde bat mutilek eta bestea neskek osatzen zuten. Zozketa egin ondoren, pilota eskuan zeukan haurrak lurrera bota eta oinez jota, talde batekoek ala bestekoek aurrea zeinek pasa izaten zen jokoa (Ezkio-Itsaso).

txürüla Ik. xirula.

txutxurrutxu Txutxurrutxuka ibiltzea gurdiaz baliatuz kulunkan ibiltzea zen. Gurdia pertikan neska edo mutila jartzen zen, eta atzealdean beste hiruzpalau. Pertikaren muturrean jarritakoaren eta atzealdean eseritakoaren artean ondorengo elkarriketa burutzen zuten: “Txutxurrutxu.../ zer daukazu.../ arrautza / zeinentzako / Dorletarentzako (izena) / eta Dorletak / ez ba



txürüla

dau gura". Bukatzeko ondorengo galdera egiten zen: "Zenbat? / Hogei...". Ondoren zenbakian adierazi adina kulunkatzen ziren (Eskoriatza).

tzintzarrada Toberak. Galarrots edo zintzarrotsa (Larrañe).

tzintzarri Ik. kusküilo / Ik. kusküilota / Ik. txintx(a) (Larrañe).

Uu

uaiki Ik. uraga.

ubaga Sutegietako hauspoen katea.

ubel-iltze Ik. ubel-untze.

ubel-untze Gurdiaen gurgpileko metalzko aroa josteko erabiltzen den iltzea.

ubista Inauterietan mozorrotuak tresna hau astinduz ahal zutena bustitzen ahalegintzen ziren.

ugatzarri.

ukatu Ihizko siloi edo besaulkiaren hankari behar duen okerdura edo kakodura ematea.

ukuilu Baserrietan abere handiak gordetzeko leku estalia eta itxia.

ukuilu-aitzur Simaurra higitzeko erabiltzen den aitzur horzdun berezia.

unai Behizaina. Otsagiko unaiak mendia utzi eta herriko plazan dantzatzen ziren.

ünkhia Ik. ingude (Urdiñarbe).



ünkhia

untze Ik. iltze.

ur berri 1. Urtezahar gauerdian iturritik jaso eta etxerik etxe banatzen den ura (Beramendi-Urdiain). 2. Urteberri egunean eskean irteten ziren mutilek herriko iturritik hartutako ura eskaintzen zuten etxe bakoitzean, kantari, edateko eskainiz (Zuatzu).

ur gorri 1. Ur minerala, metal-ura. 2. San Joan goizean "Iturri gorri" izeneko iturrira joan eta ur gorria edateko ohitura zegoen (Ezkurra).

uraga Antaparako txinboa graduatzeko zeharretako haga; zutikako hagari disparo deitzen zitzaion.

urarka Akueduktu modukoa, gabiari eta sutegiko hauspoei eragiteko urkorrontea garraiatzen zuena oletan.

uraska Sutegietan ura edukitzeko izaten zuten harrizko ontzia.



uraska

urdaileko gaitz Urdaileko min eta gaixotasunetan honako erremedio hauek proposatzen dira: zaldi-buztanaren ura hartzea, zartaginean oliotan eskutada bat kamamila erregosi eta horien enplastua urdailean ezartzea, eta kamamila eta xarbotaren ura hartzea. Beste ohitura batzuk San Joan bezperan hartutako intxaurrak anisetan jarri eta hilabete geroago hori hartzea, eta hogeita bat aitagure Espiritu Santuari erreztatzea, gaixoaren izena aipatuz eta sendatzeko eskatuz.

Urdelardero egun Kinkuagesima igandearen aurreko osteguna Eskoriatzan; neska-mutikoak ziria eskuan zutela irteten ziren, eskean emandakoa bertan sartzeko.

urka Lurrean sarturiko ohol edo take-tak, biribil errebortxatua eratzen dutenak inguratzen dituen katearen bidez.

urkabe 1. Kondenatuak zintzilik jar-zeko haga horizontal sokaduna eta horri eusten dion habe perpendikular batez osaturiko tresna. 2. Antzara-jokoaren ondoren hiru erroskila zintzilikatzeke Beteluko Inauterietan erabiltzen den zurezko tresna.

urkatxo Zur angeluzuzeneko ebakidura bat da ardatzarentzako barnehari bat duena. Ardatz bakoitzak bat du eta zehar- burdina batzuen bitartez uztarrikoei tinkaturik egoten da.

urkila Abarkagilearen lanabesa.

urtebera Hildako baten urteurrena elizan (Larraul).

Urteberri 1. Urtearen lehen eguna. 2. Urteberriz emakumeak gizonezko-enganetik hartzen dituzte gabonsariak (agilandoak); Erregeenez, berriz, alderantziz honako hau kantatuz: "Agilando agilando, hiru in-txaur eta lau gaztaina, haren gainean lau sagar, nik bai altzoa zabal-zabal". 3. Haurrek Bizkaian hau kantatzen dute: "Urtebarri barri, txarri-belarri, daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta niri."

urtebi Hildako baten bigarren urteurrena elizan (Larraul).

urtel Gurtetxeari ezartzen zaion zurezko bastidorea, zama jakin batzuk garraiatzeko.

Urtezahar 1. Urtearen azken eguna. 2. Urtezahar gauean, batez ere

Nafarroa aldean, tximinia garbitzen zuten, eta egun berean kedarra baratxuri landareari botatzen zioten. Garbiketa horretan soka luze batez lotutako baserratz sorta erabiltzen zuten. 3. Arantzazuko baserrietan Urtezahar egunez tximini ikusleak, auzoko gizon edo mutil pare bat, kebidak garbi zeuden ala ez ikusten ibiltzen ziren.

urtu 1. Beroaren eraginez gai gotor bat isurkari bihurtu. 2. Metalak isurkari bihurtu.

urtzaile Olan burdina urtzeaz ardura-tzen zena.

Urtzi Aymeric Picaud erromesak, XII. mendean Santiagoko kodizean idatzitakoaren arabera, antzinako euskaldunek Urtzi (Urcia) deitzen zioten Jainkoari. Baliteke interpretazio zuzena ez izatea erromesarena, baina termino hori hitz banaka batzuetan ageri da (urzondo-urzondo, iurtziri, ortzi, ortziri, ostiri, ihuzturi, ozkar...) eta baliteke horietan urz, urtz, ortz, ost erroak zeruko argia adieraztea eta ortzeguna (osteguna), asteko egun bat eskaintzen zaion dibinitatea izatea. Badirudi euskaldunek, indoeuroparrek bezala, Dyeus dibinitatea trumoi eta tximistaren jeinuarekin bat egin zutela. Zeruko dibinitate horren beste izen bat Egu izan zitekeen, Eguen hitzean ageri dena. Barandiaranen ustez, In hitza ere erabili da zeru edo ortzia aipatzeko inusturi, inar, inhar, iñetasi, inastura, indriska eta abarretan ageri dena. Hodei, Hodai geroagokoa bide da, ekaitzen jeinu gisa; dibinitate horri egozten zaio udaberriko euri ongi-lea edo ostebia; Ereñusarren jasotako euri hori larruazaleko gaitzak sendatzeko erabiltzen zen.

urtzulo Metalak urtzeko labea.

usin Toki askotan herriak galdua dauka hitz hau eta horren ordez Doministiku(n) hitza erabiltzen da.

Usin egiten duenari Dominus tecum latinezko hitzak esatea aspaldiko ohitura da zenbait herritan. Zenbait tokitan hitz horien esanahia ez da ulertzen eta euskarazko Jainkoak lagun ere gehitzen zaizkio. Beste herrialde eta hizkuntza batzuetan ere badira antzeko ohiturak, adibidez, Jesus edo osasun esatekoak.

usula *Ik. suil.*

ütsü-mandoka *Ik. itsu-mandoka (Sohüta, Baigorri).*

uxar Hortz bakarreko burdinazko lanabesa, goldearen lana sakontzen duena.

uztai 1. Biribilki formako gauzakia. 2. Arkua. Ibilgailuen gurpilen metalazko ingurua. 3. Aberearen lepoakoa.

uztargile Abereentzat eta kanpandorreko ezkilentzat uztarriak egiten aritzen den eskulangilea.



uztargilea

uztarri Abereek gurdi edo lanabesei tira egiteko erabiltzen den zurezko pieza. Abere bakarrarentzakoa zein bientzakoa izaten da, nahiz eta azken hori izan Euskal Herrian gehien erabilia. Bi belarri edo ertz eta lau adar-zulo izaten ditu, lau hede-koska eta bi buru-leku; lotzeko bi hede-zulo eta tira egiteko gurtede-zuloak. Gainaldean, 35 bat zentimetroko tartearekin, bi zulo

izaten ditu hagatxo makotu bat ezartzeko eta horren gainean ardi-larru bat zabaltzen da. Bilkua izeneko hagatxo horren azpian aizkora, ardo-zahatoa, arropak eta abar gordetzen dira. Uztarriaren aurrealdean landare eta idi-buru estilizatuzko apaindurak izaten dira. Idientzako uztarria 120-130 zentimetrokoa izaten da; Araban, golde-rako erabiltzen denak 135-140 izaten ditu; gurdirakoak 120 izaten ditu eta behiarentzakoak 112 inguru. Euskal Herriko uztarriak adarretakoak dira, beste zenbait herrialdetakoak ez bezala. Eta zumar-, intxaur-, haltz- eta urki-zurezkoak ere izaten diren arren, eskuarki pagozkoak izaten dira. Uztarriak bakarrak, luzeak eta motzak izan daitezke. Uztarriaren atal edo osagaiak hauek dira: uztarri-ubala, adar-koskak, ereleku edo hede-lekuak, ganbela, kazola, ubetzak eta uhal-pasaiaik.

üztarri *Ik. uztarri.*



üztarria

Xx

xahako *Ik. zahato.*

Xaldiko *Ik. Zaldiko.*

xamorro *Ik. txantxo (San Migel Artadi-Zumaia).*

xara *Ik. eskuare.*

Xarnafera San Joan gauetz suaren inguruan esaten den "Sarna fuera" araoitik datorren hitza. Nafarroa Beherean apaizak sua bedeinkatzeko ohiturari deitu izan diote horrela.

xarrabaldo *Ik. txantxo* (Urtzainki).

xarreko Eskuare oso txikia.

xarriota Lau gurpileko gurditxoa, zama txikia bide estutik garraiatzeko (Larrañe).


xatuka *Ik. San Joan* sorta.

xella *Ik. ezpata.*

xelari Arrakia izenekoak baino kako-angelu irekiagoa duen barrenoa.

xelu *Ik. kako.*

xerxeri Kostako zurginak erabiltzen dituen molde eta txantiloiak.



xerxeriak

xikito Zuberoako artzainek mendian elkarri kantatzen dioten bertsoa, maiz gai erotikoei buruzkoa.

xingola Oihal edo ehunezko zerrenda luze mehea. Luzaideko dantzariak erabili ohi dituzte.

xiolarru Lau zati ditu soinu-tresna honek: tutu melodikoa (dultzaina modukoa), apaingarriztat harizko borlak eta zintzilikarioak izan ditzakeen ronkoia (ezpelezko hiru zatitan egindako tutu zilindrikoa), antxumelarruz egina eta kanpotik oihaleko zorro batekin forraturik dagoen haize-zakua, eta, azkenik, haizepuztariak (balbula gisa funtzionatzen duen larruzko tapoia du).

Haize-zakua besopean, ronkoia bizkar gainetik eta punteroa eskuekin hatutik, haize-puztaria ahoan sarturik jotzen da. Ez dago garbi zenbateraino erabiliko ziren, zeren, dokumentu zaharretan, askotan ezin dugu argitu "gaita" hitzaren atzetik dultzaina ala xiolarrua zegoen.

xirula Txistua bezala, hiru zuloko (hirurak behealdean, bi aurrealdean eta bat atzealdean) flauta zuzena da. Baina bakoitzak bere itxura, hotsa eta neurriak ditu. Xirula txistua baino motzagoa da eta berezitasun eta bizitasun handia ematen dion doinu altuagoa ematen du. Bere hotsa urruti-urrutitik eta beste soinu-tresnen gainetik entzuten da. Dirudenez, xirulak aldaketa edo eboluzio gutxi izan du. Ezpel-egurrez egiten da, dena puska batean. Txistulariak esku batekin xirula eta bestearekin besoarekin heldurik daraman ttuntuna jotzen ditu. Atzerakada handia izan du azkenaldian. Antzina, ia Nafarroa osoan (Tuteraraino) azaltzen da, eta Iparralde osoan ere bai, kostaldetik Zuberoaraino. Gaur egun Euskal Herriko Ipar-Ekialdean jotzen da. Zuberoan ez da festarik eta dantzarik xirularik gabe. Azken aldirian, danburia gero eta gutxiago erabiltzen dute eta talde arruntena xirula eta atabalak osatzen dutena da.

xistera Pilota-jokorako saskia, uztarriz eta saihetsez osatua (Mutriku).



xistera

xixel-kopa *Ik. gubia.*

xixta *Ik.* lantzeta.

xomorro *Ik.* txantxo.

xopin Xopinaka izeneko jolasean ibiltzeko, neska bakoitzak etxean eskueran zituen gaiak hartzen zituen gero lagunekin borda edo aterperen batean egin behar zuen askarirako. Denetan zaharrenak izaten zuen ardura. Bordan edo aterpean ez zen surik pizten, eta zerbaitetarako sua behar izanez gero, nor bere etxean ezkutuka egiten zuen. Xopinaka delakoaren barruan beste mota hauek ere baziren: "intxaurka" (intxaurrak erabiliz), "hürka" (hurak erabiliz), "gaztainaka" (gaztainak erabiliz) eta abar (Zalgize).

xortaxa Txistera-gaiak prestatzen dituen eskulangileak erabiltzen duen zurezko atala kantoi bat eta lau akats dituena.

xotixe *Ik.* aho-soinu.

xurri *Ik.* lixiba-ontzi.

Zz

za *Ik.* inauteri.

zahagi 1. Zaku eran jositako larrua, ardoa edo olio gordetzeko erabili izan dena. 2. Zahagi-ardo: San Joan bezpera-ilunabarrean udaletxeak herrikoei ardoa eskaintzen zien herriko plazan; eskaintza horri "zahagi-ardo" esaten zitzaion (Alegia, Anoeta).

zahagi-dantza Dantzari batek bizkarrean zahagia duela bereziki Inauterietan egiten den dantza.

zahar-dantza San Joan egunean eta meza nagusiaren ondoren gizon ezkonduak egiten zuten mutil-dantza, "zaharren dantza" izenarekin ere ezagutzen zena (Saldias). Besbarri-arratsean ere egiten zen eta

senar-emazteak trukatu egiten zen. Zenbait tokitan herriko festa hirugarrenean ere egiten zen.

zahato Zahagi txikia, mutur zuloduntik ahora ardoa zuzenean atereaz edateko erabiltzen dena.



zahatoa

zaingorri *Ik.* San Robertoren zaingorri.

zaintiratu 1. Herri-medikuntzaren arbera, olio, ardoa eta gatza kopuru doitan nahastu eta berotzen dira; ondoren, denborarik galdu gabe, mihise zuri bat bustitzen da gai horretan eta ahalik eta beroen ezartzen zaio gune minduari. Mihisea lotuta uzten da. 2. Bizkaiko zenbait herritan, plantainorri bat gainean ezarri eta gurutze erara mugitzen da, hitz bakoitzean erigunea ukituz eta honako hau bospasei bider esanez: "Zan tiratu, zan urratu, zana bere lekuan sartu". 3. "Gure Aita" atzetik aurrerantz errezatzen da (Zeanuri).

zakarda Pago-egurra.

zakator Saskigintzan erabiltzen diren inausketarako guraize edo aitzurrak.

zakogile Zahagi eta zahatoen egilea.

zakur-mihi *Ik.* txakur-mihi.

zakuto Inauterietako eskean ogia sartzeko erabiltzen zuten zaku txikia (Gaskue-Odieta).

zaldar 1. Herri-medikuntzaren araberaren, San Joan belarrez eginiko enplastua gomendatzen da zaldarrak kentzeko. 2. Barraskilo bat zaitu eta zaldarraren gainean ezartzea gomendatzen da.

Zaldibiarra Tolosako Inauterietan txistulariek jotzen duten pieza.

zaldidun Lizartzako Inauterietan antolatzaileetako bi zaldiz ibiltzen ziren eta zaldidun esaten zitzaien.

Zaldiko Lantzeko Karnabaletako pertsonaia, Xaldiko ere deitua. Zaldigizona da, gaztea, eta segalariaren lasto-txapelez burua estalita eta begitartea ikatzez belztuta erabiltzen ditu; gerri azpitik zurezko tramankulua du, aurrealdean zaldi-burutxo bat zutik, eta, atzealdean zintzilik, benetako abere-isatsa. Mutilak bi eskuez heltzen dion tresneria hori bularrean behera gurutzaturik daramatzen soken bidez loturik doa, gainetik estalki apainez hornitua, eta burualdea eta isatsa baka-rik ditu agerian.

Zaldiñabete Ik. Zaldiñati egun.

Zaldiñati egun Kinkuagesima igandea (Zerain).

Zaldun-aratuzte Ik. Zaldiñati egun (Mallabia).

Zalduniota Ik. Zaldiñati egun.

Zaldunita Kinkuagesima igandea eta Inauterietako lehen eguna.

Zamaltzain Zuberoako maskaradako pertsonaia. Zurezko azpieuskarri bat darama, goialdean zaldiburu txiki baten antzeko zerbaitekin. Dantzarien artean bera da garrantzirik handiena duena, buruzagia beraz. Puntilla zuripean erdi-estalirik ditu zangoak eta buru-uztaia ere badarabil lorez, lumaz eta galartuz, eta ispilutxo batez hornitua.



Zamaltzain

zamar Olagizonek sutegian erabiltzen zuten amantala egiteko larrua. → txantxo.

zamar haundi egun Kinkuagesima ondorengo asteartea (Olazti).

zamar txiki egun Kinkuagesima eguna (Olazti).

zamar-kurrika Oletan erabiltzen ziren matxardak.

zamarra Sutegian urtzailearen begirada arretatsupean urtutako mea gero igeliek orriker helduta ingudera eramaten zutena.

zamarrero Ik. txantxo (Ubago-Mendaro).

zanbo Mutilek bakarrik hartzen zuten esku joko honetan. Frontoian pilotan aritzen ziren eta lehen tantoa galtzen zuenari bizkarrean kolpeka aritzen zitzaizkion alde aurretik egindako marra pasatu bitartean. Behin marra pasatu eta gero, prest egoten zen berrir jokoan sartzeko (Lizartza).

zanbonba Ik. bonbo / Ik. ttipiontzi.

zankin-joko Jolas honetarako metro-erdiko makilak erabiltzen ziren, mutur batean zorroztuak. Hasierako zozketaren ondoren, aurrenekoak bere makila indarrez bota eta lurlean sartzen zuen; atzetik gainerako guztiak beren saioa egiten zuten aurretik sartutakoak botatzen ahaleginak eginez. Inork makilaren bat botatzen bazuen, berriro har eta bereaz joz, ahalik eta urrunen bidaltzen zuen. Galtzaileak bila joan behar zuen eta, itzultzean, lurlean sartu aurkakoak makilaren bila joan gabe, hau lau bider atera eta sartu aurretik. Lortzen bazuen, egitekokoak aldatzen zituzten. Baina ez bazuen garaiz lurlean sartzen, gainerako jolaskideek txandatu beren makilaz urruntzen zuten galtzailea. San Blas egunean jokatzeko zen bereziki (Tolosa).

Zanpantzar 1. Inauteri astearte, "Donostiar jator guztiak beren zelebrekeri puntta egiten duten eguna" (T. Alzaga). Zanpantzar izeneko panpina zatarrak hainbat herritan Inauteriarren eta bere espirituaren adierazgarriak dira. Saint Pansard - San Panzudo edo Sabelandi- dakar gogora. Olentzaro edo Olentzerorekin batera tripazainkeriaren irudi bizia da. Lekeition asko jan zenean "Egin dozue Zanpantzar eta Mari Galleta" esaten zuten. Baionan, Zanpantzarren irudia kartzela aurrean epaitu eta erre ondoren, errautsak ibaira jaurtitzen ziren. Zenbait tokitan Hausterre egunari Pantzart eguna ere esaten zaio. Zubieta-Iturengo joaldunei ere ematen zaie zanpantzar izena. 2. Zanpantzar → txantxo (Erasun).

zanpantzartak Ik. Inauteri.

zantzo Ik. irrintzi (Bizkaia).

zapa-erdara Ik. zapo-erdara.

zapata 1. Larruzko oinetako zoru sendokoa, oina orkatileraino estaltzen duena. 2. Euskarri edo altxagarria.



zapatak

zapela Inauteri batzuetan, Arraiozen adibidez, danbolin nagusiak eta bere lagunek ezaugarritzat jantzen zuten kapelua. Goizuetan txapela erabiltzen zuten.

zapela bila Ezkutaturiko zapela baten bila ibiltzean datzan haur-jokoa.

zapin Ik. mantar.

zapo Ik. apo.

zapo-erdara Zapo-erdara edo ahuntz-erdara izenarekin ezaguna den eta euskaraz erabili izan den hizkuntza sekretuak silaba bakoitzaren ondoren beste silaba bat tartekatzen du [P eta aurreko bokala]. Esate baterako: Oso polita zara = Oposopo popolipi tapa zaparapa. Beste toki batzuetan ti silaba aurretik ezarri egin izan da: Tiotiso tipotilitita tizatira.

zapur 1. Zuberoko maskaradako pertsonaia, gaur egun agertzen ez dena. Bidegilea zen. 2. Luzaideko Inauterietako pertsonaia; konpartsan bat edo gehiago izaten dira, alkandora, mantal eta praka zuriz jantziak, banda gorri bat paparrean zeharretara dutela. Ardi-larruzko burutakoak eta sorbalda zurez pintatutako aizkora erabiltzen dituzte.

zaragarri Itsasontzi baten kroskoko erdigunea.

zaran-belar Herri-medikuntzaeren arbera, kolpe edo zartakoen ondo-



zaran-belarra

rioak sendatzeko gomendatzen da: (Chelidonium majus, celidonia mayor, chélidoine, greater celandine).

zare Saski edo otarrea, zeregin asko eta desberdinetarako erabilia. Fes-tetan, batez ere puskabiltzean, erabiltzen zen.

zare-burni Saskigintzan burrunztikia edo uztai lantzeko erabiltzen zena.

zarpa egin 1. Pieza mailuka prestatu edo forjatu sutan galdatzeko, laia-kirtena sartzeko eta abarretarako. 2. Zarpa. → *txantxo* (Beintza-Labaien).

zarpatu *Ik.* zarpa egin.

zarpila Luzaideko Inauterietan mozo-rrotu batzuek erabiltzen duten trapuzko pilota, soka batetik zintzilik.

zarrabete Oso musika-tresna erabilia izan da Europa guztian. Barrenean hainbat soka ditu, eta teklatuaren bidez eta biraderari eraginez jotzen da. Europako ia herri guztietan bezala, Euskal Herrian ere agertzen da biolin mekaniko hau dokumentu zaharretan. Gaur egun erabat galduta dago gure artean, baina gutxi bada ere, oraindik erabiltzen da gure gaurko mugetatik gertuko herrialdeetan.

zarramokero *Ik.* txantxo (Pangua / Trebiño).

zarratrako *Ik.* txantxo (Auritz, Izaba, Ezkarotze).

zarre Zurezko eskuare handia.

zartagin Sukaldean erabiltzen dugun ontzia. Biribila eta laua da eta kirten luzea izaten du. Eskuarki jakiak frijitzeko erabiltzen da.

zartana *Ik.* danbolin (2).

zata Arrantzaleek arrantzara doazenean eta artzainek elurra denean erabiltzen dituzten gomazko oinetakoak.

zauri 1. Herri-medikuntzaren arabera, zauriak sendatzeko zartaginean olio jarri, epeldu eta gero bertara pasmo-belar, plantila-belar, txindorribelar eta berbena-belar sortatxo bat bota behar da, txiki-txiki egin ondoren. Ondoren baratzuri-ale bat eta xaboi eta argizari puskatxo bana ere bota behar da. Zartagina su motelean jarri eta hogeitabat minutuz eduki; gero irazki itxi bate-tik pasa eta ontzi batean ezarri. Erabili behar denean hatz muturraz hartu, ebakiaren gainean zabaldu eta gasa batez estali eta lotu egunean behin. 2. Barraskiloak bildu eta birrindu oskol eta guzti; ondoren zartagin batetik pasa olio pixka batekin eta mihise batean ezarri enplastua egiteko. Gauean jarri eta goizean kendu egiten da. 3. Zauriak sendatzeko, astigarrezko gurutzia zintzilikatzen zuten supazterreko laratzetan (Zaraitzu).

zazpi-hortz Besabe mota handia, arto, erremolatxa, patata eta abar jorratzeko erabiltzen dena. Zehar-zulo eta zehargiltzen bidez kontrolatzen zen bertara ura sartu eta abian edukitzea.

zeharkako flauta *Ik.* flauta / *Ik.* okarina / *Ik.* pifano.

zehirrola Ola berria, urak ibilarazten zuena.

zeira *Ik.* opatxur (Luzaide).

zekator *Ik.* zakator.

zeketor *Ik.* zakator.

zepa-ama Gabiaren zutabeei eusten dien zurezko atal handia.

zepilo Arotzak bereziki zura higitzeko erabiltzen duen tresna.

zepo Zurezko pieza zutika paretuak gurpilaren eta ardatzaren muturrak egokitzen zaizkionak, baita gabiaren beso edo enborra ere oletan.

zopotilo Lantegiko lurrean tinkaturiko lau zur eskamela, bakila eta pikatxoekin; berorri tinkatzen zitzaion estaka arte-ziri batzuen bitartez.

zer dela pentsatu Famili giroko edo etxe barruko joko honetan zotz eginda aukeratzen zenak, begi-bis-tan zeukan gauzaren bat deskribatu behar zuen modurik bitxienean. Adierazi nahi zuena asmatzen zue-nari egokitzen zitzaion hurrengo asmakizuna prestatzea (Baigorri).

zerra 1. Zura eta metalak ebakitzeko lanabesa edo tresna, altzairuzko xafila edo disko horztuna duena. 2. Zama mota batzuk garraiatzeko gurdia jartzen zaiona (Bakaiku).

zerrari 1. Zerran aritzen dena. 2. Jesukristo zerrari: Jesukristo eta Pedro zerrariei lezioa ematera joan eta lana eskatu zutenarren, ukatu egin zieten. Bisitariek galdetu zieten nola markatzen zuten zura, eta ikatzez igurtziriko sokaz erantzun zieten. Eta Jesukristo eta Pedrok soka bat atera eta halaxe egin zuten. Orduan zerrariak soka eskatu zieten, baina ezin izan zuten sokaz ezer ebaki. Bisitariek erantzun zieten: "Soka horrek ez du zuekin ebakiko".

zerrazinta *Ik.* eskuzerra (Getaria).

zerzilo Burdinolako hauspoaren ardatzak zituen osagaiak.

Zezen gorri Lurpetik ateratzen den euskal mitologiako animalia.

zezensuzko Zezenaren zurezko irudia, bizkarraldean suziriak eta bolanderak dituena, jaietan jolaserako erabiltzen dena.



zezensuzkoa

ziape Herri-medikuntzaren arabera, bronkitisa sendatzeko gomendatzen den landarea: (Brassica juncea, mostaza, moutarde, mustard).

zigor Arrazoi desberdin askorengatik iragartzen ziren zigorrak: Bere buruaz beste egiteagatik. / Birao esateagatik. / Diru-gosearengatik. / Gaez apustu egiteagatik. / Haurra ez zuzentzeagatik. / Haurrak ez zigortzeagatik. / Hildakoak gutxiesteagatik. / Lapurrettagatik esku-bedeinkazioz. / Lur zati bat lapurtzeagatik. / Mugarriak aldatzeagatik. / Ogi bedekatua zapuzteagatik. / Ostiral Santuz arkumea jateagatik. / Jaiegunak jai ez egiteagatik.

ziguin *Ik.* malba.

zikiratzaile-txilibitu Sasi trapezoidala den ezpelezko taulatxoa. Goialdeko ertzean luzera ezberdineko eta bertikalki egindako zuloak ditu. Behealdeko muturra txoriburua itxurarekin

errematurik izaten du. Bere goialdean, goitik behera, luzera desberdineko hamaika zulo ditu: hamaika nota ematen ditu. Gaur egun, gure herri-musikan ez da erabiltzen mota honetako tresnarik, baina garbi dago antzina, mende honen hasiera arte erabili dutela euskal ahuntzain eta zikiratzaileek. Txilibitu hauek, Galiziako zorrotzaileek etorri direla adierazteko erabiltzen dituztenen oso antzekoak dira eta dokumentazio zaharrak esaten duenez, hemen ere, ofizio-adierazgarritzat erabili ohi ziren.

zikirio Zekalea; otasa izeneko ogia egiteko erabiltzen zen zikirio- edo zekale-irina.

zil Gurdiaren ardatza.

zila-zilo Karroaren ardatzarentzat gurrupilak duen zuloa.

zildai Ukuiluan ganadua lotzeko lepoko handia. Zumitz lodi bat izaten zen, simaur pilan eduki ondoren izurtua, eta ertz bakoitzeko zuloan txurrila izeneko puska txiki bat sartuz ixten zen (Tolosa).

zilindro Ik. alper.

zimauro-saski Ik. ongarrisaski.

zimiko 1. Soineko berria janzten duenari, zimiko edo atximur egin eta "Zimiko berri" esaten zaio. 2. "Osa-sunez urratu dezazula" esan eta, "Zu ikusteko izan zaitezela" erantzuteko ohitura ere bada.

zimitorio Elizako ataria.

zinginarri Ik. ugatzarri.

zingiri Herri-medikuntzaren arabera, San Joan sortako hiru mota hartu behar izaten ziren gutxienez, bakoitzetik bederatzita puskatxo eginez. Ondoren mina zegoen gunea puska horietako bakoitzarekin zeinatu behar zen hitz hauek esanez: Zin-

giri / sor / zingiri / gehi / zingiri / gurutz / zingiri / salama, ez zaitut / nik / sendatzen. Aitare / Semearen / Espiritu Santuaren bendizioak / senda dezala /. Amen.

zingre Ik. zingiri.

zinguzangu Burdinolako tramankulua.

zinta-belar Ik. lezka.

zinta-dantza Durangoko Inauterietan Domingillo atera ohi zuten: hagarburuan giza irudi bat zeraman bandera gisara, zortzi zinta bertatik zintzilik zituena; dantzari taldeak zinta horiek gurutzatuz eta askatuz egiten zuten dantza.

zintamuxko Inauteri Asteartez Otsagiko unaiak gerritik behera iristen ziren bi txirikordarekin orrazten ziren; muturrean oihal beltzeko zerrenda izaten zuten txirikordak eta horri esaten zitzaion "zintamuxko".

zintzargile Zintzarriak egiten dituen.

zintzarri isilka Zintzarriak mututurik ibiltzea. Iturendarrak Inauterietan Doneztebera joatean, Elgorriagatik igarotzen ziren eta bertako alkateari galdetzen zioten ea nola nahi zuen isilik ala joka joatea; hilotzik ez bazegoen, alkateak "joka, joka" erantzuten zuten.



zintzarriak

zintzarri-herri Gipuzkoako Alegiari deitzen zaio bertan zintzarriak egiteko sutegiak izan zirelako.

zintzarrots Gorabeherak dituzten senar-emazteei, berriro ezkontzen den gizon alargunari... egiten zaion musika edo zintzarri-joaldia. → tobera.

zintzel Errementari eta zurginen tresna aho-zorrotza.



zintzelak

zipotero Ik. txantxo (Burgi).

zipotz 1. Upelaren zuloa ixteko ziria. 2. Upel-oholak josteko zurezko mihia. 3. Ezpel-zurezko mokor biribila, zahagi eta zahatoak konpontzeko erabiltzen dena.

ziri 1. Ziri edo makila luze eta fina da. Hurritz-adar fin eta luze bat hartzen da eta pazientzia handiz zuritzen da. Gero, mutur batetik eskuarekin helduz, buru gainetik abiadura bizian bueltaka jartzen da zurrunbilo-hotsa emanez. Abiaduraren arabera hotsaren tonua aldatu egiten da. Horrela, abiadura aldatuz, ziria "kantatzen" jartzen da. Azkenean askatu egiten zen, urrutira bidali eta beste batekin hasi. 2. Dolareko kantalerari eusten dioten zurezko atalak. Dolarearen alde banatan sei bat izaten dira.

Ziripot Lantzeko Karnabaletako pertsonaia, denetan aldrebes eta barregarriena, buruan kapela, aurpegia estalita eta gorputza belar eta garoz trinkoturiko zakuan sartuta ibiltzen dena. Makila izaten du

lagun bere ibilera baldarrean. Zalduondon ere agertzen da pertsonaia hau.

zirtaketa Ideia magikoaren arabera, zenbait eragiketa sinbolikok indar eragingarria dute: lehorteetan euria eragiteko, santu baten imajina bustitzen dute zirtatuz, zipritzinduz edota putzuan sartuz (Altsasu, Ataun, Astigarraga...).

zirto Ik. ditxo.

zital Ik. pozoi.

zitori Herri-medikuntzak disipula sendatzeko gomendatzen zuen belarretako bat: (Lilium, azucena, lis, lily).

zizare 1. Herri-medikuntzaren arabera, bizio-belar edo zizare-belar izenekoen ura hartzen da zizareak hiltzeko. 2. Intxaur-oskolen uraz hiltzen dira, baita likoretan aranak sartu eta hori edanez ere.

zizeilu Baserriko sukaldean egon ohi zen altzarria; bere bizkaralde zabalak aire korronteetatik babesten zuen eta esertzeko aulkitzat eta gauzak gordetzeko kutxatzat erabiltzen zen. Erdian mahaitxo bat izaten zuen, maratila batez tinkatua.

zizel Harria eta antzeko gaiak lantzeko esku-lanabesa, altzairuzko ahoa lantzerka ahopildua duena eta mailuaz joka erabiltzen dena.

zizpa-makola Ik. ukuilu-aitzur.

ziztor Ik. txistor (2).

zoketa Igitaiarekin lan egitean eskuak minik ez hartzeko erabiltzen den zurezko babesgarria.

zokor-mailu Zokorra xehatzeko maza.

zokor-mazo Ik. zokor-mailu.

zokote *Ik.* zokor-mailu.

zokoti Saskigileak erabiltzen zuen zurezko mazoa.

zolzimitzak *Ik.* zumitz (Arantza).

zomarro *Ik.* txantxo.

zorrotzarri Lanabesak zorrozteko erabiltzen den harri berezia.



zorrotzarria

zorrotz-gari *Ik.* errementari-gari / *Ik.* zorroztura.

zorroztu Tresna edo lanabes ebakitzaille bati ahoa atera edo egokitu.

zorroztura Zenbait bezerorekin errementari batzuek lanabesak zorrozteko zeukaten hitzarmena.

zortran-bide Bertatik igarotzeagatik zerga ordaindu beharreko bidea; oinezkoek ez zuten ordaindu beharrik izaten, bai ordea aberearekin edo zamarekin zihoanak.

zortziko 1. Euskal erritmo mota, 5/8 konpasean idatzia eta horretaz egindako musika. 2. Euskal aha-paldi edo bertsoa, handia zein txikia izaten dena.

zotalegun Igarregun eta hilegun izenak ere erabiltzen dira zentzu bereekin; egun horiek, Bizkaian,

abuztuaren lehen 24ak dira, Nafarroan, Lapurdin eta Zuberoan, aldiz, urtearen lehenbiziko hamabiak. Asabek uste zuten urtarrilaren lehen egun horiek hamabi hilabete-etako eguraldia iragartzen zutela. Adibidez, urtarrilaren hiruan eguraldi ona egiten bazuen, martxoan, hirugarren hilabetearen eguraldi ona izango zela uste izaten zen, eta bostean euria bazen, maiatza bustia izango zela. Bizkaiko sisteman, berriz, abuztuaren lehen eta hamahirugarren egunak urtarrileko eguraldia erakusten du, bigarrenak eta hamalagarrenak, otsailekoa, eta abar.

zotin Euskaraz izen asko ditu: ipotz, kika, koka, sopin eta abar. Zotina kentzeko gomendio ugari eta desberdinak daude: ahoan hiru gurutze egitea, ikara bat ematea, atzetik bizkarrean zartako bat ematea, zotindunak arnasa bakarrean bederatzi arte zenbatzea, txapela buruan alderantzitara jartzea, ura zazpi aldiz, arnasarik hartu gabe, edatea, pultsua estutzea, hatzari tira egitea, eskuineko eskua zabal-zabal eta besoa luze-luze jartzea, hatz bati luzaroan begira egotea eta abar.

Zozomikote Martxoko azken bi egunei eta apirilako bi lehenengoei ematen zaien izena. Zozomikoteen kontakizuna kultura batean baino gehiagotan ageri da, Greziakoan adibidez. Erdara nagusi den Euskal Herriko tokietan, kontraeraren funtsa aldatu gabe, gertaera otsailean jartzen da gehienbat. Aietxun, Urral-goiko haranean honela kontatzen dute zozomikote-gertaera. "Otsail, otsailtxo, ez duk hire beldur ene axuritxo". Horren erantzun gisa, otsailaren zigor-mehatxu hau jaso zuen artzainak: "Oraindik dauzkadan bi egunak, eta martxoak emango dizkidan beste birekin, akabo hire artalde denak". Zendeako Izan, otsailak erantzun hau eman zuen: "Bi azken egun haue-

kin, eta martxo lagunak damaizkidan beste laurekin, utziko haut hi besapean ardi-koilare hutsarekin". Beste toki batzuetan hau esaten dute: "Zozomikote egunak, tristeak eta luzeak".

zuatz *Ik. meta* (Urkizu-Tolosa).

zubiri-zubiri Nesken jolas honetan taldeko bik eskua hartu eta arkuak erazten zuten zuten hau kantatuz: "Zubirizubiri, ninguri-ninguri, nungo alkate zerade, probintziako errege baten seme-alabak gerade. Hurren-hurrena zubi honetan pasatzen dena hemen geldituko dela, hemen geldituko dela". Neskak makurtuta pasatzen ziren arkupetik eta azkena zutitu egiten zen gurutzatutako besoen artean saltoka; arkuak hausten bazuen, gorputzean kolpetxoak emanez agurtzen zuten, eta ondoren, neska guztiak "papiolauketan", neska-mutilen gordeketan jolastera joaten ziren (Tolosa).



zubiri-zubiri

zuhar *Ik. lixiba-ontzi*.

zūhoi Aizkoraren burua eratzeko erabiltzen den pletina.

zumagile Zumea lantzen duena.

zumarzo Donemiliagako Donerromanen Astearte Inautez Atso Zaharra eta porreroa lorez, kuskuiluz, kolorezko mantaz eta batzuetan prakaz ere horniturik asto gainean jartzen ziren. Horrela, beste porrero batzuk inguruan zituztela, herriari bira eman eta seiak aldera panpina-atsoa lurreratu, horma ondoan ezarri eta bukatu egiten zuten. Panpinaren hondakinak eta gurdikada bat edo bi egurrekin zumarzo izeneko sua pizten zuten.

zumategi Zumea lantzen den tokia.

zumazale *Ik. zumagile*.

zuma-zuritzaille Zumeari azala kentzen diona.

zume Sahats mota txikia, adar malguak dituena saski, eserleku eta abar egiteko oso erabilia: *Salix viminalis*, mimblera, osier, osier).

zumitz 1. Zurezko zerrenda mehe eta luzea; axaldunak zorua prestatzeko erabiltzen ziren eta saihsak saskien alboak egiteko, eta hauek zabalagoak izaten ziren. 2. Saski batzuetan, argoilaz bestaldean, bisagra erara egoten ziren gatzaina zurezko bi zerrenda. 3. Saskiak eta aulkiak egiten erabiltzen den zurezko zerrenda. 4. Gazta egin berria sartzen den molde biribila. 5. Zumea (Bizkaia).

zuraga *Ik. uraga*.

zurahi *Ik. alper*.

zurgin Altzariak, zurajea eta antzekoak egiten dituen langilea.

zuritu Gezteran lanabesen ahoak leuntzea.

zurrapapote Ardo, kanela, limoi, azukre eta uraz egiten den edaria, Oreitiako Inauterietan hartzen zena.

zurrukutun Baratxuri-zopa, bakailao izpituarekin nahasia, arrautza botata mahaira ateratzen dena Olentzero egunean (Urnieta).

zurrunbera *Ik.* burrun.

zursega Pertsona bakarrak erabiltzen duen zerra txikia.



zursega

zurtaula *Ik.* alper-zesto (Baigorri).

zurubi 1. Eskailera. 2. Ezpata, tente (Uztaritze).

zutikako Dolareko bi zur bertikal dira, eta erdiko azpizumilan irozturik bi haberi edo uztarrikoei eusten diete.

zutoe Mazoari eusten dioten zurezko lau atalak. → zepo.

zuzenarri Burdinak zuzentzeko harriak.

züzülü *Ik.* zizeilu.

Monografiak

Burdingintza

1. BERASTEGIKO YEREGITARREN SUTEGIA

Joxe Yeregi izan zen Berastegin sutegia jarri zuena. Joxe Yeregi, egungo errementarien aita, giputz herri honetan jaio zen, «Arru» basetxean, 1892. urtean.

Su-arotz lanbidea Tolosan ikasi zuen, garai hartan Inazio Zubillagak zeukan lantegian, eta lehen ikasketak abere-ferraketan ere Gipuzkoako aspaldiko hiri horretan egin zituen.

Lanbidea ikasi eta gero, Joxe Yeregik jaiotetxean ireki zuen lantegia, Plaza Real deritzanetik hurrean. Han ia erabat lotu zitzaion ferragintzari eta abereak ferratzeari. Etxejabearekin sortutako eztabaidak zirela eta, estalpe bat jaso zuen kamio ondoan, gero hartaz baliatu ez bazen ere, eta 1912an bere aitak eraikitako Yereginea egoitzara aldatu zen. Harrezkero Yereginean dago eskulangile hauen etxe-lantegia.

Joxe Yeregiren sutegian, ola-nagusiak eta horren laguntzaile edo ola-mutil batek lan egiten zuten. Sutegi honek badu hauspoa, gaur egun erabiltzen ez bada ere.

Hauspo hau burdin xaflazko bi ontzi borobilez osatua da, bakoitzak berrogeita hamabost zentimetro gorantz eta berrogei erdiz erdi dituelarik. Barrua larruz estalia dute eta hondotik elkartzen dira. Horietako batek burdin bola bat dauka goialdeko besoaren pisu-berdingarri.

Azaldu nahian ari garen asmakizun hori ibiltzen jartzean, ontzi bateko larruak haizea hartzen du, eta hondoko zulo batetik zehar doa. Beste ontziko larruak haizea indarrean hartzean goialdean daukan metal-txatala jasotzen du.

Lantegiaren erdian ingudea ikus daiteke, zoruan tinkatutako trunko gainean kokaturik. Joxe Yeregi esku-laztabin edo daratuluaz ere baliatzen zen, gaur erabiltzen ez delako baztertua, eta bazuen lan-mahaia ere bi tornurekin.

Solairu gainean mailua agiri da eta burdinazko borra-ontzixka, orobat gaztaina erretzeko danbolinak, behar bezala lana buruturik eta salmentarako gertu.

Sutegi ondo-ondoan, atzeko horman zehar, burdinaga batetik zintzilik, mota askotariko tenazak, motz eta luzeak, zabal eta estuak, edozein errementarik puska-moldaketan darabiltzanak. Lan-tresna horien aldean lantegi atzeko albo batean, klaberak, dirudienez erabiltzen ez direnak, hormako armazoi batetik zintzilik. Bertan ikus daiteke, gainera, antzinako lodi-neurkin bat. Joxe Yeregik moldatutako puska horzduna da. Bere seme Frantziskok dioenez, bazen burdin moldagaiaren lodiera neurtzeko beste handiago bat ere, gaur sutegitik norabait ezkutatua.

Kamiora jotzen duen ate batetik gertu –badu beste ate bat ere, etxera daramana– zurezko apaletan abereak ferratzeko tresnak daude: mailu txiki bat, Joxe Yeregik berak taxutua, kurrikak iltzeak ebaki eta errematxatzeko, puxamenta bat azazkalak leuntzeko, eta horiei ertzak kentzeko darabilten kutxila.

2. BURDINBIDEGINTZAREN PRODUKZIOA

2.1. Ferrak

Ferratzea aurrerakada handia izan zen, bai irabazien aldetik bai guda-garai aldetik begiratu. Eta ferra iltzeduna IX. gizaldiaren azkenera arte bazenentz jakiteko agiririk ez daukagu. Badakigu, abereak ferratzeak ekonomi aldetik herrietan izan duen garrantzia kontuan izaten bada, gaur egun asko galdu duela.



Plantila moduan ebakitako burdin xafla hartzen zuten ferra moldatzeko; ageriko gauza denez, ez ziren beti neurri jakinekoak izaten, aberearen hankoina nolakoa halakoak baizik. Ferragintzarako burdin xaflak lau/sei milimetro lodi ditu handiarenak, eta hamasei zentimetro luze eta zazpi zabal; ferra txikiarenak, aldiz, lehengoaren lodi berdina, baina gainerakoa, hurrenez hurren, hamabi eta bost zentimetro.

Sutegian berotu ondoren, puska honi ingudearen gainean bost zulo egiten zitzaizkion aldenbestera iristen ez zirenak. Horretarako mailua zerabilten alde batetik iltzeburuaren antzekoa, gero ferra eransteko behar ziren iltzeentzat. Tresna hau, bi errementarik mailuz eta hagaburuz jotzen zuten eta estanpa zeritzan. Ondoren, burdin xafla oraindik lauari, txulatuari, eskuairan ferra-belarria ateratzen zitzaion, zazpi/bederatzi zentimetro luze eta bi zabalekoa. Berastegin txabeta deitzen zitzaion honi.

Jarraian, puska, erabat hoztua, zola gaineko zutoi batean jarri, bizarkinak kendu eta txuloak ferraren alderik alderaino osatzen ziren altzairuzko zula-kaia mailuz joaz.

Ferrak bi eskutarakoak dira: batak ferra-belarria eskuinean darama, besteak, aldiz, beste aldean.

Sutegian zortzi/hamar burdin xafla batera jartzen ziren berotzen, eta horiek moldatzeko ordu erdiren bat behar izaten zuten bi errementarik.

Abelgorriak ferratzeko, aberea ferratokian sartzen da albo batetik zehar. Berehala abereari atzera eragiten zaio eta bi txintxa eransten zaizkio –bata besazpietatik eta bestea errape ondotik–, uhal muturretatik datozen kateak zurezko tornuetaraino iristen direlarik. Tornu horiek badituzte bakoitzak bi txulo, egoki banatuak, haga baten bidez biraka nahi bezala erabili ahal izateko.

Geroenean, esandako tornu horiek erabiliaz –aurrekoa aberearen burualderako eta beste biak abere gorputz alderako– ganadua lurretik zerbait jasotzen da. Orduan hankak biltzen dira bi atzeko hanka-tokietara, eta lokarriz bertan lotzen dira.

Aberea honela gerturik, hanka-muturrak garbitzen zaizkio eta, tartean burdinazko eskuaira sartuz, ferratzailearen lana errazago bihurtuz, ferra zaharrak kentzen zaizkio. Azken eginkizun hau ferra-tenazekin egiten da. Ondoren azakalak leuntzen zaizkio puxamentarekin, eta ferrak egokitu eta josten zaizkio, maizenik bost iltzerekin, errementariak hiru saileko kaxa batean bere neurritan banaturik dauzkatenekin. Azkenik, kutxilaz baliatuz, ferraz kanpotik gainzka daukan azakal-muturra kentzen zaio.

2.2. Laia

Laia dugu, noski, lanabesik geureenetakoa, nahiz eta guk bakarrik erabiltzen ez dugun. Laiaren antzinatasuna behar bezala egiaztatzeko aski da jakitea bere erabilera abere-erantsiak erabiltzearen aurrekoa dela.

Laia burdinazko nahiz altzairuzko bi zatiz osatzen da; horiek sutan moldatu eta goitik elkarrekin batzen dira, eta hortzak edo hanka-mutur zorrotzak dituzte. Burdinaga horietako batek burualdea irekia du eta eskulekuak, zurezkoa gehienetan, sartzeko begia osatzen du.

Gure baserritarrak gehien darabiltzan laiak bi modukoak dira. Horietako baten hortzak, zaharrenak eta gutxien erabiliak, hogeita hamar/hogeita hamabost zentimetro luzekoak dira hamabost bateko tartea dutelarik. Eskulekuak metro erdi bat inguru izan ohi du.

Beste laiak hortz edo hanka luzeagoak ditu. Hauek batetik bestera lauzpabost zentimetroko tartea dute, luzera, berriz, hirurogeita hamabost/laurogeikoa, nahiz eta sutegi batzuetan moldatuak laurogeita hamarreraino iritsi, Berastegin, esate baterako, berehala ikusiko dugunez.

Laian bakarrik ari daiteke –taldeka sarriago ikusten ohituak bagaude ere–, edo binaka, hirunaka, launaka, bosnaka eta gehiagonaka, bakoitzak tresna horietako bat esku banatan duela. Noizik behin oraindik ere ikus dezakegu baserritarra bere laiaz soro-saila nekez iraultzen. Lehenbizi lurtean zuinak egiten ditu, zuin zuzen-zuzenak, bata bestetik 70, 110 edo 130 zentimetroko tartearekin, betiere taldean zenbat laiari diren –bi, hiru, lau...– kontuan izanez.



Laiariak beren lanari ekiten diote aurrez egindako zuinen artean. Ilaran jarri, laiak jaso eta agudo jaitsez lurtean sartzen dituzte; gero tresnei atzerantz eta aurrerantz eragiten diete barrurago sar daitezen; ondoren denek batera atzera ateratzen dituzte, honela 25 zentimetro zabaleko eta lodian zerbait gutxiagoko zohia irauliz; bakoitzak bere eskuineko laia zohiaren azpitik sartzen du, eta oina laian gunean jarriz bultza egiten dio; ondoren, altxa bestearekin batean, eta zohia zutik gelditzen da. Pauso bat atzera egin, beren laiak jaso eta ekin berriro.

Laiaren moldaketarako, lehenbizi burdinazko kuadradillu bi eskuratzen zituzten hamasei milimetrokoa eta laurogei zentimetro luzekoa bakoitza. Puska horiek, banaka, sutegian berotzen zituzten eta, lanagusiak eta ola-mutilak ingude gainean, mailu eta hagaburuz zartaka luzatu eta laukia zuzenduta uzten zuten. Jarraian, bietako baten ertzean galdatzen zioten burdin eskuaira bat bederatzi zentimetro ingurukoa eta hamasei milimetro zabal eta lodikoa, hanka-tokia esaten zaiona. Ondoren tresnaren begia lortu behar zen; horretarako bost zentimetro zabal, hamabi luze eta zortzi milimetro lodiko burdin xaflaz baliatzen ziren. Burdin xafla hau sutegian sartu eta bi errementarik mailuka ertz alde bat, hamabost zentimetro zabalekoa, uzten zioten, eta beste ertza lehengo neurrian uzten zioten, hau da, hasierako bost zentimetrotan. Orduan errementariak puska berriro berotu eta ingude gainean, metalezko moldaxka baten bidez, burdin puska barruratzen zuen mailuz joka. Segidan, esandako burdin kabila kendu eta moldakaitz zen puskaren zabal aldea izango zena galdatzen zuen. Honela begia gertu gelditzen zen lan-tresnaren haga bati erantsi ahal izateko, eskuaira gabeko hanka edo hortzari, alegia.

Gero errementariak burdin barra edo hankak harturik, bata begiduna eta bestea berriz eskuairatua, hankalekuduna, galdatuta uzten zituen.

Azken zeregin hau burutu eta gero, altzairuzko burdin azal bat beroan ebakitakotik, bi atal lortzen zituen, hamabost zentimetro luze, bi lodi eta beste hainbeste zabaleko bakoitza. Atal horiek, aurrez beroturik, luzarazten zituen, alde batetik oso zapaldurik utziaz. Burdina moldaketaren une honetan, su-arotzak, burdin barrak edo hankak hartu –biak batuta daude– eta altzairuzko atal bat sutegira eraman, galdatu barra bat eta altzairua, eta

ingudean luzarazten du altzairuzko ertza ahal den bezain zorrotz zorrotzuz. Hori bera, hanka batekin egin duena alegia, gero bestearekin berritzen du.

Behin laiagintza bukatu eta gero, burdinagak edo hankak laurogeita hamar zentimetro luzeko eta zortzi zabaleko gelditzen ziren, lau zentimetrotako tartea zutelarik.

Lanabesaren begia txuntzur antzekoa da. Hamahiru zentimetrotako luzera eta lau garaiara aldeko erdiz erdikoak, beste aldean, osterak, hankatoki unean, bi zentimetro t'erdiko neurriak laburtzen da. Errementariaren azken egitekoa, zurezko eskulekua lanabesaren burdin aldeari ezartzea zen. Puska honek, arotz batek prestatua, hogeita bi zentimetrotako luzera zuen. Bi errementariak lau orduko lana behar zuten laia bat taxutzeko.

2.3. Gurdi-gurpilgintza

Gurpil-uztaiak binaka moldatzen ziren. Lan horretarako burdingai bat zera-biltzen bi metro eta hirurogeita hamabost zentimetro luze, lau zabal eta hiru lodikoa, gurpil bakoitzeko. Puska mutur alde bat ondo berotu arte errementariak sutegira eramaten zuen beste aldetik oratuta. Goriunea lortu eta gero burdin barra ateratzen zuen, eta ingude gainean ezartzen zuen. Hor, bi errementariak, suak berotutako aldea mailu eta hagaburuz zartatzen zuten. Ondoren eginkizun bera berritzen zuten beste aldeko muturrearekin. Geroean, puska hoztuan, llanta bueltatzeko deritzan tramankuluan igaroarazi eta ingudean –su-arotz batek eutsi eta besteak jo– behar zuen taxu borobilez makoturik uzten zuten.

Betekizun honen ondoren, gurdi-ubela sutegian gori-gori jarri arte edukitzen zuten, berehala bi muturrak ingudean bere neurri batean utzi arte. Orduan, elkargunerik mehenean, tarte bat zegoen bertan oreki edo pasta berezi bat sartuaz geroko galdatze lana laburtzearren. Galdatzea mailuz eta hagaburuz egiten zuten. Hurrena, hoztutako uztaia esku-daratuluarekin hemezortzi zulo zegoizkioten borobilean zehar banaturik.

Gurpilaren zurakiak hiru ziren, pago-zurezkoak gehienbat. Laurogeita hamar zentimetro luze zen erdikoa –zil zeritzana–, hamar lodi; saihetsekoak berriz –txantelak deituak– zazpi/zortzi zentimetro lodi ziren. Puska horien zabalera hogeita hamar zentimetro jo dezakegu.

Puska-moldaketarako, zentimetro t'erdiki bi zentimetro zabaleko ahoa duen marrusketa zuraren neurria hartzen zuten. Gero trabesa edo opatxurra zera-biltzen, ondoren marrusketa eta, azkenik, zurakien itsasketa osoa lortzeko, marrusketaz baliatzen ziren. Honela arotzak zurak gerturik uzten zituen elkarri josteko. Berori lau burdin kabilez egiten zuen, erdiko zila deritzan zuraren alde banatan bi, lodi unearen alboetan ateratako zuloetan, txantel bakoitzean bina. Burdin ziri edo kabilak lehenbizi gurdi-etxearen alde batean sartzen ziren eta gero, berehala, bestean.

Zuraki elkarri jositakoak solairu gainean zeuden. Horien gainean uztaia ipini eta, barrualdetik, arkatzez eta konpasaz baliatuz lerro borobila markatzen da. Gero oholtza hartu eta mahai gainean edo bankuan jarri ohi da. Bertan, eskuzerraz markaturiko lerro borobiletik milimetro batetik hirura ebakitzen zen eta ertzetan hiru iltze josten zitzaizkion, uztaia ezartzean honek haiekin topo egin zezan. Ebakidura batetik bestera gelditzen den milimetro bateko edo biko alde txiki hori, uztai berria, berotzean, zaharra baino zabalago gertatzen delako da.

Uztaiak goritu arte suari pizturik iraunarazten zaio. Une honetan, bi errementarik –edota olagizonak eta arotzak–, berehala, astirik galtzeke, bakoitzak bere kurriekin uztai bat hartu eta berari dagokion zur sailera darama.

Orduan, mailuz nahiz txakurra deritzan giltzaz uztaia ezartzen zioten topa-iltzeak jotzeraino; gero, burdina hoztu eta gero, kendu egiten zen. Gurdi-aroa edo uztaia beroegi zegoelako zurajea erretzeko arriskua bazegoen, uretan bustitzen zen. Gurpil batekin egiten zena egiten zen gainerakoekin. Alabaina, ohartarazi nahi dut, arestian esandakoan baino era zaharragoan, uztaiak hoztean ezarri ohi zirela.

Segidan ardatzaren zuloa moldatzen zen. Berori lauki itxurakoa zen, zortzi eta zortzi zentimetro kanpotik eta bi milimetro gehiago bestaldetik. Neurri horien barruan zortzi/bederatzi zulo egiten zitzaizkion, daratulu edo trintxerarekin, eta mazoaz bukatzen zen ardatzean zuloa edo azpi-zuloa egiteko lana.

Berehala, gurpila, horma kontra bazterturiko gurditzar baten ardatz gainean jarri, eta aizkoraz –aurrena alde batetik eta gero bestetik– alde biak lantzen zituzten, gero trabesa deritzan aitzurtxoaz meheturik uzten zituztela. Horixe zen hain zuzen zurginaren eskuantze edo trebetasuna adierazten zuen zeregina.

Honela gurpila gerturik zegoen bigarren lanerako, hau da, burdin galartzu luze eta laburrez sendoartzeko.

Barrualdekoak bi burdin xafla luze dira eta kanpoaldetik bi llama luze ditu eta bi motz. Ardatzean zuloaren alde bietatik, llama motzak luzeen azpitik katigatzen dira, mutur banatako bi zentimetro t'erditik hirura bitarteko tartean.

Llamak sutegian bertan moldatzen zituzten. Motzek hamabost zentimetroko luzera dute, hiru zabal eta bost milimetro lodi. Luzeak hirurogeita hamabost zentimetroko puskak dira; osterantzeko neurriak, motzenak hainbatekoak dira. Taielaz ebakitzen zituzten eta zulogintzarako esku-laztabina zerabilten. Llama luzeen muturrak uztaitik hirutik bost zentimetrora gertzen ziren. Galartzu horiek lau llama-iltzez josten ziren, lantegian bertan taxututakoak, eta bi errematxe iragankorrez, alde bakoitzetik bana. Barrualdeko llamek launa iltze daramatzate beste aldeko errematxe iragankorrez gainera.

Gurdi-gurpila behar bezala bukatu uzteko, errementariak gurdi-ubela edo uztai josteari lotzen zitzaizkion, hemezortzi hortzeko iltzeekin; hortik datorkioke hortz izena ere.

2.4. Gaztainak erretzeko danbolina

Danbolina tresnatzeko, milimetro lodiko, laurogeita bi zentimetro luze eta hogeita hamar zabaleko burdin xafla darabilte. Metal-azal honetan, buztin zuriz zeharka markaturikoan, brokaz zuloak egiten zaizkio, zenbateko jakinik gabe, batetik bestera lau zentimetroko tartea utziz.


Gero, puskaren albo bateko hamar zentimetrora gutxi gorabehera, leihaita ateratzen zaio: hamar bider hamar zentimetroko laukia. Lan hau hotzean egiten da zizel edo trintxarekin. Azkenik xafla biribildurik uzten da lau iltzeburu zapalez josita.

Segidan, errementariak, beste bi burdin xaflaz baliatuz, bakoitza lau zentimetro zabal eta hogeita zazpi luze, eskuairan, leihogunearen alde banatan uzten ditu, burua zapalduta eta gero itxi-irekirako gai izan daitezkeen eran. Estalkia, bi iltze zapalduz josia, berekin du pletina eskuairatua, helduleku izango dena.

Jarraian, xafla biribilduaren alboak ixteko, bi burdin orri ebakiko ditu biribil antzean. Ipurdiak esaten diete horiei, eta bai danbolinari eta bai tresnari eranste beharko diren ertzak ateratzen zaizkie. Puska hauek erdian txulodunak izaten dira, eta horietako bat danbolinari eransten zaio, eta horrela alde horretatik itxirik geratzen da.

Gero errementariak ardatza prestatzen du, kirten ere berebat izango dena. Eginkizun hau betetzeko, hamar milimetro lodi eta metro eta hogeita zentimetro luzeko burdin hagaia darabil eta bi zentimetro zabal eta hamar luzeko bi xafla. Bi puska horiei ertz banatan txulo bana egiten die, eta beste bat kirtenaren ziriari, muturraren alde batetik berrogei zentimetrora.


Errementariak burdin zirria eta uztai biak hartu eta iltzeburu zapalez elkar-tzen ditu. Eta, tornuan, uztai horiek erdialdean eskuairaturik utziko ditu. Ondoren, ardatza sartzen du oraindik elkartu gabe dagoen danbolinaren beste burdin orri biribilean, eta uztaiak eskuairan daramatzaten bi txuloetan errematxatzen du.



Heriotza eta heriotzari buruzko ohitura batzuk

SARRERA

Ez dago esan beharrik, heriotzak berekin dakartzan ohiturek garrantzi handia izan dutela gizonarentzat gure mundu zabal honetan. Gure artean, gure herri eta auzoetan, heriotzaren inguruan izan diren ohiturak sakratuak eta aberatsak izan dira, eta arrunt errespetatuak, batzuk kristautasunaren aurretik hasita, gizaldietan zehar. Hil-bide bereziek, eliz-opariek, gorpuari lur emateak eta abarrek, zerikusia izan dute gizonaren munduan.



KANPAI-HOTSAK

Kanpai edo ezkilen mezua hizkuntza segurra izan da herri txikietan. Arantzako herri-barruan sei ezkila-joaldiz ematen ziren aditzera elizakoak –hiru handiz eta beste hiru txikixeagoz– eta baserriko gaixoarengana irteten denak kanpai handiaren hiru dandara izaten ditu aurretik.

Hogeita hamahiru kanpaikadaz ematen zuten aditzera Lizartzako herritar baten agonia, gertaera honetan heriotza zena. Dei honen ondoren hil-kanpaia jotzen zen. Abaltzisketan, haurra hiltzean bizkor jotzen da aingeru-txintxiñe deritzana; Arantzan txintxirria eta Tolosan txintxiña deitzen direnak bat eta bera dira. Haur baten –aingeru baten– heriotzaren berri tristea emateko, Berastegin ezkila txikia eta handia txandaka jotzen ziren. Herri honetan bertan hogeita hamahiru ezkila jotzen ziren gizonezkoa hiltzean, hamaseigarren eta hamazazpigarren ezkilan artean beste txikiago bat tartekatuz. Emakumea hiltzean, hogeita hamahiru ezkilak jotzen ari zirela, kanpai edo ezkila txikiaren hiru dandara entzuten ziren. Hildakoa ezkongabea baldin bazen, aipaturiko hogeita hamahiru ezkilan ondoren, dandara bizkor eta jarraitua jotzen zen ezkila beraz. Kanpaialdia zertxobait luzea izan da baina ez astuna, beraz jasankorra izan da.

DOLUMINAK AGERTZEKO

Senitarteko baten heriotza, etxejaun edo etxeoandreaarena bereziki, zenbait herritan, baserriko abereei jakinarazten zitzairen, eta, zenbaitetan, ukuiluratutako aberea zutiarazten zen berri tristea jakinarazteko unean.

Elizondoko Beartzun auzoan, Nafarroako beste zenbait herritan bezalaxe, dolumina agertzerakoan honako hau esaten zen: «osasuna enkomendatzeko» –osasuna hildakoaren alde otoitz egiteko– hitzez hitz esanda. Hildakoa etxean dagoen bitartean, leihoak hertsirik edukitzen dira. Heriotza baten ondoren, behie gareak edo zintzarriak kentzen zitzaizkien urtebetez. Alabaina, ez ardiei, zintzarria ezinbestekoa baita mendian non dabilzan jakiteko. Etxeko hormaren ondoan, teilategalaren azpian, bataiatu gabeko haurra ehorzteko antzinako eta batere berria ez den ohitura gogoratu beharko genuke.

Etxeko aurrealdeko armarria oihal beltz batekin estaltzen zen. Gazteek adiskideekin egotea saihesten zuten urtebetez, eta hiru urtetan ez zuten ez dantzarik egiten ez erromerietan parte hartzen.

EHORZKETA-OHITURAK

Ehorzketarako, hildakoa etxeke gela nagusian kokatu ohi zen. Apaizak etortzen zirenean, gorpua jaso eta prozesioa abiatzen zen. Gorputzak elizako bidean igaro behar izaten zituen bidegurutzeetan erresponsoa errezatzen zen, era berean zenduaren lastaira erretzen zen. Hildakoaren etxetik elizara hileta-segizioak egindako bideari *elizabidea* (Baigorri) *korputzbidea* (Gipuzkoako Gaintzan) eta beste asko izenez deitzen zaio. Gorputza eramaten zutenei, auzoko hurbilekoenei, *bilkarreariak* deitzen zitzairen Eskiulan eta Urdiñarben (Zuberoan), *hilketariak* Baigorri eta *garrayariak* Berroetan (Baztanen), beste zenbait izenen artean, *defuntuketariak* esaterako. Berastegin alde-etxea deitu izan zaio baserri apartekotik dakarten gorpuari abegia egiten dion etxeari. Alde-etxera –elizatik hurbil dagoen etxe honetara– joaten dira

apaiza eta *simoneroa* (monagilloa), eta segizioak elizara jarraitzen du. Gipuzkoako Aia herrian entzun daiteke *aurrekoa* izenez ezagutzen zela emakume ezkongabea eta hildakoaren auzokoa, argizari bat eta ogi bat hildakoaren segizioan eramaten zituena. Aurrekoa segizio-buruan zihoan apaizaren atzean kokatzen zen.



Hainbatetan, ohitura zen emakumezkoak kontratatzea, hildakoaren inguruan negar egin eta deklamatzeko, goraipatuz, errukarriko hil-kantetan, hildakoaren balentria eta egitandiak. Ohitura hau Bizkaiko Foruak debekatu

egin zuen, baina ohitura apaizen konbentzimenduz galdu zen batez ere. Iruñean, 1541ean eginiko dekretu batek, emakumezkoei hildakoen meza kantatuetan eliz-ospakizunak asaldatuz negar egitea, oihukatzea eta txalo egitea debekatzeko die.

SERORAK

Serora elizkizunekin identifikatu ohi da; horregatik, bere presentzia oso garrantzitsua izan da heriotzaren inguruko ospakizunetan, baina ez orduan bakarrik, baita, eta batez ere, eliz barruan ere. Batzuetan serorak janzen zuen hildakoa, funtzio aktiboa zuen gorpuaren segizioan eta lekuko ohitura gutxi-asko bitxi zirenak zaintzen zituen. Berastegiko herrian, hileta-elizkizunaren ondoren serorak *zimitorioan* biltzen zituen, eta «konpañi hontatik aurrena faltatzen den animen izenean» esan ondoren, bi aitagure errezatzen zituen: bata hildakoaren alde eta bestea han zeudenen artean lehenengo hilko zenaren alde. Ohitura hau bertan behera geratu zen azkeneko serora orain berrogei urte inguru hil zenean. Beasainen jasotako erreferentzia batzuetan, Garingo bere auzoan, *serora artoa eta serora garie* familia bakoitzak urtero serorari eman ohi zion artoa edo garia izaten zen. Bi lakari ziren ohituraren poderioz ezarririk zegoen neurria.

HERRI BATZUETAKO OHITURAK

Tolosan gorpuaren bidea aldatu egiten zen hileta batzuetatik besteetara, kategoriaren arabera. Eta hara, herriak umoretsu abesten zuena: «Honek badik, honek badik, goazen Korreo Kaletik; honek ez dik, honek ez dik, goazen Arpauso Kaletik». Esan dezagun Korreo kalea kale Nagusiaren parekoa zela, eta Arpauso kalea, berriz, bestea baino arruntagoa.

Albiasun, Nafarroako Larraun ibarrean egiten diren elizkizunetan kilo bat txahalki, ogi bat eta botila ardo batzuk eskaintzen ziren. Erasunen, hildakoaren etxeko batek, ordezkariaren batek edo inguruko senitartekoren batek, oihal batean bildutako ogia oparitzen du, eskaintzaren momentura arte, gaur egun hilobi sinbolikoa denaren gainean ipinitako saski txiki batean edukitzen duelarik. Ogia apaizaren etxera eraman ohi dute. Hildakoaren familiak halaber, oilo bat bidaltzen du elizaren aurrealdean dagoen apaizaren etxera, hiletan parte hartu duten apaizen bazkaritarako. Arantzan arbasoek zikiro bizia eskaini izan zuten, hildakoaren etxeko batek eramana.

Berroetan –Baztanen– hildakoa mutila bazen, oilo bat bizirik eskaintzen zuten, eta hildakoa neska bazen, oilanda. Eskaintzak hildakoaren auzoko emakume batek egiten zituen. Hegaztia sare batean bilduta eramaten zuen, eta hileta amaitutakoan, apaizak oiloa edo oilanda jasotzen zuen eta auzoko emakumeak beste horrenbeste egiten zuen sarearekin. Aipatutako emakumeak olata deitzen zitzaion opil bat ere eskaintzen zuen, eta beste honenbeste egiten zuen hildakoaren etxeko kide bakoitzak. Adineko bat hiltzen

zenean, hurbilenekoek argizari bat eta opil bat eskaintzen zuten; gainerako eskaintzak olata batekoak izaten ziren.

Areson harizko maindire bat eskaintzen zen eta apaizak aldaretik erakusten zuen oparia. Azkarateko oparia ardi-izterra eta sei ogi izaten zen. Zumaian, Artadiko San Migel auzoan, «primerako» hiletan lau anega gari eskaintzen ziren eta bi «segundakoan». Ogi erdi bat izaten zen Baliarraingo maizter edo errenteroaren ofrenda, eta ogi osoa etxejabearen oparia.

HILERRIEN SORRERA

Carlos III.aren Errege zedulak, 1787ko apirilaren 3an datatuak, eliza barruko ehorzketak debekatzeko zuten eta zelai irekian hilerrriak egiteko agintzen zuen. Baina agindu honen betekizun puntualari ohituraren indarra kontrajartzen zitzaion, baita jendearen animoetan oso errotuak zeuden beste arrazoi erlijioso batzuk ere. Horiek horrela, Gipuzkoako Agintari Politikoen hilobiratze lekuei buruz helarazitako komunikatuari udalek emaniko erantzunetan ikus daitekeenez, Lege horren aplikazioa, oro har, atzerapen handiz bete zen. Udalek emaniko erantzun bat baino gehiago XIX. mendeko lehen hereneko urteetan dataturik dago, eta batzuetan esaten da, zelai librean hilerrri bat ezartzea oraindik arazo dela. Arrunta eta hedatutako ohitura izan da gorpuari hilerriraino laguntzea eta han lur apur bat edo harriren bat gainera jaurtikitzea. Hildakoari honako esaldi hau edo antzekoren bat eskaintzen zitzaion aldi berean: «Zeruan elkar ikus dezagula».

AMAIERA GISA

Iruñean 1531. urtean egin zen Sinodoan debekatu egin zen eliz barruan otorduak egitea, berari zor zitzaion begirameneraren izenean, eta kontrako jokatubidea hartzen zutenak eskumikatuak izaten ziren eta florin bana ordaintzera mehatxatzen zituen.

Amaitzeko, hona hemen gai honen inguruan pasadizo bat. Etxegarate aldean gertatu omen zen, «Galardi» izeneko lekuan.

Ba omen zen artzain bat ezerekin bildurtzen ez zena, izukaitza. Gau hartan, Ataunen bi apaiz gazte aurkitzen omen ziren, eta elkarri esan omen zioten artzaina bildurtu egin behar zutela. Horretarako roketek zuriak jantzi eta gauez, pago zuhaitz baten gainean, antsika hasi omen ziren, artzain txabolatik hurbil. Hala, artzainak lorik ezin hartu eta txabolatik irtenez, bat-batean antsilariei galdetu omen zien:

– Zer nahi duzue?

– Purgatorioko arimak gara eta meza beharrean gara zerura joateko.

Hori entzun eta ikusi eta, artzainak galdetu omen zien dirurik ba al zuten.

– Ai, dirua eduki bagenu!

– Bada, galduak zarete, artzainak erantzun. Gure herrian bazeudek bi apaiz gazte, eta dirurik gabe kolperik ez ditek jotzen.

Hori esan eta, bat-batean txabolara sartu omen zen berriro. Baina hala ere, arbola gaineko apaizek antsika jarraitzen zuten, iskanbila bizian. Horiek horrela, artzainak makila luze bat hartu eta berarekin, zuhaitzera joan eta, «arima herratuak» makilatzen hasi zen, eta horiek, ahal zuten moduan, ziztuan, bai berriro Purgatorioko bidea hartu ere.



Herri-Medikuntza

KATARROA SENDATZEKO

Sutan ardoa kazuela batean ipini eta ogirina, zahia kendu gabekoa, bota, eta dena ondo egosi. Gero trapu biren erdian jarri eta hoztu arte bularrean ipini.

Berbena freskoak hartu eta labana edo guraizeekin txiki-txiki egin. Zartaginean olio tanta jarri eta berbenak bota, epeldu poliki-poliki eta nahastu. Gero arrautzaren zuringoa irabiatu eta tortilla egin. Ondoren trapu bat hartu eta horren gainean zartaginekoa zabaldu. Trapua tolestu enplastua erdian gera dadin, eta bularrean jarri benda batekin. Hau, gauean, oherakoan jarri eta goizean kendu, horrela hobekuntza sumatu arte.



Ontzi batean ura irakiten jarri, eta horri linazi eta mostaza atxaparkada bana bota. Gero, malba-belarra eta erromero-zoztorra, adar bat edo bi, ontzi berean ur hartan sartu. Ura irakiten dagoela eltze gainean bi egur zeharka jarri, batetik bestera tarte duela. Berehala, gaixoa aulki batean eseri eta hankak, oinutsik, aipatutako egur gainean jarri eta manta batekin estali lurruna bukatu arte.

Hiru bat eskutada berbena-belar uretan garbitu eta ondoren lehortzen utzi. Gero txiki-txiki egin labana batekin ohol baten gainean jarriaz. Zartaginean belarrak frijitzeko behar adina olio jarri. Olio horretara belarrak bota. Ondoren frijitu erabat xigortu edo belztu gabe. Frijitzen diren bitartean hiru arrautza zuringo irabiatu platera batean sardexka erabiliz, eta zartaginea bota. Sardexkarekin dena nahasi eta tortilla itxuran utzi. Berehala trapu zuri

lodi baten gainean atera eta beste zapi meheago bat gainean jarri, eta ahalik eta beroena mina dagoen lekuan utzi, trapu batekin lotuaz, ongi hoztu arte. Hori egunean behin, hiru egunez.

Ontzi batean sutako brasa jarri eta horri eskutada bat azukre pixkanaka bota. Gero lurruna hartu aurpegia burutik behera trapu batekin estaliz.

Baso bat ur, sagar eta tipula baten puskekin, gaeuz leihoan kanpoan utzi. Iragazkian iragazi ondoren, goizean baraurik edan. Hori bera hiru egunetan errepikatu.

Ontzi batean ura irakiten jarri eta ur horretara belar-hazia bota, hiru bat esku edo gehiago. Eria biluztu eta kataderan jarri, ontzia hankartean duela. Manta batekin gorputza estali eta uraren hatsa hartu, ongi izerditu arte. Ondoren lehortu eta berehala ohean sartu.

San Joan belar bedeinkatuetatik eskutadatxo bat uretan irakin eta oherakoan hanketako bainua hartu ur bero hartan, egun baten edo bitan.

Ontzi handi batean sutako hautsa jarri eta urarekin batera San Joan sendorren belar bedeinkatu mordoxkatxo bat ondo egosi. Gero gaixoa aulki batean jarri burutik behera manta batekin, lurruna hartzeko. Denbora berean hankak ortozik kalderan sartu eta urarekin eta hautsarekin belauetatik behera igurtzi, ordu laurden bat inguruan.

TRIPAKO MINA KENTZEKO

Zartaginean olio berotzen jarri eta atzaparkada edo eskutada bat mantzanila olio hartara bota eta perdigatu. Gero, olio-mantzanila hori zapi batean zabaldu eta zilbor gainean fajatua jarri. Hoztutakoan kendu.



Espiritu Santuari hogeita bat aitagure errezatu. Bakarrik errezatu behar da, gaixoaren izena aipatuz eta Espiritu Santuari sendatzeko eskatuz. Aurren-aurrena gurutze batekin aitaren egin eta norbere buruari esan: “hogeita bat-garren aitagurea”. Hori errezatu ondoren, bere buruari esan: “hogeigarren aitagurea”. Hamabosgarrena errezatzean gurutzearekin aitaren egin eta hamalagarren aitagurea esanez edo pentsatuz jarraitu. Zazpigarren aitagurea esan aurretik, gurutzearekin aitaren egin eta berdin azkenekoaren –errezatzailearentzat aurreneko aitagurea– aurretik. Hots, hasieran eta zazpi aitaguretik zazpi aitagurera aitaren egin. Horrela hiru egun segidan, ordu berean.

BURUKO MINA KENTZEKO

Gatz pixka bat katilu batean jarri eta ozpina bota gatzaz urtzeko moduan. Horretarako gatzaz eta ozpina hotzean nahastu. Gero zapi txuri bat ozpinetan eta gatzetan busti, dobla-dobla egin eta kopeta betean jarri, painelu batekin atzealdean lotu eta ohera joan.

Katilu batean ozpina bota eta hemen oihal bat busti eta kopetan jarri, lehortu arte. Behar bada gauza bera berriro egin eta era berean larremilusalda hartu, dena baraurik hobe.

ZAINTIRATUA SENDATZEKO

Olioaz, ardoaz eta gatzaz berotu eta ondo nahastu ontzi batean. Hemen, berehala zapi zuri bat busti eta ahal den beroena gaixo dagoen hezur gainean jarri eta lotuta utzi.

BARIZELA SENDATZEKO

Gaizki dagoen haurra maindire batean bildu. Maindirez kendu eta zerriak lo egiten duen tokian bueltaka pixka bat ibili. Zerriaren kamainakoz zabor pixka batez pikorra igurtzi. Gero maindirez berarekin umea berriz bildu eta biharamunera arte eduki. Ondoren umea garbitu.

PIXA EGITEKO

Bost adar oilarpoztana litro bat uretan egosi, eta hau lau kolpetan hartu, egunean bi aldiz, bat baraurik hobe.

URRATUAK ETA EBAKIAK SENDATZEKO

Zartaginean olioaz jarri eta epeldu. Olio epel honetara pasmo-belar, plantila-belar, txindorri-belar eta berbena-belar sorta txiki bana bota, txiki-txiki egin ondoren. Baita baratxuri ale bat ere txikituta, eta gainera xaboi eta argizari puska bana oliotara bota.

Ondoren zartagina su motelean jarri, belarra lehortzen hasi arte, hogei bat minutuz. Gero iragazki oso txulo txikiko batetik ontzi batera pasa. Azkenik ontzia estali, ukenduak garbi iraun dezan. Hau erabili behar denean behatz mutur batekin hartu, ebaki gainean zabaldu, gasa batekin estali eta zapi batekin lotu. Hori egunean behin.

Karakolak bildu eta bere azal edo maskor eta guzti txiki-txiki egin. Gero olio pixka batean zartagineatik pasa eta zapi baten gainera bota eta zabaldu.

Zapi hau bildu eta epelean zauriaren gainean jarri, trapu batekin lotuta. Gaez jarri eta goizean kendu. Honela sendatu arte.

Zartagin batean ehun gramo olio jarri; berrogeita hamar gramo ardo eta beste horrenbeste koñak; hogeita hamar gramo anis; hogeita hamar gramo xaboi usai gozoko, beste hogeita hamar gramo erretxina eta berrogeita hamar gramo argizari.

Ondoren hori dena frijitu ordu erdi batean, su txikian, inoiz nahasteari utzi gabe. Gero, hoztu arte nahasteari ez utzi. Hozten denean, ukendua ontzi batera pasa. Erabili behar denean harizko trapura bota, koilaratxo batez baliaturik, eta zaurituaren gainean zabaldu, hori ur epeletan garbitu ondoren. Azkenik bendaz lotu.

Erabiltzea, hasieran egunean bi aldiz egin, eta gero, zauritua sendatu ahala, egunean behin.

Zakurmia-belar hosto bat hartzen da, eta beroan edo hotzean minaren gainean ezarri, zerrenda batekin lotuaz.

KOLPEAK SENDATZEKO

Osinak (asunak) hotzean eta mailuz zanpa-zanpa egin, belarraren zukua ondo atera arte. Zuku hori pertsonaren pixarekin ontzi batean nahastu. Trapu bat bertan busti eta zartakoa hartutako lekuan lotuta jarri.

Ehun gramo berbena-belar hartu, baita beste ehun plantila-belar ere; lau-roi gramo iodo-belar; berrogeita hamar gramo pasmo-belar eta beste berrogeita hamar gramo argizari; hogeita hamar gramo oilo-gantz eta hirurehun eta berrogeita hamar gramo olio fin.

Olio hau zartaginean irakin eta honi belar guztiak txiki-txiki eginda bota, baita argizaria eta oilo-gantza ere. Denak indar gutxiko suan irakin, nahasteari utzi gabe, zurezko kutxara txiki batekin. Ondoren, hoztu arte nahasteari utzi. Hoztutakoan iragazki batetik barrena ontzi tapadun batera pasa. Ukendu hau behar denean, behatz-muturrean hartu eta mina dagoen tokian igurtzi, hiru aldiz egunean.

ERREA SENDATZEKO

Intsentsu-adarra zuritu eta mintze-labana batekin kendu eta txikitu. Olioan frijitu argizari pixka batekin. Frijitzen denean iragazki bat erabiliz katilu batera atera eta hotzean igurtzi, oilaluma batekin.

Hartu sakuta eta horri lehenbizi azala kendu eta barrukoarekin txiribilixek egin. Hauek oliotan frijitu, eta hoztu eta gero harizko trapuak hantxe busti eta errearen gainean jartzeko gorde. Trapua errearen gainean lohitzten denean, ipini berriro.

Intsusari gaineko kirrinka edo azala kendu. Barrengo edo bigarren kirrinka horia labanarekin arraskatu eta zartagineko oliotara mordoxka bat bota. Oliotan xigortu eta atera. Gero olio hartara ardi-sebo pixka bat bota. Dena zartaginean ondo nahastu eta ontzi garbi batera pasa iragazki txulo-estu batetik, eta hozten utzi. Behar denean erre gainean eskuarekin zabaldu eta harizko zapi batekin estali eta lotu.

Intsusaren bigarren azala kendu labana batekin arraska-arraska eginez. Gero oliotan frijitu eta argizari pixka bat bota. Iragazki/oratzi batean iragazi ostean ontzi batean gorde. Gaez jarri eta goizean kendu, berehala berriro ipini arratsaldera arte, eta honela jarraitu.

GARATXOA SENDATZEKO

Zapo bizia hartu eta pote batean sartu eta tapa itxi. Gero, garatxoa duena dabilen inguruan zintzilikatu listari batekin hagan sartuta dagoen il-tzetik. Zapoa desegin ahala garatxoa ezkutatu egiten da.

Zazpi ostiralez errezkan, urdai azal batekin, beti batekin, garatxoa igurtzi.

Garatxoa duenaren ohearen azpian zapo bizi bat zulorik gabeko ontzi tapadun baten barruan utzi. Zapoa akabatzerako garatxoa ezkututzen da.

Sagar bat hartu eta lau puska egin. Puska horiekin garatxoa ondo igurtzi eta inork ikusten ez duen toki batera bota. Hori behin bakarrik egiten da.

HAGINEKO MINA KENTZEKO

Pattar zuria ahoan hartu eta mina dagoen lekuan gelditu eduki. Gero, patta-rra bota edo edan.

Aizkoraren burua trapu batean bildu eta aurpegian mina dagoen aldetik paratu, mina joan edo hil arte.

San Joan egunean bedeinkatutako lore-landareen sortatik eskutada bat egosi eta aurpegia trapu batekin tapatuz haren lurruna hartu. Lore-landareak hauek dira: txanpon-loreak, sorbak, irak, arrosak, krabelinak, arto-landarea eta galburua.

Intsusa-lorea egosi eta ur honekin ahoa garbitu eta kanpotik igurtzi; garrantzitsuena barrengo garbitasuna da. Hori egunean hiru aldiz egin.

Olio pixka bat zartaginean jarri eta berbena-belar batzuk bota. Gori-gori egin eta arrautzaren zuringoa irabiatu eta zartaginean hustu. Hemen buelta bat eman eta zapi txuri baten gainera pasa. Zapi hau bueltatu eta minaren gainean jarri eta eskuarekin arin-arin eutsi, hoztu arte.

EZTARRIKO MINA SENDATZEKO

Mermela-hosto batzuk hartu, txiki-txiki egin eta arrautza zuringoarekin frijitu eta ondo irabiatu. Iragazi ostean harizko zapi batean bildu eta epelean papoan edo eztarri gainean ipini.


Plantilla-belarrak bildu eta ihartu. Gero zakutxo batean jaso eta behar denean bi edo hiru orri hartu eta egosi. Ur hori edan edozein ordutan eta nahi den adina aldiz.

Gaztainondo arbolaren morkotsak hamar minutuan uretan egosi. Gero, ur honekin gargarak egin.

BEGIETAKO MINA SENDATZEKO

San Joan egunean bedeinkatutako arrosak hartu eta uretan egosi. Ur hori epeltzen denean, bertan goata busti eta horrekin gaizki dagoen begia garbitu. Hau batez ere goizean egin.

San Joan goizean bedeinkatutako arrosa batzuk egosi eta ur harekin, zapi batez baliatuz, begiak garbitu. Hau egunero egin, sendatu arte.



Inauteriak.

Tolosa, Lantz eta Zalduendo

SARRERA

Antzina gaur baino askoz basetxe gehiago zegoe-
nez, beti eta nonahi gertatu ohi denez, garaiari zor
zaizkion aldaketa batzuk gorabehera, gainerakoan,
urteko jaikizunak berdintsu samar ospatuko ziren alde
guztietan seguru asko. Badakigu Euskal Herrian eskea
zenbait unetan ohituraz egin ohi zela, Karnabalez ez
ezik, baita Gabon egun eta Santagedatan ere antzina-
antzinatik. Lekuonak esaten duen “*legearekin konpli
dezagun*” horrek adierazten digu garbi asko herri-ohi-
tura honen antzinatasuna.



Herri handi, baserri-girorik gabekoetan, Karnaba-
lak, argi ugariz, gurdi apainez eta mozorro taldez
ongi hornitzen dira noski; baina, agian, itxura handi-
nahian, kaleko Inauteri horiek ez dute mendikoek adinako
jatortasunik. Hiri-Inauteriek, borroka bizian iraun behar izan dute urteak
zehar, baina ez dituzte galarazi oraindik ez elizatiko eraso sarriek, ez aginta-
riek leunago edo zorrotzago emandako debekuek. Hiri-Karnabalak ezkutarazi
ditu lehengo biziera gaurko bizimoldeari egokitzen ez jakiteak. Berez galdu
dira bada. Euskal Herrian, ordea, badugu bat oraindik, gerta ala gerta, bizirik
dirauna: Tolosakoa da, Lantzekoa edo Zalduondokoa bezala oraindik bizirik
dagoena.

1. TOLOSAKO INAUTEAK

Bere zaharrean jator iraunez, tolosar inauteak, urteak zehar berezkotasun
zerbait galdu badu ere, gero eta gazteago eta kementsuago ageri zaigula
esan behar. Iraupen-gogo indartsu batek bultzaturik, inoiz gertakizuntxo xume
dirudienetan tinkaturik, gaurko bizierari itsatsia gelditu zaigula esan deza-
kegu Tolosako Inautea.

Tolosako Karnabalak baso-herritakoekin badu inondik ere zerikusirik. Dena dela, herria hazten ari zen heinean, ordu arteko baserri-kutsua galtzen joango zen noski baino noskiago; alegia, inguruko auzoek osatu zuten pixkanaka herri-gunea. Auzo txikietako Inauteriak, geldiro-geldiro kaleratuaz joango ziren. Eta hemengo biziera berriak, ohitura berriak sortuko zituen. Gure egunotan ere begien aurrean gertatzen den gauza dugu hori, sail askotan gainera; aldakuntza handiak eta azkarregiak nonahi.

1.1. Plaza Zaharra - Plaza Berria

Luzaroan, Tolosako Inauteri-agertoki nagusia Plaza Zaharra izan da. Hemen, 1672an Udaletxea jaso zenetik, azokaz gainera, zezenak eta beste jaiak egiten ziren. Eta bertan izaten zuten leku Karnabaletako dantzek ere; Gorosabelek dioskunez, 1764ko agorrean (irailean) udalaren aginduz kendu arte. Gaur herri osoaren dantza deituko litzatekeena noski. Bertan esku haritzen zuten, Alkateaz eta Pielaz gainera, herriko etxeko denek.

Herri-agintaritzak 1703ko abenduaren 9an erabaki zuen, Erregearen urteak zirela eta, jolasaldi batzuk eratzea. Abenduaren 16an, Fernando Atodo Alkateak agindu zuen urte eta hil bereko 19an, zezenak, «Plaza Zaharrean ez baizik Plaza Berrian joka zitezela, eta prestaketa-lanetarako Herriak izenda-tuak balia zitezkeela herri-basoetako zuraz».

Horrela, Plaza Berria, Iribaratzeta zeritzan lurretan egitean, hor hasiko ziren zezenak jokatzeko, baina ez Karnabal-festak; hauek, Idiakez Enparantzian, lehengo zaharrean jarraituko baitzuten joan den gizaldi erdira arte. 1802ko Inaute Asteartez, Plaza Zaharrean jasotako bi ohol-tza gainetan, Amezketa Zabala eta Fernando Amezketarra, Hernaniko Txabalategi eta Tolosako Altamira aritu ziren bertsoetan. Lau bertsolari eskolagabeon saioak oso atsegin izan zitzaizkien entzuleei.

1.2. Ostegun Gizenetik Hausterre eguna artekoa

Garai batetik hona behintzat, Ostegun Gizen egun pozgarri eta zaratatsu hori du atariko, eta azken muga, berriz, Hausterre egun goibela. Jai-aurreko egunetan ordea, haurrak izaten dira beren kalez kale alaitsuarekin Inauteri festen pregoilari. Ostegun Gizen, Ostiral Melar, Larunbat Erdipurdi, Igande Inauteri, Astelehen Inauteri, Astearte Inauteri, Asteazken Hausterre, eta Osteguneguz, eskolara berriz ere, erdal kanta-marmar hori, tolosar, eta jatorriz hala ez diren bertakotuentzat ongi ezaguna da. «Piñata» Igandea, noizbehinka ospatu dena, 1893tik aipatzen da. Inauterietan zehar, jan-edan bilerak erruz ugaltzen dira. Ostegun Gizenez, Tolosan, sukalde gutxi izango da txistor gabe-korik, eta orobat ogi txigortua azken-jakitza hartuko ez duenik.

Ostegun Gizen jaiaz gozatu ondoren, hor dator Ostiral Argal, atsedean hartzeko unea. Danborradak erantsi dio berebiziko jai-giroa Larunbat Erdipurdiko-ari. Agerkizun hau, berez, etorkina da izan, baina gaur egun Inaute festak

zeharo bereganatua du; oraintsu arte ez zen urtero egiten.



1896koa da Tolosan ezagutzen dugun lehendabiziko danborrada. Gure festetan gauza berria. «Lagun Artea» Biltokitik atera zen, Inaute Igandez goizeko zazpitan. Oso egoki, lerro-lerro igaro ziren, petrolio-latak astinduz Karnabal diana joz-edo.

1904koa, berebat, «Lagun Artea» Bazkunak beregain hartu zuen. Urte hartako Larunbat Erdipurdikoz Sarriegiren doinura goratuko zuten ikurrina Biltokiko balkoian. Hamabi barrilerok osatzen zuten taldea, eta bidegile-gudari sailak eta Herriko Musika Bandak, Zaldunita Igande goizeko seietan egin zuen ibilaldia.

1917koa Tolosako Kasino etxeak moldatu zuen, «Diapason» Musika Bandarekin. Danborrada honetan, Kasinotik aterako zirenetatik, ez lehenengoa eta ez azkenekoa, bazihoazen bi zaldun, jai-hotsegile maskaraz edo txantxoz jantzitako jende piloaren aurretik.

Danborradaren irteera-orduaz eta Karnabaletako musika bukaera-orduaz –gaueko hamarretan, alegia– oso eztabaida gogorak izaten ziren, herritar gehienen eta Agintaritzaren artean. Hitzeko borroka honek ekarri zuen azkenik bere ondorena, Idiakez Plazan, ertzain armatuekin gertatu bortizkerian.

1955az geroztik etengabe atera da, «Arco Iris», «Veleta» eta «Kabila» Soziedadeek eraturik, «Tolosako Danborrada Handia» deitua.

2. LANTZEKO INAUTERIAK

2.1. Pertsonaia nagusiak

Lantz, Nafarroako herrixka, Inauteriekin oso bat eginik agertzen zaigu. Urtero Lantzen Karnabalak egiten dira.

Miel Otxin edo *Mile Otxin* esaten zaio itxurakeria honetako erraldoi nabar-meneari. Erraldoi hori, bi pago-adarrez osatua da. Bata besoetarako, eta bestea, hankabikoa, soina eta zangoak osatzeko. Txano edo kapela buruan, kartoizko aurpegikoa, eta painelua lepoan. Brusa loretsuz jantzia, eta galtza urdinak gomazko polainetan bilduak. Goitik behera hiru bat metro, eta belar onduz eta garoz barrutik betea.

Xaldiko edo *Zaldiko*, zaldi-gizona da. Gaztea da, segalarien lasta-txapelez burua estalia, begitartea ikatzez belztua eta gerri-azpitik zurezko tramankulua, aurrealdean zaldi-burutxoa zutik duelarik. Atzealdetik zintzilik, benetako abere-isatsa dauka.

Tresneria horri, mutilak bi eskuekin heltzen dio, eta bizkarretik behera bularrean gurutzaturik daramatzan sokekin katigatua doa, eta gainetik estalki apainez hornitua, burualdea eta buztana bakarrik ageri dituela. Lantzeko *Xaldiko*



hau dugu hain zuzen, mito-ipuin zaharrari jarraiki, berez izan behar duena: basa-zaldia; eta berorren bizi-emaile doan morroskoak ahalik eta ongien eta bortizkien betetzen du bere egitekoa. Lantzeko itxurakeria horrek badu zerikusirik, noski, zuberotar maskaradetako *Zamaltzainarekin* behinik behin.

Ziripot izenekoa dugu itxurakeria honetako izakirik aldrebesena eta barregarriena. Buruan kapela, aurpegia estalia, eta gorputza belar eta iratzez trinkotutako zakuan sartua. Bere ibilera baldarrean makila du lagun. Erraldoiaren ondolik, *Xaldiko* eta *Ziripot*, ferratzaileak eta mozorrotuak, txatxo deituak. *Txatxo* ibiltzera ia herriko gazteria osoa atera ohi da.

2.2. Ibilbidea

Itxurakeria honen irtenlekua eta itzultokia ostatua da, enparantza aldera atea duena. Etxebizitzara, mailadi ilun eta zatar batetik igotzen da. Areto horretantxe ematen zaio jostaldiari hasiera. Arizkungo txistulariek ekiten diote soinu jotzeari eta txatxo edo mozorrotuek, dantzatzean, festa-giroa sortzen dute. Berehala ezkaratzean agertuko dira banaka-banaka, ferratzaileak beren pazia ketsuekin, txistulariak, *Miel Otxin* erraldoia atariko koska igaro ezinik, *Xaldiko* eta *Ziripot*; honek mailak jaisteko laguntza behar du. Eta, azkenik, harrapaka eta zalaparta bizian, zintzarriak joz, hor doaz txatxoak ere. Itxurakeria hau Gurutze Donearen karrikatik ateratzen da samaldan. Kale luzanga da, etxe zaharrez osatua, beren izen eta armari xakeztatuekin. *Miel Otxin* erraldoia, gazte baten besoko indarrari eskerrak ibiltzen eta dantzatzen dena, bere inguruko ikuskizunari irribarretsu begira dagoela dirudi. *Xaldikok* eraso bizian hor botatzen du *Ziripot* hankaz gora behin eta berriz. Txatxoak, oso itxuragabe jantzita, han dabilta oihuka eta irrintzika. *Ziripoti* laguntzen diote altxatzen eta *Xaldikoren* atzetik lasterka doaz.

Pantomima hau doan bideko toki jakinetan, ingudea jarri ohi dute. Horren gainean, ferratzaileek, pertz bat eta lanabesak eurekin dituztela, txatxoek harrapatu duten *Xaldiko* ferratzen dute. Lantzeko zeinu-jaiak eguerdiz du hasiera, esandako egunetan. Astearte arratsalde, ordea, *Xaldiko* eta *Ziripot* agertu gabe, *Miel Otxin* erraldoia plazara eraman eta bertan tiroz hiltzen dute, eta ondoren erre. Erre bitartean, txatxoek, herritar batzuekin zortzikoa dantzatzen dute; baina, Caro Barojak dioenez, Baztango mutil-dantza edo ingurutxoaren antz handiagoa du. *Miel Otxinek*, beraz, Zanpantzarrek eta Inauterietako beste panpin kidekoek jasan beharreko azken berbera du.

2.3. Egiazko eta gezurrezko gizakiak

Antzina, Erraldoiak ez zuen bere burua hain bakar eta baztertua ikusten itxurakeria amaitzean. Ohiturazko zen bukaera egitea ere; utzi egin behar izan zioten egiteari, askoren iritziz errespetu gutxikoa zelako edo. Honela omen zen: bi mutil, emakume-itxurazko soineko zuriz jantzirik. «Oso seriozki zihoazen, txatxo guztiek onartuak eta liburu bana irakurriz. Haien planta isil eta nahigabetua ikusirik, bazirudien Erraldoiaren ahaide hurbileko zirela eta heriotza-zigorrera laguntzen ziotela. Plazaratzean, neska hauek, egundoko izu-itxurak eta alarauak zegizkiten».

Miel Otxini ongi hiltzeko gertuera ere egiten zitzaion. Bekatu-aitorpen itxura eginarazten zioten, neskek Kristoren Nekaldia entzunarazten zioten, eta txatxoek, lurtean ahuspez, haren heriotza negar ahuenetan deitoratzen zuten.

Lantzeko itxurakeria honen amaiera hau dela eta, norbaitzuek, Nafarroa alde honetako bidelapur bati behinola emandako heriotza-zigorrarekin zerikusia duela diote. Bidebasle hori benetakoa da, zinez; Erraldoia, ordea, lehenagokoa izaki. Eta horiek horrela, ez da batere harritzeko bi gizaki horiek, bata egiazkoa eta bestea gezurrezkoa, herri-irudimenak nahasi eta bateratzea. Bidelapur hartatik har zezakeen, bai, Lantzeko Erraldoiak gaur egun duen bere izena.

3. ZALDUENDOKO INAUTERIAK

3.1. Prestaketak


Zalduendoko eskola-maisuari Ostegun Gizenez opari egiten zioten. Haur bakoitzak txistorra edo arrautza bi eskaintzeko ohitura zen. Egun horretako arratsalde, gazteak eta gizon ezkonduak meriendatzera biltzen ziren. Txistor egosia jaten zuten, harako esaera gogoan: *“Ostegun-Gizen zortziurrengo, ez duk zikirorik jango”*.

Larunbat gauetz gazteak ardandegian dute bilera. Bertan, afaririk gabe, mutil haziak batzartu eta euren buru izango dena aukeratzen dute, alegia Inauteri-festak eratu eta behar bezala zuzenduko dituen. Batzar horretan bertan izendatuko dute mutil-etxea ere, Inauteri bitarte guztian elkartuko diren tokia, eta bertan jan, mozorroz jantzi eta Astearte Inautez desegingo duten *Markitos* pampina antolatuko dute.

3.2. Hiru eguneko jaia

Igande Inaute jaia, arratsalde-berritan hasi ohi da, eta iluntzeko *«aimarita-koan»*, zazpiak aldean, bukatu. *Porreroak* arpilazko prakak zeramatzen, batzuk lasta-zorrotan sartuta agertzen ziren, eta bat edo beste emakume jantziz ere bai. Begitartea estaltzeko, gehienek kartoizko aurpegikoa zeramaten. Neska haziek mantoia edota lepoko painelua zuten egun horretako ezaugarri.

Porreroak aurpegi-agerian zebiltzan hiru eguneko erromeria alaitzeko; Zaldueñdon txistularia edo soinu-jolea ibili ohi zuten.



Astelen-Inaute biharamuneko gertuketan igaro ohi zuten. Txekorra hil eta panpinatzarra antolatzen. Metro t'erdi inguru bazuen. Zurezko hankabiko zutikakoa zeukan barrutik. Goialdean, zehar-makila batek egingo zuen besotakoa. Garoz betetako galtza zaharrak behetik gora. Azkenik, alkandora jantzen zioten, edozer koloretakoa, eta iratzez barrua betetzen. Gainetik jaka jantzi eta lapikoa ezarri burutzat, kartoizko aurpegikoarekin. Artilezko galzterdien gainetik larruzko abarkak, nahiz eta azkenaldi honetan horien ordeztuak jantzi.

Astearte-Inaute goiznabarrean, mutil gazteak mendira joaten ziren zuhaitz-abarrak moztera, gero herriko plazan metatzeko. Hurrena, mutilek, txistulari edo soinu-jolearekin kalez kalekoa egingo zuten. Gosari ostean, gazte bat jartzen zen asto gainean Markitos delakoa berekin harturik, eta txistua joz, gazteria ondotik zuela, karrketan zehar ibiltzen ziren. Eliz inguruan ematen zitzaion azkena ibilaldiari, zazpi/zortzi metroko haga batean gixontxo esekiz eta behealdetik lurrean egindako zuloan tinkatuz. Gero eskea zegiten. Arrautzaz, koipez, odolki eta ogiz ongi horniturik zihozten. Arratsaldean, gehienak elizkizunean zirela, gazteak porrero ateratzeko prestatzen arituko ziren.

3.3. Epaiketa

Garaia heltzean, idi-gurdia hartu eta, giza irudia utzitako zulotik atera eta karroan jarri zuten. Bertan zegoen nasa barruan ezkutaturik hizlaria, bere orduan agertuko zena. Manto gorria zuen, eta aurpegia ikatzez belztua. Epai-ketako sermolariak bere etorria eta trebetasuna erakusten zituen urte batek bestera gaia aldatuz. Inoiz, errazenera jota, irakurri egiten zuen.

Eskuratu ahal izan dugu 1889 eta 1934ko urteetan zuzendutakoa. Hona hemen laburpena:

Petrikilo jaunak dio, gizona, estutuz gero, tontoena ere azkar bihurtzen dela, bada ni, astoa baino burugogorragoa izanik ere, hara zer diotsuedan: Adiskideok!, jakin ezazue gaur, Petrikilo madarikatu hau, Galtxagorriren tabernara jaitsi dela, bere fama, bizitza eta diruarekin...

... baina zaudete pixka bat, gauzak esaten hasi aurretik mingaina busti dezadan, ardagaia baino lehorragoa baitaukat, ea horrela, huts egin gabe, itxurazko zerbait adierazten dizuedan.

Ez baita sermolari txarrik Errioxako ardo gorritz eztarria ongi ezkotuz gero, eta nik sabela freskatu eta lukainka muturra jan bitartean, erraza ezazue abemari bat nire izenean.

Eta orain bai, bapo zurrut eginda, prest nago kontu zaharrak kontatzeko. Zuek, bada, entzun arretaz, eta neska, mutil, atso, agureok, zabal kana-erdi bat zuen belarriak.

Gaur denok jakin behar duzue, Astearte-Inaute ospatu nahirik, nahasketa handi bat badugula matazaturik. Eta horrelakoetan onena, tira eta ateratzea izaten omen da.

Hala bada, erauziko haut nik ipurditik. Alde, alde, zoritxarreko; hirekin ez nauk errukituko. Hemen egin dik hireak, orain larrutik ordainduko dituk egindako gaitakeria guztiak...

Markitos delakoak, zentzugabeko prediku beldurgarri hura entzun eta gero, epaiturik gelditzen zen. Erruduna, bekataria, gurditik jaisten zuten, eta eztrandagarria sabelean jarri eta zuhaitz baten azpian leherrarazten zuten. Erromeria bukatutakoan mutil gazteak, alkate, txistulari eta ertzainarekin afaltzera bilduko ziren. Geroago, abarrei su eman eta haien argira, agoazilaren begiradapean, gauerdira arte dantzan. Urteren baten, Hausterre egunez, sardina ehorztea ere egin izan zen. Mutil batek zeraman sardina txapelari josia plazara. Han, sardina txapeletik kendu eta txuloan sartu. Inaute azken jaikizun honetara umeteria guzia bildu ohi zen, gazteak kantari zirela. Frantziskok dioenez, bazen burdin moldagaiaren lodiera neurtzeko beste handiago bat ere, gaur sutegitik norabait ezkutatua.

Jentilen istorioak

MUGARRIA BEHAR EZ BEZALA KENDU ZUEN BATI JENTILEK AHOLKUA EMAN

Baserritar batek mugarría, gurutze bat berekin zuena, behar ez bezala bere lekutik kendu eta leize-zulo batera bota zuen. Beste baserritar batzuk ohartu ziren txarkería hartaz eta adierazi zioten mugarría berriro behar zen lekuan jarri behar zuela.

Gizona estutu egin zen eta leize-zulora jaitsi zen harria jasotzeko asmoz. Leize-zulo honetan jentilak aurkitzen ziren, eta baserritarrak mugarría hartu zuenean gurutzea atzealdera zuela, honela esan zioten: *“Horrela ez, hartu harria bizkarrean gurutzea aurrean dela, bestela ez duzu eramango”*.



Baserritarrak jentilen esana egin eta mugarría bere lekuan jarri zuen.

JENTIL BATEN JOKAERA

Intzako Zapatandei izeneko baserrira jentil bat joaten zen, llehori ezize-nez ezagutua. llehori txikia zen, ez zuen hitzik egiten eta mahai azpian egoten zen ematen ziotena jaten. Baserriko sendiaren otordu aurreko errezoa entzutean, txistua botatzeari ekiten zion. Gaua etortzean, inor konturatu gabe, isilean ezkututzen zen bere lagunengana hurbilduz. Hau eguneroko jokaera zuen.

Jentilak ezkutuan bizi ziren eta behin batez artzain bat menditik etxerantz zihoala, jentilek beren gordelekutik honela esan zioten: *“Zapatandeiko lleho-*

riari esaiok Txirimirri hil dela". Artzainak eginbeharra bete zuen eta *Ilehori*, albiste hau entzutean, garrasi egin eta bat-batean betiko ezkutatu zen bere lagunengana bilduz. Jentil txiki haren arrastorik ez zen gehiago izan.

JENTILEN BIZIMODUAZ OHAR BATZUK

Jentilek Emaizko mendi gailurrean labea zuten ogia egiteko, eta horretarako Nafarroako Sakanatik ekartzen zuten irina. Jentil batek, hamasei zezenen larruarekin egindako zakua irinez betea leporatzen zuen, eta handiagoa ere ekarriko zuen bidean itxaroten jakin izan balu, jentilek ez baitzekiten atsedena hartzea zer zen.



Burdinaren berririk ez zuten eta honen ordez zura erabiltzen zuten. Zuraz zulatzen zuten haitzeko harri libreka, haren bizia harrapatu arte. Arrokan lortzen zuten haizpea beren bizilekua izango zen.

Sua egiten asmatu zuten bi egur hartu eta batak bestea berotuz. Lan hau neketsua zenez, sailak sutan jartzen zituzten. Ordu arte, janaria gordinik jaten zuten.

Behiak jezten ere ez zekiten eta esnea edateko, beren indarraren poderioz, ganadua hanka batetik altxatzen zuten eta errapetik edan. Artaldeak bazituzten eta artzaintzako ekintzari kasu egiten zioten. Hartziko labanarekin behor basatiak hiltzen zituzten, labana sorbaldatik sartuz. Labana haiek zortzina arroba pisatzen zuten, hau da, ehun kilo bakoitzak.

JENTIL GIZAJALEAK

Ataungo basoetan jentilak bizi ziren; jende gaztea eta umeak harrapatu eta gehiago ez ziren azaltzen. Herrian, jan egiten zituztela esaten zen. Atauen ezinbizia ezagutzen hasi ziren, biztanle guztiak beldurtuta zeudela.

Azkenean, indar armatua ekarri zuten, militarrek ekarri zituzten, eta hauek jentilen garbiketa egin zuten eta herria lasaitu.

JENTIL ONA ETA INDARTSUA

Ataungo basoan jentil indartsu bat bizi zen, gaiztakeriarik ez zuen jentila, bere indarra probatu nahi zuena.

Egun batean, herrira jaitsi zen, herri hartan indarrrik gehiena zuena zein ote zen galdetuz. Hau emakume bati galdetu zion eta honek adierazi zion

gizon indartsuena Patxi Errementaria zela. Jentila Patxi Errementariarengana joan zen borrokan egiteko asmoz. Errementariak pixka bat itxaroteko esan zion eta, orduan, sutan goritutako kurrikak hartu eta, atzealdean gordez, jentilarengana arrimatu zen, eta bat-batean, kurrika-kolpe batez sudurra moztu zion.

Jentil zauritu hau, Patxi Errementariaren atzetik abiatu zen, baina ez zuen harrapatu. Ondoren, jentila herrira joatea lotsatu egiten zen sudurra moztua zuelako, eta herritarrek berak basora joaten zitzaizkion bisita egitera.

JENTILAK LAINOAREKIN ADIERAZTEN DU KRISTOREN JAIOTZA

Garai batean lainorik ez zen, baina bat-batean, mendian bizilekua zuten jentilek bat ikusi zuten eta honi zer zen ez zioten antzematen. Horien buru, jentil zahar bat aurkitzen zen, betazalak erorita ezer ikusten ez zuena.

Adineko jentil honi galdetu zioten ea zer gertatzen zen, baina honek ezer ez zuela ikusten erantzun zien, eta betazalak altxatzeko. Nahi hau betetzeko laurogei arroako palanka erabili zuten, eta jentil zenak lainoa ikusi zuenean, honela egin zuen deiadar: *“Kristau Tximua sortu duk, ahal dena ahal den tokira ezkuta dadila”*.

JENTILA ETA ZAKURRA

Jentil zahar bat mendian bakardadean bizi zen eskuratzen zuen animalien haragi gordina jenez. Orduko, kolean jendea bizi zen eta bazuten jentil honen berri. Herritarren artean zakur handi eta indartsu bat zeukaten, eta honen nagusiak errepikatzen zuen behin eta berriz munduan ez zela esku huts bez bere zakurra menderatuko zuenik. Herri hartan bazekiten jentila indartsua zela eta hitz egitera joan ziren harengana eta herriko zakur handi eta indartsu bat menderatuko ote zuen galdetu zioten. Jentilak erantzun zien: *“Zakurrarekikoa egingo dut”*. Horretan ari zirela, herrira jaisteko jantzirik ez zeukala adierazi zuen, eta elizgizon handi baten abitua eman zioten; hau txiki geratzen zitzaion, baina, hala ere, fraidez jantzita agertu zen.

Plazan aulki bat eskatu zuen eta bertan eseri zen, belaun bat doblatua eta aurrealdera zuela. Nagusiari esan zioten zakurra jentilari botatzeko, eta honela egin zuen. Zakurra belaunetik heltzen hasi zitzaion, eta hozka egiteko ahoa ireki zuenean, jentilak atzaparrez heldu eta bi eskuekin ahoa txikitu zion. Zakurra akabatu egin zuen. Gauza bera gertatu omen zen zezen batekin ere.

JENTILA ETA LEHOIA

Jentil bakarti bat animalien artean bizi zen eta animalia hauen artean, lehoi bat aurkitzen zen. Lehoi hau, hankatik gaixotu zen eta jentilak lehoia

sendatu zuen, sartuta zeukan arantza atera egin baitzion. Kalean jendea bizi zen eta jentilaren inguruan ibiltzen ziren animaliek artaldeak jaten zizkieten; beraz, kaletarrek jentila eta animaliak harrapatu eta kanporatzea erabaki zuten.

Berehala bete zuten nahi hau. Jentila plazara eraman zuten eta lehoi bat bota zioten bera puskatzeko asmoz. Lehoia zalapartan atera zen jentila hiltzeko asmoz, baina ondoratu zenean begira geratu zitzaion eta baita ezagutu ere, bera baitzen hanka sendatu ziona. Jentilaren inguruan bi buelta eman zituen eta jentilak eskua bizkarrean jarri zion. Hau ikusita, kaletarren buru egiten zuena jentilari hurbildu zitzaion lehoiak ezagutzen ote zuen galdetuz, eta erantzun hau jaso zuen: *“lehoi hori nik bizirik atera nuen”*. Hori jakitean, jentila eta lehoia bizirik utzi zituzten.

JENTIL PALANKARIAK

Gure herri-kiroletan, palankariek, burdin barra botatzen zutenek, beren lekua eta garrantzia izan zuten. Umetan entzuten genuen gure aurrekoak nola mintzo ziren halako herriko palankariaz horren izena apustulari indartsu batekin uztartuz. Amezketako palankaririk onena Martiñe baserrian bizi zela esango dugu. Honen izena joan Manuel zen, gizon handia eta indartsua benetan. Bere palanka erabili ondoren, mantar zuritan garbitzeko ohitura zuen.

Amezketako Otaskarko mendi gaineko zuloetan jentilak bizi ziren eta kobatik ateratzen ziren bakoitzean, beren palankak eskuetan zeuzkatela, honela egiten zuten deiadar: *“Ahí va palanka, tira Salamanca”*. Palanka Jazku mendi gaineraino botatzen zuten. Jazku mendi hau, Tolosako Bedaio auzoan aurkitzen da.

Amezketako Artubi eta Zalegi mendi gaineko zuloak, jentilek egindakoak dira, bakoitzak bere palanka erabiliz. Jentil bakoitzak, bere palanka mendi hauen gailur batetik bestera botatzen zuen, bostehun bat metro bidean.

ORMAIZTEGIKO ZUBI BAT ETA JENTILAK

Ormaiztegiko zubi bat egiteko jentilak aukeratu zituzten. Lan hau gau batean amaitu behar zuten, eguna zabaltzerako. Jentil hauek asko ziren. Ilarran jartzen ziren eta Aralartik eskuz esku harria ekartzen zuten, batak beste-ari bere izenez deituaz. Eguna zabaltzearekin, bat-batean lanari utzi zioten eta guztiak beren bizilekura joan ziren, artean zubia bukatzeko harri bat jar-tzea falta zutenean.

JENTILAK BEREN BURUA DEFENDATZEN

Jentilak mendian bizi ziren eta kristauak, kaletarrek, harrapatu egin nahi zituzten. Jentilek, beretako bat zelatan jartzen zuten eta honek, kristauak hurbiltzean, adarra jotzen zuen. Adar-soinu honekin bere lagunei zer gertatzen zen adierazten zien.

Adarra entzun eta berehala mendi gailurrean biltzen ziren, eta kaletarrak aldapa gora hasten zirenean, prestatuta zeuzkaten harri handiak hartu eta pirika goitik behera botatzen zituzten. Honela kaletarrak hiltzen zituzten.

JENTIL INDARTSUA

Ernion jentil indartsu bat bizi zen eta palanka boteaz indarra agertu ordez, harriekin adierazten zituen bere dohaina eta indarra.

Jendeak bazuen jentil honen berri, eta beren arteko eztabaidak argitzeko, haren indarra probatu nahian, hurbildu egin zitzaizkion. Jentilari beren nahia azaldu ondoren, honek harri handi bat lurretik jaso eta bere bizilekutik, Ernio-tik, Aralarko Alotza mendiraino bota zuen. Ekintza honen lekukoei jentilak esan zien non aurkituko zuten botatako harria, eta baita esandako leku hartantxe aurkitu ere.



JENTIL INDARTSUA

Ama-seme jentilak elkarrekin bizi ziren. Sua pizteko behar zituen txotxak ekartzeko eskatu zion amak semeari. Hau abiatu zen amaren esana betetzera eta esku bakoitzean zuhaitz bana zituela itzuli zen amarengana. Semearen ekintza eta indarra ikusirik, ama harrituta geratu zen eta honela adierazi zion: “Zuhaitz horiek ez dute sua pizteko balio”, eta amak berak bildu zituen sua pizteko behar zituen txotxak.

AMA-SEME JENTILAK ETA HORIEN MORROIAK

Ama-seme jentilek hamalau morroi zituzten, jentilak hauek ere. Behin batean, amak semeari morroientzako bazkaria eman zion. Semeak, benetako jentil indartsua, janaria hartu zuen eta bidean zihoala, hamalau morroien otorduak berak jatea pentsatu zuen. Pentsatu eta jan. Morroiak gosetu egin ziren eta kexatu, eta bazkariarekin zer gertatzen zen amari esatera joan ziren. Andreak bazkaria semearekin bidali zuela erantzun zien, baina jentil morroiek berengana ez zela heldu erantzun zioten.

Amak semeari galdetu zion janariarekin zer egin zuen eta honek, goseak akabatuta zegoela eta berak jan zuela erantzun zion. Orduan, andreak jentilei jatekoa eman zien. Ondoren, seme jentila morroiek zenbat lan egin zuten ikustera hurbildu zen eta, horra, hamalau jentilek egun osoan egin zuten lana egiteko berak bi ordu nahikoa izan zituen.

EZKURRAKO JENTILAK

Ezkurrako beheko aldean, Errotalde izeneko parajea aurkitzen diren zuloetan jentilak bizi ziren. Egunez zulo hauetan gordetzen ziren eta gauez jan bila ateratzen ziren lapurreta egitera. Noizbehinka eguzkitan ageri ziren binaka elkarri burua garbitzen.

Beren etxean bizi ziren familiak oheratzean, tximiniatik barrena sukaldera sartzen ziren eta, batez ere, umeentzat prestaturiko ahia jaten zuten.

Baina gau haietako batean, etxeoandre bat konturatu zen zer gertatzen zen eta zartaginean zeukan olio frijitua lapur haietako bati aurpegira bota zion. Jentila bere bizi guztirako markatuta geratu zen. Jentil honen aurpegia ikustean, besteak haserretu egin ziren eta gaizto bihurtu ziren. Aurpegia erre-tako etxe hartara gauez itzuli ziren, baina oraingoan sarrerako atea jo eta beren esku-marka bat bertan utzi zuten. Etxe horren izena Amarrandegia da.

MARTIN-TXIKI ETA JENTILAK

San Martin maiz azaltzen da elezaharretan. Jose Migel Barandiaranek, besteak beste, jasoak ditu han-hemenka San Martin Txikiren gorabeherak basajaun batekiko edo besteekiko harremanetan.

Oraingo hau Leitzan kokatzen da. Jentilek bakarrik zekiten artoa ereiten eta Martin Txiki zen haiekin tratatzen zuen bakarra. Martin Txikik esan zien jentilei arto pila baten gainetik salto egin baietz ala ezetz apustu egin behar zutela. Apustu hau egiteko Martin Txikik abarka handi batzuk jantzi zituen.

Jentilak salto egin zuen arto pilaren gainetik eta Martin Txiki, berriz, arto gainean gelditu zen, abarkak artalez beteta. Salto egin ondoren, Martin Txikik alde egin zuen bizi-bizi, eta jentilak hori ikustean honela egin zion oihu:

“hazia badaramak, baina noiz ereiten den ez dakik”. Eta hori esan orduko aizkora bota zion, baina ez zuen Martin Txiki jotzen asmatu, gaztainondo bat jo baitzuen.

Martin Txiki etxeratu zen, hazia bazuen baina ez zekien noiz erein behar zen. Orduan pentsatu zuen andre zahar jentil bat ezagutzen zuela eta hark esango ziola. Martin Txiki bere mutil bat bidali zuen andre jentil honengana, artoa noiz ereiten zen galdetzeko, baina andreak ez zion argitasunik eman, marmarrean geratu zen.

Mutila etxetik atera zen baina bertan geratu zen alde egin gabe, zelatan leiho baten ondoan. Eta hara zer entzun zion andre zaharrari: *“Mutil eroa, saririk gabe jakin nahi huke artoa noiz ereiten den? San Isidrotan ereiten baduk, uzta izango duk bai...”*

Mutil zelatariak hala entzun zuen eta hala jakin zuen Martin Txiki artoa noiz ereiten den. Orduan hasi omen ziren euskaldunak artoa egiten.

Artoa bereganatu zuten baina ez zuten ehotzen asmatzen. Errotaren ardatza behin eta berriz erre egiten zitzairen, ez baitzekiten nolako ardatza egin behar zen. Berriz ere Martin Txiki jentilengana hurbildu eta hala adierazi zien: *“Ez zeukaagu errotarekin burukomin handirik, ondo ari gaituk errotarekin”*. Orduan jentilek erantzun zioten: *“Haltzarekin egindako ardatza jarriko zenuten eta”*. Horrela jakin zuten Euskal Herrian haltza zela ardatza egiteko behar bezalako zura.

HERRIKO MUTIL BATEK NESKA JENTIL BATEKIN HAURRA IZAN

Herriko mutil batek neska jentil batekin haurra izan zuen, eta hori jakitean, apaizak esan zion mutilari, jentilari haurra kentzeko. Jentilak lotan zuedela, mutilak haurra kendu zien, baina berehala konturatu ziren jentilak eta harrapatu nahian atzetik jarraitu zioten mutilari. Baina ez zuten nahi zutena lortu eta mutilak ihes egin zien haur eta guzti. Orduan etxeko ateari puñala sartu zioten, jentilak ez baitziren etxeko sarreratik aurrera pasatzen.



Neguko Festak

Festak berekin dakar eguneroko bizimodu arruntaren etena. Herri bat ezagutzeko –jakina, biztanleek osatzen dute herria–, hurbil gaitzezen bere festetara. Han, begiratzen asmatzen badugu, azalduko zaigu argi eta garbi herria nolakoa den, nola mugitzen den bere kezketan ekintza sozio-ekonomikoen barnean. Gizakia, aldi handi batean behinik behin, bere izaerari dagozkion instituzioak sortu ditu eta horien barruan bizi izan da. Hori nabari da lanean, heriotzaren inguruan sortu diren ohituretan, *auzoaren eta auzokoen* betebeharretan, festetan, *puska-biltzeko* ibileretan, dantza taldeetan, inauterietako pantomimetan eta abarretan.

Neguko festak izenburua darama honek, baina negua zerbait luzatu edo zabaldu egingo dugu. Azaroa ez da negua, baina neguko ospakizunetan sartzea egoki iruditu zaigu, *udazkeneko festak* entzutea ez baita oso gauza arrunta, eta beste aldetik, udazkena neguko sarreraren giltza baitugu. Horrela, bada, gure aurreneko urratsak azarotik abiatuz egingo ditugu. Baina bilduma hau ez da inondik ere neguko festen erakusle, gida edo antzeko zerbait, etnografi alorretik eginiko ospakizun batzuen ikuspegia baizik.

SANTU GUZTIEN EGUNA AIAKO ALTZOLAN

Santu Guztien arratsaldean, Aiako Altzola auzoan gazteen bilera egiten da. Santu Guztien eguneko arratsaldean Aiako Altzola auzoko mutil gazteak beren biltokian elkartzen ziren, *Mutil Ardoa* izena zuen elkartean hain zuzen ere, antzina *Etxerre* zeritzan baserrian, eta geroago *Moja-etxeko* tabernan.

Mutil Ardo batzar honetan aukeratzen zituzten *giltzero* izeneko biak, urtean zehar elkarteko arduradun izango zirenak. Honetarako kartak bi aldiz banatzen zituzten, eta bateko urria egokitzen zitzaiona *giltzero* izendatzen zuten, urtebeterako esan den bezala. Baina, gehienetan gazteek borondatez onartzen zuten *giltzero*-lana, eta ez zen izaten kartak banatu beharrik.

SAN MARTINAK ETA AMASAKO OILASKO-JOKOA

Azaroaren 11, San Martin eguna, Amasako jaiak. Herrixka polit honetan, parrokia santu beraren izenekoa da. Amasako festa berezia oilasko-jokoa izaten da.

Antzina, San Martin hirugarrenean egiten zuten joko hau; azken urte hauetan, festen barruan, ez dute egun jakinik; baina, hori bai, behin ere ez San Martin egunean. San Martin hirugarrenean edo oilasko-jokoa egiten den egunean, herriko bi gazte talde goizeko seietan *oilasko-biltzea* izeneko eskean ateratzen dira. Buruan txapela daramatela, gazte hauek brusa eta abarkak jantzita ateratzen dira. Talde bat harmonika txiki batekin, trikitixan erabiltzen denaren antzekoarekin ateratzen da, eta bestea txistulariek jotako doinua lagun dutela ibiltzen dira, bakoitzak bailara jakinean eskatuz.

Talde bakoitzak haga eramaten du, eta bertatik zintzilikatzen dituzte oilaskoak, hanketatik lotuta. Baserri eta kale-etxe batzuetan diruarekin erantzuten diote eskeari, eta beste baserri batzuetan hegaztiekin. Eskean dabilzan gazteen etxeetan oilasko batekin egiten diete ongi etorria, baita arratsaldeko dantzasokan atera behar duten neska gazteen bizitexetan ere.

Baserri guztietako ate aurrean mutilek dantzatzen zuten, eta dantza horretan etxeko emakumezkoek parte hartzen zuten. Oilaskoa hartzerakoan suziria botatzen zuten; oilanda edo dirua ematen zietenean hiru tiroko suziariarekin adierazten zuten. Oilaskorik ederrena Villabonako ospitalera opari bezala eramateko ohitura izan dela ere ez dugu ahaztuta utziko.

Amasako plazako lurrean kaxa jartzen dute, estalkia zulatuta duela; barruan hegaztia sartzen dute geroko oilasko-jokorako lepoa zulotik irteten zaiola. Ondoren, txistulari eta danborrero baten doinuekin mugituz, gazte batek begiak oihalaz estalita eta eskuetan ezpata daramala, oilaskoaren lepoa mozteari ekiten dio. Oilasko-jokoaren ondoren, Amasako plazan dantzasoka ateratzen dute eta erromeriarekin jarraitzen du festak.

EIBARREN GAZTAINERRE EGUNA

Gaztainerre jaia azaroaren 2an egiten da eta *Hildako Guztien* oroimenarekin lotuta dago. Elizako otoitzen ondorioa dugu *gaztainerre* erreak jatea. Hildakoen alde lehen egiten ziren ondorengo otorduen antzekoa. Horregatik, *Gaztainerre* beti egin izan da aipatu Hildako Guztien Egunaren bederatziruena amaitu ondorengo astelehenean.

Orain dela urte batzuk, emakumezkoek eta gizonezkoek norbere aldetik egiten zuten *Gaztainerre*. Emakumezkoak inguruko baserrietara joaten ziren, eta bertan meriendatzen zuten txorizo-tortilla eta gaztain erreak janez. Gizonezkoak, aldiz, ohiko tabernetan elkartzten ziren, eta *Gaztainerre* afarian, eta gaztainerre gain, barraskilo edo karakolak izaten zituzten.

Garai batean, 1936ko gerra aurretik, Astelena pilotalekuan dantzaldia antolatzen zuten egun honetan. Azken urteetan, galdu samartua da Gaztainerre ospakizuna.

SAN NIKOLAS VILLABONAN

Abenduaren 6an, San Nikolas eguna han-hemenka lurralde askotan ospatu izan zen edo ospatzen da. Gure artean, adibidez, Seguran. Gehienbat ume festa bezala ezagutzen dugu San Nikolas eguna. Ohitura honetan agertzen da argi eta garbi ordezeko nortasuna.

Villabonako neska-mutil koskorrak eskolako atsedendian eta bazkal garaian ibiltzen ziren eskean atez ate. Batzuetan bakarka, eta gehienetan, binaka eta hirunaka. Arratsalde ez zuten eskatzen, eta eskatzera ausartzen baziren, erantzun hau jasoko zuten: *“bukatu da San Nikolas”*. Mutil batzuen janzkerak obispoa edo gotzaina gogorarazten zuen. Kartoizko mitra antzekoa eramanez, kolore askotariko paperezko zerrendek apaintzen zuten gotzaina. San Nikolas eskean dirua, fruta edo goxoki batzuk ematen zituzten. Abesti ezagun eta zabaldu samar honekin agurtzen zuten atez ate jendea:

San Nicolás coronado / Obispo fue muy honrado / Ale, ale, alegría / Todo el mundo salvaría. / Aquí estamos tres / Cantamos dos / Una limosnita / Por amor de Dios / Angeles somos / Del cielo bajamos / Para Jesucristo / Dinero pedimos.

Ondoren, urtats edo aginaldoaren zain zeudela, batzuetan itxaropen handirik gabe gainera, abesti kuttun hau abesteari ekiten zioten:

*San Nikolas txikia
Zure ganbaran hazia
Zure ganbaran zer dago?
Andre Juana Maria.*

TOLOSAKO SANTA LUZIA EGUNA

Abenduaren 13a, Santa Luzia eguna. Bezpera arratsaldean edo ilunabarrean, mutil koskorrek, eskolako saioa amaitu ondoren, eskura zituzten metalezko tresna zahar baztertuak hartzen zituzten, eltzeak, pertzak, zartaginak eta abar, eta kalean zehar gora eta behera ibiltzen ziren, zalaparta bizian, ontzi soinu zaratsua atereaz, behin eta berriz, atsedetik hartu gabe, ondoko hau oihukatuz: *“Santa luvia, luvia, le, aguazilaren beldurrik gabe”*.

Festa-ohitura honek berekin zekartzan neurri gabeko gertakizunak. Behin, arratsalde ilun eta zalapartatsu haletako batean, udaltzain edo



aguazilari bizarra erre omen zioten, eta ondoren, ohitura hau baztertu egin zen. Hirurogeita hamarren bat urte izango dira abenduko ilunabarrean Tolosako kaleetan *Santa lubia, lubia, le, aguazilaren beldurrik gabe* entzun ez dela.

OLENTZERO ETA GABON SUA

Gure lurraldean su inguruan igarotzen ditugu. Suarekin eman izan zaio azken agurra urteari, eta antzina, neguko solstizioaren ohorez jai handiak egiten ziren, eguzkiaren jaiotza baitzen.

Gomentzago, Olantzaro, Olentzaro, Onentzaro, Onontzaro, Orantzaro, Orentzago, Orentzaro eta abarri buruz asko idatzi da. Adibidez Azkuek, Pio Barojak, Aita Eusebio Etxalarrek, Jose Maria Iribarrenek, Aita Donostiak, Jose Migel Barandiaranek, Manuel Lekuonak, Julio Caro Barojak, Satrustegik eta beste askok, baita garai zahar haietan Lope de Isastik ere. Hori adierazten digu Orixek *Euskaldunak* poeman:

*Begigorri ba dator aiton Olentzaro,
urteak egun ainbat begi ta bat geigo.
Gurdia aiñako sabel: aurpegi dena ago,
nondik nora sortu zan jakin gabe nago.*

Olentzaro ez da izan, azken urteak arte, Euskal Herri guztiko irudia, gizonaren irudimenak iruditu duena, baizik Beterrikoa –Goierriin, gutxi–, Bidasoa ingurukoa, Gipuzkoako itsasertzekoa eta euskal Nafarroa mendialdekoa batez ere. Egun Euskal Herri guztira iristen bada ere, lehen ez zen *Orantzarorekin* berdin gertatzen. Olentzaro su inguruan berotu zalea izan dugu, azkenaldi honetan kaletar samar bihurtu bazaigu ere.

1973. urtean Albizturko Odriozolaren ostatuko etxeoandreak esan zidan herriko *Olentzaro* tximiniatik etxera sartzen zalea zela, eta hori gerta ez zedin, umeen lasaitasunari begira, gau honetan, *Olentzaro* gauean, su handi eta ketsua pizteari ekiten ziotela. Hartara urruntzen zuten *Olentzaro*.


Bedaioko *Olentzaro* ezinbesteko behartsu eta apala zen, Tolosako auzo honetan jakitea izan nuenez. Larazetik zintzilikatzen zen. Arpillerazko zaku zaharra su gainean edo tximiniako kanpaiaren atzean jartzen zuten, hesterik gabe. Ke-haizeak geldiro zerbait mugituz gero, umeentzat beldurgarri gertatzen zen. Egun honetan, egun argitan, umeek abesten zuten: “*Olentzaro zabar, hik atorra zahar. Eguberri berri-berri, nik atorra berri*”.

Berastegin umeei esaten zieten Onentzaro etorriko zela tximiniatik barrera gauean oheratu nahi ez zutenei igitaiarekin lepoa moztera. Hau egiaztatzeko entzuna diot Borda Txuri baserriko etxeoandreaki –Amada Etxeberria Matxinea– bere familiakoek gutxiena uste zutenean, tximiniatik behera igitai bota izan zuela behin baino gehiagotan. Honela beldurtu izan ditu, bere seme-alabak aurrena, eta bilobak geroago.

Elduainen, gaztainak erretzeko danbolin soinuarekin uxatzen zuten Olentzaro beste baserrira. Lizartzan, berriz, Olantzarori ongi etorri egiteko prest egoten ziren. Olantzaro tximiniatik barrena etortzen zitzairen eta bere eserlekua gordetzen zioten, etxekoekin batera afaltzeko. Afaltzeko baratxuri-zopa eta bakailaoa izaten zuten beti. Umeez, berriz, eskaileretan gora eta behera korrika agertzen zuten beren poza. Jolas honi hanka-jokoa deitzen zioten.

Bestalde, gau honetan pizten zen *Gabon-supilla*, *Olentzaro trunkoa*, *Orantzaro enborra*, *Onantzaro gaubeko baztarrekoak* eta beste izen batzuk hartzen zituen enborra. Aiako Agerre baserriko etxejauna zen Manuel Maria Orbegozok esaten zuenez, herriko ohitura zabalduari jarraituz, Gabon ilunabarrean garraiatzen zuten, behi-pareak tirata, pago-burua edo pago-mozkorra etxeko sukaldera, eta hemen su ematen zioten arto-lokotxarekin. Pago-buruaren gainean matxarda jarrita erretzen zituzten afaltzeko zeuzkaten bisigua eta gaztainak. Afalondoan, pago-mozkorraren inguruan eserita, kafea eta pattar gorria eta zuria edanez, jarraitzen zuten Gabon giroa ospatzen. Behin ordu batz gero, etxekoandreak sua itzaliko zuten.

Zestoako *Txiri Boga* izeneko auzoan ere, Gabon ilunabarrean *Gabon-supilla* pizteko ohitura zuten, eta bere txingarretan erretzen zituzten afaltzeko bisiguak. Suaren arriskuari alde egiteko, oheratu aurretik Gabon-supilla sarrerako ate aurrera ateratzen zuten, eta hurrengo goizean berriro sukaldetan sartzen zuten. *Gabon-supilla* honek, Urtezahar eguna igaro arte irauten omen zuten. Su-baxua ezkutatu zenean ohitura hau ere ezkutatu edo galdu egin zen.



GABONETAKO AFARIA

Bedaioiko baserri gehienetan baratxuri-zopa, bakailaoa tomatearekin eta gaztaina erreak afaltzen zituzten, sagardo eta ardo, kafe eta pattar zuriarekin. Lasarteko *Soroeta Aundi* baserrian –egun desagertua–, Hernaniko partean dagoena, *Olentzaro* bezperan edo egun berean, goizetik, sendia arduratzen zen etxea, ukuilua, bertako ganadua eta etxe aurrea garbitzen. Honela izaten zuten baserrian Eguberri festa ospakizunaren sarrera. *Olen-*

tzaro afarian zera izaten zuten: olio-azak, bisigua, kapon arra –kapiroak gehiago balio izaten zuen eta Donostiako azokara eramaten zuten saltzera–, arroz-esnea, pikuak, sagardoa eta ardoa, kafea, pattar gorria eta zuria.

Orion, Balentin Ikatzeta Lertxundi ontzigileak esan zidanez, olio-azak, bakailaoa tortillan eta turroia. Errenteriako Zamalbide auzoan olio-azak, bisigua, oilaskoa, arroz-esnea, kafea, pattar zuria eta gorria. Oñatiko Zubillaga auzoan, Gabonetan afari hau egiten zuten, gehienbat: bakailaoa tomatearekin, intxaur-saltsa eta konpota. Urnietako *Gurutze Berri* baserrian, *Olentzaro* egunean zerri-hankak eta belarriak izaten zituzten afaltzeko. Gero zurrukutuna, baratxuri-zopa eta bakailao zipriztinduaz egina, mahaira ateratzeko orduan arrautza botata. Ondoren sagar eta aranez egindako konpota, kafea eta pattar zuria edo *ttotta*.

Zenbait herritan barraskiloak izaten dituzte Gabon gaueko afarian, adibidez, Astigarragan eta Hondarribian. Azken herri honetako arrantzale munduan, *Olentzaro* eguneko afaria karakolez, bakailaoz eta arrozelaz (bisigua) egiten dute, oilaskoarekin batera; ondoren konpota, aran eta piku lehorrez egina.



Nuarben, auzoko Pedro Pildainek 1973. urtean esan zidanez, gaueko afaria prestatzeko hiru edo lau pago-mozkor pizten zituzten lastoa erabiliz, lara-tzetik zintzilik kobrezko pertza jarrita. Afaltzeko, baratxuri-zopa eta bakailaoa –urtean zehar etxetik kanpora bizi den familiakoak ekarria, edo baserriaren nagusiak maizterrari emandakoa urteko errenta ordaintzean, usadioarekin konplitzeko–. Gero gaztainak, arroz-esnea eta ardotan sagarrez egindako konpota. Goizaldera baratxuri-zopa berriro ere, eta zurrakapotea, piku onduak eta kanela-zotza ardotan egosita. Familia batzuetan, *estapabua* jaten zuten, lapikoan egositako haragiari, irina eta tipula txikituaz egindako saltsa gehituaz. Beste baserri batzuetan, berriz, *buzkantza* izaten zuten afaltzeko. Oheratu aurretik, pago-mozkorak sutako hautsetan estaltzen zituzten.

URTEZAHARRA ETA URTEBERRIA

Hondarribiko baserritarrak Urtezaharra ospatzeko *Dios te Salbe* kantari ibiltzen dira eskean, atez ate. Ohiturazko abestiari kopleruak ematen dio hasiera, ondoren taldeak jarraitzeko:

Kopleruak:

*Alabatua, bedeinkatua
Pekatuaren mantxarrik gabe
Señora Kontzebitua*

*Zapata txuri paperez
Ebia danian baterez.
Nagusi jauna
Esan bezaigu
Hasiko geran ala ez.*

*Nagusi jaunak
Baietz, baietz dio eta
Nere lagunak
Dios te Salbe erantzun
Garbuarekin.*

*Au haiziaren epel-epela,
Aidian dabil orbela.
Etxe hontako familiari
Jainkuak gabon diela.*

Taldeak:

*Dios te Salbe
Ongi etorri
Gabon Jainkuak diela
Legiarekin kunpli dezagun
Urteberriaren bezperan.*

*Dios te Salbe
(...)*

*Dios te Salbe
(...)*

*Dios te Salbe
(...)*

Urtezaharreko afaria, Gabonetakoaren antzekoa izaten zen ia beti. Antzina, Nuarben otargile nagusiak beren langileekin biltzen ziren afaltzera, eta nagusiek ordaintzen zuten afaria. Urtezaharreko afari hau, hiru edo lau tabernatan egiten zuten.

Lasarteko *Soroeta Aundi* baserrian txalaparta joaz agurtzen zituzten Urtezaharra eta Urteberria, gauerdialdera. Baserri honetan bizi ziren Zuaznabar anaiek bikain erakusten zuten txalaparta jotzeko zuten trebetasuna. Baserriaren sarrerako ate aurrean jartzen ziren, eta sendiaren ohitura zaharrari jarraituz, etxekoren batek kalera begira idi-adarra hiru aldiz motzean joz, eta berehala, beste behin luzeagoan, adierazten zuen ondoren festa giroko txalaparta entzungo zela. Txalaparta *Olentzero* gauean ere jotzen zuten.

Urtezahar gauean, afaldu aurretik tximinia garbitzen zuten, eta egun berean kedarra baratxuri-landareari botatzen zioten. Urtezahar gauean, tximinia garbitzeko ohitura nahiko zabaldua dugu, batez ere, Nafarroa aldean. Tximinia garbitzeko, baserretza sorta soka luzeaz lotuta erabiltzen zuten. Arantzazu auzoko *Soroandiet*a baserriko etxejauna den Juan Urzelaik esanda, Urtezahar egunean *tximini ikusleak* ibiltzen omen ziren. Auzoko bi gizon edo mutil, txandaka, izaten ziren tximinia garbi zeuden ala ez ikusten zutenak. Arabako herri askotan zahagi eta zahato zaharrak erretzeko ohitura ere izaten zen, erre *puierre* esanez, batetik bestera, gora eta behera, sugar eta ke artean korrika.

Suaren inguruan ez dugu ahaztuko ura, Urteberriko *ur-berria*. Zuazon, herriko mutilak eskera ateratzen ziren, mutil nagusiaren etxetik. Zahato-ardoa

alaigarri, txarroan ur berria herriko iturritik hartua. Beren ohiko ibilaldian, atez ateko agurra izaten zuten:

*Urteberri, egun ona
Emen dakargu ur berrie,
Iriki ezazu atarie.
Etxe hontako etxeoandriak
Amabirjiña dirudi,
Iruri, iruri,
Amabirjiña dirudi.
Sentitzen zaitut sentitzen
Hasi zerala jaikitzen
Urdai zarrastakoa ebakitzen.*

Azken agurra baino lehen, urontzitxoia betetzen zioten eta eskaini. Antzeko ohitura zuten Udabe herrixkan.

ERREGE JAIA

Errege bezperako ohitura berezia, Euskal Herriko zenbait herritan behintzat, zintzarria jotzen ibiltzea izan da, eta baita etxez etxe jendea agurtuz eskean ibiltzea ere. Errege bezpera edo egunean, ohikoa izan da familiakoen artean kartak banatzea, eta egunerako Erregea eta Erregina izendatzea. Hauek, sinbolikoki, zerbait ordaintzera behartuta zeuden, Errege eta Erregina-rena eginez.

Tolosan bada Emeterio Arreseren abestia, Errege egunaren bezperarako jarria, Eduardo Mokoroaren musikaz abestu izan dena. Olerkiaren hasierak honela dio:

*Izar txuri-txuri bat
agertu da goyen
hau poxa!, laister dira
Erregiak hemen*

*Pitxi eder ta goxo
ekartzalle hoi
bidera gu, amatxo,
zurekin lenbailen*

*Goazen, goazen txit alai
Izaskun mendira,
argitasun polita
piztu dan tokira (bitan)*

*Agur, agur, agur
Errege zaldunak
Erregien errege
Gurtu nahi dutenak*

Hondarribian, Errege Egun goizean parrokiako hamarretako mezatan ofrenda egiteko ohitura zen. Aldare ondoan alkatea mahaiburu jartzen zen, eta emakumeek alkatearengana hurbildu eta mahai gainean norbere oparia uzten zuten, batez ere, opilak. Gero, ofrenda hau herriko ospitalera eramaten zuten. Orain dela hogeiren bat urte baztertu zen ohitura. Erdi Aroko berri batekin utziko ditugu Gabon aroko ospakizun eta ohiturak:

SAN ANTON

Urtarrilaren hamazazpian, San Anton eguna, bereziki aziendak bedeinkatzeko eguna. San Anton da azienda guztien patroia. Ikonografian, San Anton edo San Antonio Abad zerria oin ondoan duela azaltzen zaigu.

Berastegiko San Anton ermitan abere bedeinkatzea izaten da batez ere, abenduaren 13an Zumarragan Santa Luzia ferian erositakoa, apika. Meza aurretik, prozesioa egiten dute ermitaren jiran baserrietako gizon-emakumeek, kanpaia jotzarekin. Meza ondoren, ermitako atarian aziendei begira, apaizak bedeinkatu egiten ditu. Ondoren, baserritar bakoitza bere azienda hartu eta etxerantz abiatzen da, kanpai-soinua laguntzaile alai duela.

Nafarroako Zubieta herrian dagoen San Anton ermitan aziendak bedeinkatzen dituzte, astoak batez ere. Bedeinkatu ondoren, bi edo hiru bira ematen dizkiote ermitari aziendak hartuta. Egun honetan bedeinkatutako astoek ez zuten lanik egiten, jai baizik, eta pentsua ere egunerokoa halako bi ematen zieten: artaburu bi baten orde.



Errenteriako Zamalbide auzoan esan zidaten San Anton egunean artoa bedeinkatzen dela, ondoren artoa ganaduari emateko. Azken urteotan, bedeinkazioa auzoko elizan egiten da; lehenago, berriz, Errenteriako parrokiari.

Getarian, San Anton eguna jai egiten da. Goizean meza nagusia, Nekazarien Ermandadeak ateratakoa. Ondoren, bertsolariak Udaletxeko Plazan, bertan aurkitzen diren guztiek txakolina probatzeko aukera dutelarik, herriko uztadunek edo kosetxeroek eskainita. Jatorriz, festa honek nekazarien artean du bere sustraia; baina gaur egun, San Anton ospakizuna arrantzalegirokoa da, batez ere.

TOLOSAKO SAN BLAS EGUNA

Tolosako San Blas ermitaren inguruan, Kandelaria egunean ospatu ohi da festa bezpera, harmonika doinuaz dantza eginez, eta errokilak salduz. Mahai gainean, elizatxoaren inguruan, kordoi eta domina bedeinkatuak saltzen dituzte. Kordoi eta dominak jartzen zizkieten gurasoek umeei eztarriko mina uxatu edo sendatzeko.

San Blas egunez, gosaltzeko txokolatea bolatuarekin izaten zuten, batez ere erlikiaren ardura zuten apaizek; bazkaltzeko ere, ez zuten zerri-hanka faltarik izaten ermita-etxean. Meza nagusiaren aurretik eta ondoren, janari eta baserriko gaien bedeinkazioa izaten zen. Ondoren, erlikiari muin egitea. Antzina, apaizak izaten zuen ardura; azkeneko urteetan, erlikia aldarean egoten da, eta bertan egiten diote muin.

Baina San Blas ez da umeen eztarriko minaren aurkako zaindaria soilik, gizon-emakume guztiena ere bada, adin guztietakoena. Eztul egiten duenari San Blas esateko ohitura ezagutu dugu. Gainera, San Blas egunak badu bere izate alai, bere festa ospakizuna. San Blas izeneko elizatxoaren inguruan antolatzen dute dantza eta piper-opil salmenta, dei bereziaz adierazita: *bata, bia, hirua...*

Tolosako San Blas ermitaren inguruan, orain dela hirurogeita bosten bat urte arte, herriko gazteen ohitura, besteak beste, zankiñakan jolas egitekoa zen. Aiako Altzola auzoan, San Blas egunean baserri bakoitzak zituen ganadu-buru adina artaburu bedeinkatzen zituen. Ondoren, aziendei artaburu bana ematen zieten. Hala uxatzen zituzten gaixotasunak.

SANTA AGEDA

XIV. mende aldekoa omen da Santaren on-zaletasuna Elizan. Alegia, ez dela atzo goizeko ohitura! Eskean ibiltzeak leku batzuetan bizirik irauten du, beste batzuetan, aldiz, igarotako gauza bezala oroitzen dugu. Toki batzuetan, Santa Ageda eta Karnabalak edo Inauteriak, nahasian ospatu izan dira, egunaren egokitasunari begiratuta. Zenbait herritan, ez dute Santa Ageda bezperako ospakizunaren berririk ere.

Egun entzuten ez bada ere, Amezketako Elbarrena auzokoek orain dela berrogeita hamabost urte abesten zuten:

Santa Ageda bezpera, beti honela ez gera, elbarrendarrak atera gera eskera.

Eskeak, dozena bat arrautza, lukainka edo lau librako ogi biribila izaten zuen erantzuna, baserri bakoitzean. Biharamunean, eskean ibilitako gazteek jai egiten zuten, egunpasa, bildutakoari beharrezkoa erantsi eta bazkari-afariak eginez.

Tolosako Usabal auzoan Santa Ageda eskean nola abesten zuten oroitzen ziren: harmonika soinuaz eta ohiturazko makila zartadaz.

Kopleruak ematen zion hasiera:

*Galdetutzen det
Nagusi jauna da kanpoan
edo etxian
Berak nai dunen
Pasiatzen du zazpi
mulako kotxian.*

Kopleruak:

*Etxeko olluak bi
Bata beste dirudi.
Etxe hontako etxeoandriak
Amabirjiña dirudi.*

Taldeak jarraitu:

*Dios te Salbe
Ongi etorri

Gabon Jainkuak diela,
Legiarekin kunpli dezagun
Santa Ageda bezpera.*

Taldeak:

*Dios te Salbe
(...)*

Kopleruak:

*Baratzan daño txermena
Luzia eta lerdena
Etxekoandria kopla dezagun
Nagusiaren hurrena.*

Taldeak:

*Dios te Salbe
(...)*


Kopleruak:

*Gogotikan ari gera ta
Oraindikan ez degu etsiko
Lehena bazera eman gabe
Zuk ez gaituzu utziko.*

Taldeak:

*Dios te Salbe
(...)*

Taldea San Blas eta Usabal bailaretako gazteek osatzen zuten, eta abestia orain dela berrogeita hamabosten bat urtera arte kantatzen zuten. Bildutako sariarekin afaria egiten zuten tabernan hurrengo igandean.



Sorgin-Kontuak

1. SARRERA

Sorginak, gaueko iratxoak dira, gaua berena dute, berak lotsarik batere gabe noiznahi diotenez: «*gaua gauekoentzat, eta eguna egunekoentzat*». Sorginak deabruarekin hitzarmenetan ibili ohi dira, horren morrontzapean. Jokaera harrigarri antzaldatzen dira gutxien uste denean abere mota desberdinetan, haize-erauntsi zakarrean eta abarretan. Sorgina da gauzarik harrigarrienak egiteko ahalmen ezkutua duen izakia.

Ikuspegi orokorretik begiratzuz, sorginaz esan dezakegu, besteren ezak bizi dituela. «*Zuek asko ereiten duzuenean eta gutxi jaso, guk ugari biltzen dugu, eta zuek erruz baliatzen zaretenean berriz, gu urri ibili ohi gara*». Nafarroako Intza herriko sorginek bertako andre bati behin esan zioten bezala, “gu besteen ezezkotik bizi gara”.

Zenbait kontaerak, maiz aski, mendirantz garamatzate. Mendia zerurantz baitoa, besteak beste, Olinpo, Tabor eta Sinai mendiekin gertatzen den bezala. Baina mendiak leizera ere bagaramatza, bidegurutzera ere hurreratu gaitu noski, bizitza arrunta eta irudimenezkoa elkartzen diren gunehorretara.



Mendia, leizea eta bidegurutzea aipatu ondoren, kontakizun eta mitoetan zubiak duen garrantzia ere aipa dezagun. Zubia ez da igarobidea, giza kontrolatik at gertatzen den ustekabeko gauza miresgarri baten kokagunea baizik. Bere nortasun nabarmenagatik ez da ahaztu behar, kontaera eta mitoen zentzibait kultur alorretan, lanbideek duten eragina. Guri dagokigunez, liburu honean dakartzagun aipamenek, hori egiaztatzen dute, noski.

2. SORGINEN ISTORIOAK

2.1. Sorginak gazte bat gaixotu

Gabiria herriko Oñatibia baserrian jaioa zen amona Klara Damasak kontatzen zuenez, gazte bat oheratzen zen oilo-lumekin egindako bururdi baten gainean. Baina egunetik egunera, gaztea pisua galtzen ari zen eta itxuraz gaixo-tankera hartzen. Gauzak horrela, Olaberriko eliza nagusira joan zen eta hemen erretoreak Ebanjelioak atera zituen, honelako eta antzeko gertakizunetako ohiturari jarraituz.

Eliz arau hau bete ondoren eta apaizak gaztearen itxura kaskarra ikusirik, galdetu zion zeren gainean lo egiten zuen. Adierazitako bururdi baten gainean erantzutean, apaizak jakinarazi zion bururdi barruan hegazti bat aurkitzen zela, bere gaitzaren eragilea, eta hau desagertzeko bururdia Intxaurtxo izeneko bidegurutzera eraman eta hor erre egin behar zuela.

Auzokoen laguntzarekin, gazteak egin zuen apaizaren esana; bururdiaren erdian oilo bat aurkitu zuen. Makilatu ondoren, erre egin zuen hegaztia. Oilo hau sorgina zen. Orduzkerok, gazteak osasuna bereganatu zuen.

2.2. Sorginak eta zubia

Kontakizun honek zubia ezagutzen ez zeneko denboretara garamatza. Amezketako Loiola baserrikoek diotenez, erreka bat alde alde igartzeko bi soka edo burdinazko haria erabiltzen zituzten. Bata eskuz heltzeko eta beste hanken euskarri.

Hau honela, Andoaingo Sorabilla auzoan zubi baten nahia agertu zuten, eta hori sorginek jakin zutenean, langintza hartan ardura izango zuen nekazari-igeltseroarekin harremanetan berehala jarri ziren. Sorginek gizon honi proposatu zioten zubia berek egingo zutela, oilarraren kukurrukoa entzun baino lehen, igeltseroaren etxean aurrena jaioko zenaren truke. Igeltseroak ontzat hartu zuen proposamen hori, behia ume egiteko zeukala pentsatuz: *“Txekorra jaioko duk eta txekor baten gora beheगतatik ez zaidak axola handirik”*. Baina berehala ohartu zen andrea haurdu zuen zeukala, eta zer gertatzen zitzaion esanez, apaizarengana joan zen. Honek, gizon larrituari entzun ondoren, pertz bat urez bete eta ur honetan oilarra sartzeko esan zion.

Igeltseroak kasu egin zion apaizari, eta oilarrak uretatik atera orduko kukurruku egiteari ekin zion. Kukurruku hau entzutean, sorginek beren lana utzi eta korrika eta presaka alde egin zuten, zubia egitea lortu gabe. Zubia harri baten faltan gelditu zen.

Baina sorginak beren zarrapastran ez ziren isilik ezkutatu, honela deiadar eginez baizik: *“Ez garela eta bagarela; baina hamalau mila bagaituk. Labaiendik harria, eskuz esku”*. Ikusi zuten falta zen harria jartzeko zuloa, sorginek harriarentzat prestatuta zeukaten zuloa. Denboran zehar, harri hura zementuz tinkatu arren, behin eta berriz lurrera erortzen zen.

2.3. Sorginak eta zaldi zuria

Amezketako Iraregi baserriko etxeoandrea bere alabarekin eztabaidan ari zen oinez Tolosarantz abiatzera zihoala. Andre hura honela hitz eginez agurtu zen: *“Infernuko etsaiak eramango ahal hau zaldi zuri baten gainean”*.

Andrea etxera itzuli zenean hara non ikusten duen bere alaba sorginek daramatela zaldi zuri baten gainean. Gero, neska gazteak Larrunarri (Txindoki) izenarekin arrunt ezaguna den mendiko Mari Zulo leizearen sarreran bere burua azaltzen zuen.

Gauzak horrela, ama apaizarengana joan zen zer gertatzen zitzaion adieraztera, eta apaiza zulora joan zen honelako kasuetan gomendatzen den konjurua egiteko asmoz; baina alferrik, araoa egiteko ez baitzegoen apaiza behar den bezala prestatua. Neska gaztea, berehala, Mari Zulo leize barruan ezkutatu zen.



2.4. Sorgina eta morroia

Larraulgo baserri batean morroi zegoen baten nagusiak auzoko baserri batera joateko esan zion, hango gizona idi parearekin goldean laguntzeko libre ote zegoen galdetzera.

Morroia nagusiak bazekien baserri hartan bizilekua zuen amona sorgina zela eta bere mutilari adierazi zion amona hari nola zegoen begiratzeko. Morroia zakur handi batekin joan zen nagusiaren agindua betetzera, baita ikusi ere amona supazterrean nola zegoen eserita, geldi-geldi, hitzik egin gabe.

Bere eginkizuna bete ondoren, bere zakurrarekin etxerantz zihoala, hara non sortzen den berebiziko zalaparta, argi misteriotsuak alde batetik bestera

mugituz eta benetako haize zakarra. Morroia benetan beldurtuta geratu zen eta zakurra, zaunkarik egin gabe, isil-isilik, hura ere oso beldurtuta.

Etxera heldu orduko, argiak itzali eta haizea ezkutatu zen. Dena baretu eta normal jarri zen. Amona, sorgin bihurtuta, sorgintzan, zalaparta eta egoera harrigarriak sortuz, etxera bidean laguntzaile higuingarri izan zuten morroiak eta zakurrak.

2.5. Sorgina eta astoa

Amezketako Ezkorborro baserriko mutil bat Bedaiora zihoan gauetz bere andregaiarengana, makila eskuan zuela. Berak pasa behar zuen barruti batean, kontrario baten astoa larrean aurkitu zuen. Hau mutilaren pozgarri izan zen.

“Banuen gogoa asto hau harrapatzeko” pentsatuz aldi berean astoa bizkarrean makilatzen hasi zen.



Astoaren bizkarra pitzatu bazen ere, berehala lehenago bezala jarri zen, jiporrik hartu ez balu bezala. Honela, behin eta berriro. Halako batean erreka batera iritsi ziren eta erreka hartan sorginak lixiba jotzen ari ziren eta horietako batek honela hots egin zion mutilari: *“Maurizio, hator hona, bihurritzeko heldu maindire honi”*.

Mutilak heldu zion maindireari eta hau berehala ote bihurtu zen. Hori horrela, gazteak eskuetan mina hartu zuen eta deiadarka esan zuen: *“Hots! Hau ez duk maindirea, hau otea duk”*. Eta sorginak erantzun: *“Ez garela baina bagarela, ez garela baina bagarela...”*, eta honela esanez ezkutatu ziren, beren artean asto-tankerako hura ere han zela. Mutila esku urratu eta bustiekin geratu zen.

2.6. Sorgin lapurra

Baserri batean txerria hil zuten eta puskak egin ondoren, odolkiak, lukainkak eta abar falta izaten zirela konturatzen ziren. Etxeko ate eta leiho guztiak ixten zituzten, baina halere alferrik, lapurra ezin harrapatu.

Baserritar batek esan zien lapurra tximiniatik sartzen zitzaizela, sorgin bat izango zela eta tximini parean ontzi handi batean olio irakiten jartzeko. Hurrengo goizean baserriko sendia jaiki zenean, aldameneko amona harrapatu zuten garrasika oliotan.

2.7. Sorgina eta bere senarra

Senar-emazte bikote bat elkarrekin bizi zen. Gizona mozkorra eta andrea sorgina, biek eskandalu bizian igarotzen zituzten egunak. Gizona tabernara bere zaldiarekin joaten zen, gero etxera honen gainean itzultzeko. Andreak behin eta berriz deiar egiten zion, esanez, *“Egun batean ikusi behar dituzu gorriak”*.

Honela, behin batean gizona beti bezala tabernatik atera eta zaldi gainean jarri zen etxera bidean. Abiatu zenean, sorginak hiru zakur desberdinen itxurak harturik aurrean jarri zitzaizkion, zaldiari hozka eginez. Honela, zaldiak ezin zuen aurrera egin.

Gizona lurreratu eta zakurrak makilaz jo nahian hasi zen; baina beti alferrik, zakurrik ez zuen ukitzen. Honela bide guztian, etxeraino. Etxeko atean sartu orduko gizonak bere burua bota zuen eta ukuiluko ganadua, zakur zaunkak entzutean, kateak eten eta askatu egin zen.

Honelako batean, andreak bere gizona etzanda lurrean ikusirik, *“zer duzu?”* galdetu zion. Gizona ez zen erantzuteko gauza izan, zakur-sorginek eman zioten nahigabearengatik.

2.8. Sorgina zaldi-tankeran

Artzain batek bere semea, artzain-mutila, mendian egokitu eta makilaz astintzen zuen. Ilunean artzaina bazetorren menditik etxaldera eta bidean koska bat ikusi zuen, eta koska azpian zaldi bat aurkitzen zen behar den bezala antolatua.

Artzainak bazekien bere andrea sorgina zela, eta, zaldia ikusi zuenean, gizonak bere andrea izango zela pentsatu zuen eta honela esan zion: *“Hemen al hago orain ere, mila arraioa, hemen al hago...”*, eta makilarekin zirikatatu zuen. Ondoren, berehala, zaldiak alde egin zuen berebiziko haize-soinua rekin.

Artzaina etxera joan zen eta ez zuen hitzik egiten. Orduan, andreak, sorgina zenak, galdetu zion: *“Zer duk honela egoteko?”* eta gizonak erantzun: *“Zaldi jantzian, bidean zertan ibili haiz?”* eta andre sorginak erantzun: *“Berriz nire semea jotzen baduk, nik pentsatuko diat zer egin hirekin”*.

2.9. Esker oneko sorgina

Sorgin bat, gaua sorginkeriak eginez pasa ondoren, eguna zabaldu zuenean etzanda lurrean gelditu zen, indarrrik gabe, bere burua altxatzeko gauza ez zela. Bere ondora arrimatu zen bati laguntza eskatu zion baina honek, kasurik egin gabe, aurrera jarraitu zuen. Beste bat hurbildu zitzaion eta honi ere laguntza eskea egin zion.

Hau sorginaren ezagun bat zen eta lurretik altxatu zuen eta sorginak horrela erantzun zion: *“Zuk mesede bat egin didazu eta, egunen batean, koltxoi azpian alkandora eta galtza parea aurkituko dituzu”*.

Egun batzuk pasa ondoren, gizonak koltxoi azpian erreparatu zuen eta baita sorginak agindutako alkandora eta galtza parea aurkitu ere.

2.10. Sorginak, morroia eta akelarrea

Etxe batean, ama-alaba sorginak bizi ziren beren morroi gazte batekin. Gauetz, bi sorgin hauek mutila bakarrik utzi eta alde egiten zuten, eta, behin, horrela, morroiak zer gertatzen ote zen jakitea pentsatu zuen; horretarako zizeilu batean etzan eta lo-itxurak egiten jarri zen.

Hau honela ikusirik, alabak amari esan zion: *“Hori lo dago”*, eta amak erantzun: *“Ai, neska, mutilek tranpa asko izaten dinat! Jostorratza sartu behar zionagu”*.

Jostorratza sartu zioten baina mutilak lo-itxuran jarraitu zuen. Bi sorginak, pomada miragarriz gorputza igurtzi ondoren, tximiniatik gora atera ziren honela esanez: *“Hodei guztien azpitik eta sasi guztien gainetik”*.

Mutila saiatu zen gauza bera egitera, baina oker esan zuen: *“Hodei guztien gainetik eta sasi guztien azpitik”*. Honela aurpegi guztia odoletan zuela akelarre batera joan zen. Hemen sorgin bat txakolina ematen hasi zitzaion, eta mutilak, sorgina ezagutuz, honela agurtu zuen: *“Jesus, etxekoandrea, zu ere hemen!”*

Jesus izena entzutearekin, bat-batean sorgin guztiak alde egin eta ezkutatatu egin ziren, mutila bakardade osoan geldituz. Morroi gazte hark urteak igaro zituen herrira itzuli gabe.

2.11. Sorgina eta katua

Bedaioko mutil bat, auzo bereko Gurrpil Handia baserrira andregaiarengana joaten zen eta bidean aurrez aurre, beti katu beltz bat jartzen zitzaion. Gazteak akuilua eskuan zeraman eta honekin katuari kolpe bat eta bestea bota arren, ez zuen jotzen. Baina behin asmatu zuen eta katua betiko ezkutatatu zen. Hurrengo egunean, etxekoneko amona besoa hautsita azaldu zen.

2.12. Sorgina katu-itxuran

Sorginak ez dira zartadak pareka emanaz jipoitu behar, zenbaki bakoitzetik baizik.



Emakume batzuk lixiba jotzeko tokira joaten ziren. Lan hau egunez egiten zuten, baina oraingo honetan honela joaterik ez zuten izan eta gauez joan ziren. Iritsi ziren lixiba jotzeko tokira eta lixiba-harriaren aurrean katu bat aurkitu zuten. Haietako emakume batek, makilarekin kolpea tira zion katuari baina ez zuen jo. Orduan katuak esan zion: “*Berriz jo nazan*”.

Hau entzunik, emakumea katu sorgina zela, eta ez zela pareka jo behar konturatu zen. Lixiba jotzaile hark, ikaratuta, etxerako bidea hartu zuen.

2.13. Sorgin ardo-edaleak

Albiasu herriko Ertzatxo etxean, Alondei izenekoan, sorginak biltzen ziren sarrailaren giltza-zulotik sartuz. Alondei honetan ardoa aurkitzen zuten eta, sorginek, baita edan ere. Gauzak honela, beren buru zuten sorginak behin eta berriz adierazten zien beren lagunei Jesus hitza sekula ere ez esateko.

Gau batean, ardo ona edan ondoren, sorgin haietako bat deiadarka hasi zen esanez: “*Jesus, hau ardo ederra!*”. Hau entzunik, beste sorgin guztiek, sartutako bidetik, sarrailaren giltza-zulotik, alde egin zuten.

Hurrengo goizean, Alondei etxeko ardura zuenak sorgin bakar hura aurkitu zuen, sorgintzako dohaina galdu zuen sorgina izandakoa.

2.14. Sorginak etxean ez sartzeko

Otsagiko sendi bat bere ganaduarekin beti zoritxarrean bizi zen. Horiek horrela, nire berriemaileak etxe hartako sarreraren ate atzean, erratz bat burua gorantz zuela aurkitzen zuen beti. Etxekoandreaki galdetu zion zergatik ote zen ohitura hura, eta etxe hartako emakumeak sorginak uxatzeko jartzen zuela horrela erratza erantzun zion, etxetik urruntzeko eta ganaduari kalterik ez egiteko.

2.15. Sorgin espartingileak

Uskartze herriko neska gazteak Maulera joaten ziren espartingintzara, Zuberoako herri honetako neskak langintza honen atzetik zebiltzanean.

Mauleko neska haiei ez bazieten berek nahi zuten erantzuna ematen, balezkoa, espartingintzako lan tresna guztiak bat-batean gelditzen ziren, Mauleko neska haiek sorginak baitziren.

2.16. Sorgina haizearen tankeran

Gazte bat artzain-mutil egoten zen mendian, gauez etxera biltzen zela. Baina egun batean ez zen etxera itzuli. Gurasoak kezkatu ziren eta hurrengo

egunean mutilarengana joan ziren, zer gertatu zitzaion jakitera. Mutilak adierazi zien haizeak eraman zuela, etxera hurbiltzen uzten ez zion haizeak, baina lotarako txabola batean laguna aurkitu zuela eta lagun honek, sorgina zenak, esan ziola eskerrak lepoko katean medaila bat zeukana, bestela ez zela etxera itzuliko.

Gertakizun hau apaizari esan zioten eta honek meza bat atera zuen artzain-mutilaren onerako. Harrezkero, gazte hau gauero etxera itzultzen zen.

2.17. Sorginari aurpegia erre

Beheko sua zeukan sukalde batean, gauez emakume batzuk ariketan aritzen ziren, tximiniatik behera harri koskorak botatzen zizkietela.

Gertakizun hau adierazi zieten lagun batzuei, eta hauek tximiniatik gora ontzi batean olio irakina botatzeko esan zuten. Entzun bezala egin eta harri-botatzaile haietako bati –hauek denak sorginak ziren– aurpegia erre zioten. Hau honela ikusirik, beste sorginek zaurituari *“Nork zer egin din!”* deiar dar egin ez alde egin zuten.

2.18. Sorgina eta ikazkina

Matximentako gizon bat Lopia ezizenez ezagutzen zuten. Bere bizilekua Gogorzuzu baserria zuen, ogibidea, berriz, nekazaritza eta ikazkintza.



Egun batean, txondorra antolatu ondoren mantentzen ari zen. Halako batean, suak indarra hartu zion eta ezin menderaturik gertatu zen. Txondorra zulatu zen eta gure gizona betegarri baten barruan aurkitu zen, eta une honetan deiadarka hasi zen esanez: *“Niri laguntzeko ez al da sorginik edo infernuko demoniorik?”*

Berehala sorgin batek erantzun zuen: *“Lopia, zer neurritako egurra behar duk?”* Hau entzutearekin, txondorra zegoen bezala utzi eta azkar eta beldurturik etxerantz abiatu zen Lopia.

2.19. Gizon-katu bat eta liburua

Aiako Urdaneta auzoan aurkitzen den Otsarreta baserrian, lau neska gazte bizi ziren, eta hauek ezertaz jabetu gabe, auzoko gizon zahar samar bat gauero neska haien gelara sartzen zen katu bihurtuz. Neskak korrika hasi ziren batean, horien anaia batek eskopeta hartu eta tiro batzuk bota zituen

airera. Ondoren, gizon-katu hura, Errezabal baserrikoa, ez zen gehiago neskatara hurbildu.

Gero, auzoko emakumezko batzuek txerriak zaintzen zebilela ikusi zuten, eta andre haietako batek Errezabalgo etxeoandreaki txerri asko zeukatela adierazi zion, baina honek haren etxean txerririk ez zegoela erantzun zion. Gizona etxeratu zenean eta emazteak txerriekin zertan ote zebilen galdeztean, honek ezer ez zekiela erantzun zion, bakarrik liburu bat erosi zuela, eta hau irakurtzen hastean katu bihurtzen zela.

Gauzak horrela, andreak apaizarengana jo zuen eta honek liburua saltzeko esan zion. Liburua saldu zuenean, Errezabalgo gizonari sorgintzaren dohaina kendu zitzaion eta eroslea sorgin bihurtu zen.

2.20. Sorgina eta gizon-irulea

Baserri batean, sendia oheratzen zenean, bertako andrea sutondoan iruten gelditzen zen. Honela lanean ari zela, sorgin bat hurbiltzen zitzaion eta urdai pixka bat eskatzen zion eta iruten ari zenak eskatutakoa ematen zion. Esandako hau gauero gertatzen zen, baina egun batez, andre-iruleak bere senarrari gertatzen zena adierazi zion eta honek bere ordezkariaren lekuan iruten jarriko zela erantzun zion; eta esan eta egin. Iruteari ekin eta baita sorgina gauero bezala etorri ere.

Gizona andreakin arropak jantzita iruten ari zen, eta horrela ari zela ardatzak eskutik alde egiten zion, eta lurrera erortzean soinua kox, kox egiten zuen. Honela behin eta berriz, eta sorginak kox, kox entzutean, honela esaten zion: *“Lehenago farra, farra eta orain kox, kox, zu lehengoa al zara?”*, eta nagusiak erantzun zion: *“Bai, lehengoa naiz”*.

Halako batean, sorginak ohitura galdu gabe eskatu zion urdai pixka bat, eta iruten ari zenak urdaia ekarria zuen eta zartaginean botaz, ongi oliotan frijitu zuen eta berehala, zartagineko olio eta urdaia kiskaltzen zeudela, sorginaren aurpegira bota eta dena erre zuen. Biharamunean, auzoko etxeoandre bat aurpegia dena erreta azaldu zen.

2.21. Sorginak eta ume jaioberriak

Sorginak ume jaioberrien etxera joaten ziren gauetz eta *“Doministiku eta Jainkoak lagun”* ez bazuten entzuten, berekin eramaten zituzten. Hau honela, sorginek bazekiten etxe batean haurra jaiotzeko zela eta elkarri honela esaten zioten: *“Doministiku eta Jainkoak lagun esaten ez badute, haur hori guretzat”*.

Baina sorginek esandako hau, oilo-lapurretara joandako beste batek entzun zien. Haurra jaio zen eta sorginak eta zelataria bertan aurkitzen ziren eta sorginek atxis egin zuten. Berehala, gordeta zegoen zelatari izandakoak,

bazter batetik esan zuen: *“Doministiku eta jainkoak lagun, sekulan oilorik eramango ez badut ere”*. Hau entzutean, sorginek alde egin zuten beren nahia bete gabe.

2.22. Mutikoa, sorgina eta errotaria

Unanuan jaioa baina Uitzin hazitako Antonio Errazkin izenekoak zioenez, behin batez, ilunabar batean, behor batekin Lezetako errotara abiatu zen artoa ehotzera.

Azpirozko herria pasatu orduko, sorgin bat azaldu zitzaion emakume-tan-keran, kalparrak zintzilika eta itxura txarrean. Mutikoa benetan ikaratu eta hitzik egiteko gauza ez zela heldu zen errotara. Hemen, atea jotzeko kemenik gabe, behorak, horrelakoetan zer egin ikasia zena, bere beso batekin atea jo zuen. Berehala errotaria atera zen eta mutikoari honela esan zion: *“Badakit zer gertatzen zaizun, bidean sorgin bat atera zaizu eta hark ikaratu zaitu”*.

Errotariak afaria eta ohea eman zizkion mutikoari eta biharamunean, egu-
nez, irinarekin etxera bidali zuen.

2.23. Sorgina fraide-jantziz batetik bestera



Eliza ondoko etxe bateko alaba, beste herri batean ezkontuta bizi zen eta herriko festetan bere jaiotetxera biltzen zen. Urte haietako batean, festak heldu ziren eta neska, ohiturari jarraituz, bere etxera bildu zen.

Gaua zen neska hau leihora irten zenean zer eguraldi zegoen begiratzera. Honela leihoan zegoela, gizon-tankerako bat gora eta behera ikusten zuen airean ibiltzen behin eta berriz. Honelako batean, airean mugitzen zen hau leiho batetik elizan sartu zen. Gero, eliz barruan denbora pixka bat igaro ondoren, sartutako lekutik fraidez jantzita irten zen eta berriz ere gora eta behera ibiltzeari ekin zion.

Honelako batean, berriz ere elizan sartu zen, baina oraingoan, barruan denbora asko egin ondoren betiko leihotik atera zen eta haize soinu handi batekin, eta behera airean joanez, ezkutatu egin zen.

Udako Solstizioa San Joan bezpera

SARRERA

Udako solstizioaren inguruan ikusten eta ezagutzen diren errito askok bizirik dira, agerpen-erlijioso modura heldu zaizkigu, eta, jakina, izadi-adierazpenak dira. Superstizio, magia eta mitoaren pizgarri da udako solstizioa; hori guztia gertatzen da, bereziki suaren, uraren –gurgarri paganoak– eta landareen –zuhaitzaren gurtza– parte-hartzearekin. Gauza baten irudia eta horrek adierazten duena gauza bera badira, suak elkartzen gaitu eguzkiaren botere bizi-emailearekin. Gogoan izan behar da, bestalde, berez, izatez, suak duen garbikuntza-eginkizuna.

Garbikuntzaren izatasuna ageri da ekainaren 23ko gauean pizten den su gainetik jauzi egin aurretik agertzen den adore, irrika eta eskari-egoeretan. Gauza bera gertatzen da elkarrengandik urruti egiten diren beste su-ospakizun guztietan. Eskari bat da San Joan bezperako azken orduetan suaren inguruan egiten dena, eta, huskeria batzuk gorabehera, funtsean denetan berdin egiten da.

*San Joan, San Joan berde,
artoak eta gariak gorde,
lapurrak eta sorginak erre.
Biba San Joan berde!
(Elgeta)*

Sarri ekaineko su hau bidegurutzetan –esanahi desberdineko jokabideetan agertzen dena– eta inguruko tokirik nabarmenetan piztu izan da izpiritu gaizkileak uxatzeko; kontuan izan behar da, gainera, su honen kea azaleko gaitzen kontrakoa dela. Kaletarrek ere ez dute baztertzen suaren ospakizun hau. Tolosari dagokionez, hemeretzigarren mendeko egitarau batean hurrengo hau adierazten da: ilunabarreko 8etan Santuaren irudi aurrean suak piztuko dira. Ekainaren 23ko gauean sorginen eragina nabaria da, eta hori uxatzeko edo suntsitzeko bitarteko hauek erabili behar dira: sua egin, kale eta soroetatik barrera zintzarria joz ibili eta parrokiako ezkilak jo. Solstizio eta ekinozioetako jaiak Elizak kristautu egin zituen.

SAN JOAN: URA ETA ZUHAITZA

Ekainaren 23ko gaua laburra da eta jardunbide magikoaz beteta dago; berehala egiten dio agurra San Joan goizari. Orain ur guztiak bedeinkatuta daude eta eguzkia dantzan dabilela dirudi:

*Izar eder bat
Ateratzen da
Urtean egun batean.
Urtean egun batean
Eta ura San Joan goizean.*

Oro har, udako solstizioa aipatzen dugunean, ia beti San Joan Bataiatzailearen festarekin lotzen dugu eta ezin ditugu bazterrean utzi eguzkia, ura eta landareen presentzia, hau da, Izadia. Esan ere honelaxe esaten da: “*San Joane esku batean sua, bestean ura*”. Urari dagokionez horren indar sortzaileari erreparatuko diogu; suari so eginez, berriz, hortxe dugu eguzkiaren botere bizigarria. Beroa da bizitza, hotza heriotza. Ura eta eguzkiaren beroarekin batera, hortxe dugu landareen erresuma, etengabeko berrikuntza. Landareen emankortasuna eta berrikuntza, gizakion eta animalien emankortasun eta berrikuntzaren parekoa da.

Lotura estua izan du gizakiak zuhaitzarekin ala egiazko bizitzan ala mitologi arloan. Esan behar, bi elementu hauek askotan zailak direla bereizten. Jainkoak sortutako lurreko paradisuaren zuhaitz ugaritasun handia zegoen. Erdialdean *Onaren eta Okerraren Jakinduri* zuhaitza aurkitzen zen eta bere ondoan *Biziaren Arbola*.

Intxaurrondoak etxe aurrean zoritxarra dakarkio ganaduari. Otsailean artzainek ikusten badute birigarroa kantari zuhaitzaren adaburuan, eguraldi ona datorren seinalea da. Beheko adarretan ikusiz gero, berriz, eguraldi txarra izango da hurrengo egunetan. Hontza etxe inguruko zuhaitzetan ibiltzea zori gaiztokoa da eta norbaiten berehalako heriotzaren berri ematen digu edo arima nahigabaturen baten agerpena iragartzen du. Nabaria da arima nahigabetuek duten joera zuhaitz eta bidegurutzetarako. Zuhaitzaren bizia gizakia-rena baino luzeagoa da; mendiak bezalaxe zuhaitzak ere zerura begiratzen du, eta lotura du goiko munduarekin.

Badira oraindik San Joan Bataiatzailearen ospakizunean San Joan Arbola herriko tokirik ikusgarrienean eta jende gehien ibiltzen denean jartzen ardurtzen direnak. San Joan bezperan zuhaitzaren bitartez zenbait gaixotasun sendatzeko formulak eta antzekoak asko dira.



HAINBAT HERRITAKO SAN JOANAK

1. Beizamako San Joanak

San Joan Bataiatzailearen festari ekin baino lehen, aurreko asteari “San Joan bedeinkazioko astea” esaten zioten. Duela berrogeita hamar urte, Gipuzkoako herri honetan bi apaiz zeuden, bata erretorea eta bestea koajutorea, apaiz lagunkidea alegia. Horrela, garaia zenean, bakoitzak berari zegokion aldean, baserriak bedeinkatzen zituen –logelak eta sukaldea–, baita ukuilua eta ondoko lurak ere. Lan hori betetzeko apaizak akolito baten laguntza izaten zuen eta biei gosaria, bazkaria edo afaria ematen zitzairen, orduaren arabera. Gero, San Pedro jaiak ospatu baino lehen alabaina, Beizamako patroia horixe baita, baserri bakoitzetik oilaskoak edo kapoiak eramaten zizkioten apaizari bedeinkazio horiek zirela eta.

San Joan bezpera ailegatu baino egun batzuk aurretik, festako sua pizteko bertako mutil koskorrek laharak ekartzen zituzten arrastaka edo sarde puntan. San Joan bezperan arrosak, liliak, zinta-belarra, arto-landarea, galburua, babarrun-landarea eta gereziak biltzen zituzten eta horiekin guztiekin *San Joan sorta* edo *San Joan erramillatea* egiten saiatzen ziren; ezpata-belarek zertxobait gogortu eta, gero, zinta koloretsu batekin lotzen zuten. San Joan bezpera arratsaldean parrokiako kanpaiek jotzen zuten Abemaria edo *Amaikua* entzutean, sua pizten zuten eta bertan erretzen zuten aurreko urteko San Joan eguneko Meza Nagusian bedeinkatutako sorta, urte osoan gordetzen baitzen.

Plazaren erdian ikusten ziren eta oraindik ere ikusten diren sugarrek herriak ohiturari eusten diola erakusten digute. San Joan eguna argitu baino lehen, elorri eta lizar-adarrak hartu, mutur bat moztu eta erdian egindako zuloan sartzen zuten, gurutzea osatuz. Jarraian, etxe eta ukuiluetako sarreretan jartzen zituzten, ateetako bi aldeetan. San Joan eguneko Meza Nagusian aurreko eguneko sorta bedeinkatzen zuten, etxean lehortzen zuten eta hainbat gaixotasun sendatzeko balio izaten zuen. Familiako norbait gaixotzen bazen, sorta horretatik eskutada bat hartu, egosi eta horren lurrina gaizki zegoen gorputz zatira botatzen zuten.

2. Komunioi eta San Joan

San Joan egun goizean, Arabako herri honetako neska-mutilak San Joan iturrira joaten ziren, urak gaitzak sendatzen omen zituen-eta. Bertara ailegatu eta gero, bakoitzak bere potina edo upel txikia betetzen zuen, eta txokolatea jan eta dantza egiten zuen. Baina etxera garaiz itzultzen ziren, ur eta guzti, gero hamaiketako mezarara joateko. Urtean zehar meza ordu bete lehenago izaten zen.

3. Heredia - Narbaxako San Joanak

San Joan bezpera gauean zulo batera zenbait babarrun-ale botatzen zituzten eta hurrengo egunean, goizaldean, zuloa lurrez tapatzen zuten. Babarrun-ale horiek San Joan eguneko ihintz emankorra jasotzen zuten. San Joan bezperan edo egun bereko lehenengo orduetan Arabako herri horretako etxe bakoitzeko emakume batek arrosak eta malbak biltzen zituen. Horiekin sorta bat egiten zuten, gero San Joan eguneko mezan bedeinkatzeko. Sorta hori lehortzen uzten zuten. Arrosak begiko mina sendatzeko erabiltzen zituzten. Horretarako egosi egiten zituzten eta ur horretan bustitako gasa erabiliz, gaitzak hartutako aldea garbitzen zuten. Malba, aldiz, zaldien murmuia kentzeko erabiltzen zen. Horretarako landarea eta txingarrak ontzi batean jartzen zituzten, eta hortik ateratako lurruna zaldiari botatzen zioten, aurretik horren manta batez burua estaliz.

4. Iraizozko San Joanak

San Joan bezperan etxeko batek, edozeinek, San Joan belarrak biltzen zituen: iratzeak, lizar-hostoak, gaztainondo hostoak, intsusa-hostoak beren lorearekin eta elorri zuriak. Jarraian, aurreko urtean bedeinkatutako sortatik eskutada bat hartu eta gero, uzta-lurretan ibiltzen ziren, horrela eraunsi txarrrak uxatzen baitzituzten. Gogoan izan behar da tximistak ez duela elorri zuria jotzen.

Iluntzean etxe bakoitzeko lagunek San Joan sua pizten zuten kalean eta bertan erretzen zituzten aurreko urteko San Joan belarrez eginiko sortak. Su gainetik saltoka ibiltzen ziren zera oihukatuz: *“Sarna fuera, gaixtoak kanpora, onak barrenera”*. Suaren festa honetan denek esku hartzen zuten, gizon, emakume, neskato-mutiko, haur... edozeinek.

Anjelita Etxandik oraindik ere gogoan zuen bere amonak zioena. Etxetik atera ezinik zegoela, etxean bertan betetzen zuen San Joan bezperako erri-toa sukaldeko suan. Horretarako aurreko urtean bedeinkatutako sortatik eskutada bat sutara bota eta gero gainetik lehenik hanka bat eta gero beste pasatzen zuen, baina aipaturiko leloa errepikatuz: *“Sarna fuera, gaixtoak kanpora, onak barrenera”*.

San Joan eguneko goizeko zortzietan –azken urteotan, bezperan izan da, arratsaldean– aurreko egunean prestatutako sortak bedeinkatzera eramaten zituzten. Horretarako familia bakoitzak elizako atarian sorta edo zama bana uzten zuen. Gero, San Joan belarren eskutada bat jartzen zuten etxe bakoitzeko ateetan zeuden ferretan, edo leiho batean lotuta uzten zuten. Horrela tximistak ez zuen etxe hori joko.

Garia ereitean, sulfatoa erabili ordez, San Joan suan hartutako hausterea pertz batean biltzen zen eta haziarekin nahastuz, azaro aldean uzten erabiltzen zen. Urteak aurrera joan ahala, ohitura hori ahaztu egiten zuten.

5. Lizarraga - Ergoienan

San Joan bezperako festan gazteak plazan biltzen ziren arratsaldeko zorziak aldean eta San Joan suak pizten zituzten, bata herriko plazan bertan eta beste batzuk herrian zehar sakabanatuta. Horretarako, ezkutuka eskuratutako egurra erabiltzen dute, ohitura hori etxe guztietan ontzat ematen baituzten. Su gainetik salto egiten zuen batez ere gazte jendeak, eta sua apaltzen zenean etxe bakoitzeko amona zaharrek ere salto egiten zuten, honako abesti hau kantatuz: *“Ipurdian San Joan, salero pepero. Unanuko eta Dorrauko tripotak lehertzeko, baina Lizarragakoak ondo izateko”*.

Gazteen elkartean sartu ziren azkenak –hamazazpi edo hemezortzi urterekin sartzen ziren– ekainaren 23ko gauean lagunak edatera gonbidatu behar zituzten, bi pinta ardo bakoitzak alegia. Ardoa, aurretik enkante baten bidez aukeratutako tabernan hartzen zuten. Baldintza onenak eskaintzen zituen tabernak egun horietan *“Herriko taberna”* izatea lortzen zuen.

San Joan goizean amona zaharrek talo-burdinarekin suak utzitako txingarrak biltzen zituzten eta horiekin etxean sua pizten zuten. Gero, elorriari adar batzuk kendu eta etxeko atearen bi aldeetan jartzen zituzten, tximistaren aurka. San Joan goizean ere lore sorta bat eramaten zuten bedeinkatzera, *“lixuntxa loriak”*. Horiek lehortzen zirenean erre egiten zituzten.

6. Ozaeta eta San Joan Bataiatzailea

Arabako herri honetan festa nagusia San Joan Bataiatzailearen egunean ospatzen da. Egun horretako arratsalde partean, lehenengo orduetan, mutiak eskean ibiltzen ziren kalez kale diru bila. Akordeoiaren soinuz dirua biltzen saiatzen ziren festetan izan zitezkeen gastuei aurre egiteko. Neska ezkongaien etxeetan, neskek opila ematen zieten opari gisa. Opilak gero Hermua herriko San Pedro eguneko festetara joaten ziren familien eskuetan geratzen ziren. Beraz, San Joan eguneko eskean Ozaetan hartutako opilak, Hermuan meriendatzeko izaten ziren. Ohitura hori 1927an galdu zen.



Xisteragintza

Ez zaigu erraza jakiten lehenbiziko pilota-xistera noiz eta nola egin zen. *Historia, ciencia y código del juego de pelota* deritzan bere liburuan Luis Bombin-ek pilotari buruzko beste kontu askoren artean, tresna honetaz ere badio zerbait. Aintzat hartzekoak dira xisteraren sorrerari buruz berak ematen dituen aztarrenak.

Lehenbizikotzat *matxarda* aipatzen du eta gero Martin Larralderen aitorra dakar, alegia, bahearen uztaiaren erabiltzen omen zuten xisteratzat.

Blazy-ren *La pelote basque* aipatzen digu gero. Honek Ganix Halsonet-en aitorra dakarkigu. Senpereko mendizaina zen Ganix eta, hark zioenez, 1844an jaio zen Juan Dithurbide, izengoitiz «Gaintxiki Errementaria» zeritzana, izan zen pilota-xisteraren asmatzailea. Gaintxiki zelako honek, fruta biltzeko erabiltzen zuten xistera batekin bi edo hiru bider pilota bat jo omen zuten eta nahikoa izan omen zuten eskuzorro baten tankerako pilota-tresna bat zumitzez egin zitekeela ohartzeko. Horiek horrela, 1857n sortu zen xistera.

Lakarra azkaindarrak joan zen mendean eman zion xisterari, berritu eta, gaur egun duen tankera. Puntaz erabiltzen den xistera Errenteriako Meltxor Gurutzeagak asmatu zuen, 1888. urtean.

XISTERAK EGITEN

Xisterak lizarrezko uztarria eramaten du. Garai batean Jose Arruabarrenaren Astigarragako lantegian bertan egiten ziren, baina, orain, zurgin bati eginarazten zaizkio. Uztaiaren eta saihestasunak gaztainazkoak dira. Orain dela urte batzuk arte Goizuetako mendietatik ekartzen zuten gaztaina-txara; gaur egun, Nuarben biltzen dute. Uztaiaren ateratzeko zortzi bat urteko gaztaina-txara



erabiltzen da, azaroaren hasieratik urtarrilaren azkenera bitartean ebakia. Ilbeheran ebaki behar da, pipiak jo ez dezan.

Txara bakoitzari bost edo sei uztai ateratzen zaizkio. Horretarako, lehenbizi, aizkora batekin, ebaki bat egiten zaio mutur batean. Muturreko ebaki honetan makila bat sartu eta mailuka ebakitzen dute txara goitik beheraino. Gaur egun zurezko ziri batekin egiten dute lan hau.

Ondoren saski-asto edo aulkian lantzen da, behar den neurrira bildu arte. Uztai honen gaiak ehun eta laurogeitik ehun eta laurogeita hamar zentimetrora ditu luzean; zentimetro batetik bat eta erdira, berriz, lodian, erdian mehexeagoa dela. Aulkiko lana bukatu denean, jarleku txiki batean esertzen da eskulangilea, uztai erabat txukundua uzteko. Ondoren, ur berotan sartzen du eta hamabost bat minutuan biguntzen edukitzen du. Uretatik zurezko molde batera eramaten da eta bi muturrak uztarriari lotzen zaizkio, soka batekin.

Saihets-zumitzen prestaera ere uztaiarena bezalaxe egiten da. Moldea, ordea, ez da berdina. Hau burdinazkoa da eta hormari josia doa. Saihets-zumitz guziak ez dira berdinak, baina molde bat erabiltzen da. Erdiko zumitza zuzena da eta molde beharrik gabe antolatzen da. Zumitz hauek behar bezala uzteko, aulkian edo astoan lantzen da.

IZAGIRRETARRAK XISTERAGILE

Xisteragintzan luzaroan jardun duen familia dugu Izagirretarrena. Sebastian Izagirre Leunda, Urnietako «Subatzeta» baserrian jaio zen, 1868. urtean. Hamasei bat urte izango zituen otarregintzari ekin zionean. «Karrika» auzoko etxe batean zeukan bere lantegia eta kopa-zestoak eta asto-zestoak egiten zituen. Garai hartan herri guztietan ziren saskigileak. Geroago, urnietar batekin ezkondu zen eta Astigarragako «Okerra-enea» deritzan etxean ireki zuen bere lantegia. Ondoren, Astigarragatik irten gabe, Korreo karrikara aldatu zen «Bentatxo» deritzan etxera.

Urte haietan ugari ziren otarregileak; beraz, ez zen oso erraza langintza honetan dirua irabaztea. Baina ikusten zuen xisteragintza aurrera zihoala. Gero eta xistera gehiago behar zen eta xisteragileak ez ziren gehiegi. Beraz, lanbide honi heltzea otu zitzaion eta hor joan zen Azkainera.


Eskuratu zuen xistera bat eta sakonki aztertu. Berehala hasi zen xisteragintzan. Zumitza lantzen ohitua zenez, oso erraz sartu zen lanbide berri honetan. Izagirrek egindako lehenbiziko xisterak erbesterako izan ziren. Erostenak Astigarragatik urruti zeudela eta, hor joan zen Izagirre bera ere bere xisteraren atzetik. 1908an, Euskal Herria utzi eta Mexikora aldatu zen. Baina, gutxi iraun zuen Izagirrek Amerikan. Urtebete barru Astigarragako bere «Bentatxo»n zen berriro ere, baina, ez xisteragintzan, xisteragintzarako lan-gaia prestatzen baizik.

Sebastian Izagirre 1916an hil zen, eta bere seme Lorentxok jarraitu zuen haren lantegian. Lorentxok ere, bere aitak bezala egin zuen Amerika aldera. Xisteragintzan jardun zuen Mexikon, Astigarragatik bidaltzen zizkioten materialak erabiliz. Bere anaia Ixidrok zuen garai hartan Astigarragako lantegiaren ardura.

Lorentxo, ordea, gazterik hil zen eta Ixidro, orduan, Mexikora joan zen «Bentatxo»ko lantegia bere bi arreben esku utzita. Azkeneko hogeita hamahiru urte hauetan, Astigarragako «Tolarieta berri» deritzan etxean daukate Izagirretarrek beren lantegia. «Tolarieta berri», sagar usaina darion lantegi honetan, Jose Arruabarrena eta bere iloba Jose Maria Pagola Izagirre aritu dira azken urteotan. Arruabarrena, sasoi batean erremontista handia izana, Jesusa Izagirrerekin ezkondua dago.

OLAZABAL XISTERAGILEA

Olazabalek ere Astigarragako Izagirrenetik ekartzen ditu uztaia, uztarria eta saihets-zumitzak. Xisteragile honek aulkia, bi metxa, labana, eztena, mailua eta josteko makina erabiltzen ditu, besteak beste, lan-tresnatzat. Labanaz antolatzen du uztarria eta, gero, behar dituen txuloak egiten dizkio, txiki eta handi, horretarako behar diren metxak erabiliz. Bi zulo handi eta bost txiki daramatza uztarriak. Aulkian leuntzen ditu uztaia eta saihets-zumitzak.



Ondoren, behar den neurrian mozten du uztaia, uretan beratzen edukita gero. Zumitz batekin hartzen ditu neurriak. Pilotari aurrelariak erabiltzen duen xisterak ehun eta hirurogei zentimetro luzeko uztaia du eta atzelariarenak ehun eta laurogei zentimetrokoa. Uztaia bere neurrian ebaki ondoren, xisterari behar duen tankera ematen hasten da eskulangilea. Lan hau erraza da, gaztainondoaren zura biguna baita eskuetan erabiltzeko. Xisteran garrantzi handia du uztaiak. Esango genuke tresna honen bizkarrezurra dela.

Armazoia antolatu ondoren, uztarritik behera xistera hasten da. Uztarria bi zentimetro eta erdi da zabal eta hamabost luze. Hauek dira gehienbat erabiltzen diren neurriak, baina beste batzuk ere erabili ohi dira, pilotarien

gustura. Uztarriaren alde bakoitzean bi edo hiru zentimetroko belarria uzten da eta han doaz bi zulo handienak. Hauetan doaz uztaiaren bi muturrak iltze banaz josiak. Xistera-zoruari tankera emateko, uztaia jarri ondoren, zortzi alanbre eransten zaizkio. Zenbaki hau ez da beti bera. Alanbre hauek batetik bestera tarte jakina dute eta plantilla gisa erabiltzen dira. Gero, hamahiru saihsak jartzea dator.

Josketa, xixterak duen guztia bezala, eskulana da, eta honetarako eztena erabiltzen du xisteragileak. Xisteraren muturra, erraz hautsi ez dadin, kalamulokarri pikatuz indartzen du. Eskuak joan behar duen parean, oihal batekin estaltzen da xistera. Honetarako lau larru zati mehe, behatz tartekoak, sartzen dira makinaz josiak. Larru zati hauek pilotariaren eskuak agintzen duen neurrikoak behar dute izan. Eskuzorroa aurrena uztarriari josten zaio, eta gero izpi-ehunari. Langintza honetan xisteragileak ugalgin orratza erabiltzen du. Azkenik, larruzko mingaintxo bat doa uztarritik zintzilik. Mingain hau esku-muturra babesteko da, eskua behar bezala zaindua geldid dadin. Eskuzorro honek isats bat darama; goantearen txirrindara batean jaiotzen da. Eskua zinta bigun indartsu batez lotzen da. Zinta honek isatsetik uztarriaren bi belarrietan barrena biltzen du pilotariaren eskua, aipatu dugun mingainaren gainetik.

Aurrelariaren eta atzelariaren xisterak ez dira berdinak. Aurrelariaren xisteraren neurria, uztarriaren erditik muturraren erdiraino zuzenean hartuta, hirurogeita lau zentimetrokoa da; eta, atzelariarena, zoru handiago duena, hirurogeita bederatzikoa luzean. Erreboteko xisterak, aurrelariarentzat eginda-koak, berrogeita hamalau zentimetro ditu, eta atzelariarenak bi zentimetro gehiago.

Olazabalek, XX. mende hasieran, hogeitaz pezetan saltzen zuen xistera, nahiz puntakoa nahiz errebotekoa.